PRAI BARTOLOME SANTA TERESA

# EUSCAL-ERRIJETAKO OLGUEETA TA DANTZEEN NEURRIZCO GATZ-OZPINDUBA

Edizio kritikoa
**Luis Maria Mujika**

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIA
BILBAO 1986

La obra EUSCAL ERRIJETAKO OLGUEETA TA DANTZEEN NEURRIZCO GATZ-OZPINDUBA fue publicada en Pamplona en 1816. Su autor Fr. Bartolomé de Santa Teresa, religioso carmelita, nació en Markina-Etxebarria (Bizkaia) el año 1768. La obra está escrita en dialecto vizcaíno en la variedad oriental de Markina, aunque también con elementos de hablas vizcaínas más occidentales. Entre las diferentes obras de sermonarios publicados por Fr. Bartolomé de Santa Teresa ésta es, quizás, la más conocida y citada. Fr. Bartolomé recorrió el País Vasco como predicador. El estilo propio de los sermonarios, con frases de cierta amplitud y desarrollo, es fácil de constatar en esta obra. En cuanto al lenguaje lexical Fr. Bartolomé huye de purismos excesivos, acogiendo en su idioma multitud de voces románicas, desechadas por otros autores. Si bien, en la construcción de la frase, esto es en la sintaxis, el discurso del carmelita es, en líneas generales, de factura euskérica, en cuanto al vocabulario Fr. Bartolomé no tiene reparos en aceptar multitud de préstamos, que en algunos casos ni siquiera se adaptan al genio fonético vasco.

En conjunto, esta obra refleja gran dominio del dialecto vizcaíno, facilidad en la dicción, construcción de períodos largos. En esta edición crítica Luis M. Mujika trata de sugerir al lector aspectos de sintaxis, fonética y léxico peculiar de la obra en cuestión. Especialmente en el vocalismo la obra del carmelita resulta compleja, reflejando en parte, cierto status arcaico del idioma en algunos casos de geminación vocálica. El crítico sigue de cerca los fenómenos fonéticos en cada momento, destacando cuanto se refiere al desarrollo de las palabras en su proceso vocálico.

En cuanto al temario, la obra EUSCAL ERRIJETACO OLGUEETA... trata de dar una versión moralista sobre la situación de las diversiones y bailes en el País, y su planteamiento ético. En general, nuestro carmelita parece seguir una vía de rigorismo, llegando, a veces, a una expresión bastante detallada de situaciones.

Esta obra inserta en la colección «Euskararen Lekukoak» resulta imprescindible para un mejor conocimiento del dialecto literario vizcaíno y para el estudio del euskara a comienzos del siglo XIX.



(74 6758

EUSCAL-ERRIJETACO OLGUEETA TA DANTZEEN
NEURRIZCO GATZ-OZPINDUBA

Colección EUSKARAREN LEKUKOAK-12

PRAI BARTOLOME SANTA TERESA

# EUSCAL-ERRIJETACO OLGUEETA TA DANTZEEN NEURRIZCO GATZ-OZPINDUBA

**12**

Edizio kritikoa
**Luis Maria Mujika**

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIA
BILBAO 1986

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN
BABESPEAN ARGITARATUA

---

**PUBLICADO BAJO EL PATROCINIO DE LA**
**DIPUTACION FORAL DE VIZCAYA**

© REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA / EUSKALTZAINDIA
Ribera, 6 - 48005 Bilbo

I.S.B.N.: 84-85479-37-8
Depósito Legal BI: 814-1986

Maketazioa: R.B.

Fotokonposaketa: Ipar, kooperatiba elkartea
Part. de Zurbaran, 2-4. 48007 Bilbo

Amado moldiztegia
Mazarredo,35. 48009 Bilbo

# AURKIBIDEA

## Sarrera Teknikoa

I. **Prai Bartolome-ren bizitza-zertzeladak** .................................. 11

II. **Pentsaeraz ikuspegi zenbait** .................................. 15

III. **Morfologi Alderdiak** .................................. 21

1. Deklinabidearen islada zenbait .................................. 21
a) Datiboa, b) elatiboa, c) soziatiboa, d) posesiboa, e) destinatiboa, f) prolatiboa, g) ergatiboa, h) inexiboa, i) alatibo norabidezkoa.

2. Atzizkien arloa .................................. 25

a)-ARI, b)-GIN/KIN, c)-RO, d)-TO, e)-MENTU (MENDU), f)-KA, g)-TSU, h)-TEGI, i)-EZIA (ECIJA), -EZA, j)-ERIA/KERIA, k)-ERA, l)-ASUN/TASUN, ll)-DADE/DADIA/TADE, m)-GARRIA (-GARRIJA), n)-KIZUN (-IZUN), o)-OE/ZINOE/ZINOIA/SINO

3. Errotik berezitako atzizkiak .................................. 35
4. Eratorpenean partizipioaren euspena .................................. 36
5. Epentesien gorabehera atzizkietan .................................. 37
6. «A» itsasia edo organikoa duen hitz zenbait .................................. 38
7. LA/-NA konpletiboak Pr. Bartolome-rengan .................................. 42

IV. **Morfo-sintaxia** .................................. 45

1. Menpekoak + nagusiak (eta alderantziz) .................................. 47
2. Adbertsatiboak .................................. 48
3. Disiuntiboak .................................. 49
4. Kopulatiboak .................................. 49
5. Konparatiboak .................................. 49

6. Koordinadak orokorki .......... 49
7. Oihuzkoak edo exklamatiboak .......... 50
8. Kontzesiboak, adierazpenezkoak, etab. .......... 50
9. Erlatibozko perpausak .......... 50

V. **Fonetika alderdiak** .......... 53

A. KONTSONANTISMOA

1. S/z txistukarien alternantzia .......... 53
2. NS/NZ/RS taldeetan frikatizapena .......... 55
3. Biezpainkarien aldaketak, F/P .......... 56
4. Frikazioa NZ, RS, LS kasuetan .......... 58
5. Barneko ozendurak .......... 59
6. Bustidurak .......... 60
7. Disimilapenak .......... 61
8. Sinkopazioak TU/DU atzizki kasuan. Dardarkariaren erorketa .......... 61
9. Etimologismo fonetikoak .......... 63
10. Dardarkariaren aurretiko protesia .......... 63
11. Frikazio ez-ohizko zenbait .......... 64

B. BOKALISMOA

1. Wau erdikontsonantea .......... 65
2. Ua > oa .......... 68
3. Ue > oe .......... 68
4. Ia > ea .......... 69
5. Bokale bikoizturak (aa, ee, ii, uu) .......... 70
a) -ii bikoiztura.-ij(e), ij(a), ij(o)/ij(u) errealizazioak, b)-uu bikoiztura, c) -aa bikoiztura, d) -ee bikoiztura.
6. Apofonia .......... 76
7. Diptongapen arrotzak .......... 77

VI. **Ortografiari eta kerari dagozkien alde formal batzuk** .......... 79

1. Hitz-elkarketak .......... 79
2. Deselkarketak .......... 80
3. Marraren erabilera .......... 80
4. Grafema batzuen erabilera .......... 81
5. NP/NB ala MP/MB .......... 82
6. TC/TZ eta C/Z alternantziak .......... 82
7. X/S alternantzia .......... 83
8. J/G grafemak .......... 83
9. Inprenta-hutsak .......... 83

VII. **Lexikoa** .......... 85

VIII. **Aditz-forma zenbait** .......... 103

EDIZIO KRITIKOA

**JESUCRISTO GUERE JAUN CURUTZIAN JOSIJARI** .......... 107

I. **CAPITULUBA**

OLGUETIAREN GAINIAN .......... 111
1. Nos bait zetan, edo atan olguetia, naturaleciac escatuten davena, da .. 111
2. Errazuazco olgeetiac, ezdau eragozten Jaungoicua servidutia .......... 113
3. Cristinauba aleguere izatia ez da berez gauza chaarra .......... 116

II. **CAPITULUBA**

1. Jaungoicua opendidu bagaric, celan divertidu leitequian olgueetiaren parteti .......... 119
2. Jaungoicua opendidu bagaric, celan olgau leitequian, demporiaren parteti .......... 124

III. **CAPITULUBA**

AMAIJA .......... 127
1. Plaza-piestaraco gentia celan presteetan dan .......... 128
2. Plazaco piestia celan eguiten dan .......... 135
3. Escritura Sagradubac, eta Eleisiaren Gurasuac naasteco dantzaac gaiti dinuena .......... 141
4. Theologubac, ta Errazoiac naasteco dantzaac gaiti dinuana .......... 146

IV. **CAPITULUBA**

ERROMEDIJEN, BIGUIREN, TA SARAUBEEN GAINIAN
1. ¿Cer dirian Erromedijac? .......... 155
2. ¿Cer dirian Biguiraac? .......... 157
3. ¿Saraubac cer dirian? .......... 159

V. **CAPITULUBA**

DANTCEEN PAVORECO ERRAZOIAC, TA ERANTZUNAC

1. Dantzaac ain deungaac balira, quendu eguingo litzatequez ........... 168
2. Santo Tomasec dino: Dantzan eguitia berez ez dala pecatu ........... 176
3. San Francisco Salesec Philoteari ez eutsan guztiz eragotzi dantzan eguitia ........................................................ 177
4. Abadiac, eta Prailiac bere juaten dira piestara... Charrac balira ez litzaatequez juango ................................................ 180
5. Pieetestara, ta dantceetara juan arren, ezdot nic pecaturic eguiten..... 185
6. Dantceetan ez eze Eleisaan bere pecatu eguin legui, naidavenac. Ara bere ez juan ........................................................ 187
7. Gaztiac, cetan, edo atan olgau biar davee ........................... 189
8. Oba da alcarregaz Plazaan, edo Sarauban, edo Biguiraan olgueetia, ezcutubeeran gauza chaarraguac eguitia baino ....................... 191

UTS-EGUITEN EZAUBERIA ............................................. 195

# SARRERA TEKNIKOA

## I. PRAI BARTOLOME-REN BIZITZA-ZERTZELADAK

Laburki bada ere, Pr. Bartolome-ren zertzelada biografiko zenbait eman nahi genuke. Gure idazlea Markina ondoko Etxebarri herrixkan jaio zen 1768-ko abenduaren 21 -ean. Aita markinarra zuen, eta ama Elgoibartarra. Beraz, bai amaren eta bai aitaren aldetik bizkaieraren euskalki eremukoa. Aita Onaindia-k adierazten digu aiton-amonak eibartarrak zituela, eta horregatik batzuetan idazkietan *zu*-ren adizkera plurala erabiltzen zuela. (Ikus S. Onaindia: *Euskal Literatura II*, Ed. Etor 1973, 45 or).

Aita Pr. Bartolome-ren euskara, beraz, Markinako euskalkiaren joeretan sartzen da nagusiki. Jakina denez, Markina-ko euskaran yod erdikontsonanteak hitz barnean /š/ balioa du /c/ Arratiako subeuskalkietatik bereziz), eta bestalde gipuzkeraren fonetikaz ere ukitua datza (Deba-ibarreko euskara osoa gisa) haserako *j x* gisa (jat = xat) ahozkatuz, alegia, gaztelaniazko /j/ eztarkariaren gisa. Ala ere, Prai Bartolome-k baditu beste subeuskalkietako ukitu batzuk, batez ere, Gernikakoarenak.

Lexiko mailan Pr. Bartolome ez da azaltzen garbizalea inoiz; badirudi herri xeharen ñabardurak axola zaizkiola; horregatik hain estimagarriak zaizkigun fonetismoak bere obran zehar. Autore berak esaten digu: «Berbetia imini dot neure errikua, dakidana. Euskerako guztietati apainduena, ederrena ta eztitsuena izan ez arren, izan leiteke euskaldunen baztar batetik bestera, etxe guztietan dei eginda, iragota, zer nai daben, onduen zarrai ta gaztiai aituko deutsena ta adierazoko deutsena» (S. *Onaindiak* zitatua, ibidem, 55 or.) Ez da Mendiburu, Mogel ala Añibarro bezain sortzailea lexikografian. Erderakadak oparo sartzen ditu, eta maiz gure foneti-

karen galbaetik igaro gabe (*porpuertzacua, piestia,* etab.). Larramendismoak suposatu zuen garbizalekeriak etzuen ukitu gehienbat gure idazlea. Joskera edo sintaxia, bestalde, *adbertsatiboetan* ezik (*ezbada* juntagailuaz hasten dituenak), aski etxekoa dager, perpausen desarroiloan eta hedaduran (puntuaren erabileran azaltzen duen joera bitxia albora utzita) halako heldutasuna agertzen digularik.

Bere bitzitzaren hildoa jarraituz, gure karmeldarra 22 urte dituelarik Corella-ko komentuan profesa egiten dakusgu. Aurretiko ikasketak non egin zituen? Aita Onaindiak uste du balitekeela lehen ikasketak Lazkau-ko komentuan osatuak izatea. Iruñea eta Tudela-ko komentuetan osatu zituen filosofia eta teologiazko ikasketa gorenak.

Pr. Bartolome-k, Karmel-go ordenan ohitura zen bezala, sermolari-izendapena lortu zuen, eta gure herritxotatik zehar predikuak egiten ibili zen. Beraz, sermolari edo predikadore titulua bereganatu zuen Ordena barruan. Nahiz-eta prestaturik zeukan sermoi-liburu mardula ez argitaratu, ala ere, baditu beste liburutan argitara emandako sermoi bakan batzuk.

Gerora, Markina-ko komentuan ez-ezik, Sestao-koan ere dakusgu gure autorea. 1808 aldera Frantzesak Espainian sartu zirelaeta, Bilbo-ko frantzes gobernariak Jose Bonaparte-ren aurka propaganda egiteaz salatu zuen, eta gure frailea Markina-ko komentua utzi beharrean aurkitu zen, eta preso Bilbora eramana. Pr. Bartolome sermoiak egiteko eta aitorketak entzuteko baimenik gabe gelditu zen, eta bere jaioterrira erretorearen mende egotera etorri zen. Berriro fraileak (1813-an) Markina-ko komentura itzuli ahal izan zutenean Pr. Bartolome bertako arduradunen artean aurkitzen da, eta 1818-an komentuburu izatera iristen; 1821-ean Sestaoko komentura aldatzen da nagusi gisa. Gerora Santander eta Burgos-ko lurretan dabil; azkenik, 1836-ean hiltzen da Lazkau-n, bertako nobizioen maisu gisa.

Pr. Bartolome-k sermolari-titulua ez-ezik, idazlearena ere lortu zuen. Hori izan zen bere bultzagarrienetako bat idazkietan hainbat jarduteko. Bere obrarik ezagunena hemen komentagarri dugun *Euskal Errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba* izan zen, 1816 Iruñean Joaquin Domingo-ren inprimategian argitara emana. Beste obrak: *Jaungoicoaren amar Aguindubeetaco lenengo bosteen Icasiquizunac,* Iruña, 1816, 278 orriz, eta beste 30 orrizko sermoi-eraskin bat. Baita: *Jaungoicoaren amar Aguindubeetaco*

*azqueneco bosteen Icasiquizunac,* Iruña, 1917, 301 orriz. Eta gainera: *Eleisaco zazpi Sacramentuben Icasiquizunac,* Iruña 1819, 376 orriz. Azken hiru liburuok corpus nagusi bat osatzen dute.

Hauetaz gainera gaztelaniaz bi idazkitxo edo opuskulu argitaratu zituen: *Plauto bascongado o El bascuence de Plauto en su comedia «Poenulo»...,* 1826 urtekoa, eta *Anti-Plauto políglota o Defensa de Plauto Bascongado y de la impugnación del Manual de la lengua basca de Mr. Lécluse,* 1829 urtean. Bi idazkitxo hauetan gure fraileak Lécluse jaunarekin eduki zituen gorabeherak isladatzen dira. Tartean Juan Jose Mogel eta Iztueta Zaldibitarra ere azaltzen dira.

Pr. Bartolome-ren idazkera ia kritikari gehienengatik onetsia izan da idazkien bizitasuna, mugimendua eta herrikoitasunagatik. Ona Aita Onaindia-ren aitorra: «Berez zanari erantzuki, euskera indartsua darabil. Esaldiak, ez labur ez luze, ederki borobilduta, euskaldunari dagozkion sen eta giarrez beterik, edornork aise ulertzeko moduan barraiatuta. Izkera garbia, ez garbiegia. Idazkeran arin igartzen zaio noiz ari dan bere buruz eta noiz erdal libururen bat aurrean duelarik» (Ibidem, 58 or.) Bibliografia gisa ikus: *S. Onaindia.* «Aita Frai Bartolome, Euskal-Idazlea», in Euzko-Gogoa (1955) 87 ond.-IDEM Euskal Literatura II, 44-58 or.-*I. Omaetxebarria,* in Euskera (1959) 297 or.-*L. Akesolo* in BAP (1968) 357, (1970) 321 or.-*L. Mitxelena.* Historia de la Literatura Vasca, 111 or.-*L. Villasante.* Historia de la Literatura Vasca, Bilbao 1961, 229-233 or.-*M. Zarate.* Bizkai-ko euskal idazleak, 1970, 71 or.-*Luis Baraiazarra Karmel,* 1-1970, 34 or.[1] Baita kontutan edukitzekoak dira beste lan hauek: *Luis Baraiazarra.* «Karmeldar idazle biren urratsak». Karmel 1981-4. IDEM, «*Orma* urtetsuetatik kontu zaharrak». Karmel 1982-1.

[1] *Prai Bartolome*-ren obraren edizio kritiko honetan Luis Baraiazarra karmeldarrak bidali digun ohar zenbait erantsiko dugu han-hemen, bera baita gaur egun gure idazlearen ezagutzaile sakonenetako bat. Oharrak han-hemen tartekatuko ditugu irakurlearen gidagarri gisa. Eskerrik beroena gure karmeldar iaioari.

## II. PENTSAERAZ IKUSPEGI ZENBAIT

Pr. Bartolome-ren obran helburu nagusi bat nabarmen da, alegia, Euskal Herrian jaiegunetan bizirik zeuden dantza eta josteta aunitzen zabarkeria eta nasaikeria moztea. Ala ere, josteta horien nasaikeria neurtzea gaitza gertatzen da, batez ere, gaurko ikuspegitik, ezen-eta orduko gizartea, gaurkoarekin konparatuta, askosaz hertsiagoa baitzen. Ez da ahaztekoa, iparraldean batez ere, jantsenismoaren hertsitasuna bizirik egon zela, eta dibertsio edo jostetagiroa apriorismo moral hertsiez inguratua zegoela. Hegoaldean Mendiburu, Añibarro eta beste batzuk biziki ahaleginduko dira jaiegunetako dantzak kentzeko, ala gutienez, ematzeko. Delako dantzak garaiko sermoilari eta mixiolarien gaitzeskarri izanen ziren. «El Padre Bartolomé, al igual que otros misioneros y predicadores de la época, al igual que Mendiburu, Palacios y Añibarro, es enemigo de estos bailes por los excesos que con ocasión de ellos se cometen. En el libro del P. Bartolomé no faltan descripciones bastante realistas de lo que sucedía en dichos bailes y de todo el marco de circunstancias que rodeaban a las fiestas» (L. *Villasante*. Historia de la Literatura Vasca, op. cit. 230 or.).

Pr. Bartolome-ren joera moralista, gehienetan, etika mailan aitorketa-entzule edo konpesoreek har zezaketen bide tutioristan ageri da gailen; izan ere, moralaren eremuan bi jarraibide klasiko egon zitezkeen, bat *probabilista,* hau da, konfesatzeko unean pekatariaren alde probable zen oro hobesten zuena, eta bestea bide *tutiorista* edo hertsia, alegia, pekatariaren hobenak epaitzekoan bide gaiztoena eta osakorrena (lat. tutior) hartzen zuena. Pr. Bartolome-k dantzak epaitzerakoan azken bide hau hartzen duela dirudi aunitzetan. Bestalde, dantzen arrisku guztiak aldentzeko, arduraz,

olgantza eta jostakuntzen giroa tindu ezkorrez hartzen ditu edonon etsaia edo deabruaren asmo txarrak ikusiz. Dantzak direla-eta, ia obsesio bat gertatzen da gure autorearengan haragikeriaren gaitzepena. Horretarako, karmeldarrak pasarte bortitz, gordin, errealistak sortzen ditu han-hemen, olgeta guztien arriskuak gainezarriz[2].

Textuetara pasatu aurretik komeni da ikustea zein autore zitatzen duen gure markinarrak. Euskaldunetan, kurioski, Juan Antonio Mogel aipatzen du 93 orrian. Baita Pr. Francisco Palacios, bere «Contra Bailes» obra zitatuz. Belarmino kardenala behin eta berriz zitatua da. Baita Gerson, Pr. Diego de Cádiz, Ferraris, Elizako Gurasoen Artean San Agustin, 81 or., San Zipriano 80 or., Tertuliano, San Efren 79 or., San Ambrosio 138 or., San Juan Krisostomo 78 or. Erdi Arokoetan, bereziki, Santo Tomas Aquinotarra. Eta Santuetan San Karlos Milangoa, eta San Frantzisko Sales-koa. Autore hauen textu unitz bere tesi hertsi eta tutioristak probatzera dator.

Moralearen eremuan ematen ziren eskola eta jarrera desberdinen islada dira honako pasarte hauek: «Ezdago, Jaungoicuaren leguia eracusteco, uste onagaz plumia escuban artu davenic, ez *casuistaric,* ez *Provabilistaric,* celan eguiten dirian entzun ezquero, gueure placeetaco dantza naastaubac, pecatu mortalaren beeco ocasinoentzat emoten ezditubanic» (94 or.).

Pr. Bartolome-ren idazkiaren zehar misoginia bat agertzen dela esanen genuke, emakumea askotan deabruaren sugarri gisa azaltzen delarik. Inhibizioak, ezkutuko errepresio sexual baten ohiartzunak nabariak dira han-hemen, bai tindu apaletan eta bai tindu bortitzetan. Bestalde, teologiaren norabidean *azkenetakoen* edo *novisimoen* doktrina gaitza ispulutzen zaigu, infernuaren oihartzun gaiztoa garaile delarik edonon, bekatuaren zigorbide gisa. Beraz, teologia honetan urrun gaude sakramentarismo osakor baten norabidetik. Bekatuaren eta izuaren teologia da, nolabait, ardatza jokabide moralista honen pean. Beraz, bekatariak dantza okerrak eta lohikeriak (lohikeria horien erlatibismoa, gaurko ikuspuntutik begiratuta ikusirik) zigorragatik, infernuagatik utzi behar ditu. Bekatua bera (jokabide gisa baino gehiago) memento bakoitzeko egipen bezala interpretatzen da, akzio bakoitza (eta ez jokabideak)

---

[2] Puntu hau dela-eta hau dasaigu Baraiazarra-k: «Halabaina nire ustez ez litzateke zilegi prai Bartolome-ren erligio edo moral-pentsamoldea Vatikano II.aren argitan epaitzea. Hura, Trentoko Kontzilioar n garaikoa zen eta, ageri denez, Kontzilio hura du gidari eta argi emaile». Baliteke, beraz garrazkeria zenbait sermolari sutsu baten hizjarioa izatea.

zigorgarritzat emanaz. Ikuspegi guzti honek Pr. Bartolome-ren erakuspidea moralismo *kasuista* baten koordenadetan kokatzen du. Etika horretan, esan beharrik ez dago, ez datzala benetako orekarik grazia eta bekatuaren artean, bekatuaren presentzia guztikoa delarik, ez helmuga gisa bakarrik, baita ekinbide antzo ere. Haragikeriaren obsesioak, hots, seigarren aginduko ikusmira gehiegizko batek baldintzatzen ditu jokabide etiko guztiak oporraren eta olgantzaren alorrean. Bekatuaren arriskua garaile da edonon, eta arrisku horren ardurak legeztatzen ditu debeku eta ardura hertsi guztiak autorearen aldetik.

Pasa gaitezen textuak aztertzera.

Lehenengo honetan Pr. Bartolome-k dasaigu kontraesan handia dagoela Euskal Herri kristaua eta bere olgantzatako jokabideen artean. «Bada izanic euscal erriketaco gentia cristinautasun andicua euren tratu, artu emon, ta eguitade guztietan, dira chito nasaijaz euren olganzaco dantzeetan» (10 or.) Karmeldarraren egitekoa (obra hau idaztean) kontraesan hori argitan ezartzea izanen da.

Dantza zabarrak direla-eta, Pr. Bartolome-k *nesquia* eta *nescatillia* berezten ditu, *nescatillia* dantza nahasien parte hartzen ez duena delarik. «Ez modestijaric, ez onestidaderic, ezin emon leguijue eguiijazco errazoian *Nescatilliaren* izen ondrauba, ezbada (*sino,* joskeraz perpausa erromanikoa) nesquiaren izena. Ez jaco beliari usua esaten, ezbada (sino) belia» (51 or.).

Goiko bidea jarraituz gure herrietako kanta aunitz oso zabartzat jotzen du, haragikeriaren sua baino ez ikusirik. «Eureen Biguireetaco (lat. vigiliam) musica, ta canta indecente, ta odolberozailiac gaiti, ceintzuc (*los cuales,* hemen ere *erlatibo* erromanikoaren eragina joskeran) dirian luxurijaren azoguia, ta araguijaren sugarria» (118 or.).

Beraz, Pr. Bartolome-k ia dantza oro bekatuzko okasiotzat dauka, bere erakutsietan moralaren alorrean jarrera pesimista azalduz, behin eta berriz. «Begaz Plazaco, erromedijaco, biguiraco, ta Sarauco dantza naastubac, castidadiaren contraco pecatu mortala dirian gauza desonestubac, esateco, entzuteco, ta sentiduteco ocasinoe urrecuac dira» (121 or.) Ikusmira pesimista hau biziki zabaltzen da obran honen orritan zehar.

Kuriosoa gertatzen da, bestalde, edozein sermolarik bezala, textu sakratuak bere erara interpretatzeko kera berezia. Hona adibide bat interpretapen hertsi batez: «Eta zubec, compesore, ta peni-

tente guztioc alcarregaz impernuco dantzara juatia bere. Au da, alaco guztiai Espiritu Santubac esaten deutseena: Ducunt in bonis dies suos, et in puncto ad inferna descendunt». (178 or.) Eskriturako pasarte horrek ez dauka, nahitanahiez, hor emandako interpretapen zorrotzik.

Bide berdinatik, dantzatokia apezentzat bekatuzko okasio derriorrezko gisa ulertzen du; hemen ere bide hertsi, tutiorista. «An topauco dau, ezetara bere ezdala libreetan pecatu mortaleti, berarijaz piestetara, ta dantcetara olgueiatara doian Abadia, ez Praile» (174 or.) Bide tutiorista bera, garbiro, konfesioko barkamena ukatuz dantzetako asmoaz osoro garbaitu arte («Inoc alsolbidu ezin legui, eguinac garbatu, ta ez eguiteco asmua, edo propposituba artu artian»).

Dantza eta santutasuna guztiz kontrakoak dira Pr. Bartolomerentzat. Dantzak gehienetan, gaiztoak gertatzen dira, eta santuek ere dantza egin bazuten, etziren santu izan dantzaldietan. «Santubac ez cirian, dantzariac uste daveen moduban olgau. Ta inos olgau batzirian alan, ez Santu zirianian...» (190 or.) Pr. Bartolome-k, noski, ez du gaitzesten dantza oro, bainan, azken finean, bere makurrera pesimistaz dantza, sarao eta olgantza guztiekiko arbuio ukaezinak azaltzen ditu. Gure fraileak bekatuzko okasio hurbilekoa den oro baztertu nahi du, bide seguruena (via *tutior* edo osoena) jarraituz. «Gaztiac olgau biar davee; ta, olgau biar daveen ezquero, ezda pecatu izango, pedatu eguiten olgueetia. Guc a esatia, nai-leuquee Dantzazaliac» (192 or.). Eta berriro jarrera tutiorista horren ohiartzun garbia konfesore batzuen jokabide zabala *(probabilista)* gaitzestean: «Entzun dot, ta ez bein bacarric, (menturaz guzurra) Compesore batzuc emoten deutseela licencija gentiari, icentau dirian olgueetara juateco, *ondo ibili zaite* esanda. Au eguiija bada. Ezin aitu dot nic, celan da *ondo ibilte au*». (193). Garbi dago arriskuaren zantzuak deslegetzen duela, bada, neurri andi batean, beste konfesore batzuek —zabalkiago— bidezkotzat hartzen dutena. Pr. Bartolome-rentzat aitorketak egiterakoan ez daiteke eman bide tutioristatik aldentzen den aholkurik.

Orain ikus ditzagun Prai Bartolome-k (bere zelo santuaz eraginda) nasaikeriak gaitzezteko aurkezten dizkigun pasarte «ausart» berezi batzuk. Gure fraileak ohitura «gaiztoak» (bigirak, saraoak, dantzak) deskribatzean halako errealismo gordineko pasarte bitxiak eskaintzen dizkigu, euskararen eremuan ordurarte (agian, Detxepare eta herri literaturako poesia zenbait kenduta) ausartene-

takoak direnak. Ausartasun hori, noski, moralismo baten bidean hartu behar da (eta ez *sentsualismo* maltzur baten norabidean).

Hona textu zenbait. «Plazaco, erromedijaco, biguiraco, ta saraúco dantzaan, guizon, ta emacume naaste eguiten danian, beti dagoz verba loijac, escuca desonestubac, eguitade torpiac, menio lotsarizcuac, ta luxurijaren azalquerija ezainac» (120 or.).

Hurrengo pasartean deskribapena maila errealista bortitzagoan kokatzen da (eta zer esanik ez XIX-ngo euskal literaturaren eremuan): «Ezdinot ecer, araco bularrac, idunac (cuello), ta besuac aguirijan, edo guztiz aguirijan baino, araguijaren sugarrijago. Andiquijeen Biguirara daroezan andra, edo nesca loijac gaiti» (117 or.) Deskribapen hau, nahiz-eta idazlearen asmotan zuzenki sentsuala ez izan, zeharka ala gertatzen da, frailearen idazkerak hartzen duen errealismoagatik.

Beste bi textu hauetan ere isladapen «errealista» bera: «Guztiac, esan dan leguez, onestidadia galduteco ondo prestauta, escuz escu alcarri oratuta, naaste mutil biren erdijan nesca bat dala, noren seme, edo alaba dirian, asco gomuta ezdaveela» (66 or.), «Mosu eguiteco, ta oratuteco (agarrar) meniuac, ta oratutiac desonestubac (biak, bitxiki, *pluralearen* markaz, *-ac/ubac*). Gorputzaquin alcar jotiac desonestubac. Oinaquin magal jotiac desonestubac. Escu estututiac desonestubac...» (68 or.). Bestainbeste honetan: «Bestian pandanguan nos arpequijaquin, nos besuaquin, nos sabeleequin, nos albuaquin alcar ez joco, bai joco nesca, ta mutil, menio desonestubac, ta lotsarizcuac gueratu bagaric eguiten deutseezala alcarri» (67 or.).

Eta aspalditako gentilen ohiturak deskribatzean ere mintzo bortitz-errealista bera. «Venus loija ondreetaco. Guizon, ta emacume ordituta, biloxic ibilten cirian naaste, guztien aguirijan dantzan, ta edocein gauza loi eguiten» (142).

Alabainan, agian, pasarterik gordinenetakoa hurrengo hau litzateke, «bularrak jasota», «paparra aguirijan» eta besuak larrutsik azaltzen dituena; hemen ez da ari gure frailea Erromako gentilen ohituretaz, Euskal Herriko dantza eta saraotaz baino. Ala ere, ezin uka alde handia zegoela Euskal Herriko dantzaleku eta Erromako saraotegi haietatik. Gure karmeldarrak, agian, kasu extremuenak dakarzki. «Ezda orain ezer esaten araco, edo bularrac berarijaz jasota, edo armatuta, edo paparra aguirijan edo besuac bilosic, edo bilosic, baino ez asco obeto, daroiezan nesca, edo andraac gaiti. Dirianac diriala, coru loijagocuac dira oneec» (52-53 or.).

Hemen eman duguna ez da aztergai dugun obraren adierazpen labur eta adieragarri bat baino. Ekarritako textuek nabarmen ezartzen digute liburu honen nondik-norakoa pentsaera eta jarrera moralaren aldetik. Irakurlea, obra bera irakurriz, berehala konturatuko da goian esandakoen egiaz.

# III. MORFOLOGI-ALDERDIAK

## 1. Deklinabidearen islada zenbait

Morfologiaren eremuan komenigarri gerta daiteke deklinabide-formula zenbaiten egitatea ematea, kasu bakoitzak dituen gorabeherak hobeki konstatatzearren. Ez dugu, noski, deklinabide osoa aztertuko; kasu batzuk baino.

a) D*atiboa:* -ARI/AI/EI/RI/I

-ARI eta -AI izan daitezke singularrak. -EI, berriz, pluralea, bainan -AI formula, maizago pluralekoa da («Escatuten duseet (sic) guztiai: au iracurri, noberari ezbajuaco leguez»)[3]. Hona kasu zenbait:

DIRIANAI (plur.) «Sarrijago compeseeetan DIRIANAI, Eleisaco cer eguin Santubetara juaten dirianai», 53 or[4].

LAGUNAI (plur.) «Cartilla, edo liburu chiqui onetan LAGUNAI opa deutsedan prutu guichija?», 3 or.

CEURI (sing.) «¿Nori, Jauna, ceuri, baino besteri...», 3 or.

DANTZAI (plur.) «Naasteco dantzai beguiratu, tan, dantzarijac...», 11 or.

EMACUMIAI (plur.) «Catitu dagozan emacumaiai eragozten jacue dantzan bacarrik eguitia», 36 or.

---

[3] Baraiazarrak hau zehazten du: «mugagabean, lexema bokaleaz bukatzen denean, -RI, eta kontsonantez bukatzen denean -I. Pluraleko «-EI» formarik ez da agertzen idazle honengan».

[4] Hemen ematen den enumerazioak *Prai Bartolomeren* obraren orri-zenbakia adierazten du, liburu honetan idazkiaren saihetsean azaltzen dena. Zenbaki horrek edizio zaharreko, XIX. mendeko, orria adierazten du.

SUBARI (sing.) «Ixioquija subari urreratu bagaric bere», 47 or.
AREI (plur.) «Au itandu jacuen jaquitun Andi arei», 128 or.
ONAI (plur.) «Eleisa Santubaren oitura onai, euren gustoco...», 203 or.

b) *Elatiboa:* -TI/TIK/GANIK

-TIK/DIK elatiboa, gehienetan azken kontsonanterik gabe azaltzen da, hots, TI/DI gisa *(gustietati, inundi)*, eta hegoaldeko -GANDIC formula maiz -GANIC gisa, eta batzutan izenetik berezita -RIC arkaikoa azal daiteke noiz-noiz. *(à ganic)*. Hona kasu zenbait:

AREETATI «Ta areetati ascoc biar leuqueen baino...», 48 or. «Areetati naijeen eveena zan Comedija, Sarauba», 145 or.
À GANIC «Auda, Santu andi à ganic dantzaarijac ateraten daben contuba», 160 or.
INUNDI «Inundi bere ez. Inoc bere ez», 129 or.

c) *Soziatiboa:* -KIN eta -GAZ

Jakina denez, gipuzkera eta bizkaieraren eremutan nahasketa gertatzen da soziatiboaren eta instrumentalaren eremuetan. Nahizeta bizkaierak, nagusiki, -GAZ/KAZ formulara jo bi kontzeptu horietarako, eta gipuzkerak, berriz, -KIN-era (Antonio-rekin *soziatiboa,* mailluarekin ins*trumentala),* ala ere, Markina-ko euskarak ezagutzen du -KIN deklinatiboaren erabilpena esangura instrumentalez, eta, noski, soziatiboz ere. Hona esandakoaren islada:

ERACUSLAQUIN (soziatiboa) «Au gaiti beste bagaric, dino San Carlos... Santo Tomas, ta beste Eracuslaquin», 132 or.
ARPEGUIJAQUIN (instrumentala) «Bestian pandanguan nos arpeguijaquin, nos besuaquin, nos sabeleequin, nos albuaquin alcar ez joco», 67 or.
CHAARREQUIN (soziatiboa) «Beste desonestidade guztia umiac erabili arren adisquide chaarrequin», 59 or.
ESCUBAQUIN (instrumentala) «Escubaquin, veguijaquin, ta arpeguico geriagaz....», 65 or.
ODOLTSUBAQUIN (instrumentala) «Soldau aldraac sartuten cirian ezpata odoltsubaquin errijeetan», 145 or.

Orain ikus ditzagun -GAZ/KAZ deklinatiboaren alternantziak. Hala ere, Prai Bartolomek soziatibo gisa pluralean beti QUIN

atzizkia erabiliko du, mendebaleko bizkaiera gehienean ez bezala. Esangura soziatiboz, garbiro, *alcarre*GAZ hitza.

ZINTZUENAGAZ (instrumentala) «Ta vijotceco gogoric zintzuenagaz», 5 or.
USTIAGAZ (instrumentala) «Ceuc ondo daquizun ustiagaz, ta neure arimaco...», 5 or.
ALCARREGAZ (soziatiboa) «Emacumiac alcarregaz guizonezco bagaric dantzan», 35 or.
SOINUBAGAZ (instrumentala) «Soinubagaz, ta dantziagaz eguitenda piestia, sarauba, biguiria...», 33 or.
PENIAGAZ (instrumentala) «Ta juan ezin dalaco peniagaz gueratuten danac», 46 or.

Badirudi -GAZ gehienetan mugatu singularrean darabilela, eta -QUIN pluraletan[5].

d) *Posesiboa:* -REN/EN/EEN

Prai Bartolomek pluraletan bokaleen bikoiztura ohizkora joko du, nahiz hitza *e* bokaleaz ez amaitu; *e* bokalea dutenen kasutan, noski, bikoiztura (inocenteen, 107), sortuko da, bainan baita, normalki, apofonia egiten dutenen kasu batzutan (hala nola, *eracusleen,* nahiz-eta *eracusla* gisa erabili singularrean). Apofoniaren arazoa beste toki batean.

GAZTETASUNAREN «Gaztetasunaren subari ezarten deutsazu ardauaren suba», 90 or.
LUXURIJAREN «Naasteco dantzia luxurijaren biztugarrija», 91 or.
INOCENTEEN «Ta ibiltera juatia, inocenteen bat ezbada», 107 or.
ERACUSLEEN «Leenagoco Eracusleen esan era guztiac bardinduta», 90 or.

e) *Destinatiboa:* -ENTZAT/-RENTZAT

ARENTZAT singularra da; -(E)ENTZAT pluralea.
CRISTINAUBARENTZAT «... Olgueta guztiac diriala libre cristinaubarentzat», 16 or.

[5] Baraiazarrak ohar hau: «Frai Bartolomegana jotzen badugu, gauza bera ikusiko dugu: bi kasuak ez dituela bereizten, baina singularretako -GAZ eta pluralerako -KIN (-AKIN gehienetan) egitea hutsik gabe betetzen duela».

ABERATSEENTZAT «Eragotzita dago Espainaco legueetan aberatseentzat, ta guztientzat», 29 or.

f) *Frolatiboa:* -TZAT/-ZAT

Pr. Bartolome-k maiz erabiltzen du deklinatibo hau, bainan batzutan frikaziorik gabe, alegia, -ZAT formulapean.

AGUINDUTZAT «Pecatu mortalaren beeco aguindutzat», 173 or.
ECANDUTZAT «Jaiojotzaco ecandutzat, ta cerguintzat artuta, dauqueenac?», 200 or.
MORTALTZAT «Ta Sarauco dantza desonestu orreec pecatu mortaltzat», 22 or.
PECATUZAT «Pecatuzat condeneetan davee Eracuslaac San Carlos Milanguagaz», 30-31 or.
ILLGARRITZAT «Edo illgarritzat Eleisako jaquitunac eracusten ditubeen», 61 or.
NASAIZAT «Ez estutzat, ez nasaizat iracurla batec bere ezdaucanac», 89 or. Perpausa honetan, beraz, ilogikaz (eta inolako arrazoi fonetikorik gabe) batean -ZAT eta bestean -TZAT frikaria.

g) *Ergatiboa:* -K (-aac, -ec, eac)

Ergatiboetan Pr. Bartolome-k (*Mogel*-ek gisa), aunitzetan, bokaleen geminaziora edo bikoizturara joko du, ohitura fonetikoaz aparte, erroaren eta mugatzailearen mugak hobeto markatzearren (halanola, Juan Antonio *Mogel*-ek bere «Peru Abarka» liburuan: *dongaak,* 115 or., *ganbelaak* 96 or., *txaplataak,* 45 or., *ormaak,* 76 or., *gelaak,* 91 or., *mantaak,* 77 or., *lotsabagaak* 40 or.).

CEUC «Cer desiau dozu ceuc?», 130 or.
CEINTZUC «Ciembat (sic) pecatu, ta ceintzuc eguin citubeen piesta...», 131 or.
GURASUAC «Eta Gurasuac, Santu izatiari ichi bagaric, eureen erreguelleetan, ta ordenetan ipini eveen», 19 or.

h) *Inexiboan:*

Inexiboan hitza *a* organikoaz (ala, fonetika aldetik, apofoniaz eracusl*a,* bag*a* gisa) amaitzen bada, maiz, bikoiztura bokalikoa eramanen du, *banaan* hitzak bezala.

MODUBAN «Bachochari beguiratuten deutsan moduban», 63 or.
BANAAN «Beguiratu daijegun bacochari banaan», 63 or.
IRUNAAN «Edo irunaan, dagozan moduban, ta dabiltzan moduban», 64 or.
MAITEQUERIJEETAN «Iminita, berbeetan, ta maitequerijeetan dagozala», 64 or. Beraz, -etan atzizkia inesiboan, gehienetan, bokale bizkoizturaz etorriko da, laburdura fonetikorik gabe bokaleen topaketan *(verboetan, olgueetan)*.
PIESTAAN «Edo piestaan, edo piestia amaituta», 99 or.

i) *Alatibo norabidazkoa:* -RUZ, -RANTZ/-RANTZA

Bizkaieraren mugan -RANTZA formula ohizkoena gure autorearengan, bainan -ekialdegoko -RUNTZ ere azaltzen da, sudurkaririk gabe -RUZ sinkopaz, eta azken afrikariaz (euskara mintzatuan).

ECHERUZ «Alan duaz plazati echeruz alde baten naastian», 72 or.
PIESTARUZ «Juaten dirian guztian, edo piestaruz, edo piestaan», 99 or.

## 2. Atzizkien arloa

Gure hizkuntzaren eremuan atzizkien erabilera, hedadura, praxi semantikoa, mugaketak, etabar oso garrantzitsuak gertatzen dira. Pr. Bartolome-ren idazkietan atzizkiek ohizko tratamendua daukate; gehienetan, gure idazlea aski aberatsa azaltzen da bere erabileran, sarritazko nominalizatzaieleetara (-TEA/TZEA) jo gabe. Alabainan, gu hemen ez gara hedatuko bere atzizki-forma guztietara, gure iritzian interesgarri ala nolabaiteko aportazio berezia dutenen kasuetara baino.

a) *-ARI*

Atzizki hau, gure ustetan, latinoa da garbiro, eta euskaran bi eginkizun desberdin betetzen ditu, bat *profesioen* arloa adieraztea *(pilotari, errementari, palari, mandatari)*, eta bestea esanahi materiala *(gurari, bazkari, nahikari)* markatzea. Lehenengo esanahiaz latineko -ARIUS/ARIA, atzizkitik datorkigu, eta bigarren esana-

hierako ere lat. -ARIA, atzizki hau objetibo gisa ulertuta (beraz, latinean *ferraria-k* mina de hierro, *argentaria-k* objetos de plata esan nahi zuen, eta ez profesio bat). Hona zer esaten genuen beste toki batean: «Guretzat garrantzitsua da «profesionaltasuna» soilik ez duen semantika desberdina aportatzea... Nahizeta (ARIUS latinoak gaztelanian -AR/AL ordaina eduki (apicularium ABEJAR, herbarium HERBAL, olibarium OLIVAR, fabarium FABAR, joccularium JOGLAR/juglAR, baccarium PEGAR (cierto cántaro), ala ere, ez da inolaz ere nahastekoa gure -AR/TAR etnikoarekin... aurrelatinoa delarik» *(Luis M. Mujika.* Latina eta erromanikoaren eragina euskaran. Ed. Sendoa, 1982, 271 or.).

Hona Pr. Bartolome-ren liburuan atzeman dugun kasu zenbait:

SALTOCARIJAC «Soloco saltocarijac laboria galduten daven leguez», 83 or.

DANTZARIJAC «Dantzarijac diabrubari bidia presteetan deutseela...», 83 or.

LOTSARIZUAC («Escuca desonestubac, eguitade torpiac, menio lotsarizuac»), 120 or. Hemen noski -ARI atzizkiak zentzu objetibala dauka, ez profesionala; alegia, J.A. Mogel-engan ere lo*tsaariac* (partes pudebundas).

CASTALARIJAC «Nortzuc dira, jocalarijac, eche galtzailiac, castalarijac, desapijoguinac, lapurrac», 203 or.

JOCALARIJAC «Jocalarija, eche galtzailiac...», ibidem.

LOTSARIZCO «Verba desonestubac, ta lotsarizco errazoiac», 60 or.

b) *-GIN/KIN*

-GIN atzizkia, itxuraz, EGIN aditzetik dator eta bere arlo semantikoa, gehienik, profesioak adierazten dituzten izenak betetzen dituzte, halako *egile*-zentzu bereziz. Euskaran oso bizirik dago, eta, maiz, -GILE formularekin konpetentzian aurkitzen da. Pr. Bartolome-k atzizki honetarako makurrera bizia azaltzen du, eta hemen adierazitako eratorri zenbait bere asmakizunekoa da. (Ikus honetaz gure *Origen y desarrollo de la sufijación euskérica,* Ed. Vascas, 1978, 128 or. -KIN (-KI gisara) zentzu objetibalez ere ager daiteke.

ERAGUINGUINAC «Ta ezcutuco pecatu guinac, ta pecatu eraguinguinac», 206. Ez dugu uste egokia denik atzizki hau erroz aditz direnekin erabiltzea. -GIN *izen*-erroekin erabili behar da, ez aditzekin.

LAPURGUINA «Virgineen ondamendija, adulterioguina, lapurguina», 86 or.
ZELOGUINA «Ainguerubeen tristecia... gorrotoguina, zeloguina...», ibidem.
PECATU GUINAC «Piestazaliac dira aguirico, ta ezcutuco pecatu guinac», 206 or. Nahiz, gehienetan, atzizkia erroari lotuta eman, Pr. Bartolome-k ez du edukiko arazorik deslotzeko ere, -ERIA atzizki kasuan bezala *(urten eria,* 136 or).
LEGUEGUINEC «Ez dau cristandadeco Leguiguinec ez Uriric, ez Ciudaderic, ez Erriric castigueetan», 152 or.
ONDOQUINAC «Gentilidadiaren zatijac, reliquijac, edo ondoquinac», 145 or. Hitz hau ohizko apofoniaz *ondakinak* da.
BAQUEGUINAC «¿Pecatarijagaz Jaungoicuaren arteco Baqueguinac?», 170 or.
DESAPIJOGUINAC «Castalarijac, desapijoguinac, lapurrac, ta euren echeen...», 203 or.
GORROTOGUINA «Virgineen ondamendija, adulterijoguina..., gorrotoguina», 86 or.

c) *-RO*

-RO atzizkiak, gehienetan eratasuna adierazten du, eta aunitzetan aldiaren kontzeptuari atxikita azaltzen da (*luzaro, egunero, laburkiro).* Atzizki honen erroan ORO hitza dagoela dirudi, hots, egunoro/*egunero,* astero/*asteoro.* Gehienetan atzizki nominalekin erabili behar da, eta -KI atzizkiari erantsirik aurki daiteke *(leunkiro, samurkiro, handikiro,* eta, metatesiaz, *handiroki).* Cfr. *Luis M. Mujika.* Origen y desarrollo de la sufijación euskérica, op. c. 213. (Han hemengo jatorriaz ematen den hipotesia alegia, -ORO paratzizkia eta -RO ez direla berdinak baieztatzea gaur etzaigu oso zihurra iruditzen, eta -ORO/ERO eta -RO kasuetan iturri bat-berara makurtzen gara).

DEUNGARO «Edocein gaiti deungaro esatia...», 53 or. «Embusterija, esquer chaarra, deungaro esatia, inoren vitzitzaac jaquitia», 200 or.
LUTZAROCO «... Oidirian ocasinoiac, burrucac, ta lutzaroco gorrotuac», 95 or.
ARGUIRO «Nun aguiridan Eleisiaren Aguinduba arguiro», 173 or.

LUTZARO «GUELA estu baten lutzaro oian daguan gaisuarena», 182 or. Ohar zaitez Prai Bartolome-k hitz hau frikazioz erabiltzen duela.
BARRIRO «Ta erromedijaco piesteetan barriro entzun, ta esan», 206 or.

d) *-TO*

-TO atzizkiak -KI atzizkia ordekatzen du oso maiz, bereziki, Bizkaieraren eremuan. Bainan, badago beste euskalkietan ere, adibidez, onDO kasuan (ozenduraz sudurkariaren ondoren). Aski ezaguna *polito, ederto, txarto* hitzetan.

ERRAZTO «Chito errazto iragoten dala pecatu izatera», 91 or.
CHITO «Ta berogarrija dela; ta chito errazto iragoten dala...» ibidem.
ERREZTO «Edo ascatutzaco bat compesinoian errezto eguitia», 178 or. Oraingoan, bada, goikoan ez bezala, apofoniarik ez.

e) *-MENTU (-MENDU)*

Latinetik sartu zaigun atzizki abstraktua. Edonon aurkitzen da. Pr. Bartolome-k ez darabil askotan (batzutan, gaztelaniaren eraginez, *-miento* diptongoduna ere eskaintzen digularik). Hona bi adibide:

PENSAMENTU «¿Esan deutseezu bestiai, ceimbat pensamentu, gurari, ta desio pecatuzcori lecu emon deutsazun vijotzian», 130 or.
TOCAMENTU «Gustoz barre eguinda entzutia, oratute, edo tocamentu desonestubac eguitia...», 99 or.

f) *-KA*

-KA atzizkia, bereziki, erazkoa edo modala da, eta, bai -ADA atzizki erromanikoari, eta, bai-TU partizipioari erantsita, azaltzen zaigu askotan (bultzaKAdak). Ala ere, -KADA, beste gehienetan ez da -ADA formularen epentesia baino.

ESCUCA «Escuca loijac, pecaturiraco convit erabaguijac, ta beste luxurijaren asmuac...», 71 or. *Escuca* hemen balio sustantibalez —eta ez adberbialez— dagoela dirudi. Ez dugu uste Pr. Bartolome-k *eskuca* «escucada» izenaren sinkopa gisa darabilenik.

MOSUCA «Tocamentu loijac, mesuca loijac, escuca loijac, pecaturaco...», ibidem. Hemen ere goiko kasuko ohar morfologiko bera atzizkiari buruz.
BIDAOCA «Beste asco, Aita, edo Ama eurai bidaoca dagozala», 58 or.
ESCUCA «Beti dagoz verba loijac, escuca desonestubac, eguitade torpiac, menio lotsarizuac», 120 or.

g) -*TSU*

-TSU atzizkiak ugaritasuna adierazten du, eta -OSUS latin-galoaz zerikusia du. Beraz, pluviOSUS= euriTSU, litigiOSUS=liskarTSU. -TSU formula kasu urrietan -ZU gisa ageri da mu*kiZU*, ka*kaZU* gisakoetan. Cfr. Luis M. Mujika: *Origen y desarrollo de la sufijación euskérica;* op. c. 238 ond.

ODOLTSUBAQUIN «Olgueeta odoltsubaquin, luxurijotsubaquin, ta ardaotsubaquin Jaungoiko palso asco», 141 or.
ARDAOTSUBAQUIN «Ta ardaotsubaquin... Marta, Jupiter, Baco, Venu ta beste milla gauza loi...», 141 or.
ASMOTSUBA «Inor engaineetaco arte asmotsubac», 198 or.

h) -*TEGI*

Atzizki hau (agian, zelta) Pr. Bartolome-k errotik berezita ere erabiltzen digu, halako interpretapen sustantibalez, leku ala toki baten esanguraz. Pr. Bartolome-k -ERA, -ERIA atzizkiak ere erabiltzen ditu, bestetan, deslotuta *(sartu eria, etorri eria,* 145 or)[6]. Hona Kasu garbi bat:

TEGUIJEEN «Ezpataqueen, comedijeen, dantzeen, ta convidau teguijeen sartu eria», 145 or.
ARRASTEGUIJAN «Arrasteguijan piestara juatia gaiti», 57 or.

i) -*EZIA, -EZA*

Latineko -ETIAM -etik, erromaniko bidez, gurera sartutako

[6] Baraiazarrak ohartxo hau: «ARRASTEGIJAN hitzean, analogiak edo eta herri-etimologiak atzizki desegokia hautatzera eraman duela gure idazlea esango nuke». Guk ere susmo hori dugu, alegia, *arrastiri* (atardecer) delakotik *arrasteri*-ren zehar gero *arrastegira* igaro ez ote den. Dena dela, Azkue-ren hiztegian konstatatzen da bizkaierazko formulatzat.

atzizkia. Beraz, -ITIA latinoak, asibilapenez, formulok ditu erromantze batzutan: -EZA gaztelaniaz, -EZZA italieraz, -EZA portugaleraz, eta -SA/SSA Galiako beste hizkera batzutan. Ikus: *Latina eta erromanikoaren eragina euskaran,* op. c., 307 or. -*EZIA* EZAA/ EZEA-ren ondorioa hemen.

TRISTECIA «An daguala, emacumen galdu lecuba, Aingeruben tristecia», 79 or.
MALECIJA «Orreec dira, gurasuen exemplu chaarrac malecija», 206 or. «Eureen malecija aurreratuba, ta gacheraco jaquiturija goixtarra gaiti», 118 or.
NATURALECIAREN «Ta echeetan gorde zedin naturaleciaren modu», 206 or.

j) -*KERIA*

Atzizki erromaniko hau -ERO/ERA gehi -IA formulatik dator, eta euskararen eremuan bi esanahi nagusi dauzka, bat *negatibitatearena* (gehienetan -K (keria) epentesiaz), eta bestea *taldetasunarena* (colectividad). «*Ezkortasuna* edo *negatibitatea* adierazteko, gehienetan, atzizkiak K epentesia hartzen du..., bainan bera gabe ere adieraz daiteke (*mozkorrERIA, zaborrERIA* kasutan bezala). Hasera batean, -ERIA-k *egipena* eta ta*dekizuna* adierazten zuen beste semantiken artean, bainan gero -KERIA formula *negatibitatearen* arloa ia soilik irabazten etorri zen garbiro». (Ikus *Luis M. Mujika.* Latina eta erromanikoaren eragina euskaran, op.c. 297, or.).

ZARTARQUERIA «Bai asco guichituta, zatarquerija desonestu guztiac paperian ez imintiarren», 74 or.
OQUERRERIJA «Dantzia daguan lecuban, dagozala oquerrerija guztiac», 79 or.
DOTORERIJA «Arrotasuna, buruerichija, dotorerija, ta besteen desprecijua eracusten daveenac?», 199-200 or.
AZALQUERIJA «Arei darraicuezan azalquerija verdiac», 60 or.
CHOCHAQUERIJAC «Ta eurai jagocuezan gauza asco, chochaquerijac, ta simplezaac diriala», 61 or.

EZAUBERIA «Edo alcarri carinozco ezauberia emoten, beste plazaco dantziari», 56 or. Hitz hau, seguraski *urteeria* bezala, -ERA atzizkikoa da mugatzaileaz, hots, -ERA<-EREA<ERIA prozeduraz. Izan ere, beste euskalkietan ere ezaguERA.

k) -*ERA*

Atzizko erromaniko honek (jatorrian latineko -ARIA dago, manuARIAM < manERA) hedadura handia dauka alboko erromantzeetan. «Gure -ERA, bada, aunitzetan gaztelaniaren bidez dator, bainan baita gaskoineko -ÈRE eta frantzeseko -IERE formulen zehar». (Ikus gure: *Latina eta erromanikoaren eragina euskaran,* op. c. 294 or.).

-ERA atzizkiak semantika arlo aberatsa du; besteen artean *tresneria (eihera, baxera, musadera, mindera), neurria (luzera, handiera), egipena* (agerKERA, bilERA), *kolorea* (-ARA formulapean: *berdekara, auskara), abere-irritsa* (celo animal, *ahunzkara, susara)* adierazteko.

IBILIERA «Jesus Curutzecua, ibiliera, ta olgueta santubeen *Neurria»,* 5 or. - «¿Nortzuc dira, eureen ibili-eraan...», 199 or.

URTENERAAC «Ce indar dauqueen dantza zaleen urteneraac, edo argumentubac», 132 or.

URTEN ERIA «Oneetati leleengo argumentuba, edo urten eria da, esatia...», 136 or. Beraz, atzizkia errotik berezita «praile teguija» 169, «pecatu guinac» 206 kasuetan bezala.

EGON-ERAAN «Tan egon-eraan jaguitasuna, arrotasuna, buruerichija...», 199 or.

l) -*ASUN*/-*TASUN*

Atzizki hau jatorriz problematikoa da *(Cfr.* gure *Latina eta erremanikoaren eragina euskaran,* op. c. 313 ondo.). Euskararen eremuan, batez ere, *kualitateak* adierazteko oso erabilia, bainan bere semantikan, *egipena* ere sartu behar da. Pr. Bartolome-ren idazkian bere usarioak, gehienetan, *kualitatezko* esangura isladatzen du.

ATSETASUNA «Verbeetiagaz, ta geriagaz (sic ) eldutasuna, atsetasuna, juicijua, lotsa ona...», 199 or.

GUIZATASUNAREN «Ta luxurija utsezco gentilen olgueeta loijac, ta guizatasunaren desondragarrijac», 141 or.

JAGUITASUNA «Ta egon-eraan jaguitasuna, arrotasuna, buruerichija, dotorerija», 199 or.

ll) -*DADE*/*DADIA*/*TADE*

Dudarik gabe, latineko -TATEM atzizkiaren formula ozenduak dira, gaztelaniaren eraginez sartuak gehienak. Prai Bartolome-k ez du erabiltzen ia inoiz gaur inposatzen ari den -TATE formula gorra (gure ustez, hobetsi behar dena). Atzizki hau erro euskaldunei ere itsastean zaie *(eguitade/eguitadia* kasuan bezala) eta, agian, larramendiarra. Prai Bartolome-k ezaguna du, noski, Larramendi-ren hiztegia; alabainan, bere eragina, gure ustez, ez da handia gure karmeldarrarengan.

CASTIDADIA «Areec bere arimaco castidadia galduta, loituten dira», 82 or. «Castidadiaren galdugarrija...», 86 or.
LIBERTADIA «Pecatuba, libertadia, ta nasaitasuna nai daveen desdichaubac», 132 or.
CRISTANDADECO «¿Nortzuc dira, gueure cristandadeco gauza, ta eguija Santubac...», 203 or.
EGUITADE «Ta eguitade indecente bagaric, ta beste honestidadia ezaindu leguijan», 156 or. «Ta Gentilean eguitadiac dauqueezanac», 205 or. «Cristinaubeen goguan, eguitadeetan, ta auan chito sarri...», 7 or. «Ta eguitade guztietan, dira chito nasaijac euren olganzaco dantzeetan», 10 or.

m) *-GARRIA (-GARRIJA)*

«-GARRI supone uno de los sufijos euskéricos más ricos de nuestra lengua; básicamente se une a temas verbales. La semántica principal de -GARRI es la de *agente-productor*. De esa semántica original pasa al campo *pasivo,* tomando la acepción de «digno de, merecedor de» (Luis M. Mujika: *Origen y desarrollo de la sufijación euskérica,* op. c., 124-125 or.) -GARRi atzizkiak, gainera, hegoaldean *instrumendu* esanahia ere badu, gutienez, zerbaiten *mediotzat* hartzen denean. Azken semantikaz badaude kasuak Pr. Bartolome-ren idazkian.

GALDUGARRIJA «Luxurijaren escolia, castidadiaren galdugarrija», 86 or. Hemen *medioaren* esanguraz.
ILLGARRITZAT «Edo illgarritzat Eleisaco jaquitunac eracusten ditubeen», 61 or. «Vijotzaren verenozco illgarrijac», 164. Azkeneko honetan ere mediozko semantika.
NEURGARRIRIC «Edo neurgarrírik, ez Eracusleen esanic, alaco dantzeetara duazanac», 103 or.

n) *-KIZUN (-IZUN)*

Atzizki hau Prai Bartolome-k, ia betiro, epentesiaz darabil, eta kurioski, aditz-erroari partizipioa kendu gaberik. Hori bitxia gertatzen da konposakeraren fonetika arloan (nahiz-eta bizkaieraren joera bat izan).

SINISTUQUIZUN «Ta gueure sinistuquizun Eracuslac, ta Errazoiac eurac gaiti dinuenagaz», 104 or. Hemen lege fonetikoen arabera *siniskizun* behar litzateke; eta arrazoi gehiagoz erroa bisalabikoa denean. Formula bera, hemengo liburutik kanpo, beste hiru obren izenburuan *Icasiquizunac* («Jaungoicuaren Amar Aguindabeetaco lelengo bosten Icasiquizunac») erabiltzean.
PENSAUQUIZUN «Beraz ecarico (sic) deutsuz beste pensauquizun batzuc ataraco», 163 or.
EMONQUIZUNIC «Ezdala promes valijocua, ta ezdaguala cobru emonquizunic», 108 or.
EGUINQUIZUNARI «Ta animo gueijagogaz bere eguinquizunari jarraituteco», 20 or.

o) *-E/NOE/ZINOI/SINOIA*

Latineko -ITIONEM/-ONEM atzizkien formulak gurera zenbateko kolokaduraz igaro diren adierazten dute. Prai Bartolome-ren idazkietan oraindik Kapanaga eta autore zaharretako -OE formula azaltzen da, noiz-noiz. -OE, noski, -ONEM delakoaren formula zuzenena litzateke (-goi-nafarreraz, adibidez, oraindik aski bizikik dagoena, *limoe, milloe),* ezen-eta bokalearteko sudurkaria erortzean bi bokale horiek lotuta gelditzen baitira. Alboan, Prai Bartolome-k, -INO/ZINOE/NOI/OI formulak[7].
Hona adibideak sailkatuta:

**1) -OE/NOE (-CINOE)**

PROCESINOECO «Sermoetaco, visperetaco, procesioneco, ta Al-

[7] Hona adierazpen interesgarria: «Labur bilduz zera esan genezake: gure idazleak bi forma hauek bakarrik darabiltza: -OE (bokale arteko sudurkaririk gabe) eta -CINOE/-SINOE (sudurkari lekuz aldatuta)... -OIA/-ZINOIA ede -SINOIA, aurreko bien forma mugatuak baino ez dira» (Luis Baraiazarra).

taraco Sacramentuban», 40 or.
ERLIGINOE «Au ezaututa, Erliginoe Santubeen Burubac», 19 or.
SERMOETACO «Ta jai osuetan, meza nausitaco, sermoetaco», 40 or.
MALDECINOE «Mila maldecinoe ezarten jacoz errazoiagaz», 33 or.
PROPOSICINOE «Parcatuten ditubeen esanera galdubac, *Proposicinoe* condenaubac», 97 or.
INTENCINOE «Modestijaz, juicijoz, ta intencinoe onagaz», 161 or.
OCASINOE «Pecatu mortaleco ocasinoe urrecua da», 158. Atzizki honen kasuan, bada, oso batasun gutxi hainbeste formula erabiliz. *Okasio* hitzaren kasuan *ocasinoe, ocasinoia, ocasino* aldagaiak. «Pecatu mortaleco ocasinoe urrecuak dira», 43 or. «Ce ocasinoe andija, ta peligruba daguan naasteco dantceetan», 89 or. «Alaco ocasinoe desonestura», 194 or.
CONGREGAZINOE «Ta Congregacinoe sagraducuaren ordena asco bere...», 172.
COROE «Edo Coroe dunac. Oh! Ce predicadoriac diabrubarentzat», 136 or.
ERRAZOE «Beti izango da eguiija, errazoe zuzeneti aurreraco olgueetia», 39 or. «Decarrezan errazoe asarriac», 78 or.
CONCLUSINOE «Edo amairu *conclusinoe,* edo amaigaz», 84 or.
TENTACINOE «Castidadia galduteco tentacinoe bat Jaungoicua bacarric goitutia», 55 or.
ACINOE «Eguiten deutsazala milla acinoe, ta menio indecente», 65 or.
CONDECINOE «Ta condecinoe verdecuac estadubaren parteti», 56 or.
TRUMOE «Castigubaren trumoe aldija irago dedinian», 152 or.

## 2) -OIA/-NOIA (-CINOIA) MUGATZAILEAZ

MALDECINOIAC «Biaduac, ta maldecinoiac ezarten ditudalaco», 177 or.
DIVERSINOIA «Ezda olgueetia, edo diversinoia artu biar opicijoz», 19 or. «Olgueetia, edo diversinoia...», 40 or. Orri berean beste batean, ordea, *diversinoe*.
CONDECINOIAC «Ez bada, gueure genijuac, condecinoiac, edo

naturaleciaz beti sen...», 15 or. «Oneen condecinoia esanda gueratuda», 69 or.

OBLIGACINOIA «¿Edo noc dauca obligacinoia quenduteco», 150 or. «Dauqueela Cristinaubac obligacinoia», 46 or.

INSTRUCINOIAC «Ta Instrucinoiac, erdera, ta latin guztien escubetan davizanac», 174 or.

OCASINOIA «Dantzia pecatu eguitaco ocasinoia bada, dantzara juatia pecatu dala...», 158 or. Bi lerro gorago, berriz, *ocasinoera* dio. «Ta albo-errijeetaco gendiac atera oiditubán ocasinoiac», 75 or.

APICINOIA «Baina alaco olgueetaco apicinoia, edo gurari laarreguija», 20 or.

ORACINOIAN «...Santa Teresac gau osuac oracinoian negarrez celdaan», 23 or.

PERSECUCINOIAC «Bai persecucinoiac, gorputzeco gaisoac, ta alaac, bai cereguin estubac», 23 or.

ERRAZOIA «Ta onen errazoia emongo da zortzigarren errespuestaan», 73 or.

CONCLUSINOIA «Asieraan imini neban amaija, edo conclusinoia», 103 or.

## 3. Errotik berezitako atzizkiak

Deklinatiboetan gisa (-GANA, -GAITI kasutan) atzizkia, batzutan, errotik bakanduta azaltzen da. Honetan, Pr. Bartolome-ren joera etimologistak nabarmenak dira, hots, konposagaien isladapena hobeto adieraztearren elemenduak bereiztea. Eratorpenean (deribazioan) ere partizipioa ez galtzea, nolabait, joera horietan sartzea da.

Hona atzizki bakanduaren adierazpen zenbait:

URTEN ERIA «Oneetati leleengo argumentuba, edo urten eria da, esatia...», 136 or.

CONVIDAU TEGUIJEEN «Ta convidau teguijeen sartu eria, edo etorri eria cristandadera», 145 or. Badirudi Pr. Bartolome-rentzat-*tegui* atzizkiak esanahi sustantibal bakana duela, bainan erroari erantsita ere erabiltzen du noizbehinka.

ABADE TEGUIJA «Ezda bada sinistuten, Abada teguija, ta Praile teguija juaten diriala piestara», 169 or.

DANTZA ZALIAI «Dantza zaliai piestaan... ondo ibilteco esaten», 194 or.
IBILI-ERAN «¿Nortzuc dira, eureen ibili-eraan, ta egon-eraan jaguitasuna...», 199.
EGON-ERAAN «Ta egon-eraan jaguitasuna, arrotasuna, buruerichija...», ibidem.
PECATU GUINAC «Piestazaliac dira aguirico, ta ezcutuco pecatu guinac», 206 or.
UTS UNIAC «Imini dan Errazoiac bere zatijeetan uts uniac daucazala», 104 or.
SARTU ERIA «Ta convidau teguijeen sartu eria», 145. Toki berean ere «ETORRI ERIA» («Edo etorri eria cristandadera»).
EZCONTZA GUINTZIARI «Ta zaartzan, bestaric ezinda, ezcontza guintziari ematen deutseenac», 54 or.

## 4. Eratorpenean partizipioaren euspena

Alderdi morfologiko (eta fonetiko) hau bizkaieraren ezaugarri da, nagusiki, ezen-eta euskalki horrentzat ez baitira arrotzak *eskatuteko* (eskatzeko ordez), *bialduteko* (bialtzeko ordez) formulak esatea. Prai Bartolome-ren idazkian joera bizia partizipio horiek eusteko, bai *-tu/du* kasuan, eta bai *-i* primitiboaren kasuan. Beste euskalkietan (erroan monosilabo gelditzen diren kasu urriak ezik —kasu baterako *hasera/hasIera, hezketa/hezIketa—)* esaniko partizipioa erori egin ohi da, eta lege hori da jatorrena, noski, gure eratorpenaren eremuan, *sinisTukizunak, erabilIera* eta horrelakoak arbuiagarri gertatzen direlarik. Salbuespen hutsak (eta alternantziak horretan daude) erroan monosibikabikoak gelditzen diren kasuak dira: heltasun/*helDUtasun,* hezketa/*hezIketa,* espen/*etsIpen,* etab.

Hona gure karmeldarraren adibide zenbait esaniko partizipioaz:

ESCATUTECO «Ta misericordijac escatuteco demporia. Iracurri bitez...», 41 or.
ARINDUTECO «Bai buru necatuba arinduteco, ta bai osasun jausija sendotuteco», 7 or.
BIALDUTEN «Ceure escu jotsijeetara bialduten dot, Jesus Curutzecua», 5 or.
GUERATUTECO «Avemarijeetan tambilina (sic) ixilduta, guera-

tuteco piestia da», 61 or.
GOITUTIA «Ixioquija subari urreratu bagaric bere, luxurijaren tentacinoiac goitutia», 47 or.
AZIERA «Umiai aziera galduba emotia, gurasuac gaiti gura daveena umiac eguitia», 52 or.
SINISTUQUIZUN «Ta gueure sinistuquizunen erascuslac, ta errazoiac eurac gaiti dinuenagaz», 104 or.
PENSAUQUIZUN «Berac ecarrico deutsuz beste pensauquizun batzuc ataraco», 163 or.
IBILITERIAGAZ «Eracusten daveela aureen egoneriagaz, ibiliteriagaz, verbeetiagaz», 199 or.
IBILI-ERAAN «¿Nortzuk dira, eureen ibili-eraan...», ibidem.

Hitz eratorri propio diren kasuotan: *pentsauquizun* (pentsaTUquizun), *ibilI-eraan*, *sinisTUquizun* (eta beste hiru obren izenburuan *ikasIquizun)* forma sekundarioak dira, eta arbuiagarriak hizkuntzak eratorpenaren eta konposakeraren eremuan dituen lege fonetiko nagusien aurrean; gainera, bizkaierak, gehienetan, ez du horrelakorrik egiten (ez eratorpenean eta ez konposakeran) erroa bi silabatik goragokoa denean. (Honetaz ikus gure *Hitz konposatu eta eratorrien morfo-fonetika*. Ed. Vasca, 1980 liburua).

Bestalde, aditza subjuntiboan eta aginkeran dagoenean partizipioak erori egin behar du, bainan horren islada gutxi, bai bizkaieran, eta bai gipuzkeran. Horren adierazpen partizipioa galtzen ez dituzten kasuok:

«GalDU ez zaguizan», 77 or.
«Ezin ukaTU legui, arriscu gueijaco dauqueena», 54 or.
«IcusI daigun, teologija Sagradubaren Eracuslaac», 87 or.

## 5. Epentesien gorabehera atzizkietan

Atzizkien epentesi-erabilpena hegoaldeko euskalkien erara azaltzen da gehienetan, azpimarratuko ditugun kasu bakan batzuk kenduta. Alegia, -ETA egipenezkoa *(olgeeta, verbeeta)* -K- epetentikorik gabe, -TASUN gehienetan -T- epentesiaz *(arroTasuna, jaquiTasuna)*, -OR -KOR formulaz, bainan ez *lotsorra* (lotsaKorra) kasuan, -ERIA, askotan, -K- epentesirik gabe *negatibitatea* ere adierazteko *(oquerrerija* (79) okerkeria ordez, bainan *azalQUEria* (60); -UNE/KUNE kasuan *begiraCune* (161) begirune ordez).

## 6. «A» itsatsia duen hitz zenbait

Euskararen morfologia aztertzen ari garen memento honetan, eta batez ere horretarako euskalkion substratua miatu beharrekoa den unean, interesgarria gertatzen da *lexikoaren* azterbide zehatza egitea «a» itsasiaren alderditik ere, ezen-eta konposakerak, mugatzaileak berak, joera sinkopatzaileek, maiz, itzali egin baidute hitz konkretu baten egitura morfologikoa. Ez dago dudarik, euskaldun aunitzek zalantzak dituela, askotan, hitz baten amaieran «a» organikoa ala *mugatzailea* aurkitzen den susmatzerakean. Pr. Bartolomeren idazkian alde honetatik abantaila bat dugu (bainan ez beti) ezen-eta *-aa/aac* bikoizturak «a» itsasiaren presentzia adierazten baitu askotan (eta, noski, baita deklinabidean ere *-aa gaiti, -aaren, -aan, -aaquin)*. Bestalde, Bizkaieraren (eta beste euskalki batzuren) eremuan «a» itsatsiari mugatzailea erasteak *-ea* (eta gero *-ia)* suposatu du batzutan, gure kasuan bezala, maiz, *-aa*-tik abiatuz. Adibidez, *alaba < alabaa < alabea < alabia, neska < neskaa < neskea < neskia*. Esan beharrik ez dago, zonalde batzutan, *-ia < -ie* ere bilakatzen dela, nahiz-eta ez agertu horrelakorik Pr. Bartolome-ren idazkian. Goinafarreran gerta daiteke, bestalde, *-ie* hori-*ii* (neskatxii) bilakatzea.

Guk hemen eskainiko dugun zerrendan goiko orrialdeetan emaniko hitz zenbait azalduko da. Ez guztiak, noski. Hitzak dauden bezala, hots, deklinatiboaz eta guzti eskainiko ditugu, textuari zintzoagoak izatearren.

Kontutan izan, bestalde, bizkaierak amaierako apofonia duela aunitzetan, hots *-baga (bage) oba (obe), erakusla (erakusle), laba (labe), suga (suge)*. Honetan, noski, *A* itsatsi gisa interpretatu dena, apofonia hutsa da.

### A

1. Alperrerian 30
2. Aziera 52
3. Alaveetan 162
4. Andria 165 (-E)
5. Aazcarrija 71
6. Arimiac 17
7. Aciendaan 101
8. Achaquijetzat
9. Aldraac 145
10. Apaindurijac 51 eta 64
11. Azalquerija 20
12. Alcabeeterijaac 206

B

1. Basatza 180
2. Berarijaz 94
3. Biguiraan 112
4. Banacaac 82

C

1. Comedijai 145
2. Castati 138
3. Curac 147
4. Calva 78
5. Casuistaric 94
6. Cazubelaan 67
7. Conciencijaac 181-82
8. Coipaatu 155 (-E)

CH

1. Chirrintolia 86
2. Chanzatzat, 53
3. Chochaquerijac 61
4. Chanchetan 100

D

1. Deungaac 137
2. Dotorerija 200
3. Domeequia 109
4. Damaac 116
5. Dotriniaren 194
6. Dempora 40
7. Dantzaac 85

E

1. Eracusla 129 (-E)
2. Eracuslaac 44 (-E)
3. Eracuslaric 97 (-E)
4. Erroscaac 70
5. Ezauberaz 98
6. Erromedijaco 129
7. Eltzecaac 200
8. Egon-eraan 199
9. Echuria 137
10. Eleisiaren 8
11. Esquina 3
12. Eguijazcua 5
13. Eguiija 199

G

1. Guiza 144
2. Guraz 102
3. Guraric 20
4. Gauzia 14

I

1. Indecencija 53
2. Iracurla 89 (-E)

L

1. Labati 83 (-E)
2. Labanquerijaren 66
3. Liquinquerijaren 66
4. Loiquerijan 148
5. Luxurijazco 101
6. Luxurijaren 47
7. Lastima 180
8. Larrosia 50

M

1. Maina 206
2. Maitequerijetan 64
3. Malecijaz 41
4. Maquilacaac 75

N

1. Naturalezia 70
2. Nescaac 50
3. Nescaaquin 90

O

1. Ordenaac 41
2. Olgueetara 103
3. Ordiquerija 85
4. Olguetiac 11
5. Obaac 155 (-E)
6. Oba 191 (-E)

P

1. Patricaraan 201
2. Picaerdija 180
3. Pluma 94
4. Priesacuagoric 56
5. Premina 98
6. Probabilistaric 94
7. Pelietan 141
8. Pristija 160
9. Provinciaco 62
10. Piesteetaco 78
11. Piesta 79
12. Plazaac 61

Q

1. Quipula 21

S

1. Sobervija 85
2. Samaac 77
3. Sorbaldaan 64
4. Seinorac 116
5. Samati 73
6. Suga 160 (-E)

T

1. Tontoquerija 163
2. Tristezia 79
3. Trompiac 62

U

1. Urteeria 185
2. Upaco 54 (-E cup*e*-(llam))
3. Urrago 68 (-E)
4. Urteneria 71

V

1. Verdequeria 200
2. Vela 74
3. Viguira 32
4. Visperataco 41

Z

1. Zatarquerija 74

## 7. -LA/-NA konpletiboak Prai Bartolomerengan

Gai gaitz honetaz Patxi Altuna aritua da dagoeneko expresuki (Ikus «Fray Bartolomez puntu batzuk», in *Euskera* (1981) 367-377 or). Arrazoin horregatik ez gara luzatuko gramatikaren alderdi honetan. Lehendabizi esan bahar dugu, bai Altube-ren eztabaidan, eta bai beste autoreetan ere, arazo hau ez dela beti garbi gelditu. Badirudi -LA/NA konpletiben erabilera geroz eta gehiago mugatzen etorri dela Bizkaierara hegoaldean, gipuzkeran gaur -LA-ren monopolioa (Goierrin ezik) oso bizia delarik. Azkue-k, Altubez aparte, auzi honi buruz:

«De este afijo inquisitivo *n* se origina *na* y *nik* significando «que»: el primero en afirmaciones; en casos no afirmativos el segundo. Son elementos que se oyen principalmente en B, en Goierri de G y hasta en el Roncal. Se usan con verbos de juicio como «saber, asegurar, negar, creer, conocer, ver, decir» (Morfología Vasca, I, 373). Arazo honetaz, bestalde ikus: *J. A. Mujika* «(E)la eta beste konpletibatzaileak», in *Euskera* (1982-1), 295-327 or.).

Prai Bartolome-k, beste autore aunitzetan bezala, -LA konpletiba perpausa nagusian *aitu, emon, erakutsi, ezautu, autortu, entzun, erantzun, ikusi, eduki, irakurri, jakin, konpesau, pensau, sinistu, uste izan, topau* gisakoak azaltzen direnetan darabil.

-NA konpletiba kasuan, berriz, aipatzekoak dira besteok: *erakutsi, ezagutu, ikusi, jakin, sinistu, autortu, esan* beste batzuen artean. Gutienez hogeitamar perpausa dira -NA konpletibaz hornitutakoak, eta gehienetan perpausa nagusiaren atzean kokatuta datoz. -LA konpletiba daramaten perpausak, berriz, askosaz ugariagoak dira, eta beste euskalkietan adibide erosoak dituzten horietakoak.

Pr. Bartolome-ren orrietan zehar azterketa gogartetsu bat eginda gero esan daiteke -LA konpletibak galdegaiari erantzuten diola, gehienetan, *hipotesia* adieraziz, eta -NA konpletibak, berriz, mintzagaiari, *tesia* adieraziz. -NA erabiltzeko (-NIK kasuaz aparte) ez da aski perpausa nagusia ezezkoa izatea, horretaz gain *mintzagaia* izan behar du. Patxi Altuna-k ere: «Orain arte esanak egia badira, erantzuna hau litzateke: *-na* (nahiz *-nik)* erabiltzeko ez da aski perpaus nagusia ezezkoa izatea; horrez gain mintzagai izan behar du». («Fray Bartolomez puntu batzuk», ibidem, 375 or.).

Muga garbiena, horretaz, -LA atzizkiak *hipotesiari* erantzuten dionetan legoke, eta -NA-k *tesiari,* noski, analogiak morfologian egin ditzazkeen beste arazoak ahaztu gaberik. Badakigu auzia askoz gehiago konplika daitekeela, bainan berezgarri hori —neurri handi batean— bidezkoa gerta daiteke.

Konpletiba horien zerrenda eman aurretik hona bi kasuak, hots, -LA eta -NA present dauden perpausa urri batzuk. Batean *galdegaia* da auzia, eta bestean *mintzagaia.* «Zazpigarren lecuban dinue dantzaarijac: Gaztiac cetan, edo atan olgau biar *daveela* (hipotesia). Verbeeta onec utseguite biac daucaz. Bata da: Gaztiac cetan, edo atan olgau biar daveena (tesia)... Eguija da nosbait olgueetia naturaleciac escatuten *davena* (tesia)». (Ibidem 189 or.) Beste honetan ere bi konpletibak eginbehar desberdinaz: «Baina sartuten bada, edo naasteetan bada indecencijazco gauzaric dantzan, gauza jaquina *dala,* pecatu *dana*». (Ibidem, 157 or.).

Lehenik -LA konpletibak agertzen diran kasu batzuk:

«Ta naturaleza jausijac guizon, ta emacume naaste eguin leijan moduban, pecatu dala, edo pecatuco ocasino dala» (10 or.).

«Ezda errez sinistuten, Sacerdote Jaunac, ta religiosuac, eureen estadu santubagaz aaztuta... saraubetan dantzan eguiten *daveela*» (168 or.)

«Orregaiti Santo Tomasec esaten dau ainbeste lecutan, ta beti: alaco ocasinoetara juatia pecatu *dala*» (158 or.)

«Dinot, bada, piestara duezan guztiac, *diriala* ainbat onduen apaindubac» (51 or.)

Orain aipa ditzagun -NA konpletiba daramaten perpausak, gehienak perpaus nagusiaren atzetik kokaturik doazenak:

«Oneec autor davee, piestaac, ta erromedijaac, eta biguiraac, eta sarubac chaarrac *diriana*» (195 or.)

«Ez da errez sinistuten... Ta ezda, orraco... ta emacumeen artian, nesca, ta mutilen artian naastian sartuta, olgueetan ibilten *diriana* bere» (158 or.)

«Au esanda gueratu da leen. Baina olgau biar *dana,* edo, gaztiac, olgau biar *daveena,* ez deuscu inoc eracusten» (189 or.)

«Alaco gauzac pecatu *diriana* jaquin arren, jazoten isteen deutsee Legueguinac, eurac pecatu eguin bagaric» (149 or.)

«Ondo daquijeela... eurai bere sarritan, edo gueijeenian, edo beti esan *deutseezana,* ta eguin *deutseezana* pecatu zatar, loi areec guztiac» (100 or.).

«Dinodan guztia, eguija *dana,*ezaututeco, inoc dudaric badauca, contu imini begui, ta icusico dau...» (59-60 or.)

«Noc ezdaqui, orduban vijotza prestauta *daguana,* pecatuban jausteco, pecatubari obeidutaco, ta verenuagaz ilteco?» (161 or.)

«Ezin inoc ucatu legui, dantza zaliac au ondo *daguijeena»* (101 or.)

«Zeuc dacuszu, nire naija eguijazcua, ta arteza *dana.* Baita nire eguina ezer *ezdana* bere» (5 or.)

«Bada au, irugarren Aguindubaren contra berez pecatu mortala *dana,* edoceinec daqui, edo jaquin biar dau». (109 or.)

# IV. MORFO-SINTAXIA

Ez gara luzatuko asko gramatikaren alderdi berezi honetan, ezen-eta Pr. Bartolome-ren obraren alderik bereziena eta interesgarriana, guretzat, *fonetika* delako.

Sintaxiari edo joskerari dagokionaz, Pr. Bartolome-ren euskara (jadanik XIX mendekoa) aski endogenoa da; honetan, jakina denez, idazle kontinentaletan eta penintsulakoetan alde handi samarra dago. XVII eta XVIII mendetako idazleetan (XVI mendeko Leizarraga ere ahaztu gabe) latin ala erromaniko joskeraren eragina nabaria eta sakona da. *Ezen-eta, non-eta, zergatik-eta* juntagailuz hasiriko perpausak, nabarmenki, erromanikoak dira. Gure autore zaharrak horrelako esaldiz josita daude. Hegoaldean, berriz, bereziki Larramendi-k suposatu zuen joera garbizalea ondoren, joskerak eta lexikoak makurrera endogenoagoa bilatuko du.

Gure ustetan, Pr. Bartolome, zehazki, lexikoan ez da inolaz garbizalea edo larramendiarra, bainan joskeran molde endogenoetan ibiltzeko arreta sumatzen zaio, gehienetan. Ala era, baditu ukitu erromanikoa, nolabait, isladatzen dituen esaldiak han-hemen, eta horien artean, *ezbada* elemenduaz hasten direnak. Pr. Bartolome, gure Axular, Xurio, Sarako Etxeberri ala Larregi baino, endogenoagoa da joskeran. Eta hegoaldean bertan Aita Kardaberaz baino arretatsuagoa.

Hemen perpausa zenbait sailkatuta emanen dugu, hots, subordinatu ala koordinatu gisa; perpausa nagusia eta menpekoaren funtzioa isladatuko dugu, eta, baita, bestalde, erlatibo zenbaiteren presentzia. Koordinatuetan adbertsatiboak izanen dira ugarienak, muturrean *ezbada* erromanizante *(sino, a no ser que)* dutelarik. Perpausak sailkatuta eman aurretik, ala ere, asaldi zenbait analiza-

tuta eskainiko dugu. Perpausako elemenduak honela klasifikatzen ditugu:

a.-S: Subjektua.
b.-O: Osagarria edo konplemendua.
c.-D: Datiboa (Osagarri zeharkakoa).
d.-O.Z.: Osagarri zirkunstantziala.
e.-A: Aditza (trinkoa eta laguntzailea).
f.-P: Predikatua.
g.-J: Juntagailua.
h.- Ad: Adberbioa.

Pasiua berez ez ona, ta ez chaarra da
S Ad. P. J. P. V.

Dantziaren gainian gauza asco escribidu dira.
O.Z. O. A. Alg.

Soinuba bada ona, ta oneracua, joiquiac bere onac dira.
S. A. P. J. P. S. Ad. P. A.

Soinuba joteco, erramientac bardinac izan ezarren, soinu guztiac
O. A. S. P. A. J. S.
O.Z.

dira bardinac.
A. P.

Beti izango da eguiija, alperrerijac, ta olgueeta utsac dacazala
Ad. A. P. O. J. O. A.

asmo chaaarrac, ta burutacinoe gaistuac.
S. J. S.

Iracurri bitez Eleisiaren batzaarretaco erregueelaac.
A. Alg. Genit. O.Z. O.

Plazaco piestara eruaten dan jantzija, da ain bat ederreena, ta
O.Z. A. Alg. O. A. P. J.

edertuen iminija.
Ad. P.

Dinot bada, piestara duazan guztiac, diriala ainbat onduen
A. J. O.Z. A.Erl. S. A. Ad.

apaindubac.
P.

Au autor ezdaven dantzaariric ezdago piestaan, eguija esan
O. A. Alg. S. A. O.Z. O.
Erl.

gura davenian.
A. Alg.
O.Z.

Bada nescatilliaren izenac, guztiac ondo daquijeen leguez, beragaz
J. S. S. Ad. A. J. O.Z.
M.Perp.

dauca errespetua... ta lotsorra izatia.
A. O. J. P. A.

Analisi soil hauek egin ondoren, eman dezagun sailkaturik perpausa zenbait.

## 1. Menpekoak + nagusiak (eta alderantziz)

1. «Bada izanic euscal errijetaco gentia cristinautasun andicua

euren tratua, artu emon, ta eguitade guztietan, dira chito nasaijac...» (10 or.).

2. «Escatuten duseet (sic) guztiai: au iracurri, noberari ezbajuaco leguez... ez naijela simplezat euqui» (11 or.).
3. «Ez beste gauza gaiti, ez bada, gueure genijuac, condecinoiac... gobait (sic) eguin bagaric, iraun ecindavelaco» (15 or.).
4. «Batzuc simpleza bategaz olgueetan dira, comedija baten, edo cecenetan baisen ondo» (27 or.).
5. «Ta dinot: I. Dantzan eguitia berez ezdala pecatu» (34 or.).
6. «Dinot: eureen estaduco cereguinai cobru emoteco... iragoten badavee oneec guztiec olgueetan, eguingo dabeela pecatu» (40 or.).
7. «Icusi daigun, celan eguiten dan plazaan piestia» (61 or.).
8. «...Apartau zaite, bere artiagaz, ta encantubagaz galdu ez zaguizan» (77 or.).
9. «Dantceetan ez eze Eleisaan bere pecatu eguin legui, naidavena. Ara bere ez juan» (185 or.).

## 2. Advertsatiboak

10. «Ez jaco beliari usua esaten, ezbada belia» (51).
11. «Ezpabere, esan daguijeela: ¿Tambolina avemarijeetan isildu arren, ceinbat juaten dirian echera...» (62).
12. «Ezbada gauza oneraco, edo chaarreraco jazoten dan moduban... Beguiratu daijegun...» (63 or.).
13. «Ez dira bada... begijac arguituten; ezbada ceubeen echeetaco verba, ta eguite deunguequin» (111 or.).
14. «Ez da olgueeti, edo diversinoia artu biar opicijoz...; ez bada gorputzari, ta entendimentubari atseen eraguiteco» (20 or.).
15. «Ez da gueure Jaungoicua ez zitala, ez urrija...; ez bada arteza, zuzena, zabala, ugarija, vijotz nasaicua» (21 or.).
16. «Bautismo Santuban ez guenduban aguindu olgueetia. Ezbada, mundubaren, araguijaren ta diabrubaren contra beti pelietia» (190 or.).
17. «Bautismo Santuban ezguenduban aguindu olgueetia... Ezbada, gau, ta egun contuban egoteco...» (Ibidem).

## 3. Disiuntiboak

18. «Cein organuba, cein biolina, cein trompia, cein sartain zaar bat... guztiequin jotenda soinuba» (32 or.).
19. «Ezda orain ezer esaten araco, edo bularrac berarijac jasota, edo armatuta, edo paparra aguirijan, edo besuac bilosic..., baino ez asco obeto, daroiezan nesca, edo andra gaiti» (51 or.).
20. «¿Nai Sacerdotia dela, nai Caballerua dala, nai Compesoria dala, nai ezconduba dala...» (204 or.).
21. «¿Esan beeban ezbeeban, edo emon beeban ezbeebango ezcontzaco verba bat gaiti auzitan daviltzanac?» (202 or.).

## 4. Kopulatiboak

22. «Ta esaten badau inoc... Ta ézdala pecatu Abadiac, eta Prailiac alan ibiltia» (174 or.).
23. «Santubac ez cirian, dantzariac uste daveen moduban olgau. Ta inos olgau batzirian alan, ez Santu zirianian» (190 or.).

## 5. Konparatiboak

24. «Ta gurasuac celacuac, umiac alacuac» (59 or.).
25. «Ceimbat gavaren urrago, aimbat ezainago, nasaijago, ta zatarrago dantza bacocha» (68 or.).
26. «Ta ceimbat estadu altubagocuac, aimbat naijago, eureen dantza loijac noc jaso euquiteco» (169 or.).

## 6. Koordinadak orokorki

27. «¿Ya cer esaten daveen? ¿ta cer icusico dogu plazaco gente pilluaren artian?» (64 or.).
28. «Ya dagoz dantza atan guizonezcoric, edu (sic) emacume, edo mutilic, edu nesca» (66 or.).
29. «Ez da nire gogua, guztiac ez, eze guichiago bere emen imintia» (75 or.).
30. «Dantza, ta saltoca daviltz soinubaren otsian; eureen egunac

iragoten ditubee aleguere...» (76 or.).

31. «¿Ceintzuc gaiti negar eguingo ete dot? ¿Ala ezcondu bagacuac gaiti, ala ezcondubac gaiti?» (81-82 or.).

## 7. Oihuzkoak edo exklamatiboak

32. «Ojala, pozu chistarreco ur berdiai, ta mingochai ichita, juango balira vizitzaco iturri gozoco ur garbijac... edaatera!» (21 or.).
33. «Oh, ceasco dirian, ta ce guichi compesetan dirian onetarico pecatubac» (40 or.).

## 8. Kontzesiboak, adierazpenekoak, eta abar

34. «Olgueetia berez izana arren ona, izan leiteque charra, eragotzitaco demporaan dalaco» (40 or.).
35. «Dinot bada, piestara duazan guztiac, diriala ainbat onduen apaindubac...» (51 or.).
36. «Eleisan ez arren, lapurretan eguin davena, ezcondubai baquian ichiarren... nora juango da?» (196 or.)

## 9. Erlatibozko perpausak

37. «Orraco plazaco piestetara utseguiten ezdaveenac, dinot, diriala pecatubaren...» (52 or.).
38. «Dantzeetan ez, ece Eleisaan bere pecatu eguin legui, nai davenac» (134 or.).
39. «Plazaco piestia darabilleenac, dira, esan dan edadecuac» (47 or.).
40. «Plazaco piestara eruaten dan jantzija, da ain bat ederreena, ta edertuen iminija» (49 or.).
41. «Naasteco dantza impameen gainian Eleisiaren Gurasuac, ta Santubac dacarreezan errazoe asarriac, esatez amaitu ezin leguiz» (78 or.).
42. «Dantzia daguan lecuban, dagozala oquerrerija guztiac» (79 or.).
43. «¿Eurac leguez, piestaric piesta, ta dantzaric dantza ezdavi-

len guztiari, beti guerria armauta dauqueenac?» (204 or.).

Perpaus batzutan Pr. Bartolome-k erlatibo *erromanikoari* amore ematen dio, honelako kasuak aski urriak direlarik, iparraldeko autoreetan (Axular, Xurio, Sarrako Etxeberri) ez bezala. Ezkerrera doan erlatibo hori *ceintzuc* (los cuales) delakoa da. «Ez modestijaric, ez onestidaderic, ezin emon leguijue eguiijazco errazoian *Nescatilliaren* izen ondrauba, ezbada *(sino,* hemen ere joskera *erromanikoa* adbertsatiboa muturrean ezarriz) nesquiaren izena» (51 or.)[8]

[8] Baraiazarraren sugerentziaz, azpimarratzekoak dira Prai Bartolome-ren «cein», «ceintzuc», «nun» partikulaz moldatutako perpausa erromanizanteok: «Eureen Biguireetaco musica, ta cante indecente, ta odolberozailiac gaiti, ceintzuc dirian luxurijaren azoguia, ta araguijaren sugarria» (118). «Areetati naijeen eveena zan Comedija, Sarauba, naasteco dantzia, ceindan luxuriaren Ama» (145). «Bederatzi Concilijoren esanac iminten ditu Eracusliac berac, nun aguiridan Eleisiaren Aguinduba arguiro» (173).

## V. FONETIKA ALDERDIAK

Hemen, aztergai dugun Pr. Bartolome-ren liburuan, alderdi guztietan nabarmenena *fonetika* gertatzen da. Pr. Bartolome-ren euskara, Bizkaiera nagusiko, Markina-ko *subeuskalkiaren* eremuan kokatzen da. Obra honetan, bada, bai bizkaiera nagusiko eta bai Markinaldeko subeuskalkiko konstanteak isladatzen dira. Fenomeno fonetiko horietan nagusienak: a) bokalismoa bikoitzaren tratamendua, b) hitz barneko etengabeko ozendurak *(absolbiDu, serBidu)*, c) etimologismo grafiko zenbait *(deutscubeenia, deutscu)*, c) s/z morfemen nahasketa *(nos, nasalaco)*, d) NS/RS/NS taldeen frikatizapen/ez frikatizapena, e) bustiduren tratamendua, f) sinkopa zenbait, bereziki, partizipioaren kasuan *(topau, cansau, asmau)*. Grafiari dagokion zenbait arazo ere sail honetan tratatuko dugu, *v, ch,* tc/tz *(vitzija, dantzaa/dantceetan)* gisakoa.

Bestalde, fonetikaren eremuan azken bokalearen (eta barruan ere konposakeran) apofonia edo irekiera *(labAri,* urre/*urrA,* eracusle/*eracuslA)* arazo nagusienetakoa izanen da.

Ozendurari dagokionez, eta baita gaztelaniako *-ie* diptongoaren *(priesa, piestia)* erabilpenari dagokionez, Pr. Bartolome-ren euskarak (eta bizkaiera nagusiak, nolabait) gaztelaniar fonetikarekiko menperakizun berezia isladatzen du. Azken ondorio hau aski nabaria da guretzat. Lehenik kontsonantismoa aztertuko dugu, gero bokalismoa.

### A. KONTSONANTISMOA

#### 1. S/Z txistukarien alternantzia

Txistukarien eremuan, jakina denez, Bizkaierak, arazoak ditu s eta z ongi berezten. Nahiz-eta itxuraz arazo horren isladak atze-

«Bai, «z»-z idatzi beharreko zenbait hitz «s»-z ematen digu, baina ez da apiko-albeolarea /s/ eta bizkar-albeolarea /z/ bereizten ez ziman, Prai Bartolome-ren idazkietan ez da halako nahasketarik, tuelako, hitz banaka horiek bizkaieraz bilakabide ezberdina izan dutelako baizik». Hau da *L. Baraiazarra*-ren aitorpena. Eta L. Mitxelenak: «La confusión total de los órdenes de sibilantes es hoy general en Vizcaya, salvo, a lo que se indica, en Marquina-Echevarría y Bolívar: la africativa es apical, /s'/, para la africada predorsal» (FHV, 282 or.).

Fenomeno berezien isladak, bada, NOX NOS, INOX INOS, GOIX, GOX, GOS gisakoetan.

ELISIAREN (EleiZaren) «Diadar eguiten davee Eleisiaren guiza aldi», 8 or. «Eleisian ez arren, lapurretan eguin davena», 196 or. «Erromedija batzuc eguiten dira Errijetaco Eleisetara», 186 or.

NOS (Noiz) «Nos bait zetan, edo atan olguetia», 11 or. *Olguetia* hitza ia beti bokale bikoizturaz dakar (*Olgueetea, olgueetaan,* etab.) «Eguija da, nos bait olgueetia naturaleciac escatutén davena», 109 or. «Jazo leiteque, nos edo nos, pecatu ez izatia», 36 or. «¿Ta nos palta dira piesta egunian plazaan», 62 or. «Nequezco baten, edo nosic beinaco descuidoren baten», 129 or. «Nos bait barre eguiten», 16 or. «Nos absolviduco eveen guraso bat», 87 or.

INOS (inoIZ) «Ta olgueeta areec zer dirian daquijanec, inos bere ez», 129 or. «Beste batzuc inos bere ez», 153 or. «Al izan ezquero, inos paltau ezdaveenac», 203 or. «Onaco achaquijaac ezdeutsaz inos», 114 orr.

BAISEN (baiZen) «Comedija baten, edo cecenetan baisen ondo», 27 or. «Buruba urdinduta euqui arren, gaztiac baisen berdiac», 54 or.

GAISTUAC (gaiZtoak) «Piestaraco gurarijac lapurretaac, maina gaistuac», 206 or.

GAISQUINAC (gaiZkinak) «Ta aguirico oquerrijaguinac, ta gaisquinac», 199 or.

GOIX (goiZ) «Orduban dira, goix parteti eche viarrac gaztiac eguitia», 56 or. Hemen bustiduraz eman digu ohizko *z* fonema.

NASALACO (naiZelako) «Logreruba nasalaco, edo pecatuban comulgueetan nasalaco», 177 or. «Dantzan ibili nasaneco demporia juanjat», 163 or. Ikusten denez aldaketa fonetikoak (eta

bustidurak) txistukariaren aurretiko diptongapenaren ezkutapena suposatzen du. Ikus: L. Mitxelena: *Fonética Histórica Vasca,* 192.

## 2. NS/NI/RS taldeetan frikatizapena

Talde kontsonantiko hauetan Prai Bartolome-k ez digu isladatzen joera baturik; hitz zaharretan, frikatizapenera jotzen du, bainan salbuespen ezlogiko aunitz duelarik (alternantziak emanaz); euskarara sarberriak, ala mementako mailegu zabarrak direnetan, adibidez, *conciencija, indecencija* kasuetan, gehienetan aldaketarik ez.

OLGANZACO (olganTzako) «Dira chito nasaijac euren olganzaco dantzeetan», 10 or.

ONZAT (onTzat) «Pecatu ez diaranac (sic), guztiac onzat emon gura lituquee mundubac», 8 or. «Jaungoicuac condenetan davena, guizonac onzat emon ezin leguijee», 12 or.

CEINTZUC «Ciembat (sic) pecatu, ta ceintzuc eguin citubeen piesta», 131 or. 146 orrian eta bestetan «ceimbat» («Ceimbat aleguin eguindan guiza aldi guztietan»). Beraz, inprentako hutsa da. «Ceintzuc dirian luxurijaren azoguia», 118 or.

DANTZEEN «Azartu biar dodala, naasteco dantzeen bereno madadicatuba azaldeetara», 10 or. *Dantza* hitza ia beti frikatizapenez («Zu ibili zarian dantza», 130 or. «Auda, zuc dantzara juanda, emondozun escandaluba», 131 or. 157 orrian frikatizapenik gabe «gauzaric danzaan». 176 orrian frikatizapena, baino NTC grafiaz. «Euren dantcetaco pecatu leijac»).

VENGANTZAAC «Atera oidituban ocasinoiac, gorrotuac, vengantzaac, burrucac», 75 or.

CONCIENCIJAAC (konTzienTziak) «Baina piesta zaleen conciencijaac oitura chaarren tintiagaz zetacatuta dagozan leguez», 182 or. «Ta cristinauben concienciјetaco duduac erabaguiten», 39 or. «Apaindurijac, conciencia nasijac», 64 or.

PROVINCIAN (probinTzian) «Vizcaijan, ta Provincian. Justicijac bere au erremedijau ezin legui», 63 or.

ERANZUNGO (eranTzungo) «Oneen ondoric eranzungo jacue erabatera guztien erraparubai», 105 or. Bainan orri berean gorago «eranTzutera orduco».

MORTALTZAT «Ta Sarauco dantza desonestu orreec pecatu mortaltzat», 122 or.
PALTSUAI «Ta emoten eutseezan Jaungoico paltsuai euren icenac», 140 or. «Jaungoico paltso areec ondreetaco», ibidem.
PERSONA (perTsona) «Ta edade guztietaco persona dantzazaliac», 126 or. Ikusten denez, hitz bat euskaran aski beranta bada (eta abstraktu samarra) ez da makurtzen maiz gure fonetika legetara. Kasu horietan, noski, *conciencija, indecencija,* etabar.
PENSEETACO (penTsetako) «Ta gueijago penseetaco, dantzeetaco verenuac ill ezdaguijan», 164 or.
INDECENCIJAZCO (indecenTziazko, *lizunkeriazko)* «Edo naasteetan bada indecencijazco gauzaric danzaan», 157. Kasu honetan frikatizapenik ez *indecencija,* ez *danzaan* kasuan. «Eureen jantzijan vanidadia, modia, indecencija», 200 or. «Ta indecencija eracustia...», 53 or.
ELTZACAAC «Azalquerija, verdequerija, errazoe eltzacaac», 200 or.
DABILZAN (dabilTzan) «Escu artian liquinduta, dabilzan emacume ezcondu bagacuac», 50 or. Bainan beste askotan «dabiltzan».
TESTIGANTZARIC «Ezda beste testigantzaric biar», 60 or.

## 3. Biezpainkarien aldaketak, F/P

F fonema sitematikoki P batez errealizatua ikusten da, eta beste hegoaldeko autore inorengan baino joera bortitzagoaz. Bestetan *f* iraun denetan ere *(fede, fornikazio, profeta,* etabar) gure karmeldarrak p bitxia *(pede, propeta, pornicacinoia,* etabar). J.A. Mogel bide berdinetik, gehienetan.

PALTIA «Jocatuten bada, beti izango da paltia Jaungoicuaren veguijetan guichiago», 29 or. «Ateraten davee placiaren paltia», 62 or. «Ta chiquijagoco paltaac bere», 165 or. «Esan dirian gauzeetan paltau», 31 or. «Ezertan paltau bagaric», 33 or.
COMPESETAN «Oh, ceasco dirian, ta ce guichi compesetan dirian onetarico pecatubac», 40 or. «Cura Jaunai, ta compesore», 89 or. «Ez daucala compesorec», 103 or. «Zurtu, compesore jaunac», 124 or. «Compesinoiari, Sermoiari», 203 or. «Ta orduban celan bait, baño ez compeseetia», 53 or. «Compesoreric eldubeenac, ta errazoezcueñac», 135 or.

PABORE (favor) «Mila abonu esan leguiz bere pabore, ezertan paltau bagaric», 33 or. «Naasteco dantceen pavore», 132 or.

PALTSUEN «Propeta paltsuen lecuban conteetan ditu Jangoicuac», 13 or. «Jaungoico paltsuai eureen icenac», 140. Hemen *Jaungoico* (eta ia beti) eta goian *Jangoicuac*. «Ta onan beste Jaungoico paltso eguneetan», 142 or.

PROPETA (profeta) «Propeta paltsuen lecuban...», 13 or.

OPICIJUAC (oficio) «Opicijuac, eta cereguinac bere ez», 38 or. «Ezda olgueetia, edo diversinoia artu biar opicijoz», 19 or. «Licencia emon bere, opicijo impamia», 149 or.

PANDANGUAN (fandango) «Edo pandanguan olgueetia, ez dala pecatu», 35 or. «Arin aringuia, arrebatua, ta pandangua joten ditubanian», 66 or.

OPENDIDU (ofendido) «Jaungoicua openditu baric», 27 or. «Jaungoicoa openditu bagaric, esan dirian dantceetan», 194 or.

PIRMIA (firme) «Samurra, ta alegueria, pirmia, ta sendua», 25 or.

PRANCISCO «San Prancisco Salesec beste ain beste...», 18 or. «Ara emen San Prancisco Salesec Philoteari», 164 or.

PRUTU «Onetan lagunai opa deutsedan prutu guichija?», 3 or. «Endamas bere devocionecua bada, prutia, edo erroscaac artuta», 70 or. «Erein evan azi impamiaren prutu madaricatuba», 146 or.

IMPAMIAC (infame) «Desonestidadia, ta oitura impamiac beti oinian euquiteco», 7 or. «Naasteco dantza impameen gainian», 78 or. «Ta impameetaraco, patricaraan, edo muxilleetan...», 201 or. «Erein evan azi impamiaren prutu», 146 or. «Ez chiquituen naaste impame ataco pecatubac», 154 or. «Eragotzita daucan olgueeta impameetan?», 170 or.

PRAILE «Icusten badabes Praile bat, edo Monja bat», 16 or. «Abadiac, ta Prailiac bere juaten dira piesteetara», 133 or. «Abadentzat, ta Prailentzat pecatu diriala», 168 or.

PILOTEAC (Filotea) «Piloteac bere eguin euquian, caridadia...», 36 or.

PIESTIA (fiesta) «Ta dantziagaz eguitenda piestia», 33 or. «Plazaco piestaraco gentia celan presteetan dan», 43 or. «Plazaco piestia celan eguiten dan», 43 or. «Ta Provinciaco piesteetan aut (sic)...», 62 or. «Errijetaco gentiari, piestaac, tan dantzaac eguiten», 147 or. «Gueratu oidalaco piesta eguinic erdijeetan», 71 or. «Ez piestara Juateco», 147 or.

APICINOIA (afición) «Baina alaco olgueetaco apicinoia», 20 or.

POPUERTZACO (Por fuerza) «Ta gogoz, popuertraco (sic) lana», 19 or. «Onetaraco popuerzacua da examinetia», 44 or.
PAMELIJETACO «Ta pamelijetaco baquia, ta matrimoniuac galduten ditubeelaco», 87 or.
PORNICAU (fornicar) «(Pornicau bagaric) areec bere arimaco castidadia...», 82 or. «Luxurija, pornicacinoia, ta beste pecatu ezainac gaiti», 85 or.
PEDIA (fe) «Pedia daucan cristinaubari, icara eraquin leguijueenac», 76 or.
IMPERNURA «Ta istante baten jausten dira impernura», 77 or. «Ta impernuba beteteco, lecuba da», 188 or.
LUCIPERREC (Lucifer) «Luciperrec ceruban bere eguin evala pecatu», 186 or.
DESAPIJOGUINAC (desafiantes) «Eche galtzailiac, castalarijac, desapijoguinac», 203 or.
PARISIJUEN (Fariseo) «Parisijuen escandaluba da», 166 or.
PAMAUBAC (famoso) «Icentau dirian Eracusla pamaubac», 129 or.
PRANCESAC «Prancesac eguin daveen leguez», 153 or. «Erdeeraz, Prances, Italiano, Teutonico», 140 or[9].

## 4. Frikazioa NZ, RS, LS kasuetan

Ez dago batasunik aztergai dugun liburuan; itxuraz, mailegu aski kultistetan, ala berant samarrekoetan, ez du frikaziorik egiten; joera handiena egiteko LT, LZ taldean. Hitz ongi erantsietan (eta zaharragoetan) frikazio-joera gehien batean.

ONZAT (onTzat) «Guztiac onzat emon gura lituquee», 8 or. «Guizonac onzat emon ezin leguijee», 12 or.
OLGANZACO (OlganTzaco) «Dira chito nasaijac euren olganzaco dantzaetan», 10 or.

[9] «Juan Antonio Mogel eta Prai Bartolome «f» fonema onartzen ez dutenetarikoak dira bete-betean. Mogel-ek, euskaldun hutsen ahozkatze modua aipatzen du arrazoitzat eta Prai Bartolome-k, jakintsuak eta euskaldun hutsen ahozkatze modua ere bai» (L. Baraiazarra).

CONCIENCIJAAC (konTzienTzia) «Baina piesta zaleen conciencijaac», 181-182 or. «Ta cristinaubeen conciencijetaco duduac erabaguiten», 39 or. «Conciencija nasijac, ta oitura desonestubac», 64 or.
PROVINCIAN (ProbinTzian) «Vizcaijan, ta Provincian», 63 or.
CEINTZUC «Ceintzuc dirian luxurijaren azoguia», 118 or. «Ta ceintzuc eguin citubeen piesta», 131 or.
VENGANTZAAC «Gorrotuac, vengantzaac, burrucac, maquilacaac», 75 or.
DANTCETACO «Au esanagaz eureen dantcetaco pecatu loijac», 176 or. «Ta emacumeen arteco dantza naastaubac», 89 or.
ERANZUNGO (EranTzungo) «Oneen ondoric eranzungo jacue erabatera», 105 or.
MORTALTZAT «Pecatu mortaltzat eracusita daucazan gauza desonestubac», 121 or.
PALTSUAI «Jaungoico paltsuai eureen icenac», 140 or.
PERSONA (perTsona) «Ta edade guztietaco persona dantzazaliac», 126 or.
PENSEETACO (penTsetaco) «Ta gueijago penseetaco, dantzeetaco verenuac», 164 or.
INDECECIJAZCO «Edo naasteetan bada indecencijazco gauzaric danzaan», 157 or. «Modia, indecencija, ta luxurijaren convitgarrija», 200 or.
ELTZACAAC «Errazoe eltzacaac, ez icen desonestubac», 200 or.
DABILZAN (dabilTzan) «Escu artian liquinduta, dabilzan emacume ezcondu bagacuac», 50 or.

## 5. Barneko ozendurak

Pr. Bartolome-k, bizkaiera nagusiak bezala, joera handia dauka, *gaztelaniaren* eraginez, barneko herskariak ozentzeko, horretan euskararen lege zahar eta gotortu baten aurka jardunaz. Guretzat gaztelaniar ukipen geografikoaren urradura fonetikoa da.

SERVIDU «Inoc bere ezin leguijala, Jaungoicua serbidu, ta diabrubagaz dantzaan eguin...», 79 or.
ESCRIBIDU «Escribidu eveenac», 9 or. «Lotsa nasala escribiduten», 64 or. «Ta Tertulianoc gueijago escribidu eveen piesta galdubeen», 80 or.

ESTADUCO «Euren estaduco cereguinai cobru emoteco», 40 or.
ATREVIDUBA «Utse eguite atreviduba, to (sic) pena andija merecidutan dauena», 12 or.
LIBERTADIA «Eurac esan eidaveen, libertadia, edo licencija», 154 or.
DESONESTIDADE «Beste desonestidade guztia lotsa bagaric airian darabilee», 67 or.
VIRGINIDADIA «Ezcondu bagacuac virginidadia galduta, viurtuten dira...», 82 or.
CONSENTIDU «¿Cer consentidu dozu, ta eguindozu sarritan dantza», 130 or.

N/l ondorengo ohizko ozendurarik ez, logikoa denez, gure antorea bizkaitarra delarik, hots: *altara, israeltarrei* (138 or.), *gentia, gentiaren* (74 or.); bai ordea, *estalguiagaz* (8 or.) eta *estalgui* (63 or.) kasuetan.

## 6. Bustidurak

Gura idazleak bizkaierako joaretan sartzen diren bustidura bereziak, batez ere, TZ eta Z kasutan. LL bustia askotan bokalizazioz hautsi egin ohi du, eta are gehiago Ñ delakoa *(seinorac, enpeinu)*.[10]

-ZALE/TZALLEA batzutan bustiduraz *(ucazalliac,* 145), beste askotan gabe *(odolberozailiac,* 118).
BACOCHA (bakoitza) «Joco aldi bacochian ogueta amar ducat», 29 or.
LICHAQUIO (litzakio) «Gainia etorrico lichaquio, jocuari isteco», 15 or.
MINGOCHAI (mingotza) «Ur berdiai, ta mingochai ichita», 21 or. «Trago mingocha arimiari emoten deutsala», 171 or.
GACHAC (gaitzak) «Cristandade guztia desondreetan daueen gachac», 8 or. «Ta beste batzuc laburtuten ditubee gach bagacua bere», 13 or. «Ta gachetaraco jaquiturija», 118 or.
GOIXTARRA (goiztarra) «Ta gacheraco jaquiturija goixtarra gaiti», ibidem. «Goxian Jaungoicuagaz, ta arrats...», 80 or.

---

[10] Baraiazarra-k hipotesi hau eskaintzen digu bustiduraren joera nagusitan: «Idazle honek, sabaikariak ahalbait eta gutxien sartzea idaz-arautzat duela dirudi».

NOS (noiz) «Nos arpeguijaquin, nos besuaquin, nos sabeleequin, nos albuaquin alcar ez joco», 67 or. «Ezdeutsaz inos sinistuten emacumiari», 114 or.
DEDILLA «Ez dedilla inor engainau», 79 or.
ILLTEN «Baina illten dira cristinaubeen arimac», 79 or.
BAÑO «Ta orduban celan bait, baña ez compeseetia», 53 or. Alabaina, gehienetan bustidura grafikorik gabe: *baino,* (56 or), *baina* (46 or.). Esan dugunez sudurkari bustia (Ñ) ia beti hautsi egiten du, gutienez, grafia mailan. Beraz, *baino,* 46, *inoc,* 79, *engainu 79, empeinu* 125, *soinuba* 28, *seinoraac* 116, etab.
SEINALLEETAN «Beste batzuk seinalleetan deutsee dantzai erne lecuba», 138 or. Hemen ere sudurkaria bustidurarik gabe *(seina* —eta ez *seña—).*

## 7. Disimilapenak

Hona han-hemen atzemaniko kasu urri batzutan disimilapen nabariak, hizkera arrunta baten adieragarri:

BERENO (veneno) «Naasteco dantzeen bereno madadicatuba azaldeetara», 10 or. «Ta pristija venenotsubac oinduari verenua ezarten deutseen leguez», 160 or. Hemen Pr. Bartolome-ren desbatasun fonetiko itzala; izan ere, perpausa berean batean *venenotsubac,*eta bestean disimilapenez *verenua.*
IRURI (irudi) «Pecatarijac aleguere iruri arren», 25 or.
LAUDEUN (larehun) «Esandan moduco eun, berreun, laudeun», 56 or.
BEGAZ (beraz) «Begaz ezda pecatu, dantzan eguitia», 159 or.
BIDAUAC (biraoak) «Bidauac eta maldecinoiac ezarten ditudalaco», 177 or.

Beste zenbait aldaketa artean,m disimilapenaz aparte, *pristija,* 160 or., *solbardaan* (metatesia, 64 or.), *echuria* 27 or., *imini* 136or., *onaco, onan* 160 or. *(olan* ordez).

## 8. Sinkopaziak -TU/DU atzizki kasuan. Dardarkariaren erorketa

Aztergai dugun obran *sinkopazioa,* ia, etengabea da; joera hau ere nabaria bizkaieraren eremuan, bainan beste euskalki batzuetan

ere, adibidez, Gipuzkoan Zegama-ko subeuskalkian *(Goierri, Ataun, Segura, Idiazabal,* etab.) Gainera, kasu batzutan R dardarkariaren erorketa (noRc=*noc,* noRberac=*noberac,* aRtan=*atan).*

LIBRAU «Faraonen escu gogorretati Isrrael (sic) librau zanian», 35 or.
ASMAU «Arimeen arerijuac asmau dituban olgueetan galdubac bere», 7 or. «Asmau vedi, naijeen dan gauzia», 14 or. «Demoninuac asmau citubala», 138 or.
ESAMINAUTA «Dantzia eguiten daveen moduban, esaminauta», 9 or.
PENSAU «Ta cer pensau gueijeen daucana», 9 or. «Zu gaiti gauza chaarric pensauco», 90 or.
OLGAU «Celan olgau leitequian demporiaren parteti», 27 or. «Edo atan olgau biar davee», 134 or.
CANSAUBARI «Bai gorputz cansaubari atseen eraguiteco», 7 or.
ENGAINAU «Ez dadilla inor engainau», 79 or.
APARTAU «Ume condo batzuc apartau ezquero», 55 or.
NAASTAU «Ta dantza naastau bacocharentzat erreguela bat», 37 or.
MUDAUCO «Ez jaco alaco gurasuari coloreric mudauco», 59 or.
ICENTAU «Icentau dirian olgueeta desonestubeetara», 122 or. «Icentau dan capituluban», 165 or.
TOPAU «Errazoe onen errespuestaric ezin topau izan dot nic», 125 or. «An topauco dau», 174 or.
SALVAU «Coroia edeguijac salvauco baguinduz», 168 or.
ARMAUTA «Beti guerria armauta dauqueenac?», 204 or.
ERRAPARAU «Edoceinec Errijeetan erraparau daiquien», 199 or.
COMPENSAU «Sarri compensau arren, beinbere ondo compesetan ezdiriala», 183 or. «Ta ondo compesau bere ezin leitequezala», 183 or.
EZETARA «An topauco dau, ezetara bere ezdala...», 174 or.
NOBERAREN «Olgueetia da, noberaren cer eguin nausijai», 14 or. «Noberari ezbajuaco, leguez», 11 or. «Noberac gura daven moduban», 12 or.
ATAN «Gaztiac, cetan, edo atan olgau biar davee», 189 or. «Edo atan olgau biar daveela», 192 or. «Nos bait zetan, edo atan olguetia», 12 or. «Laster librauco da naaste atati», 113 or. «Oca-

sione atan sartutia consentiduten davenian», 46 or. «Impame ataco pecatubac», 154 or.
CETAN «Gaztiac cetan, edo atan...», 134 or. «Cegaiti asi zirian, ta dagozan tercijora celan etorri dirian», 106 or. «Ezda bada cetan esan...», 188 or.
NOC «Nos noc dantzara eruango eta dituban», 65 or.

## 9. Etimologismo fonetikoak

Etimologismo fonetikoa, bereziki, konposakeran eman ohi da konposagaien elemenduak nabarmenago adierazi nahi direnean, eta zilegi ez diren kontsonante-multzoak pilatzen direnean. Hona kasu batzuk:

MINGOCHTUTA (mingoxtuta) «Ta ozpinez mingochtuta, odoltuta, illunduta», 4 or.
BOSTGARREN (boskarren) «Bostgarren lecuban piesta zaliac», 179 or. «Pensau eguizu bostgarrenian», 163 or.
GACHTSUBAGO (gaiztsuago) «Ta gachtsubago, edo malecijotsubago», 117 or.
ATSTA (atsa) «Sentiduten daveen eureen pecatubeen atsta», 183. Seguraski inprenta-hutsa da soilik.
DEUTSCUBEENIAN «Erremedijeetan diriala, esaten deutscubeenian», 207 or.
DEUTSCUNA «Evangelio Santubac aguinduten deutscuna», 42 or. «Lecu ascotan encargueetan deutscu», 22 or.
EUTSCUZAN «Ez eutscuzan Jaungoicuac oinac emon», 79 or.

## 10. Dardarkariaren aurretiko protesia

Dardarkariaren muturrean, ia beti, ohizkoa denez, ezaguna den protesia.
ERRIAL (real) «Edo tantu bacochian errial bat baino», 29 or.
ERREMEDIJAN «Munducuac ezin erremedijau leguijeez», 148 or. «Ezcutubeetaco gauza chaarrac erremedijeetan diriala», 207 or.
ERRAPARAU «Edoceinec Errijeetan erraparau daiquien», 199 or.
ERRESPETOZCO «Edo errespetozco personaren batec erregututen», 127 or.

ERRESPUESTIA «Ta ara emen zortzigarren urteeriaren errespuestia», 207 or.
ERROMATI «Quendu gura izan zitubeen Erromati naasteco dantzaac», 206 or.
ERLIGINORIC «(Oneen erechijan) ez erliginoric», 17 or.

### 11. Frikazio ez-ohizko zenbait

VITZIJA «Ceure amodijuaren su vitzija», 6 or.
VITZI «Ta arguijaren artian loituta vitzi gure daveenac», 150 or.
«Ta Cristinaubac vitcí ditezan jaquinaren gainera», 34 or.
ATZIJAC «Desonestidadeco escolaan atzijac», 59 or.
LUTZARO «Guela estu baten lutzaro oian daguan gaisuarena», 182 or.

## B. BOKALISMOA

Prai Bartolome-ren obran azaltzen den bokalismo fonetikoa aski nabarra da, bereziki, textuak herriaren maila fonetiko arruntean eman ditzakeen aldaketarik gehienak jasota daudelako. Bokaleen aldetik bost bariante, beste euskalki gehienetan bezala: a/e/i/o/u. Bainan multzo horrek bi subsail sortzen ditu diptongoen eta hiatoen arloan.

Hiatoen mailan talde hauek atzeman daitezke:

o + u < *ua,* hots, «oa» etimalogikoa «ua» bilakatzen da, lehen bokalearen ixturaz (zero = *zerua,* ardaoa = *ardaua,* daroa = *darua).*

e + a < *ia.* Hemen ere ixtura lehen bokalean. Gehienetan, noski, emaitza fonetiko horretan artikuluaren presentzia atzeman behar da; bat *ea* etimologikotik, hots, kolore/*kolorea,* seme/*semeatik,* bainan beste askotan aa < ea < ia-tik, hau da, *amaa < amea < amia, neskaa < neskea < neskia, alabaa < alabea < alabia.* Nahiz-eta beste euskalki gehienetan kasu honetan *aa* gisako bikoizturak ez eman bizkaierak onartzen ditu (Mogel-en *Peru Abarka-n* ere aski garbiak dira *(nebaakaz* 68, *bodagadaan* 96, *azaak* 44, *ormaak* 76, *koplaak* 146). Bikoiztura horietan, bada, *a* etimologikoa/gehi artikulua datza. Beste batzuetan arrazoinik gabeko bikoiztura bokalikoak eman daitezke *aa/ee/uu* kasutan (adibidez, *luur* ez-etimologikoa Pr. Bartolome-rengan); bainan,

*aa* amaierakoan artikuluaren eragina datza gehienetan. *Ee* bikoizturak, oso maiz, aditzetan gertatzen dira; *dautsee, eveelako, nabee*. Deklinatiboetan bokale elkarketagatik: *echeetan, esamineetan*, etab.

Diptongoen mailan, berriz ohizko bost talde: ai/ei/oi/au/eu.

Prai Bartolome-k, oso maiz, gorde egiten du diptongoa, beste bizkaitar autoreetan l-aren bustidurak[11] i -aren itzaldura eta monotonganena suposatzen duenean ere (adibidez, *dantza zailiac, dantzazalliac* ordez). Beste goranzko taldeak, ia beti, hiato gisa kontsidera daitezke, hots ia/ie/io/ua/ue (erre/mi/en/ta = *eRemjenta*, bost silabaz). *Priesa, piestia* gisakoez arituak gara jadanik.

## 1. Wau erdikontsonantea

Esan dugunez, fenomeno fonetiko honek prozedura hiatodunak gotortzeko joera adierazten du; euskara arruntean ezagunak ditugu, lehen ere, *suBerte* suerte, *biBolin* biolin, *aBua* aua kasuak. Beraz, bisilabadun liratekeenak hirusilabadun gertatzen dira[12]. Pr. Bartolome-ren idazkian erdikontsonante honen tartekadura, ia, etengabea da. Hona adibideak:

---

[11] Ohar hau kontutan edukitzekoa: «jatorriz -IA denea, yod bat tartekatzen du beti -IJA, baita hitz-barnean ere; «i»ren ondoko bokalea edozein delarik, beti tartekatzen du yod hori: «oina jaso ALBADAGUIJEE» (54-55); «VIJAMONECO» (57); TERCIJUAN (63, 107); JUICIJOZCOC (36)». (L. Baraiazarra).

Alabainan, erdikontsonanteetan emanen da gure autorearen nabartasun gaitz eta oparoena. *Yod*-aren tratamendu bereziagatik bokale tartean *(opicijo, eguiija, conciencija, azalquerija*, etab.)[12]. Bestalde, Pr. Bartolome-k biziki joko du «Wau» erdikontsonantera hiatozko prozedurak gotortuaz: suac < *subac*, odoltsuac < *odoltsubac*, barruan < *barruban*. Berezitasun fonetiko hau, noski, ez da Markinako ala Bizkaikoa bakarrik, Gipuzkoan bertan, Beterrin aski hedatua dago, bainan Pr. Bartolome-ren liburuan, ia, sistematikoa gertatzen da.

*Yod* erdikontsonantea hitz-haseran eta bukaeran. Haseran *x* (gaztelaniazko *j)*-ren balioa dauka (jarri = *xaRi)*. Hori da Markina-ko ebakera. Lekeitio aldean *z* litzateke (hots, frantzesa gisako «j»-rena), eta Arratian j (gaztelaniazko y-rena). Beraz, jaungoikuac *(xaungoikuak)*, jako *(xako)*.

Hitz barnean, ordea, delako *Yod* hori bokale artean š gisa ebakitzen da Makinako subeuskalkian; Pr. Bartolome bertakoa izanik jatorriz, textuan ematen diren *guichija, luxurijotsu, cincilijuac, vitzija, nasaijeen* kasuak š gisa ebaki behar direla uste dugu. Hots, *guztija* (gustiša), *beguijac* (begišak).

Hau guztia kontutan izanik, ikus dezagun, bada, bokalismoa sailez-sail.

[12] «Jatorriz -UA denean ere beti Wau tartekatzen du, baita hitz-barnean ere; «u»ren ondoko bokalea «a» ez ezik, beste bat denean ere berdin. Beraz, lesemaren bukaera «o» duten hitzak eta «u» dutenak ondo bereizten ditu» (L. Baraiazarra).

CERUBA «Jaungoicuaren bildur bagacuac, Ceruba galdubac», 149. «Ta Martirijeen egunac, Cerubari gracijac emonagaz», 143 or.
SARAUBA «¿Cein dirian chaarrago, Biguiria, ala Sarauba?», 117 or. Bainan *wau* gaberik: «Biguiraric, biguira, sarauric, sarau», 192 or.
SANTUBAC «Santubac ez cirian, dantzariac uste daveen moduban olgau», 190 or. «Ezda Santuba, edo Santia ondreetan», 108 or. «Ta olgueta santubeen *Neurria»,* 5 or.
ISPILLUBA «Ta virginidadiaren mirarizco Ispilluba», 159 or.
PAMAUBAC «Icentau dirian Eracusla pamaubac, ta beste ascoc», 129 or.
DIABRUBAREN «Ceimbat arima diabrubaren sareperatu dituzun ceure dantza...», 131 or.
ARDOATSUBAQUIN «Ta ardaotsubaquin Jaungoico palso asco», 141 or. «Olgueta ardaotsubac, loijac, ta odoltsubac euqueezanac», 143 or.
ZITUBACO «Ta pecatubeetati Jesucristoc librau zitubaco», 144 or.
ARGUMENTUBAC «Dantza zaleen urteneraac, edo argumentubac», 132 or.
BATUBAC «Ta artzaquin, batzubac ill artian», 142 or.
MUNDUBA «Onan topau eveen Apostolu Santubac munduba», 142 or.
DESDICHAUBAC «Ta nasaitasuna nai daveen desdichaubac verba eguiten daveela», 132 or.
ZUZPIRUBA «Orduco soinuba izango da nire zuzpiruba», 163 or.
DEUTSCUBEENIAN «Erremedijeetan diriala, esaten deutscubeenian», 207 or.
NAASTAUBAQUIN «Errijeetaco piesta, ta dantza naastaubaquin», 150 or.
BILLATUBA «Toqui apartecua, ta billatuba da», 188 or.
ASMOTSUBAC «An icasten dira, inor engaineetaco arte asmotsubac», 198 or.
CRISTINAUBAI «Licencija cristinaubai emoten deutsanac», 194 or.
EZCUTUBEETAN «Ezcutubeetan gauza chaarraguac», 195 or.
SUBA «Luxurijaren suba garretan euquiteco gueiric...», 47 or.
ONDRAUBA «Nescatilliaren izen ondrauba», 51 or.

LIBURUBETAN «Theologijaco, ta eracuste oneco liburubetan», 7 or.

NECATUBA «Bai buru necatuba arinduteco», ibidem.

SAGRADUBAN «Esaten dira eureen gainian Escritura Sagraduban», ibidem.

MODUBA «Naasteco dantzia eguiten daveen moduban», 9 or. «Ta eguiten dirian moduban», 45 or.

ATREVIDUBA «Uts eguite atreviduba», 12 or.

CAPITULUBA 11 or.

SOINUBA *«Eitza, Pasiua, Soinuba, ta dantzia»,* 28 or. «Ta nesca baten trompiac, edo soinubac tambolinarena», 62 or.

AZARTUBA «Ceuri verba eguiten azartuba», 6 or.

GALDUBAI «Ta oitura onai, edo galdubai ascotan izatia...», 7 or.

CONTUBAN «Cristinau itsubac, contuban jausi ditezan eureen uts eguite...», 10 or.

POZUBA «Impernuco pozuba, Babilonijaco labia», 86 or.

BURUBA «Ichi bagaric darraicon gogua, buruba, ta gorputza bere», 19 or.

ITSUBAC «(Guztiz itsubac mota gorrac, edo umiac ezbadira)», 99 or.

MADARICATUBAC «Gueure piestetaco dantza madaricatubac», 78 or.

ESTADUBA *«Edana, Jantzija, Nasaitasuna, ta Estaduba»,* 47 or.

SARAULECUBAC «Euquiten ditubee Andiquijac eureen Biguira edo Saraulecubac», 119 or.

SARAUBAC «Andiecheetaco Saraubac malecija gueijago, luxurija sutsubago», 119 or.

GAVAC «Ta nos palta dira piesta egunian plazaan, gavac ordubac emonda bere», 62 or.

GORUBETIAREN «Baserrijeetan, edo ezpatetiaren, edo gorubetiaren», 110 or.

ORDUBA «Gura davenac, gura davena eguiteco, orduba dala», 66 or.

DESONESTUBAC «Escu estututiac desonestubac...», 68 or.

PROPOSITUBA «Ta ez eguiteco asmua, edo proposituba artu artian», 114 or.

DIABRUBA «Aingueruben tristecia, ta diabrubeen poza», 78 or.

TURCUBAC «Eze, turcubac eurac bere lotsatuco litzatequez», 111 or.

CEUBEEN «Ezbada ceubeen echeetaco verba», 111 or.

## 2. Ua > oa

Markina-ko subeuskalkian ez-ezik, Bizkaiera nagusian eta Gipuzkeran bereziki, aldaketa fonetiko hori ohizkoa da. Ondorongoak aldaketa horren adierazgarri dira:

SAGRADUCUAREN «Ta Congregacinoe sagraducuaren ordena asco bere...», 172 or.
BIDAUAC «Nic lapurretan eguiten dodalaco; bidauc, ta maldecinoiac ezarten ditudalaco», 177 or.
VERENUA (veneno) «Ta pristija venenotsubac oinduari verenua ezarten deutseen leguez», 160 or.
LUA (loa) «Ta sarri zurrauta, lua, ta jana laburtuta», 181 or.
GURASUAC «Eleisiaren guiza aldi guztietaco Gurasuac», 8 or.
CONCILIJUAC (concilio) «Trentoco Concilijuac declarauta, ta aguinduta dauca», 175 or.
OBIAGUAZ «Pluma obiaguagaz, ta zelo Santubaguagaz amaitu daguijan», 11 or.
JAUNGOICOZCUA «Ederra, garbija, ta Jaungoicozcua arantzaz», 4 or.
OSUETAN «Ta jai osuetan, meza nausitaco», 40 or.
PASIUA «Pasiua berez ez ona, ta ez chaarra da», 31 or.
BESUAC «Edo paparra aguirijan, edo besuac bilosic», 51 or.
JAATECUA «Ta ascotan vijamenaco ganadu jaatecua echera batutia», 57 or.
USUA «Ez jaco beliari usua esaten, ezbada belia», 51 or.
ERUATEN «Plazaco piestara eruaten dan jantzija», 49 or.

## 3. Ue > oe

Aldaketa fonetiko hau ere aski nagusia da Gipuzkoan eta Bizkaian, bereziki, eta noski, Markina-ko subeuskalkian.

DINUEE (dinoe) «Ta aimbat moduric oneenagaz ibili dalaco, esan legui, dinuee», 128 or.
DARUEZAN (daroazan) «Andiquijeen Biguirara daruezan andra», 118 or.
DARIJUELA (darioela) «Aguineetati ura darijuela, duazan guizonac», 129 or.

## 4. IA > ea

Ondorio bokaliko hau oso ohizkoa da euskararen eremuan, eta ez soilik, hegoaldean, baita iparreko zonalde batzutan. Oso bizirik dago herriaren ahoan. Pr. Bartolome-k joera bizia talde horiek aldatzeko; oso gutxitan errespetatzen du *-ea* konposagai bokalikoa. Bestalde, *-ia* emaitzak eduki dezake bide luzeagoa ere, hots, *a* organikari mugatzailea edo artikulua erasten zaionekoa, *aa* < *ea* < *ia* prozedura emanaz baita eo-tik *-io* (abadeak abadioc); exenpluz, *nescaa* < *nesquea* < *nesquia*.

Gainera prozedura hori daraman hitzak, normalki, ez du yod (i ja/i jua) delakorik. Horiek guztiak isladatzen dira ondorengo zerrendan.

Badirudi *-ia* ondorioa ez dela ematen pluralean *-aac* bikoiztura eutsiz eta berdin singularreko inexiboan *(dantzaan*, ez *dantzian)*.

ECHURIA *(Echuraa/echurea/echuria)* «Cristinau bacochac daucan leguez, aparteco echuria», 27 or.
IBILTIA «Ez Jaungoicoaren bildurric, ibiltia», 17 or.
DEMPORIA «Biar daveen demporia, iragoten badavee», 40 or.
DANTZIA (dantzaa/dantzea/dantzia) «Ta bestiac: dantzia beraz pecatu izan ez arren», 9 or.
BESTIA «Bestia neuria. Curutze orretan ceure Gorputz biguna», 4 or.
ARTIAN «Batzuc lau ormaren artian sartuta», 9 or.
USTIAGAZ «Ceuc ondo daquizun ustiagaz», 5 or.
PASIETIA «Edo osasuneraco pasietia gauza ona da», 32 or.
VERBIA «Jaungoicuaren Verbia eracusteco», 39 or.
ERRIALA «Ta erriala bere escuban dala», 29 or.
GENTIAREN «Ta euscal errijeetaco gentiaren», 74 or.
DIRIAN «Ta Eracusleen liburubetati ateradirian», 104 or.
UTS UNIAC (hutsuneak) «Imini dan Errazoiac bere zatijeetan uts uniac daucazala», 104 or.
COLORIA «Guzurrai emoten deutsee eguiijaren coloria», 135 or.
DOTRINIA (dotrinaa/dotrinea/dotrinia) «¿Baina cer eguingo davee guichiago, dotrinia daquijeenac?», 94 or.
QUEIA (queea/queia) «Da luxurijaren suba, ta queia», 67 or.
EMACUMIAC «Ta chito sarritan guizonac, eta emacumiac, zaarrac», 136 or.
GARIALA «Ta Praileric gueijeenac juaten gariala piesteetara», 177 or.

LIBERTADIA «Pecatuba, libertadia, ta nasaitasuna», 132 or.
ERACUSLIAC «Esanac imiten ditu Eracusliac», 173 or.
ABADIOC (Abadeoc/abadioc) «Ondo guengoquez Prailioc, eta Abadioc», 168 or.
SUGIA «Sugia leguez, edo sierpia leguez», 138 or.
ONDRIA (ondraa/ondrea/ondria) «Eguin bequijo bada ondria», 165 or.
GIRIA «Ta orduco dantziaren azqueneco giria vitzitzati...», 163 or.
CIRIALA «Leen bere eguiten ciriala», 153 or.
ERRESPUESTIA «Ta ara emen zortzigarren urteeriaren errespuestia», 207 or.
UCAZALLIAC «Jaungoicoucazalliac. Guerra guinac bere gueitu ditubee...», 145 or.
TINTIAGAZ «Oitura chaarren tintiagaz zetacatuta dagozan leguez», 182 or.
ZIRIANIAN «Ta nos olgau batzirian alan, ez Santu zirianian», 190 or.
GAZTIAC «Gaztiac cetan, edo atan olgau...», 191 or.
LIBRIA «Nai ezconduba dala, nai libria dala», 204 or.
UMIAC «Ta vitzi dirian gurasuac, ta umiac», 205 or.
BIAR «Ta gorde biar daveena, da», 12 or.
GAUZIA «Asmau vedi, naijeen dan gauzia», 14 or.
BELIA «Ez jaco beliari usua esaten...», 51 or.
EDADIA «*Edadia*. Plazaan tanbolinagaz dantzan...», 47 or.
ECHIAN «Ta templura juan ezaindanac, bere echian...», 141 or.
UCATUTIA «Batio-ucatutia, sacrilegijua, luxurija», 85 or.
ENTZUNIAN «Erdi entzunian, edo ondo entzun bagaric», 52 or.
VERDIAC «Arei darraicuezan azalquerija verdiac», 60 or.
ALAVIA «Ama loijaren alavia loija», 59 or.
PALTIA «Ateraten davee placiaren paltia», 62 or.
TROMPIAC «Ta nesca baten trompiac», 62 or.
SAMIA (samaa/samea/samia) «Oraingo dantzeetan ezjaco samia ebaten», 79 or.
PIESTIA «Ta diabrubeen poza, ta piestia», 80-81 or.
EGUITIA «Goix parteti eche biarrac gaztiac eguitia», 56-57 or.

## 5. Bokale bikoizturak (aa, oo, ii, uu)

Jakina denez, Bizkaiko hizkera zenbaitek biziki gordetzen ditu

bokale bikoizturak edo geminazioak. Gauza ez dago garbi. Batzutan, bikoiztura horretarako ez dago inolako arrazoin etimologikorik, adibidez, *luur* idazteko *lur* ordez, ala *laar lar* ordez; deribazioan eta deklinabidean ere -ae etimologikoak aunitzetan -*ee* dama Pr. Bartolomerengan; exenpluz, *olgueeta* (-ETA atzizkia dagoela tarteko onartuta) etimologikoki *olgAEta* litzateke, eta fonetikoki *olgeta,* soila. Kasu horretan (eta beste gehienetan, ordea) olguEEta ageri da. Deklinabideko inexiboan berdin, hots, alavEEtan alavAEtan etimologikoaren ordez, ala gutienez, alavEtan ordez.

Beste kasu askotan, ez dago dudarik, geminazioa *mugatzailea* markatzera dator, hitza, berez, *a* organikoaz amaitzen denean. Adibidez, *nescaac, dongaac (donga* apofoniaz), *eltzacaac, seinoraac, andraac* (apofoniaz). Hauetako batzuk ergatibo singularrean daude, beste batzuk, berriz, pluralean, ezen-eta Pr. Bartolome-k (bizkaiera nagusiak bezala) ez du pluralerako -ec/ek amaiera ergatibo berezirik. Guk kasu bakan bat topatu dugu honetan, alegia, *daquijanEC* kasua («Dantza areec, ta olgueetan areec cer dirian daquijanEC», 129 or.). Baliteke besteren bat egotea, bainan salbuespenak dira. Baita -aa maizkoa da, honetan, normalki, *aa<ea<ia* tipologia ematen ez delarik.

Geminazioak, bestalde, jarrera expresiboak ere badituzte, alegia, berez -*ie* taldean eman behar litzatekeena š erdikontsonanteaz -IJEE-ra iritxiz (martirien *martirIJEEn,* urietaco *urIJEEtaco),* eta -*ai* taldean -*AIJEE-ra* ailegatuz (nasaien *nasAIJEEn).* Bere aldetik, -*ia* taldeak -IIJa eman dezake ondorio fonetikotzat -*ii* bikoizturaz. Hori gertatzen da *oguiiija* hitzarekin gehienetan (nahiz-eta 55 orrian hainbestekorik gabe azaldu, hots, *eguijazco* soila gisa).

-Io taldea *yod* erdikontsonanteaz -IJO bilakatzen da (luxurIJotsu), eta gehienetan bigarren bokaleraren ixturaz -IJU (concilIJUa, estudIJUac). Baita diptongoaren taldean -*oi* -OIJ (LoiJOlacua, loIJA) bilakatzen da.

Badirudi Pr. Bartolome-k ahaleginak egin nahi dituela konstatapen bokaliko horiak jasotzeko. Berak esaten digu: «Esan legui: verbiaren luce laburra, ascotasuna ta jagocan aitutia eracusteco, obeto daguala letra *bitubagaz».* Gure susmoa da, batzuetan, analogiak azio txarrak ere egin dituela, behar ez direnean ere bikoizturak ezarriaz (batez ere, *a* etimologikorik hitz barrenean ez dagoenean) bainan, beste askotan Markinako subeuskalkiaren zintzotasun fonetikoak dira. K. Mitxelenak zuhurki dio: «La zona más conservadora a este respecto parece ser o haber sido la parte más oriental

del área vizcaína: Marquina y Durango (cf. Capanaga, los dos Astarloas, Moguel, Fr. Bartolomé), y el viz. de Guipúzcoa y en particular el de Oñate (cf. Garibay, RS, ms. de Oñate)». *(Fonética Histórica Vasca,* 111, 5.2, d). Gainera, Mitxelenak aitortzen digu joera bikoiztzaile horrek, nolabait, arkaismo bat isladatzen duela («Predominan netamente los casos en que la comparación o consideraciones morfológicas demuestran de modo indudable que estas hablas vizcaínas no han innovado, sino conservado» *(Fonética Histórica Vasca,* 112, 5.3).

Gure aldetik, bestalde, susmoak eta zalantzak ditugu bikoiztura edo geminazio berezi batzuen zergatikoaz. Ez dakigu garbi bikoiztura horiek geminazio benetakoak diren (grafia hutsak diren), ala halako luzapen fonologiko soilak. Moguel handiarengan, noski, jokabide antzekoak atzematen ditugu *«artzaatu, laandu»).* *EdaARI, lotsaAri* (partes pudebundas) kasutan, baliteke, bestalde, bikoiztura hori etortzea erroaren marka eta atzizkiarena (hor latineko -ARI objetibalarena) hobeto bereizteko. Horrelako konposakerazko lotura eta sinkopa arazoak kontutan eduki behar lirateke fenomeno berezien interpretapenerako; ezen-eta, autore batzuen joera etimologistak konposatuetan konposagaiak (componentes) ongi bereiztera bultzatzen baiditu. Badakit honek ez duela explikatzen oro, bainan hau ere *(Markinaldeko* joera geminatzaileaz aparte) kontutan edukitzekoa da. Konposakera eta deribazio edo eratorpenazko lege zenbait autore zahar hauetan ez da ongi ematen. Honetaz ikus luzeki gure *Hitz konposatu eta eratorrien morfo-fonetika* (Edic. Vascas, 1980). Izan ere, kontutan hartzekoak dira *a+e=e,* (ama/*amAEn=amEn, a+e=O* (ama/amAOk/amOk) emaitzak deklinatibotan. Konposakeraren legeak, berriz, *a+o, e+i, o+a, e+a* etabarretan (basAerri=*basErri,* amAOrde=*amOrde)* bere sinkopaz eta asimilazioaz oso kontutan hartzekoak dira. (Ikus aipaturiko gure obran 138-147 orriak lege fonetiko guztiotaz, zehazki).

Pasa gaitezen adibideak sailkapenez ematera.

a) *-ii bikoizturak. -Ij(e), -ij(a), ij(o), ij(u) errezalizazioak*

Aztergai dugun obran kasu bakar bat topatu dugu. Geminazio honek aski expresiboa dirudi. Hitz hori *eguiija* da.

EGUIIJA «Baita eguiija da, dantza naastauti urtetan daveela», 199 or. «Ta egiija esateco, eguzquijari beguira bertan pecatu», 67 or.

Azkeneko kasu honetan *egiija*, eta ez *eguiija;* baliteke inprenta-hutsa izatea, *gi* ez baitu ia inoiz *gui* balioz erabiltzen. Bestalde, *-ii* bikoizturarik ez (esan dugunez) 55 orrian: «Eguijazco examina onetati ezaututenda arguiro», Beraz, hitza bera hiru eratara hemen ere[13]. Orain ikus ditzagun izenburuan izendaturiko *-ij(a)*, *-ij(e)*, *-ij(o/u)* taldeak. Lehenengo biak aski ugariak dira. Hemen *š* balio duan yod ardikontsonanteaz (eta Markina aldean duen balioaz) mintzatzen ari gara.

*-IJ(a):*

CONCIENCIJAAC «Baina piesta zaleen conciencijaac oitura chaarren tintiagaz», 181-182 or.
VIJAMONECO «Ta ascotan vijamoneco ganadu jaatecua echera batutia», 57 or.
ENDECENCIJA «Modia, endecencija, ta luxurijaren convitgarrija daravileenac», 200 or.
CONVITGARRIJA «Luxurijaren convitgarrija», ibidem.
BURUERICHIJA «Arrotasuna, buruerichija, dotorerija», 199 or.
VERDEQUERIJA «Ta esan leguizan verdequerija altubac», 71 or.
BERARIJAZ «Edo bularrac berarijaz jasota», 51 or.
LUXURIJARI «Ta gorputza ondo prestaubac luxurijari sarri dei...», 51 or.
MALECIJAZ «Demporan bada, malecijaz jaztenda», 41 or.
GRACIJAAC «Edo egon lecuban Jaungoicuari gracijaac emoteco», 41 or.

*-IJ(e/u)*

LUXURIJOTSU «Ta andra naaste alemanijeen guisaan luxurijotsu ibilteco», 193 or.
CONCILIJUA «Leenago Elisiac, ta Concilijuac agiundu (sic) dituben ordenac», 175 or.
ESTUDIJUAC «Inos ichi bagaric equin ezquero, estudijuac», 15 or.
BALIJUAGAZ «Ceure Odol Santubaren balijuagaz erosi», 4 or.
SACRILEGIJUA «Batio-ucatutia, sacrilegijua, luxurija», 85 or.

[13] *EGUIIJA* hitza dela-eta argigarri ohar hau: «Hitz honek «a» itsasia du: beraz, Prai Bartolomeran arabera, «eguijia» eman behar luke forma mugatuan eta «eguija» mugagabean. Nominatibo mugatuan, -IA osotzen duen «i» hori lekuz aldatzen dela esango nuke; atzera pasatzen dela, alegia: EGUIJIA > EGUIIJA. (L. Baraiazarra).

ERIJOTZACO «Ezdavela jaquingo erijotzaco ordu artian», 98 or.
JUICIJUA *«Juicijua, ta modestija daucanac»,* 80 or.

*-IJ(e)*

URIJEETACO «Urijeetaco Alcate Jaunac», 151 or.
GUEIJEENAC «Juaten dirianetati, gueijeena dira libriac», 54 or.
NASAIJEEN «Eureen olgueeta nasaijeen», 204 or.

b) *-uu bikoiztura*

Bikoiztura hau ere kasu bat bakarrean ematen da gure obran, hots, *lur* kasuan, *LUUR* gisa idaztean. Garbi dago geminazio hori, gutienez, ez dela etimologikoa, bainan izan daiteke expresiboa ala fonologikoa Markinako kasuan, Pr. Bartolome-ren garaian.

LUUR «Quendu leguijeez guzti eureen erricuac, eta luur barrucuac», 153 or.
LUURRECUAC «Eta Errijac quendu leguijaz eureen luurrecuac», 152 or.

c) *aa bikoiztura*

Bikoiztura hau da nagusiena *ee* taldearekin. Esan dugunez, bertan *-aa* etimologizanteak aparte, mugatzailearen lekukoak ikusi behar dira garbiro. Beste kasu bakan batzutan geminazio horiek (etimologiaren aldetik, eta bereziki hitz muturrean ala tartean) problematikoak dira. Agian, analogikoak eta expresiboak baino ez dira. Bestalde *-aa* bikoiztura gehienak pluralean eta inexibo singularrean *(dantzaac, damaac).*

DEUNGAAC «Dantzaac ain deungaac balira», 137 or.
PATRICARAAN «Ta impameetaraco, patricaraan, edo muxilleetan laboria», 201 or.
ELTZACAAC «Errazoe eltzacaac, ez icen desonestubac», 200 or.
OLGEETAAC «Batzuc zabalduten dituvee olgeetaac», 13. Bainan, ia beti *olgueeta* (gue) idazten du. Seguraski inprenta-hutsa da.
IRAACIJAC «Condicinoe latcecuac, estubac, iraacijac», 16 or.
SEÑORAAC «Señoraac, echeco gauzai cobru emoteco», 39 or.
BIGUIRAAC «Erromedijac, Biguiraac, ta Saraubac», 105 or.
CHAARRA «Cristinauba aleguera izatia ez da berez gauza chaa-

rra», 21 or. *Chaar* hau, hala ere etimologikoa izan daiteke *zaarra-tik* abiatuta.

LAARREGUI «Ta gusto laarregui emotia gaiti», 5 or.

SOLBARDAAN «Edo irugaz alcarri escubac solbardaan», 64 or. Inprenta-hutsez, 64 or, 46 orri gisa dator liburuan. *Solbarda,* noski, *sorbaldaren* metatesia da.

PIESTAAN «Edo piestaruz, edo piestaan», 99 or.

DANTZAAC «Gueroco Escolau batzuc leguez, dantzaac *per se»,* 84-85 or.

BANACAAC «Inoc ezautu ezin leguizan banacaac», 82 or.

DEMPORAAN «Alaco demporaan olgueetia», 42 or.

ERACUSLAAC «Teologija Sagradubaren Eracuslaac», 44 or.

EDAATEN «Ta endamas guichitan edaaten davenari», 48 or.

NESCAAC «Bai andraac, ta bai nescaac», 50 or.

VENGANTZAAC «Oidituban ocasinoiac, gorrotuac, vengantzaac», 75 or.

ERROSCAAC «Prutia, edo erroscaac artuta», 70 or.

AAZCARRIJA «Gentiaren urteneria da guztien aazcarrija», 71 or.

GARRAASI «Nesca batac egiten dau garraasi bat», 72 or.

ERRESPUESTAAN «Ta onen errazoia emongo da zortzigarren errespuestaan», 73-74 or.

MAQUILACAAC «Vengantzaac, burrucac, maquilacaac», 75 or.

DAMAAC «Damaac gavian alcarregana batuta», 116 or.

NESCAAQUIN «Ta cantau eguiten dozu nescaaquin», 90 or.

ORDENAAC «Erregue Jaun ascoren ordenaac», 41 or.

DESPEIDAAN «Ta despeidaan dantzarijen errazoiac», 45 or.

BIGUIRAAN «Biguiraan egiten dira olgueeta modu asco», 112 or.

SAMAAC «Samaac armatuta, apainduta veguiracune...», 77 or.

Eraskin gisa adierazten dugu *-oo* bikoizturazko kasu bat topatu dugula, alegia, *almidoetutia* hitza («painueluac javoneetia, almidoetutia», 57 or.). Bestea, hurbiltasunezko kasuan, *burloori* (burla hauei), 185 or.

d) *ee bikoiztura*

Bikoiztura hau, batez ere, aditzetan gertatzen da, eta, noski, deklinatiboen kasuan ere.

ORREEQUIN «Olgueeta madaricatu orreequin daucala satanasac itsututa», 126 or. «Eureen malecija aurreratuba», 118 or.

DAVEE «Norbait inos icusi badavee», 169 or. «Edo egiten daveela dantzan», ibidem.
BALEBEE «Ta Errijeetako Piel Jaunac nai balebee bere», 151 or.
DACARREE «Eleisiaren Erecusla Andia dacarree testigutzat dantzarijac», 155 or.
PLACEETACO «Ta orraco placeetaco, erromadijeetaco», 157 or.
USEETANDAN «Baina egiten dan, ta useetandan moduban eguitia», 158 or.
LEUQUEE «Guc au esatia, nai-leuquee Dantzazaliac», 192 or.
DANTCEEN «Gueure placeetaco dantceen sarija ondo autor daveenac», 76 or. «Ta naasteco dantzeetara juateco», 60 or.
GORDEETIA «Diruba conteetia, ta poltsaan gordeetia», 14 or.
OLGEETAAC «Batzuc zabalduten dituvee olgeetaac pecatuzcuetaraguino», 13 or. «Dinot: aguirico elgueetariac», 41 or.
ONEEC «Saraubari darraicozan condecinoe oneec», 118 or.
DARABILEE «Airian darabilee olgueeta galdu areetan...», ibidem.
ERNEGUEETAN «Ta ernegueetan dagoz, inoc aintzat artu ezditubalaco», 70 or.
EZBALABEE «Nai ezbalabee, bestec bere eraguingo ez leusquijue», 114 or.
PROVEETAN «Errazoiagaz proveetan ezbada», 44 or.
PENSEETAN «Entzuten dirian, penseetan dirian», 101 or.

## 6. Apofonia

Apofoniak bokale berezi baten idekiera adierazten du. Konposakeran, batez ere, euskaran nabaria da *e* bokaleak *a* bilakatzeko duen joera (basO/ba*sAkatu*, artO/ar*tAburu*, sendO/*sendAtu*); berdin *e* bokaleak *a*-ra (sarE/*sarAtu*, bidE/*bidAgain*, orE/*orAtu*); *u* bokalearen kasuan urriago ematen da fenomeno hori; gehienetan, gorde egiten da, baina katU/*katAkume* salbuespena litzateke.

Hitz bakanetan bizkaierak joera bizi bera apofonia egiteko. Fenomeno guztiok nabarmen gure autorearen liburuan.

ERACUSLA (erakuslE) «Icentau dirian Eracusla pamaubac, ta beste ascoc», 129 or. «Teologija Sagradubaren Eracuslaac, ta Errazoiac eurac gaiti dinuena», 44 or. «Ta, Eracuslaric oneenac, ta gueijeenac esan arren, vorondatez», 97 or. «Diadar eguiten

davee Eleisiaren guiza aldi guztietaco Gurasuac, eta Eracuslaac», 8 or. Azken bikoiztura bokalikoak pluraleko ergatiboa adierazten du (-aek *ek* ordez, nahiz-eta P. Bartolome-k kasu oso urritan *-aac* eta *-aec* berezi).

OBA (hobE) «Obada alcarregaz plazaan, edo biguiraan, edo Sarauban olgueetia», 134 or. «Ta arimia salveetaco, ez olgueetia, ta penitencija eguitia oba da», 191 or. «Ta alegueria berez, Jaungoicua, servidutecο, presta era obacua dala», 26 or. «Ta orregaiti bapere obaac ezdira», 155 or. Hemen *-aac* bikoizturak ez du adierazten ergatiboa, plurale predikatiboa baino.

UPACO (upEla) «Inoren upaco ardaua edaaten daveenac», 54 or.

URRAGORRIZCO (urrEgarrizko) «Danen castucuac (sic) (kastakoak) ziriala, araco, urragorrizco idiscua emacumeen...», 138 or.

URRAGO (urrEago, más cerca) «Ceimbat gavaren urrago, aimbat ezainago, nasaijago», 68 or.

SUGA (sugE) «Basaco suga, ta pristija venenotsubac oinduari verenua ezarten deutseen leguez», 160 or.

## 7. Diptongapen arrotzak

Jakina denez euskarari ez dagokio -ie/ue gisako diptongapenik; euskarak dituen ditongo apurrak mailebuetatik datoz; mailebu zaharrak gurera diptongapenik gabe iritxi dira *pOrtu* (pUErto ordez), *eskOla* (eskUEla ordez), *festa/besta* (fiESta ordez) latineko bokalismoa eutsiz. Prai Bartolome-ren idazkian aurkitzen diren *piESta, prIEsa* gisakoak gaztelaniar fonetikaren ukituak dira.

PRIESA (presa) «Ez dago piesta eguna, baino priesacuagoric», 56 or. «Guztia da priesia, piesta eguna», 57 or.

PIESTARA «Asco juaten dira piestara», 57 or. «Orraco plazaco piestatara utseguiten ez davenac», 52 or.

ERRESPUESTARIC (arrapOsturik, erantzunik) «Errazoe onen errespuestaric ezin topau izan dot nic», 125 or.

POPUERTZACUA (por fuerza, de rigor) «Oneraco popuerzacua da examinetia», 44 or. «Ta gogoz, popuertraco (sic) lana», 19-20 or.

Hiato prozedurak, berriz, *alcobeetia* (alcahueta) kasuan.

# VI. ORTOGRAFIARI ETA KERARI DAGOZKIEN ALDE FORMAL BATZUK

Atal honetan ortografi-bitxitasun zenbatez, hitz elkartu eta deslotuen tratamenduaz, grafema batzuen balioaz, etabarretaz mintzatuko gara. Jakina da XIX mendean oraindik ez dagoela batasun handirik grafema batzuen tratamenduan. Pr. Bartolome-ren idazkietan, honetan, desbatasun eta inprobisaketa aunitz dago, logikoa denez. Oraindik ez da ikusten bere obran geroztiko *tx* grafema. *V* kontsonanteak, berriz, hedadura handia du oraindik, eta, maiz, hitz bat-beran B grafemarekin eztabaidan egonen da *(biar*(behar)/ *viar)*. XX mendean inposatuko zen idazkera normatibizatu baten beharra nabaria zen. Horretarako, oraindik, Euskaltzaindia falta zen.

## 1. Hitz-elkarketak

Pr. Bartolome-ren garaian arau ortografikoak oraindik erakunde batek arautuak ez zirelarik, eta bestalde, idazleen praxia puntu guztietara hedatzen etzelarik, nahaste eta desbatasun aunitz dago. Bai puntu honetan eta beste askotan, karmeldarrak inkoerentziazko jokabideak dauzka. Ala ere, hitz-elkarketetan bere joera bizia *ez* negatiboa aditz-laguntzaileari lotzekoa da, eta bestainbeste laguntzailea aditza berarekin. Hona adibide batzuk:

EZDAU «Baina ezdau onec gueure vijotzetati quenduten alegrija», 22 or. «Ezdau inoc esaten», 29 or.
EZDAQUIJEENAC «Cerdan, ondo ezdaquijeenac», 55 or.
EZDAUCA «Ezdauca gatzik, ezdauca gustoric», 9 or.
OIDITUBEN «Ta casic gueijenac nai oiditubeen olgueetaac dira», 28 or. «Aituten oiditubeen achaquijaac quenduteco», 45 or.
ORNIDUTE «Jococo ornidute, edo tantu bacochian errial bat bai-

no, gueijago jocatutia», 29 or.
BIARDA «Atzera biurtu biarda conciencijan», 30 or.
AGUINDUTENDAU «Alan aguindutendau Carlos III guere Erregue Jaunac», 30 or.
EZDACAARRENAC «Arimara gachic ezdacarreenac, ta naturaleciac...», 14 or.
BIARDAU «Ta olgueetiac bere euqui biardau bere errezuazco tercijua», 38 or.
JAZTENDA «Eragotzitaco demporaan bada, malecijaz jaztenda», 41 or.
EZDEUTSELACO «Ta egun naidaveen lagunaquin... ibilten isteen ezdeutselaco», 58 or.

## 2. Deselkarketak

Atzizkien arloan ikusiak ditugu errotik aparte ipinitako atzizki kasu batzuk; hona beste batzuk: *uts uniac* 114, *uts uneric* 124, *nasai tasuna* 52, *ardao guina* (vinotero) 142, *urten eria* 136, *presta era* 26, *esan era* 76, *dantza zaliai* 193, etab.

Hemen deklinatibo bakanduen kasuak jarriko ditugu, nagusiki.

BAQUIA GAITI «Ta esaten dau ac errico baquia gaiti», 153 or.
PENIA GAITI «Arimara dacarren tristecia, ta penia gaiti», 25 or.
NAUSIJAGUA GANA «Juaten dira Juez nausijagua gana», 153 or.
MORTALAREN BEIAN «Eguin biar daveela, pecatu mortalaren beian», 155 or.
INOC AGAZ «Ta ez pandaguan eguingo dau inoc agaz», 114 or.
Ikusten denez, deklinatiboetan gehienik bakanduenak kasusatiboa soziatiboa eta norabidezkoa dira. Beste gehienak, normalean, ez dira deslotzen.
BESTE AIN BESTE «Beste ain beste esaten da», 42 or.
NOS BAIT «Eguiija da, nos bait olgeetia», 189 or.
NUN NAI «Nun nai gaixotu leitequee», 186 or.

## 3. Marraren erabilera

Honetan ere ez dago batasun garbirik, hitz bat-bera kasu des-

berdinetan marraz eta marrarik gabe egon daitekeelako; ala ere, Pr. Bartolome-k ez darabil marra aunitz. Arinago jotzen du (goian ikusi dugunez) konposagaien eta atzizkien desloturarara, marrara baino.

EZ-JAQUIN «Itsutasun zorigaistico bategaz, ta ez-jaquin lainotsu bategaz», 4 or.

DANTZA-ZALIAC «(Ta dinot cerubaren aurrian) «dantza-zalic absolvidutia», 125 or. Beste kasu honetan berriz deselkarketa hutsa: «Dantza zaliai piestaan...», 193 or.

NAI-LEUQUEE «Guc au esatia, nai-leuquee, gaztiac cetan...», 192 or.

NAUSI-BATEGAZ «Cer eguin nausi-bategaz aaztu bagaric», 125 or. Marra honek ez dauka inolako arrazoirik. Besteetan, honelakoetan, ez darabil marrarik.

## 4. Grafema batzuen erabilera

Grafema problematiko horiek: sonante gehi herskari taldeak NB/NP ala MP/MB, V/ ezpainkariak, TC/TZ frikariak, S/X-ren alternantzia, eta J/G-ren balio fonetiko zenbait dira.

*V/B*. Honetan ez dago batasun handirik, ezen-eta hitz bat bera bi grafiaz darabil askotan; bestalde, *v* grafemak oraindik erabilpen handia dauka bere idazkietan.

VERDEQUERIJA «Ta esan leguizan verdequerija altubac», 71 or. «Ta meniuetan azalquerija, verdequerija», 200 or.

VERBIA «Jaungoicuaren Verbia eracusteco», 39 or.

PROVEETAN «Errazoiagaz proveetan ezbada», 44 or.

VITCI «Ta Cristinaubac vitci ditezan jaquinaren gainera», 34 or.

VISTAAN «Mundu guztiaren vistaan», 205 or.

PROVINCIAN «Ta Provincian, Justicijac bere au erremedijau...», 63 or.

VIRGINDADIA «Ezcondu bagacuac virgindadia galduta», 82 or. «Edo nos iminico etelituque virgineen artian», 82 or.

VILDUR «Cristinaubac Jaungoicuaren vildur santuba gaiti», 147 or.

VIDEETAN «Egun à videetan, ta vertan guizon», 109 or.

VIGUIREETAN «(Baserrijetaco viguireetan useetan dan leguez)»,

33-109 orrian, ordea, *b* grafemaz: «Biguiraac dira beste olgueeta...».

ERVESTERA «Edo Santiaren achequijagaz ervestera juanda», 106 or. Bainan *b* grafemaz: «Beste olgueeta batzuc baseerri echeetan mutilac», 109 or.

VIARRAC «Goix parteti eche viarrac gaztiac eguitia», 57 or. Bainan *b* grafemaz beste bi kasuetan: «Gaztitac olgau biar davee», 192 or. «Azartu biar dodala», 10 or.

VERENUA «Ta pristija venenotsubac oinduari verenua ezarten deutseen leguez», 160 or. Baina *b* grafemaz: «Naasteco dantzeen bereno madadicatuba azaldeetara», 10 or.

## 5. NP/NP ala MP/MB

Gehienetan, MP/MB -ra makurtzen da alboko gaztelaniaren araura; agian, euskarak etzuen XX mendean ohitura hori galdu behar izan konstatapen fonetikora, maiz, hobekigo makurtzen zelako, baina gure ortografiaren soildura-joerak NP/NB gain-ezarri zuen kasu guztietara hedatuz.

DEMPORIA «Biar daveen demporia, iragoten badavee oneec guztioc...», 40 or.

COMPENSETAN «Oh, ceasco dirian, ta ce guichi compesetan dirian...», 49 or. «Icututen deutsenian, ondo compeseetaco», 124 or. Bainan 60 orrian NP: «Ta Conpesore Jaunen Zelo Santubari».

CUMPLIDUTENDA «Modu onetan plazaan dantzia cumplidutenda», 66 or.

CEIMBAT «Ceimbat aleguin eguindan guiza aldi guztietan», 146 or. Bainan NB beste kasu honetan: «Ta ceinbat gueijago iracurrijago», 126 or.

AIMBESTE «Beste aimbeste, ta milla bidar gueijago dira bada...», 187 or. «Ta dantzaan aimbat onestidaderic», 127 or.

## 6. TC/TZ eta C/Z alternantziak

DANTCEEN «Ta naasteco dantceen contra». Bainan, orri berean beste bi lecutan TZ: «Guere errijetaco piesteetan, ta dantzee-

tan...», 80 or. «Ezdavela dantzan eguiten...», 80 or.
PLACEETACO «Ta orraco placeetaco, erromedijeetaco», 157 or. Bainan *z* grafema besteotan: «Plaziaren erdian jausita», 69 or. «Au gaiti, plazaco dantza naastuba», 107-108 or.
ICENTAU «Icentau dirian olgueeta desonestubeetara», 122 or.
TERCIJUAN «Ta ezaututeco tercijuan», 74 or. «Tercijo baten jaquiteco», 39 or.

## 7. X/S alternantzia

X grafemak ia beti, ahozkatze gogorra du, hots, sk-repa, bainan s-ren ordain ere gerta zitekeen gure autorearentzat. Bestalde ahozkatze samurrez *ixilduta, ixil* kasutan (ikus 61 or.).

EXEMPLU «Eleisa guizonen exemplu andijagaz, 176 or. «Exemplutzat artuta», 127 or.
LUXURIAZCO «Duazala, luxurijazco pecatu mortalac esaten dirian...», 101 or. «Naaste alemanijeen guisaan luxurijotsu ibilteco», 193 or.
EXAMINETIA «Onetaraco popuerzacua da examinetia», 44 or. Bainan, bestalde, *s* grafemaz; «Ezin alan esaminaric eguin leguijeela», 183 or. «Asi nintzan dantza zaliac esamineetan», 125 or.

## 8. J/G grafemak

Gehinetan belare zintzurkatua (gaztelaniazko *j* egiteko) *j* darabil. Bestalde, j fonemak Markinako *yod* bereziaren balioa du *eguiija, conciencija* antzekoetan. *G*, berriz, *virginidadia, virgineea, giraac* (gaztelaniazko *girar*-en eraginez, nonbait) mailebuetan darabil.

VIRGINIDADIA «Ezcondu bagacuak birginidadia galduta», 82 or.
GIRAAC «Dantziaren giraac bere guztiac dira ezquerreracuac», 139 or.
GENTILIDADIAREN «Gentilidadiaren zatijac», 145 or. Baina *j*-z ere: «Ezdaquijeela, ixilic eguindaco jantijagaz», 58 or.

## 9. Inprenta-okerrak

Liburuaren zehar, inprenta-okerrak aski ugariak dira. Auto-

reak 208 orrian aipatzen ditu batzuk, bainan gehienak falta dira. Liburuaren edizioa Iruñean egin zen, hots, Euskal Herrian 1816 urtean. Guk beste askoen artean honakoak azalduko genituzke:

DAGQUEEZ «Guraso ondraubac dagqueez dantzarijac», 140. *Dauqueez* ezarri behar luke.
BUTZUC «Ta Saraubetan dantzan bere eguiten davee butzuc», 133 or. *Batzuc* idatzi behar da.
AUT «Ta Provinciaco piestetan aut, ta utsa bat dira», 62 or. *Au* ezarri behar luke.
CIEMBAT «Ciembat pecatu, ta ceintzuc eguiten citubeen piesta», 131 or. *Ceimbat* behar litzateke.
POPUERTRACO «Ta gogoz, popuertraco lana, edo...», 19 or. *Popuertzaco* (por fuerza) behar luke.

Kontutan izan, bigarren sailean, edizio kritikoa ematean orri bakoitzean topaturiko kasu gehienak *orri-oinean* konstatatuko ditugula.

## VII. LEXIKOA

Prai Bartolome-k bere EUSKAL-ERRIJETACO OLGUEETA, TA DANTZEEN NEURRIZCO-GATZ-OZPINDUBA obran auzkezten digun hiztegi-materialea ez da txikia edo urria. Alabainan, gu hemen nolabaiteko interesa duen hitzetara mugatuko gara, bai semantika aldetik, bai fonetika aldetik, bai bitxitasuna aldetik, nahiz hemengo hitz aunitz *(costu, cobru, convitgarria, comedija, cazubela,* etab.) erromaniko hutsa izan. Zerrenda honetan Azkue-ren hiztegi haundian ez sarturiko hitz-mailebu aunitz dago; alabainan, badira Azkue-k gurre autoretik harturikoak ere. Esan dugun arrazoiengatik, hemengo *Lexikoa* ez da eraguztikoa (exhaustivo), *hautatua* baino.

### A

AAZCARRIJA lenitivo, «Bada despeidaco gentiaren urteneria da guztien aazcarrija», 71 or.

ABADE sacerdote, «Ezda bada sinistuten, Abade teguija, ta Praile teguija juaten diriala piestatara», 169 or.

ABSOLVIDUCO absolver, «¿Nos albsolviduco eveen guraso bat, edo ume bat, berarijaz olguetia gaiti dantza madaricatu...», 87 or.

ACIENDAAN hacienda, «Ez aciendaan, ez osasunian onerarie, edo provechuric ez dauqueela, euren guraz», 101 or. Hemen, *onera* (-ERA atzizkiaz) hitzari *onuraren* esanahia ematen zaioa; Azkue-k bere hiztegian (Dic II, 115) badakar.

ACHAQUIJATZAT excusa, «Erromedijara juanda, an ibilteco achaquijatzat», 108 or.

ADULTERIJUAREN adulterio, «Adulterijuarren alabia dala, dantzan eguiten davena...», 80 or.

AGUINTARI autoridad, «Ta Cristandadeco Aguintatari (sic) Jaunen ordenaac bere bardin condeneetan ditubee», 87 or.

ALACUAC tales, «Ta gurasuac celacuac, umiac alacuac», 59 or.

ALCABOETIAI alcahuete, «Edo aldaguijeena echeti oostuta, alcaboetiai emoten deutseenac», 201 or. Hemen gaztelaniako *au* diptongoa *b* kontsonanteaz neutraltzen da, violín/*biBolin* gisara.

ALEGUERIA alegre, «Ce gozua, ce aleguería, ta ce atseguinezcua dan gueure vizitzia», 21 or. Hemen nabarmena CR anulatzeko erabilitako *e* anaptiptikoa. *«Ija puscabat ardauac alegueretuta»,* 49 or. Bainan, 22 or. «quenduten alegrija eguijazcua».

AMETACO amar, «Jaungoicua ezaututeco, alabeetaco, ta ameetaco, lecuba da», 187 or.

ANDIQUIJEEN grandes (señores) «Ondo baino obeto apainduba juatenda andiquijeen Biguirara», 117 or. «Andiquijeen Biguirara daruezan andra, edo nesca loijac gaiti», 118 or.

APAINDURIJAC adorno, «¿Ta ezda gauza jaquina, plazaco apaindurijac, ta gorputza ondo prestaubac luxurijari...», 51 or.

«An icusten da, edade arriscucuac, ardauac, apaindurijac», 64 or. (Hemen inprentaren erruz 64 ordez *46* orria ematen da). Hitz honetan gaztelaniako sabidURIA hitzaren atzizki bera (apaindURIA), eta hurbilago oraindik *sabidURIA*-ren norabidean gure jakitURIA, *(jaquiturija,* 118 or.).

APARTECUA especial, «Ta Ceruba tristetuteco, toqui apartecua, ta billatuba da», 188 or.

ARDAOZCO vino, «Oneec dira, araco ardaozco, odolezco, ta luxurija utsezco gentilen olgueeta loijac», 141 or. «Luxurijotsubaquin, ta ardaotsubaquin Jaungoico paltso asco», ibidem.

ARREBATUA rebato, «Naastia, arin aringuia, arrebatua, ta pandangua joten ditubanian», 66 or.

ARRASTEGUI atardecer, «Bentana zulo bateti dantziari beguira arrastegui guztian cansau bagaric», 69 or. Kurioski *arrastegui* hitzak hemen lekuzko atzizki bat, alegia, -TEGIA. «Gustia da priesia piesta eguna, arrasteguijan piestara juatia gaiti», 57 or. Agian -IRI-ren *(arrastiri)* egokiera fonetikoa baino ez da.

ARTEZA recto, «Ez tristia; ez bada arteza, zuzena, zabala, ugarija, vijotz nasaicua», 21 or.

ARTZAQUIN oso, «Piestia eguiteco, pelietan cirian Artzaquin, Otsoaquin», 141 or.

ASMOTSUBAC intencionado, «An icasten dira, inor engaineetaco arte asmotsubac», 198 or.

ASTIROCHUBAGO más lento, «Maite bategaz bacarrian astirochubago egon gure daveenac», 70 or.

ATAJADIAREN oportunidad, «Vengueetaco atajadiaren zain urrengo piesta egunera», 95 or.

ATSA mal olor, «Luxurijaren pestia, ta atsa darijuela, bacocha bere laguna gana», 72 or. Hemen, kurioski, *pestia* diptongapenik gabe; bainan, gehienetan, diptongapenez (*piesteetac* 78, *piesta* 79, 80, *piestaan* 51).

ATSETASUNA alivio, «Ta geriagaz (sic) eldutasuna, atsetasuna, juicijua, lotsa ona», 199 or.[14]

ATSITUBAC pestilente, «Impernuco labati quee atsitubac urteten daven leguez, naasteco dantzeetati...», 83 or.

AUT esto, «Baina Vizcaico, ta Provinciaco piesteetan aut, ta utsa bat dira», 62 or. Hitzaren amaierako *-t* hori inprenta-hutsa da. *Provinciaco*-k *Gipuzkoako* esan nahi du.

ATZIJAC criado, «Desonestidadeco escolan atzijac, ondo eldu bagacuac», 59 or. Hemen afrikazioaz, baina bestetan ez (*aziera*, 118 or.), *Bizi* hitza ere, gehienetan, frikazioaz, alegia, *bitzi, vitzija*.

AUTOR confesar, «Juicijozco Eracusla guztiac autor davee eguija au», 17 or.

AZALQUERIJA superficialidad, «¿Nortzuc dira, eureen verbeera, ta meniuetan zalquerija», 200 or.

AZIERA crianza, «Andiquijeen aziera biguna, ta leuna gaiti», 188 or.

AZOGUIA azogue, «Ta canta indecente, ta odolberozaillac gaiti, ceintzuc dirian luxurijaren, azoguia», 118 or.

## B

BAGARIC sin, «Edo ondo entzun bagaric gueratutia», 52 or. Ohizko azken bokalearen apofonia, bago/bagA.

BASATZA barrizal, «Basatzan ibilita, loituten ezdirianac», 180 or.

---

[14] Guk *goriagaz* hitzari ezarririko *sic* horri adierazpen interesgarri hau Baraiazarrak. «Markinaldean oso hitz ezaguna eta erabilia. Jakina, orain «jera» idatziko genuke. «Acogida», «muestra de cariño» esan nahi du eta hedatuago den «txera» hitzaren baliokidea da». Guk «txera» «jera»ren baliokide baino gehiago hitz bera dela esanen genuke, gaztelaniar belarizazio berantik gabe. Bere iturri etimologikoa, Corominas-en hiztegian ez-ezik, ikus *L. Mitxelena*, BAP XI, 296 eta FHV, 71 or.

BATIO bautizo, «Sovervija, Batio-ucatutia, sacrilegijua, luxurija...», 85 or. Hitza gaztelania zaharreko *batear/bateyar*-etik. Ikus: *Garcia Diego,* Diccionario etimológico español e hispánico, Madrid 1954, 918.

BEGUIRACUNIAC mirada, «Beguiracuniac, eta alcarren geraac (sic) desonestubac», 68 or-161 orrian, berriz, *v* morfemaz idatzita (veguiracune).

BEGUIRATU mirar, «Beguiratu bequijo bada verbeeta oni, ta orraco placeetaco», 157 or. Hemen *begi*-tik datorren semantika darabilela uste dugu, bainan iparraldeko *begiratu* delakoak, latineko *vigilare*-tik datorrenak, badu hemen presentzia *biguira* (vigilia) gisa. Orri berean «biguireetaco (de las vigilias), ta saraubeetaco dantza ederroi», dio.

BEIAN debajo, «Eleisaco opicijuac ez eguitiaren beian», 174 or. «Eguin biar daveela, pecatu mortalaren beian», 155. Hitz hau normalki ezpainkari gorraz erabili ohi da *(pean).*

BERARIJAZ especialmente, «Naasteco dantzaac berarijac icustia, ta arei beguira egotia bere», 171 or.

BERE también, «Ta olgueetan areec cer dirian daquijenec, inos bere ez», 129 or. *Bere,* ekialdeko *ere* baino zaharragoa izanen da seguraski.

BIDAOCA blasfemando, «Ama eurai bidaoca dagozala», 59 or.

BIDAUAC blasfemias, «Ta umeen arteco bidauac, baque chaarra», 95 or. Hemen *-ao* itxi egin du, bainan *bidao* ere badakar.

BILOSIC desnudo, «Edo besuac bilosic, edo bilosic, baino ez asco obeto», 51 or.

BIRRITAN dos veces, «Ta birritan, ezbada zortzi, edo amar bidar bere jazoten jacuez», 124 or.

BITZUBAC los dos, «Bitzubac ust eguiten dabee. Bada ez olgueeta guztiac dira...», 17 or. «Bitzubac dira chaarrac. Ta bata bere eguin biar ez dira», 197 or. Zenbaki honek -TZU pluralgilea darama baTZUK gisa, eta ez da ezaguna ekialdean.

BURUERICHIJA engreído, «Ta egon-eraan jaguitasuna, arrotasuna, buruerichija, dolorerija», 199 or.

## C

CABELINIA clavel, «Aldaquijanac larrosia, cabelinia, ispliguba, edo beste bedar usain...», 50 or.

CALVA calva, «Ta emongo deutseela buruco apaindurijaren lecuban calva gorrija», 78 or.
CASTATI casta, «Edo castati datozala dantzaac», 138 or.
CASTIDADIA castidad, «(Pornitatu bagaric) areec bere arimaco castidadia galduta», 82 or.
CASTU gasto, «Ta egun aretaco castu alperricacuac gaiti, dana orreetati», 147 or.
CASUISTARIC casuísta, «Ez *casuistaric,* ez Provabilistaric, celan eguiten dirian entzun ezquero», 94 or.
CAZUBELAAN cazuela, «Ta bestian cazubelaan, erlia leguez, mordo baten guizon», 67 or. Hemen interesgarria nolatan gaztelaniar diptongoa *b* kontsonanteaz anulatzen den *biBolina*/biolina kasuan bezala.
CEREGUIN quehacer, «Ta gueijago cereguin ezdauquee, Santo Tomasegaz esan dirian errazoiac gaiti», 151 or.
CILICIJUA cilicio, «Loreen lecuban atsa, ta cinteen lecuban cordelac, ta cilicijua», 78 or.
COBRU cobro, cumplimiento, «Señoraac, echeco gauzai cobru emoteco», 39 or.
COLORERIC color, «Ez jaco alaco gurasuari coloreric mudauco», 59 or.
COMEDIJAC comedia, «Guerra guinac bere gueitu ditubee Comedijac, dantzaac», 145 or.
CIRZILUBAQUIN zarcillos, «Urragorrizco idiscua emacumeen cirzilubaquin eguinda», 138 or.
CONVITGARRIA convite, «Ta luxurijaren convitgarrija darabileenac; ta auzuai...», 200 or.
CONSUELORACO consuelo, «Biurtuco dira gueure oneraco, gueure consuelorako», 42-43 or.
CORDELAC cordel, «Ta cinteen lecuban cordelac, ta cilicijua», 78 or.
CORU coro, «Dirianac, diriala, coru loijagocuac dira oneec», 52 or.
CLARU claro, «Ta mutil egozan ezcaratz betian claru guztien aurrean», 111 or.
CRIJADU criado, «Ta diabrubaren crijadu, ta crijada eguin zitubanac», 206 or.
CRISTANDADE cristiandad, «Menturaz ezda Cristandade guztian dantza desonestubagoric», 10 or.
CURAC cura, «Ez Obispoc, ez curac, ez Erreguec, ez Juecec ez

deutsa inori aguinduten», 147 or.

## CH

Logikoa denez, Pr. Bartolome-k ez du erabiltzen oraindik geroztiko TX fonema, nahiz-eta TZ/TC ezagutu eta usatu.

CHANCHETAN en bromas, «Chanchetan venetan pecatu eguiteco convit clarubac», 100 or.

CHANZATZAT chanza, «Edo sermoeetan esaten dana, chanzatzat, ta barregueitzat artutia», 53 or.

CHICO caballito, «Edo andriaren aurrian saltoca, chico ezi bagaco, edo baso asto batzuc dirurijeela», 65 or.

CHITO muy, «Ta chito errazto iragoten dala pecatu izatera», 91 or.

CHILIBITUEN silbo, «Ta emacume naaste dantzan chilibituen, pandereten, trompeen, edo nesqueen soinubagaz...», 109 or.

CHIRRINTOLIA polea, «Castidadiaren galdugarrija, diabrubaren chirrintolia, satanasaren saria», 86 or.

CHOCHAQUERIJAC tonterías, «Ta eurai jagocuezan gauza asco, chochaquerijac, ta simplezaac diriala», 61 or. Honen etimologia *zozokeria* dirudi, gaztelaniazko *chocho* gure *zozo*-aren bustidura delarik, seguraski.

## D

DAMAAC dama, «Damaac gabian alcarregana batuta, dantza...», 116 or.

DEMONINUAC demonio, «Demoninuac asmautaco dantza loijac, onac diriala esateco?», 80 or.

DESAPIJOGUINAC desafiante, «Eche galtzailiac, castalarijac, desapijoguinac, lapurrac», 203 or.

DEUNGAAC malvado, «Dantzaac ain deungaac balira, quendu eguingo lituqueez guztiz», 137 or. «Erromedijeetacua deungaagua da», 108 or.

DEUNGARO malvadamente, «Edocein gaiti deungaro esatia; urtian bein, edo birritan», 53 or.

DOMEQUIA domingo, «Erromedija eguna domeequia, edo jaiosua bada, egun à videetan», 109 or.

DOTORERIJA elegancia, «Dotorerija, ta besteen desprecijua eracusten daueenac», 199-200 or.

DUCAT ducado, «Joco aldi bacochian ogueta amar ducat», 29 or. «Piesta egun bacocheco castuba eun ducategaz eguiten ezdabeen baseerri echiac», 96 or.

E

ECANDU costumbre, «Da cristinauben arteco ecandu pecatuzco, ta oitura galdu ascogaz», 135 or. «Jaijotzaco ecandutzat, ta cereguintzat», 200 or.

ECELAN de ninguna forma, «¿Mutilac, eta Nescaac? Ecelan bere ez», 129 or.

ECHURIA apariencia, «Ta echuria daucanez, guztiz quenduco bere ezdira», 137 or. Hemen ez dago lehen bokalearen ixturarik, *itxura* formulan bezala; jatorriz gaztelaniako *hechura*-tik. Esan daiteke bizkaierak, orokorki, gipuzkerak eta goi-nafarrerak baino menperakizun fonetiko nagusiagoa duela gaztelaniarekiko (norabide berdinean absolBidu, moBidu, amaDU izenak, besteetan -TU direnak), eta, ie diptongoak *(priesa,* presa ordez).

EDEGUIJAC abierta, «Abitubac soinian jancijac, ta sotania iminita, coroia edeguijac salvauco baguinduz», 168.

EGUITADE acto, «Soinu onestubagaz, ta eguitade indecente bagaric, ta beste...», 156 or.

ELTZACAAC inmaduro, estúpido, «Ta meniuetan azalquerija, verdequerija, errazoe eltzacaac», 200 or.

ENDEMAS además, «Ardao pusca bat edanac, ta endemas cerbait gueijago edanac», 48 or.

EMPEINU empeño, «Ta ezdaquit celaco empeinu bat, esan dirian olgueeta lotsarizcuetan», 125. Pr. Bartolome-k sudurkari bustia, grafikoki behintzat, ez du konstatatzen ia inoiz; l bustia bai, ordea *(illtzia, illgarri)*.

ENTERO muy, «Ta pecatubaren entero urrecuac diriala», 160 or. *Oso* formula ere ezagutzen du, noski.

ERABAGUI decidir, «Pensau dot, erabagui biar ditudala, cer dirian Erromedijac», 105 or.

ERDI-COMICO semicómico, «Ta mutil artian erdi-comico eguinda olgueetan?», 171 or.

ERICHIJAN opinión, «Santu onen erichijan; ¿nos contauco ete cituban Eleisa Ama Santiac», 82 or.

ERIA aukera, «Ezbada ardua edaateco eria guztiac, edo gueijenac euqui daveela», 48 or.
ERNE atento, «Seinalleetan deutsee dantzai erne lecuba», 138 or.
ERNEGUETAN renegamiento, «Ta zeloz murmuretan, ta erneguetan dagoz», 70 or.
ERRAPARAU notar, «Edoceinec Errijeetan erraparau daiquien, eguiija da au», 199 or. «Erabatera guztien erraparubai (reparos)», 106 or.
ERROMEDIJACO romería, «¿Celan librauco ditubee, plazaco, erromedijaco», 129 or.
ERROSCAAC rosquillas, «Bere devocioecua bada, prutia, edo erroscaac artuta», 70 or.
ESQUELARIA escalera, «Eleisia arimac Cerura igoteco esquelaria da», 188 or.
EZAINAC feo, «Claru guztien aurrian, ezin esan legui, ce ezainac zirian», 111 or. «Ez nasan ezaintasunac», 67 or.
EZBADA sino, «Ezbada ceubeen echeetaco verba, ta eguite deungueequin», 111 or.
EZAUBERAZ conocimiento, «Edo eguitade loi bati pusca baten vijotzian ezauberaz, ta naiz...», 98 or.
EZCARATZ cocina, «Ta entzun nituban ziquinquerijaac ez ezcaratz, baztar baten, edo apartian isilic», 111 or. «Ez oida ezcaratceo *(ezcaratceco)* suba baino beste arguiric», 110 or.
EZE ni, «¿Ez eguitia, eze icustia bere Eleisiac eurai pena andijaquin eragotzita daucan olgueeta impameetan?», 170 or.

## F

Fonema biezpaiakari honetaz hasitako hitz guztiak, sistematikoki, P bihuztzen ditu gure Pr. Bartolome-k, beste inongo autoregan aurkitu ez daitekeen hertsaduraz; alegia, fede *pede,* fiel *piel,* fornicazio *pornicazio,* fama *pama,* etab. J. A. *Mogel* ere lehenago antzeko bidetik.

## G

GARBATU arrepentirse, «Leen juana garbatu, ta ostera ez juateco asmua artu artian», 103 or.
GENTILIDADIAREN gentilidad, paganismo, «Gentilidadiaren zatijac, reliquijac, edo ondoquinac», 145 or.

GUERRAGUINA guerrero, «Marte guerraguina ondreetaco», 141 or.

GUIZA humano, «Guiza alderic guiza aldira eldu dira gueure demporareguino», 144 or.

GORROTORIC odio, «Ez dauca pecatubaren gorrotoric, ez damuric: Pecatubaren gorrotoric», 123 or.

GORUBETAN rueca, «Soluan nabasen, edo echian gorubetan eguitia baino», 81 or. «Artajerjes Erreguia, gorubetan. Alan beste ascoc», 28 or.

GURARIZ querer, deseo, «Gurariz, ta gogoz artuten badira olgueetaco borondate laarreguija gaiti», 20 or. «Verba, gurari, edo eguitade loi bati pusca baten», 98 or. «Ta piestaraco gurarija emon eutseenac», 206 or.

GURA querer, «Alaco dantza galdubeetara bere guraz juatia», 102. Etimologia lat. *gulam*-etik, L-R aldaketaz latin-mailebuetan. Baliteke erromanikoa edo beranta ere izatea.

GUICHI poco, «Diriala pecatubaren bildur guichi dauqueenac», 52 or.

## I

ICENTAU denominar, nombrar, «Icentau dirian olgueeta desonestubeetara bere guraz premina bagaric», 122 or.

IDISCUA novillo, «Urragorrizco idiscua emacumeen cirzilubaquin eguinda», 138 or.

INDECENCIJA indecencia, «Ta indecencija eracustia... Nasaitasun au guztiau», 53 or.

INDECENTE indecente, «Esaten jaco olgueeta indecente ari. Nai dala Danen casta galduba», 140 or.

IRAASTEN contagiar, «An iraasten da luxurijaren gaixua...», 197 or.

IRACURRI leer, «Iracurri bediz, Job Isaias, Daniel, Salomon, Evanjeliua, ta San Paulo», 76 or.

IRAGO pasar, «Castigubaren trumoe aldija irago dedinian, nasaijac, ta desonestubac leengo pecatubeetara», 152 or. «Batec irago euquezan trabajuric andijenac, ta luceenac irago cituban Santa Teresac», 23 or.

IRUNECO cuello, «Eureen iruneco zapijac ascatuta, ta burucuac oquertuta», 68 or.

ITANDU preguntar, «Ta ibilteco ustia daucana? Eurai itandu», 87 or.

ISPLIGUBA espliego, «Aldaquijanac larrosia, cabelinia, ispliguba, edo beste bedar usain...», 50 or. Jatorriz lat. *spiculum,* eta beste euskal aldagaiak *ispiku, izpiliku* dira. Formula hau beranta da *ozenaren* eraginagatik.

ITURA objeto de blanco, «Tiroric zucenenac ez dira itura elduten», 34 or.

IXIUA encendido, «Ta campora aguertuteco uzija ixiua dauqueenac?», 202 or.

J

JADIJSTECO conseguir, «Au jadijsteco (sic), guzurrai emoten deutsee eguiijaren coloria», 135 or.

JAGUITEN levantarse, «Jaguiten da auzi bat erricuen eureen artian», 153 or. «Piquiagaz lo eguinda, garbi jaguiten dirianac», 180 or.

JAGUITASUNA elevación, «Ta egon-eraan jaguitasuna, arrotasuna, buruerichija, dotorerija, ta besteen desprecijua eracusten daueenac?», 200 or.

JAZOTEN suceder, «Beste aimbeste jazoten da cristinaubeen arteco ecandu pecatuzco, ta oitura galdu ascogaz», 135 or.

JOIQUIJAC instrumento de música percusor, «Soinuba bada ona, ta oneracua, joiquijac bere onac dira», 33 or.

JANTZIJAGAZ vestido, «Echecua (endamas Aitac) ezdaquijeela, ixilic eguindaco jant(z)ijagaz», 58 or.

JUANAC señor, «Milango Obispo Juanac, Santo Tomas, ta beste Eracuslaquin», 132. Inprenta hutsa (ez bada *Jaunaren* metatesia da).

JUZGU juicio, «Mezaric entzun ezdaveela, sinistu guinai, juzgu gaistoric eguin bagaric», 57 or.

L

LABAN resbalante, «Ascotan dantza arinian, oin bijac laban eguinda, plaziaren erdijan jausita», 69 or. «Baina, calzada lauban, ala aldapa labanian, lasterrago?», 187 or.

LABANQUERIJAREN desliz, «Ain bat dago nesquia pozagoric labanquerijaren, ta liquinquerijaren vitsa dariola», 66 or.

LABORIA cereal, «Patricaraan, edo muxileetan laboria, edo aldaguijeena echeti oostuta», 201 or.

LASTIMIA lástima, «Piquiagaz ló eguinda, garbi jaguiten dirianac. Lastimia», 180 or.

LAUBAN llano, «Baina, calzada lauban, ala aldapa labanian», 187. Etimologiaz lat. *planum*-etik, haserako multzo kontsonantikoaren soilkapenaz eta sudurkariaren ohizko ezkutatzeaz.

LEGUA legua, «Ta urrin Errijetati legua ascuan gentia juan oidana erromedijetara piesta egunian», 106 or.

LEGUEGIN legislador, «Erregue, Agintari, edo Leguegin batentzat edo da», 191 or. «Erregue Jaunac, ta Legueguinac ichi leguijue errijetaco gentiari», 147 or.

LEGUEZ según, a modo de, «Eurac esan oidaveen leguez, *ija puscabat ardauac alegueretuta»,* 49 or.

LOIJAC sucios, «Aimbat naijago, eureen dantza loijac noc jaso euquiteco», 169 or. «Dirianac diriala, coru loijagocuac dira oneec», 52 or. «Ta eguin ditubeela loiquerija areec, ta besteen esanagaz...», 101 or.

LOGRERIJAN usura, «Baita campotarrai logrerijan aurraz cerbait presteetaco bere», 148 or.

LIQUINDUTA ensuciado, «Ta dantzaric dantza guizon escu artian liquinduta, dabilzan emacume ezcondu bagacuac», 50 or. «Ain bat dago nesquia pozagoric labanquerijaren, ta liquinquerijaren vitsa darijola», 66 or.

LOTSARIZCO vergüenza, «Esan ditubeela verba desonestubac, ta lotsarizco errazoiac», 60 or.

LUXURIJAZCO lujurioso, «Duazala, luxurijazco pecatu mortalac esaten dirian», 101 or. «Ixioquija subari urreratu bagaric bere, luxurijaren tentacinoiac goitutia», 47 or.

M

MADARICATUBAC maldito, «Gueure piesteetaco dantza madaricatubac Jaungoicuaren gorrotua, ta zamaija euren gainian dauqueena», 78 or.

MALDADIAC maldad, «Ta andi ateraten dirian ordiquerijac, joco chaarrac, ta beste maldadiac», 96 or.

MALECIJAZ malicia, «Eragotzitaco demporaan bada, malecijaz jaztenda», 41 or.

MANDATARI mensajero, «Au ondo ezaututa, ondo sinistuta, Jaungoicuaren Mandatari areec eureen cristinau...», 85 or.

MAINA treta, maña, «Piestaraco gurarijac lapurretaac, maina

gaistuac, alcaboeterijaac», 206 or.

MAITEQUERIJEETAN amorío, «Iminita, verbeeta, ta maitequerijeetan dagozala», 64 or.

MENIO meneo, «Bai joco nesca, ta mutil, menio desonestubac, ta lotsarizcuac gueratu bagaric», 67 or.

MENTURAZ por ventura, «Entzun dot, ta ez bein bacarric, (menturaz guzurra) Compesore batzuc», 193 or.

MINGOCH amargo, «Contuban jausi zirianeti aurrera, negar mingoch asco eguin eveen», 190 or.

MORALA moral, «Ezdaquijala *Morala* derichon dotriniaren asieraric», 194 or.

MORDO cúmulo, «Andiscotiac dirialaco mordo ataco pecatubac gente arteraco», 68 or. «Eta emacumiac maats mordotz, ta pampanuz jantzita», 142 or.

MUTILDUCO trasquilar, «Quenduco deutseezala siongo alabai eureen apaindurijaac, mutilduco deutseezala eureen burubac», 78 or.

MUXILEETAN mochila, «Ta impameetaraco, patricaraan, edo muxilleetan laboria, edo aldaguijeena echeti oostuta», 201 or.

## N

NABASEN arado, «Domeecan dantzan eguitia, soluan nabasen eguitia baino, pecatu andijagua dala...», 158 or. «Judegubac zapatuba nabasen, edo gorubetan eguinagaz», 81 or.

NASAIJA disoluto, «Gueijeenac gente guztiz nasaija, eureen gusto guztiaz escatuten citubeen», 145 or.

NASAITASUNA disolución, «Eracusleen dotriniari ichita, libertadia, ta nasaitasuna gura daveenac», 94 or.

NECEDADIAC necedad, «Zoraquerijac, tontaquerijac, necedadiac, arriscu andicuac», 164 or.

NATURALECIAREN naturaleza, «Errijeetan, ta Echeetan gorde zedin naturaleciaren modu», 206 or.

NECESIDADE necesidad, «Necesidade, ta premina bagaric, ondo daquijeela, juaten dirialaco», 102 or.

NEURGARRI canon, «Eleisiaren neurgarri, edo *Canon,* ta Congregacinoe sagraducuaren», 172 or.

## O

ODOLTSUBAQUIN sangriento, «Olgueetan odoltsubaquin, lu-

xurijotxubaquin, ta ardaotsubaquin Jaungoico paltso asco», 141 or.

OLGUEETARA juego, holganza, «Pecatu mortalac aguirijan beti eguiten dirian olgueetara, ta dantzara», 10 or. «Ta olgueeta loijeetara eureen gustoz, ibiltia gaiti, olgueetia gaiti...», 123 or.

ONDOQUINAC restos, «Gentilidadiaren zatijac, reliquijac, edo ondoquinac», 145 or.

ONESTIDADIA honestidad, «Ta eguitade indecente bagaric, ta beste onestidadia ezaindu leguijan gauza bagaric», 156 or. «Ta eguna, onestidadia, ta luxurija», 157 or.

OOSTUTIA robar, sustraer, «Zaldi bat oostutia, baino guizon bat illtia, pecatu andijagua da», 196 or. Bokale bikoizturek nabarmen ezartzen du iparraldekoen *ohostu, ohoin* etimologikoa.

OQUERRERIJA malicia, maldad, «An icasten dira oquerrerija guztiac», 197 or. «Dantzia daguan lecuban, dagozala oquerrerrija guztiac», 79 or.

OQUERRERIJAGUINAC malhechores, «Ta aguirico oquerrerijaguinac, ta gaisquinac», 199 or.

ORACINOIA oración, «Gueratu bagaric, oracinoia eguiteco, tentacinoian jausi ez gaitezan», 191 or.

ORATUTA agarrar, «Escuz escu alcarri oratuta, naaste mutil biren erdijan nesca bat dala», 66 or.

ORDIQUERIJA ebriedad, «Guztientzat naasteco dantzaac gaiti, ordiquerija, gorrotua, murmuracinoia, sobervija», 85 or.

ORDITUTA borracho, ebrio, «Ez dinot, ordituta dagozala; ezbada ardaua edaateco eria guztiac...», 48 or.

OSEGUINAI criado, «Ta icusico dau: Seme alabai, ta oseguinai piestetara», 60 or.

OSTICOPIAN pisando, «Orreec dira, Jaungoicuaren legueric gueijeena osticopian daravileenac», 205 or.

## P

PAPARRIAN pecho, «Edo beste vedar usain gozoco bat buruban, paparrian, edo escuban», 50 or.

PATRICARAAN bolsillo, faltriquera, «Ta beste tratu chaarretaraco, ta impameetaraco, patricaraan», 201 or.

PECATU pecado, «Alan pecatu dan ocasinoe jaquinera, bere guraz doiana», 103 or. «Ta chito errazto iragoten dala pecatu izatera», 91 or. «Ez bada, naasteco dantzaan pecatu eguiteco daguan

ocasinoia gaiti», 91. Pr. Bartolome-k, ia beti, hitz hau haserako gorraz erabiltzen du.

PELIETAN pelea, «Piestia eguiteco, pelietan cirian Artzaquin, Otsoaquin, ta Tigreequin, alcar ill artian», 141 or.

PICAERDIJA picardía, «Gure ao lotsa galducuetati aimbeste picaerdija entzun biarra», 180 or.

PIEL piel, «Ta Errijeetaco Piel Jaunac», 151 or.

PLUMIA pluma, «Uste onagaz plumia escuban artu davenic, ez *casuistaric*, ez *Provabilistaric»,* 94 or.

PIQUIAGAZ pez, «Piquiagaz lò eguinda, garbi jaquiten dirianac», 180 or.

POR CIERTO por cierto, «¿Ta quendu ditu guztiz? Ez por cierto...», 152 or.

POPUERTZACUETAN necesario (inexiboan). «Ta artu emon popuertzacuetan guzurra, embusterija», 200 or.

POZUTI pozo, «Dantziac impernuco pozuti urten davela...», 83 or.

PREMINA necesidad, apremio, «Preminabagaric verba desonestubac esatia», 98 or. Hitz honek, *tximiño* kasuak bezala, luzapen fonetikoa dager. Baita beste honetan: «Ta ezauberaz premina bagaric juatia», 99 or.

PRIESACUAGORIC prisa, «Piesta eguna, baino priesacuagoric», 56. «Guztia da priesia piesta eguna, arrasteguijan piestara juatia gaiti», 57 or. Ikusten denez, Pr. Bartolome-k (bizkaierak bezala) oztoporik ez gaztelaniako -IE *(piestia, priesia)* diptongapenak onartzeko. Gipuzkoan, ordea, *presa, pesta.*

PRISTIJA alimaña, bestia, «Basaco suga, ta pristija venenotsubac oinduari verenua ezarten deutseen leguez», 160 or.

PROVABILISTARIC probabilista, «Ez *casuistaric,* ez *Provabilistaric,* celan eguiten dirian entzun ezquero», 94 or.

## Q

QUIPULA cebolla, «Egitoco quipula garratzai larga, ta Ceruco Mana gozua gusteetara!», 21. Ekialderagoko *tipula/tepula/tepla* disimilaziodunen ondoan, estimagarria da *quipula* formula bizkaierazkoa, lat. *cepullam*-etik, hurbilagoa.

## S

SACERDOTE sacerdote, «Abadentzat, ta Prailentzat pecatu diria-

la. Ezda errez sinistuten, Sacerdote Jaunac», 168 or.

SAMATI pescuezo, «Gueijenian nesca bat, ta mutil bat alcarri escuti, edo samati oratuta», 73 or. «Samaac armatuta, apainduta veguiracune maiteetan escubaquin chaloca», 77 or.

SARAU sarao, «Biguiraric biguira, sarauric sarau, ta dantzaric dantza nesca, ta mutil», 192 or. «Soinubagaz, ta dantziagaz eguitenda piestia, sarauba, viguiria...», 33 or.

SARTAIN sartén, «Cein tambolina, cein trompia, cein sartain zaar bat (baseerrijetaco viguireetan useetan dan leguez)», 32 or.

SEINALLEETAN señales, «Besta batzuc seinalleetan deutsee dantzai erne lecuba», 138 or.

SEINAREN niño, «Seinaren Aitaric topau ezinda daviltzanac», 202 or.

SEINORAC señora, «Eta Seinorac, Zaldunac, eta Damaac gavian alcarregana batuta», 116 or.

SEQUERA calentura, «Nun nai gaixotu leitequee. ¿Baina, sequera dunagaz lò eguiten davena», 186 or.

SIERPIA sierpe, «Sugia leguez, edo sierpia leguez izango dala bere castia», 139 or.

SOBERVIJA soberbia, «Ordiquerija, gorrotua, murmuracinoia, sobervija, Batio-ucatutia», 85 or.

SUTEGUI fogón, «Ta bai nescaac, duazan guztian, luxurijaren sutegui, ta ats ziquin au guztiau», 101 or.

SUTSUBENIAN fogoso, «Ta dantzarijac, ocasinoeric vitzijenian, ta sutsubenian eureen guraz aimbat onduen apainduta», 181 or.

## T

TERCIJUAN medida, «Ta gorra ez daguanac, aituteco, ta ezaututeco tercijuan», 74 or.

TRISTECIA tristeza, «Aingeruben tristecia, ta diabrubeen poza, ta piestia», 80 or.

TEGUIA lugar, «Ezda bada, sinistuten, Abade teguija, ta Praile teguija juaten diriala piestetara», 169. Hemen atzizki ezaguna bakanduta darabil errotik, bainan esanahia, itxuraz, bat bailitza, alegia «abadeteguija» «casa cural» gisa. «Convidau teguijeen sartu eria», 145 or.

TONTAQUERIJAN tontería, «Ta zur alaco zoraquerijan, ta tontaquerijan», 163 or.

U

UCAZALLIAC negador, «Edo ondoquinac, *Idolatrijac,* Jaungoico-ucazalliac», 145 or.
UGARASIJUAC rana, «Vianto, Lidiaco Erreguia, ugarasijuac artuten», 28 or.
UNGAIJACO Hungría, «San Ignacio Loijolacua, ta Santa Isabel Ungaijaco Erreguina», 18 or.
UPACO tonel, «Inoren upaco ardaua edaaten daveenac, ascoren carinuari vijotzian...», 54 or.
URTEERIA argumento, «Piesta zaleen seigarren argumentuba, edo urteeria da», 185 or.
URDINDUTA cano, «Buruba urdinduta euqui arren, gaztiac baisen berdiac», 54 or.
URIJEETACO villa, «Urijeetaco Alcate Jaunac, ta Errijetaco Piel Jaunac», 151 or.
URRAGORRIZCO oro, «Danen castucuac (castacuac), ziriala, araco, urragarrizco idiscua emacumeen cirzilubaquin eguinda», 138 or.
UMEETARA crío, «Ta guero gurasuetati umeetara. Gauza jaquina da, gentilac edocein...», 141 or.

V

VEGUIRACUNE mirada, «Apainduta veguiracune maiteetan escubaquin chaloca, ta oinaquin dantzan», 77 or.
VENERAGARRIAC venerable, «Jesuita Veneragarrijac dino: *Adulterijua, ta pornicacinoia...»,* 90 or.
VERBEETA conversación, «Beguiratu bequijo bada verbeeta oni, ta orraco placeetaco, eromedijeetaco», 157 or. «Ezbada ceubeen echeetaco verba, ta eguite deungueequin», 112 or.
VERDEQUERIA obscenidad, «Ta meniuetan azalquierija, verdequerija, errazoe eltzacaac», 200 or. «Esan leguizan verdequerija altubac», 71 or.
VERDETASUNA obscenidad, «Verbeetan, ta eguitadeetan, elduten dirian lecu guztian, verdetasuna», 53. Hemen-TASUN atzizkia ez da erabiltzen ohizko esanahi positiboaz, *egipen* gisa baino (eta kera *negatiboz* ere *gaiztotasuna* hitzean bezala).
VERENUA veneno, «Ta pristija venenotsubac oinduari verenua ezarten deutseen leguez», 160 or. Beraz, lehenengo kasuan ez

dago disimilaziorik *(venenotsubac)*, bainan bai bigarrenean. Maiz ematen da deslogika eta desbatusun hau Pr. Bartolome-ren liburuan, eta, bereziki, ortografia mailan.

VIGUIREETAN vigilia, «(Baserrijetaco viguireetan useetan dan leguez)», 32 or. Hitza latineko *vigiliam*-etik dator, ohizko l/r aldaketaz.

VIJAMONEGO día siguiente, «Egun ataco, ta ascotan vijamoneco ganadu jaatecua echera batutia», 57 or.

VIRGINIDADIA virginidad, «Ezcondu bagacua virginidadia galduta, viurtuten dira echeetara», 82 or.

VISPERATACO vísperas, «Meza nausitaco, sermoetaco, visperetaco, procesinoeco», 40 or.

VITSA espuma, «Pozagoric labanquerijaren, ta liquinquerijaren vitsa darijola», 66 or.

VIZTU encender, «Ta luxurijaren suba viztu eraguiten davena», 49 or.

Y

YA ya, «Ya alcarregaz bat eguin aldaguizan, icusten», 157. Bainan, 49 orrian bisilabo gisa *«Ija puscabat ardauac algueretuta»*. Baita ere bokale bikoizturaz *iia*. «Iia ez dauca (oneen erechijan) ez erliginoric», 17 or.

Z

ZALDUNAC caballero, «Eta Seinorac, Zaldunac, eta damaac gavian alcarregana batuta», 116 or.

ZATARQUERIJA obscenidad, «Bai asco guichituta, zatarquerija desonestu guztiac paperian ez imintiarren», 74 or.

ZELO celo, «Cura Jauneen, ta Conpesore Jaunen Zelo Santubari», 60 or.

ZAMAIJA amenaza, «Dantza madaricatubac Jaungoicuaren gorrotua, ta zamaija eureen gainian dauqueena, edoceinoc dacuts», 78 or.

ZITALA depravado, «Edo sierpia leguez, giraca, ta oquerca, buru zitala (Aurescuduna)», 139 or.

ZUR cuidado, «Ta zur alaco zoraquerijan, ta tontaquerijan...», 163 or.

ZURRAUTA vapuleado, «Igues eguinda, gorputzac ondo, ta sarri zurrauta», 181 or.

# VIII. ADITZ-FORMA ZENBAIT

Pr. Bartolome-k darabilen adizkerak badu bere interesa, ezeneta formula aunitz (ez guztia, nahastua dagoelarik, batzutan) Markina aldekoa baita. X fonemaren presentzia nabaria aditzean (*xaatera* (jatera), *xat* (jat), *xako* (jako). NOR motaren eremuan, Bizkaiaren ohizkoa denez, monoptongapena, *nas* (naiz), *nasala* (naizala) kasutan. Dakigunez diptongoetan *i* ezkutatzeak ondorengoaren bustidura suposa dezake (*nos/nox* = noiz, *atxa* = aitza, *gatxa* = gaitza).

Beste emaitza bokalikoak dirateke:

du + e = dawe/*davee*

nau + e = nawee/*nabee*

Esan dugunez, bestalde, aditzak konposakeran, deklinatiboetan, etab. ez du galtzen, gehienetan, beste euskalkietan bezala, -*tu/du,* ala -*i* primitiboa, *serviDutia, quenDuten, amaiTuten, ibilIera,* etab emanez. Joera hauek baztertzekoak dira, sekundario gisa, euskararen makurrera morfologiko nagusietan. Horregatik, *sinisTuquizun, pensaUquizun* gisako eratorpen traketsak Pr. Bartolomerengan topa daitezke, beste toki batean aztertu dugunez.

Bestalde, Pr. Bartolome-k oraindik aditz sintatiko aunitz darabil, gaur arrotz egiten dena batzutan. Besteen artean huek: *diarduban, darraicozan, darijola, dacuszun, daruezan, daroianac,* etab. *Eroan, jarraitu, egin, ikusi, erion, ekarri* aditzetatik datoz sintetiko gehienak.

Guk hemen, zerrendan, adizkera interesgarri zenbait aipatuko dugu; hauetako batzuk, ordea, arruntak dira Bizkaieraren eremuan.

ALBADAIZ «Bat eguin albadaiz Cristo, ta diabruba, gracija», 157 or.
ALDAGUIZAN «Ya alcarregaz bat eguin aldaguizan», 157 or.
BAQUIJEE «Amar urtaco umiac bere baquijee», 73 or.
BEQUIJUE «Itandu bequijue ondo, ta eurac esango davee», 57 or.
BALEU «Inos pena bat irago ez baleu leguez arpegui algueriagaz», 23 or.
CIRIAN «Edo beste gauza inocenteetan divertiduten cirian», 18 or.
DAIGUN «Gauza oneen ondoric, icusi daigun», 61 or. «Ta erre daguizan luurrezco gorputzetaco pecatubeen autsac», 6 or.
DAUCAZAN «Eleisiac condenauta daucazan», 97 or.
DARUEZAN «Andiquijeen Biguirara daruezan andra», 117-118 or.
DACARREEZAN «Ta Santubac dacarreezan errazoe asarriac», 78 or.
DARAVILENAC «Legueric gueijeena osticopian daravileenac», 205 or. «Airian darabilee olgueeta galdu...», 118 or.
DACARREEZ «(Ta dacarreez San Carlos Milanguac)», 127 or.
DACUTS «Zamaija eureen gainian dauqueena, edoceinec dacuts», 78 or.
DARIJUELA «Aguineetati ura darijuela, duazan guizonac», 129 or.
DACUSZU «Zeuc dacuszu, nire naija eguijazcua», 5 or.
DARRAICUEZAN «Ta arei darraicuezan pecatu impameetan sartuteco gogua», 76 or. «Erri-oneetan berez leguez darraicozan gauza...», 61 or. «Darraicozan gauza batzuc gogoratuten ditugun artian», 56 or. «Ocasinoe urrecuac diriala; ta oni darraicona», 104 or. «Ta beti gauza bati ichi bageric darraicon gogua», 19 or.
DAGUIJEZAN «Erechi daquijuen, ta amau daguijezan», 51 or.
DAROIEZAN «Baino ez-asco obeto, daroiezan nesca», 51-52 or.
DARIJOLA «Ta liquinquerijaren vitsa darijola», 66 or. «Ta atsa darijuela», 72 or.
DUAZALA «Duazala dantzara. Duazala, luxurijazco pecatu mortalac...», 101 or. «Gorputzari, gusto emotia gaiti, duazanac», 123 or.
DABILZAN «Ta dantzaric dantza guizon... dabiltzan emacume ezcondu bagacuac», 50 or.
DAROIANAC «Ta menio indecente, daroianac, bai escuti...», 65 or.

DERICHON «Ezdaquijala *Morala* derichon dotriniaren asieraric», 194 or.
DAUQUEELA «Edo provechuric ezdauqueela», 101 or.
DAQUIJEELA «Dantza zaliac au ondo daquijeena», ibidem.
DINUEE «Esan legui, dinuee, ezdavela pecatu mortalic...», 128 or.
DIRURIJEELA «Edo baso asto batzuc dirurijeela», 65 or.
DINUANA «Ta errazoiac eurac gaiti dinuana», 87 or.
DIARDUBAN «Lanian diarduban gorputzat, nos bati atseen biar daven leguez», 17 or.
EGUIJOZU «Emon eguijozu bada, Jesus Maitia», 5 or.
EVILEN «Sarri evilen cilijijoz, ta alambre zorrotzez», 23 or.
EZBADACARREE «Loba barriric echera ezbacarree», 59 or.
JUANJAT «Dantzan ibili nasaneco demporia juanjat», 163 or.
JUACO (Ezbajuaco) «Noberari ezbajuaco leguez naasteco dantzai beguiratu», 11 or.
JAGOCUEZAN «Ta eurai jagocuezan gauza asco», 61 or.
LEGUI «Ezin inoc ucatu legui», 101 or. «Ez ere Eleisaan bere pecatu eguin legui», 185 or.
LEGUIJUE «Ezin emon leguijue eguiijazco errazoian», 51 or. «Onzat emon ezin leguijee», 12 or. «Ta ezin leguizaneen *Gatza»,* 5 or. «Edo absolvidu leguizala», 103 or.
LEUQUEE «Nai leuquee, gaztiac cetan, edo atan olgau biar daveela», 192 or.
LEUSQUIJUE «Bestec bere eraguingo ez leusquijue», 114 or.
LEITEQUE «Emen egon leiteque engainu andija», 169 or.
LEUSQUEGUN «Gentiac edan gura leusquegun moduban», 169 or.
ZACUSTAZANIAN «Gueu gaiti illten zacustazanian bateti», 4 or.
ZECUSALA (ezecusala) «Edo coru baztar baten Jesus maitiaren aurrian, inoc ezecusala», 23 or.
ZINUENEZ «Baquidaz Vizcaijan, eurac zinueenez, piesta egun...», 96 or.[15]

[15] Markina-ko adizkeraren gorabeheraz ikus hauek: *W. Rollo*. The basque dialect Markina, 1925 urtea. *L. Arteaga*, Karmel (1978-3, 1978-4, 1979-1, 1979-2). *R. Garzia, K. Arregi*, «Hikako aditzjoko alokutiboa bizkaieraren ekialdeko subeuskalkian (Markina aldea)», FLV (1981) 38, 23-73 or.

PRAI BARTOLOME SANTA TERESA

# EUSCAL-ERRIJETACO OLGUEETA TA DANTZEEN NEURRIZCO-GATZ-OZPINDUBA

JESU - CRISTO
GUEURE JAUN
CURUTZIAN JOSIJARI

¿Nori, Jauna, ceuri[16], baino besteri esquini neguijo nic, *3 or.*
cartilla, edo liburu chiqui onetan lagunai[17] opa deutsedan
prutu[18] guichija? Ecer badauca onic, ceuria da esquina guztie- *4 or.*
tati. Bestia[19] neuria. Curutze orretan ceure Gorputz biguna, ederra, garbija, ta Jaungoicozcua arantzaz, ta ultzez zulotuta, colpez zaurituta, azotez eratzita, autsez, ta luurrez ezainduta, biaztunez, ta ozpinez mingochtuta, odoltuta, illunduta, minduta, eseguita, burlaz, ta desondraz estalduta[20], oinac, ta besuac burdina zorrotzez josita, gueu gaiti illten zacustazanian bateti; ta besteti, itsutasun zorigaistico[21] bategaz, ta ezjaquin[22] lainotsu bategaz etsaijac beretuta daucazala zoro zororic, ceure Odol Santubaren balijuagaz erosi, ta garbitutaco ari-
mac ibiliera, ta olgueeta sarritaco nasaijetan, eureen luurrezco *5 or.*
gorputz ustelcorrai nai, ta gusto laarregui emotia gaiti; Ceuc ondo daquizun ustiagaz, ta neure arimaco, ta vijotceco gogo-

---

[16] *Ceuri:* bigarren pertsonako intentsitatezko izenordea.

[17] *Lagunai:* pluralezko datiboa. Pr. Bartolome-k pluralean gehienik *-ai* amaiera darabil. Ikus *emacumai* 36, *guztiai* 11.

[18] *Prutu:* liburu osoaren zehar ikusiko denez, Pr. Bartolome-k baztertu eguin du sistematikoki f biezpainkaria, ia kasu guztietarra p hedatuz, *impame, pornicacinoia, enpin,* etab.

[19] *Bestia:* *-ea* amaierak gehienetan *-ia* askabide fonetikoa du. Batzutan *-ia* iristeko *-a* < *-aa* < *-ea* < *-ia* darabil (nesca/nescaa/nesquea/nesquia). Ikus *suguia* 138, *libertadia,* 132.

[20] *Estalduta:* kasu honetan -tu/du latinoak *-i* primitiboa ordezkatu du Gipuzkoako *bidaldu/itzaldu* kasuetan bezala *bidali/itzali* jatorragoen ordez.

[21] *Zorigaistico:* s/z fonemen nahasketa nabarmena izanen da gure idazlearengan, bizkaitarra delarik. Ikus *Eleisa* 196, *nasalaco* 177, *nosic* 129.

[22] *Ezjaquin:* interesgarria marraren erabilpen hori aurrizki baten nolabaiteko adierazpen gisa. *Ez* negatiboa, aditzaren kasuan, ia beti lotuta darabil *(ezdavela, ezdala, ezdirudi,* etab).

ric zintzuenagaz, ceure escu jotsijeetara bialduten dot, Jesus Curutzecua, ibiliera, ta olgueta santubeen *Neurria,* euqui leguizaneen *Gatza,* ta ezin leguizaneen *Ozpina.* Zeuc dakuszu, nire naija eguijazcua, ta arteza dana. Baita nire eguina ezer ezdana bere. Emon eguijozu bada, Jesus Maitia, *Neurrizco Gaz-*
*6 or* *Oz- pin* oni ceure amodijuaren su vitzija[23], ixio, ta erre daguizan luurrezco gorputzetaco pecatubeen autsac, ta sortu daguijan gueure arimeetan ceure vildur santuba, ta gracija. Parcatu,
*7 or.* Jauna, niri, Ceuri verba[24] eguiten azartuba.

Olgueetia[25] ibiltiz, demporia iragotia, aisia artutia, ta divertidutia dira, Cristinaubeen goguan, eguitadeetan, ta auan chito sarri davilzanac, ta oitura onai, edo galdubai ascotan izatia emoten deutseénac. Au gaiti aimbeste[26] gauza esaten dira eureén gainian Escritura Sagraduban, Theologijaco, ta eracuste oneco liburubetan. Eureen izenagaz batiatuten dira, bai gorputz cansaubari atseen eraguiteco, bai buru necatuba arinduteco, ta bai osasun jausija sendotuteco[27], dagozan olgueta modu inocentiac. Ta bai, pecatuba, nasaitasuna, libertadia, desonestidadia, ta oitura impamiac bati oinian euquiteco, ta gueitubaz eruateco, arimeen arerijuac asmau dituban ol-
*8 or.* gueeta galdubac bere. Icenac ez dirian leguez eureenez pecatuzcuac, ta dagozan leguez olgueeta batzuc ez chaarrac, pecatu ez diaranac, guztiac onzat[27] emon gura lituquee mundubac, diabrubac, eta araguijac.

---

[23] *Bizi* hitza ia beti v grafemaz idazten du, eta gainera —ohizkoa ez denez— frikazioaz. Amaieran, berriz, *i*-aren bikoiztura *guichija, eguija, conciencija* gisakoetan bezala.

[24] *Verba:* hemen ere v grafema. Seguraski, horretara latinaren grafiak bultzatu du idazlea, ezen-eta beste mailebu latino aunitzetan b/v alternantzia baitago *(biguira/viguira)*. Berdin *vildur* 5, *vijotzeco* 5. Etimologiaz, garbiro, latin neutro askozkoa: *verba.*

[25] *Olgueetia:* hemen, noski, -TEA nominazatzailea *-ea* < *-ia* prozedura fonetikoaz. -TU/DU amaiera kasutan beste euskalkiek -TZEA ematen dute (olgaTZEA). Ikus bide berdinetik *divertidutia, aitutia.*

[26] *Aimbeste:* B eta P herskarien aurrean Pr. Bartolome-k, gehinetan, ezpainkari sonantea (m) idatzirik. Adibidez, *ceimbat, aimbat, demporia.* Gavel-entzat formula horrek zintzokiago isladatzen du errealizazio fonologikoa.

[27] *Sendotuteco:* Pr. Bartolome-k honetan bizkaieraren joera bat jarraitzen du, alegia, aditzaren deklinabideetan (eta berdin eratorpenean edo deribazioan) partizipioa ez kentzea. Ikus *arinduteco* 7, *osatuteco* 41, *sortutia* 47. Euskararen ohitura nagusitan joera hori baztergarri gertatzen da.

[27] *Onzat:* kasu honetan ez ohizko NZ/NS kasutako afrikaziorik. Lege fonetiko honetan ez dago batasun handirik gure autorearengan, ezen-eta *persona* ondoan *paltsuai* 140, *dantceen* 126, *dauenarentzat* 8 idazten baitu.

Alan olgueetiaren izenagaz, ta estalguijagaz eguiten dira, Cristandade[28] guztia desondreetan daueen gachac, ta ainchinaco gentilac bere lotsaz baino, eguiten ez citubeen pecatubac. Oneen contra ixildu bagaric diadar eguiten davee Eleisiaren guiza aldi guztietaco Gurasuac, eta Eracuslaac[29]. Baita Espiritu Santubac bere lecu ascotan, aitu gura dauenarentzat (1). Ol- *9 or.*
gueeta guztien artian lecuric zabalena ta cer pensau gueijeen daucana, da dantzia. Lenago, edo gueruago, modu batera, edo bestera, guichiago, edo gueijago dantzetan ezdan olguetiac, ezdauca gatzic, ezdauca gustoric. Orregaiti aimbeste gauza esan dira, ta escribidu[30] dira, Moisen demporati ona dantziaren gainian. Batzuc lau ormaren artian sartuta, dantziac berezco izatian daucazan asmo utsai jarraituca, escribidu eveenac. Ta bestiac[31], guizonaren naturaleza jausijari beguiratuta, Evangelijoco espiritubagaz naasteco dantzia eguiten daveen[32] moduban, esaminauta, eureen gainian verba eguin daueenac. Areec esan dauee: dantzia berez ezdala pecatu. Ta bestiac: dantzia berez pecatu izan ez arren, eguiten dan moduban, ta *10 or.*
naturaleza jausijac guizon, ta emacume naaste eguin leijan moduban, pecatu dala, edo pecatuco ocasino urrecua dala.

Menturaz ezda[33] Cristandade guztian dantza desonestubagoric, ta lotsa guichiagocoric eguiten egun arguiz, euscal errijetan baino. Jazo leiteque au, gueure eusqueran casic ezer bere escribiduta ezdagualaco dantza galduben gainian. Bada izanic

---

28 *Cristandade:* hitz honetan -DADE atziki ozenak (eta alde horretatik erromanikoa eta beranta da, nahiz kultista izan) tasun edo kualitate bat ezezik, *multzoa* ere adierazten du.

29 *Eracuslaac:* kurioski, bizkaierak hitz amaieran apofonia aunitz azaltzen digu, inolaz ere *a* itsasia edo organika gisa interpretatu behar ez dena, hots, *-e* bokalearen irekiera. Berdin *iracurla* 89, *eracuslaric* 97.

30 *Escribidu: segunducuaren* 156, *meriziduten* 166 kasutan bezala, bokalearteko ozena; guretzat errealizazio hori gaztelaniar hizkuntzaren urradura da, bizkaieraren eremuan oso bizirik dagoena. Landucci-ren hiztegian ere joera bera *amadu, errueda* eta gisakoetan.

31 *Ta bestiac:* puntu batez ebaki du aurreko perpausaren segida. Etendura hori, bereziki, adbertsatiboetan eginen du, *ezbada* formulaz hasten direnetan. Perpausen bakandurak maizkoak gertatzen dira gure antorearengan, elemenduak eta ideiak hobeto nabarmentzearren.

32 *Daveen: Dute/dawe/davee.* Aditz-amaieran, aunitzetan, bokalearen bikoiztura. Esan beharrik ez dago *wau* erdikontsonantea, batez ere, izenetan erabiliko duela *au* (abu), *aua* (abua) *pamaubac (ondraubac).*

33 *Menturaz:* Itxuraz hitz aski zaharra, erromanikoko *ventura-tik,* iparraldean gehiago erabilia. Bertan haserako ezpainkari B/M-en aldaketa (venta *menta,* bacculum *makulu,* baccila *makila* gisakoa).

(1) Eccl. 9. Isai. 3. Job. 21. Exod. 32. Tob. 3. Jerem. 15.

euscal errijetaco gentia cristinautasun andicua euren tratu, artu emon ta eguitade guztietan, dira chito nasaijac euren olganzaco dantzeetan.

Au gaiti[34] pensau dot, azartu biar dodala naasteco dantzeen bereno madadicatuba azaldeetara, euscal errijetaco Cristinau itsubac, contuban jausi ditezan eureen uts eguite andi
*11 or.* onetan. Ta ene ondoric beste batec argui gueijagogaz, pluma[35] obiaguagaz, ta zelo Santubaguagaz amaitu daguijan sail au. Escatuten duseet[36] guztiai: au iracurri, noberari ezbajuaco leguez, naasteco dantzai beguiratu, tan dantzarijac ondo ondo esaminau artian, ez naijela simplezat euqui.

---

[34] *Au gaiti:* Pr. Bartolome-rengan oso ohizkoa da -GAITI eta -GANA deklibatiboak errotik berezita ematea. Beste deklinatibo gehienen kasuan, ordea, ez da berdin gertatzen.

[35] *Pluma:* kasu honetan idazlea gaztelaniako mailebua PL taldearen ohizko soilketarik gabe hartzera mugatu da; beste euskalkietan *luma* pluma, *lumatxa* plumaza. Baita ere talde berean *langa* < planca, *landare* < plantare, *lantu* < planctum.

[36] *Duseet:* Inprenta-hutsa, itxuraz, *deutset* behar luke.

# I. CAPITULUBA

## *Olguetiaren gainian*

S. I. Nos bait zetan, edo atan olguetia, naturaleciac escatuten davena, da.

S. II. Errazoezco[37] olguetiac ezdau eragozten Jangoicoa servidutia.

S. III. Cristinauba Jangoicuagan aleguere[38] izatia, gauza ona da.

## S. I.

### *Nos bait zetan, edo etan olguetia, naturaleciac escatuten davena, da* 12 or.

Uts eguite atreviduba, to pena andija mereciduten dauena, da, cristinaubari Jangoicuac imini[39] deutsan, baino legue astunagua, ta carga andijagua ipintia. Jangoicuaren leguia, ta ordenia arteza, arguija, ta santuba da. Cristinau guztiac icasi, ta gorde biar daveena, da. Baina ez, guichituta, mudauta, noberac gura daven moduban; ez bada Jaungoicuac, ta Elesia Ama Santiaren Espiriubac[40] eracusten daven moduban. Jaun-

[37] *Errazoezco:* -OE amaiera -ONEM atzizkiaren kasuan arkaikotzat jo behar da bizkaieraren eremuan (bestalde Kapanaga-gan ere present dago).

[38] *Aleguere:* hitz honetan GR talde kontsonantikoa anulatzeko *e* anapatiktikoa, gerorago datorren *alegueria* kasuan bezala.

[39] *Imini:* Ipini-ren aldagaia disimilapenaz, bizkaiearen eremuan ohizkoa den gisa.

[40] *Espiriubac:* Inprenta-hutsa dirudi, ezen-eta beti *espiritua/espirituba* baitakar.

goicuac condeneetan[41] davena, guizonac onzat emon ezin leguijee. Ez da, Jaungoicuac onzat emoten dave, bere, guizonac
*13 or.* condenan. Maldicinoe[42] baten azpijan eragotzita dauca Jaungoicuac, gauza ona chaarra dala, ta gauza charra ona dala, eracustia (1). Propeta[43] paltsuen lecuban conteetan ditu Jangoicuac, ta zamai andijaquin castiguetan ditu, eureen burutacinoiagaz leguia eguinda, Jangoicuaren esana balitz leguez, prediqueetan daveenac (2).

Au gaiti olguetiaren gainian verba eguiten danian, alderatu biar dira uts egiteco esquina bijac, beste edocein gauzatan leguez. Bata *laarreguija*[44], ta bestia *guichijeguija*. Batzuc zabalduten dituvee olgeetaac pecatuzcuetaraguino. Ta beste batzuc laburtuten ditubee gach[45] bagacuac bere. Olgueeta asco dirian
*14 or.* leguez pecatuzcuac, cristinaubac inos bere eguin biar ezditubanac[46]; beste asco dagoz inocentiac, arimara gachic ezdacarreenac, ta naturaleciac escatuten ditu banac, errazoiaren[47] legueti urten bagaric.

Olgueetia da, noberaren cer eguin nausijai, ta obligacinoiai ichita, goguac escatuten deutsan beste gauza baten, demporia iragotia. Ta au, nosic beinaco batzubetan naturaleciac escatuten daveena, da. Ezdago ezerbere[48] munduban, inos ichi bagaric jarduteco, guizonac artuco leuquian cereguinic. Asmau vedi, naijeen dan gauzia, gueijeen gusteetan jacona, ta berari ichi bagaric beti vici biar badau, laster cansaucoda. Codicijoso batec gueijen nai davena, da diruba conteetia, ta poltsaan gor-

---

[41] *Condeneetan:* Aditzetan inexibozko gerundibo hau erabiltzea oso ohizkoa du *(pentseetan, olgueetan)*. Ekialdeko -TZEN/TEN formula ordezkatzen du.

[42] *Maldicinoe:* esan dugunez -IOE amaiera -INOE baina arkaikoagotzat jo behar da, ezen-eta lat. -ITIONEM-ekiko zitzoagoa gertatzen baita bokalearteko sudurkariaren erorketaz lehenengo kasuan.

[43] *Propeta:* ezpainkarien aldaketa sistematiko *paltsuai* 140, *pamaubac* 129, *opicijo* 148, *paltso* 142 hitzetan bezala.

[44] *Laarreguija:* hitz hau geminazioaz azaltzen da lehen silabaren bokalean, eta badirudi geminazio hori gaur bertan ere fonetikoa dela, eta ez grafikoa hutsa. Pr. Bartolome-k beti *a* bikoitzaz.

[45] *Gach:* bustidura eta aurretiko diptongoaren izkutapena, *nos, nas, nasala, nosic* kasutan bezala.

[46] *Ezditubanac:* ezezkoa, gehienetan, aditz laguntzaileari itsasita idatzi ohi du, *jaztenda* 41, *biardau* 89, *cansaucoda* 14 kasutan bezala. Berdin gertatuko da *ezbada* juntagailuaz hasiriko adbertsatiboetan.

[47] *Arrazoiaren: arrazoia* hitza *errazoe* formula arkaikoaz eta hemengoaz idazten du. Euskararen eremu zabalean *arrazoiak* aldagaiok ditu, gutienez:*arrazoi, arrazoin, arrazoe, errazoe, arrazu* (S. gask. rassou).

[48] *Ezerbere: ezer* eta *bere* (ere) juntagaílu gisa erabilita.

(1) Isai 5.
(2) Jerem. 3.

deetia. Baina, jagui bagaric beti jardun biar baleu, diruba conteetan, ta gordeetan; egun guichi barru gurataco litzaateque, biarra mudeetan. Guleru batec janian, ta edanian, dauca bere poz, ta gusto guztia. Baina, beti jaaten, ta edaaten egon biar baleu, laster aspertuco litzaateque. Jocolari[49] batec jocuan dauca bere gogua. Baina, urte osuan egon biar baleu jocuari ichi bagaric, gainia etorrico lichaquio, jocuari isteco. *15 or.*

Beste ain beste dauquee, ta gogo betia emoten dabee, inos ichi bagaric equin ezquero, estudijuac, lanac, oracinoiac, errazubac, biarrac, luac, soinubac, dantziac, ta beste gauza guztiac. Ez beste gauza gaiti, ez bada, gueure genijuac, condecinoiac, edo naturaleciac beti sen baten, biar baten, edo gauza baten, gobait[50] eguin bagaric, iraun ecindavelaco. Orregaiti cein arimaco, ta cein gorputzeco lanetan, arei ichita, nosbait atseetia, ta soseguetia, gueure izatiac, edo naturaleciac escatuten daven gaucia da[51]. *16 or.*

S. II.

## Errazuazco olgueetiac, ezdau eragozten Jaungoicua[52] servidutia[53]

Batzuc uste davee, olgueeta guztiac diriala libre cristinaubarenzat. Beste batzuc, ain dira condicinoe latcecuac, estubac, iraacijac, eta sicubac, ece uste davee, olgueeta guztiac diriala chaarrac[54]; ta, beti vijotz sicu, illum[55] bategaz ezdavillenac, ezin Jaungoicua servidu leijala. Oneec, icusten badabee Praile bat, edo Monja bat, edo Sacerdote bat, nos bait barre eguiten,

---

[49] *Jocolari:* Kurioski apofoniarik gabe, nahiz-eta aditzean *jocotu* erabili (eta ez *jocatu*). Jokalari da orokorrena, erroaren junturazko bokalea oso maiz irekitzen delako, kantU kantAtu, sendO sendotu/sendAtu, gaizto gaiztAtu kasutan gisa.

[50] *Gobait:* itxura guztiaz inprenta-hutsa, *gogait* esan behar duelarik.

[51] *Gaucia:* nahiz predikatiboa izan, *-ia* emaitza *-ea*-tik igarota (gauza/*gaucea*). Ikus *alavia* 59, *trompiac* 62, *samia* 79.

[52] *Jaungoioua:* inprenta-hutsa, *Jaungoicua*, beraz. «Jaungoicuaren adisquide, ta Santu izatia», 18 or.

[53] *Servidutia:* partizipioaren euspena nominalizazioan eta, gainera, gaztelaniazko ozena (serviDo).

[54] *Chaarrac:* hitz hau beti bokale bikoizturaz; etimologikoari ez diogu arrazoirik ikusten, ezen-eta *txar* baita. Agian, Pr. Bartolome-k, analogiaz aparte, *txar zahar*-etik datorrela uste du, eta baliteke.

[55] *Illum: ilun,* noski, beste askotan azaltzen denez.

17 or. edo puscabat olgueetan galduba da. Ia ez[56] dauca (oneen erechijan) ez erliginoric, ez Jaungoicoaren bildurric, ibiltia, ta olgueetia baino.

Bitzubac[57] ust eguiten[58] davee. Bada ez[59] olgueeta guztiac dira onac; ez guztiac dira chaarrac, edo pecatuzcuac. Errazuazco olgueetiac, ta diversinojac ezdau eragozten Jaungoicua servidutia. Juicijozco Eracusla guztiac autor davee eguija au. Santo Tomas, Eleisiaren Eracusliac San Juan Evangelistiaren jazuagaz, ta Casianogaz esaten dau (1): Lanian diarduban[60] gorputzac, nos bait atseen biar daven leguez; alan arimiac bere
18 or. nos bait sosegau, atseen, edo arindu biar davela bere nequia, guero gogo obiagaz ostera equiteco bere cereguinai. San Prancisco Salesec beste ain beste[61] esaten dau (2). Ta ecarten ditu exempluzat San Carlos Milangua[62], San Ignacio Loijolacua, ta Santa Isabel Ungaijaco Erreguina; ceintzuc nosbait jocuan, edo beste guaza inocenteetan divertituten cirian, Jaungoicuaren adisquide, ta Santu izatia atzeratu bagaric. Inos bere ez olgueetia, ta inor olgueetan ez icusi gura izatia, diñue[63] Santo Tomasec, ta San Pranciscoc, dala vijotz gogorraren, baso usainecuaren, ta galdubaren, señalia. Beti tiraan daguan arija, laster etetenda. Beti póstaan[64] davilen zaldija, laster amaituten-

---

[56] *Ia:* hitz hau hiru modutara dakarkigu autareak: *iia, ija,* eta *ya* gisa *(Ija* 49, *ya* 157).

[57] *Bitzubac:* *wau* erdikontsonanteaz *bitzuc* askozkoak mugatzailea erantsita dauka, *pamaubac, diabrubac, santubac* hitzek bezala.

[58] *Ust:* inprenta-hutsa. *Uste* behar luke.

[59] *Bada ez:* Sintaxiaren aldetik joskera bitxia (eta erromanizantea), negatiboa aditzaren ondotik baidoa (gaztelaniako *si no que* formula jarraituz). Esaldi osoa aski traketsa joskeraren aldetik («Ez guztiac dira chaarrac, edo pecatuzcuac»). Hobe izanen zen: «Ez dira guztiac chaarrac, edo pecatuzcuac».

[60] *Diarduban: jardun* aditzaren formula trinkoa. Esan dugunez, Pr. Bartolome-rengan aditz trinkoen edo sintetikoen erabilera gaurkoa baino aberatsagoa da, *darraicozan* 61, *dacuszu* 5, *daruezan* formulek aitortzen dutenez.

[61] *Beste ain beste:* bakanduta bere hiru elemenduetan. Batasunik ez elemenduen lotura askotan, *nos bait, esan era* 76, *inoc agaz* 114, *uts uniac* 114. 42 orrian ere *beste ain beste.* Grafiaren aldetik Pr. Bartolome-ren euskarak oraindik tentatiba huts aunitz isladatzen du.

[62] *Milangua:* bai kasu honetan, eta bai hurrengoan *(San Ignacio Loijolacua)* erromantzeetako determinatzaile determinatua eskema. Hain ezaguna diren *aitabesoetakoa, Ama doloretakoa* hitzen joskera bera.

[63] *Diñue:* hemen bustidura grafikoaz (hots, ñ -az). Bainan *dinot* kasuan, ia beti, bustidura grafikorik ez da azaltzen.

[64] *Postaan: posta* hitza, inexibo mugatuan dagoelarik. Horregatik bokale bikoiztura, *aciendaan* 101, *patricaraan* 201 kasutan bezala.

(1) z. 2. q. 168. a. 2.

(2) Intr. á la vid. dev. p. 3. e. 33.

da. Ta beti gauza bati ichi bagaric darraicon[65] gogua, buruba, ta gorputza bere, laster galduten dira eurenez. Au ezaututa, Erliginoe Santubeen Burubac, eta Gurasuac, Santu izatiari ichi bagaric, eureen erregueleetan, ta ordenetan ipini eveen, *19 or.* batzuc gueijago, ta beste batzuc guichiago, Religiosuac, eta Religiosaac[66] atseetaco, ta eureen neque egunianguac arinduteco demporia.

¿Esango dogu, Santu andi areec ez eveela euqui Ceruco arguija? ¿Edo, ez eveela ezautu Evangelijoco Espirituba? ¿Edo, ez citubeela ichi medijo segurubac eureen erliginoetan, gura davena, Santu izateco? Ezin esan guinai uts eguite andi baten beian.

Ezda olgueetia, edo diversinoia artu biar opicijoz, ta gogoz popuertraco[67] lana, edo cereguina balitz leguez; ez bada gor- *20 or.* putzari, ta entendimentubari atseen eraguiteco, ta gogo barrijagaz, ta animo gueijagogaz bere eguiquizunari jarraituteco. Gurariz[68], ta gogoz artuten badira olgueetaac, eurenez onac izan arren, olgueetaco borondate laarreguija gaiti, ezdira izango onac. Ta guichiago, edo gueijago eragotzico davee Jaungoicua servidutia. Baina alaco olgueetaco apicinoia[69], edo gurari laarreguija ezda errazuazcua arimaraco, Evangelijo Santubac eragotzita daucalaco. Errazuazco olgueetiac, esaten da bada, ezdabela eragozten Jaungoicua servidutia. Ez, aldia bateti, edo besteti erreguelati campora daguan olgueetia gasti[70].

---

[65] *Darraicon: Jarrai* aditzaren formula trinkoa edo sintetikoa. Hona beste formula bat erro beretik: *darraicozan* 61.

[66] *Religiosaac:* hemen, dudarik gabe, genero erromanikoa nabari, ezen-eta lehen *religiosuac* esan baitu. Eleizaren kasuan ere *Santia* erabiltzen du, hots, *santa/santaa/santea* formulatik hartutakoa.

[67] *Popuertraco:* Hitz hau gaztelaniazko *por fuerza*-tik, diptongapenez, eta guzti hartuta, bainan ezpainkariaren ohizko aldaketaz. Bestalde, hitzak hemen inprentahuts bat *popuertraco* «popuertzaco» ordez baitio.

[68] *Gurariz:* Hitza jatorriz latin-erromanikoa (lat. *gulam,* errom. *gula),* -ARI atzizki objetibala daukalarik, hots, -ARI (pilotari, muslari, errementari) profesiokoetatik berezi behar dena. -ARI horrek, latineko *ferrARIA, columnARIA, argentARIA* hitzek bezala, zerbait *objetiboa* adierazten dut. Ikus honetaz: *Luis M. Mujika.* Latina eta erromanikoaren eragina euskaran. Ed. Sendoa 1982, 268-271 or.

[69] *Apicinoia:* F/p ohizko aldaketaz, eta, *maldecinoia* 172, *obligacinoia* 150, *ocasinoia* 158 hitzetan bezala, -OIA atzizkia.

[70] *Gasti:* hau, noski, *gaiti* deklinatiboa da.

## S. III.

### Cristinauba aleguere izatia ez da berez gauza chaarra

21 or. ¡Ojala, mundutarrac ezautuco balevee eguija onen indar
guztia! ¡Ojala, topauco balevee, daguan lecuban alegrija egui-
jazcua! ¡Ojala, pozu[71] chistarretaco ur berdiai, ta mingochai
ichita, juango balira vizitzaco[72] iturri gozoco ur garbijac, ta
pozgarrijaz edaatera! ¡Egitoco quipula[73] garratzai larga ta Ce-
ruco Mana gozua gusteetara! Orduban ezautuco leuquee cris-
tinaubac, ce gozua, ce alegueria, ta ce atseguinezcua dan gueu-
re vizitzia.

Ez da gueure Jaungoicua ez zitala, ez urrija, ez prestubeza,
22 or. ez tristia; ez bada[74] arteza, zuzena, zabala, ugarija, vijotz na-
saicua, ta alegueria[75], biar dan moduban, aitu ezquero. Ez-
dau[76] Jaungoicuac condeneetan aleguere izatia, ta umore ona
euquitia. Conciencija garbijac beragaz dacar, ezdaquit celaco
contentu bat, poz bat, alegrija bat, ta esan ezinleijan, viotzeco
nasaitasun bat, eta libertade bat. Espiritu Santubac lecu asco-
tan encargueetan deutscu[77] Jaungoicuaren bildur Santuba;
baina ezdau onez gueure vijotzetati quenduten alegrija egui-
jazcua. ¿Ceinbat lecutan Escritura Sagradubac esaten deutscu,
poztu gaitezala, consolau gaitezala, ta alegrau gaitezala? ¿Cein
bat bidar[78] Eleisa Ama Santiac combideetan gaitu, aleguere
egotera? Ezdogu Santubeen vizitzetan iracurten, munda bildur
23 or. jacon tristeza larriric, ta vijotz illunic. Bai, arpeguijan aguiri

---

[71] *Pozu:* Hitz honek bokalismo erromanikoa dager, hots, gaztelaniaren bokalismoa, ezen-eta euskal hitz zaharrak latineko ŭ laburra eusten baitu, alegia, *butzu/putzu* formula.

[72] *Vizitzaco:* adierazia dugunez hitz hau, ia beti, v grafemaz eta frikazioaz.

[73] *Quipula:* fonetikoki hitz interesgarria, ezen-eta beste euskalkietako disimilapenik (*tipula, tepula/tepla*) ez baitu, latineko *cepullam* jatorrizkoari hurbilagoa zaiolarik. Ikus: *Luis Mitxelena*. Fonética Histórica Vasca, 183, 239, 260.

[74] *Ez bada:* eragin erromanikoa duen sintagma, adbertsatiboaren juntagailua, amaieran ordez, muturrean ezartzen duelarik («Arteza, zuzena, zabala baino» litzateke jatorragoa).

[75] *Alegueria:* GR talde kontsonantikoa anulatzeko *o* anaptiktikoa duen hitza. Beherago ere «aleguere izatia», bainan haruntzago *alegria* anaptixirik gabe.

[76] *Ezdau:* ezezko partikula aditz-laguntzaileari itsasita idazten jarraitzen du. Ikus ere: *ezdau* 22, *ezda* 25, *biardau* 38.

[77] *Deutscu:* ez da inprenta-hutsa, etimologismoa baino, eta orri honetan bi aldiz dakar. *Deuscu* behar luke.

[78] *Bidar:* dardarkariaren aurretiko bokalearen irekiera, bizkaiera eta gipuzkerako zonalde askotan ohizkoa dena: izter/*iztAR*, bazter/*baztAR*, piper/*pipAR*. Ikus: *Luis Mitxelena*. Fonética Histórica Vasca, 62.

jacuen alegrija, ta poza. Beste ascoren artian ene Ama Santa Teresa bat da asco, mundu guztiari aleguere izaten eracusteco. Batec irago euquezan trabajuric andijenac, ta luceenac irago cituban Santa Teresac, bai persecucinoiac, gorputzeco gaisoac, ta alaac, bai cereguin estubac, ta andijac, bai penitencijac, ta bai conciencijaco dudaac[79], quezcaac, eta penaac. Baina bein pusca baten baino, ez eban Santia inoc icutsi[80] triste.

Sarri iragoten cituban Santa Teresac gau osuac oracinoian negarrez celdaan, edo coru baztar baten Jesus maitiaren aurrian, inoc ezecusala[81]. Baina andi jaguiten zan, inos pena bat irago ez baleu leguez arpegui alegueriagaz. Sarri evilen, cilicijoz, ta alambre zorrotzez bere gorputz virginia lotu ta. Baina Teresaren vijotzian, arpeguijan, ta verbeetan ez eguan secula tristeza illunic. Alegrija gracijosa[82] bat da Santa Teresaren marca aguirija. Au berau errenta orde ichi eutseen escribiduta Santiac bere Monjai, ta cristinau guztiai. Esaten dau: aleguere izatia dala devocinoiaren, ta vijotz onaren señalia... Poz artuten davela bere monjaac aleguere icusijagaz... Vizi[83] ditezala espiritu alegueriagaz... Guztiequin tratau daguijeela, ta verba eguin daguijeela modu oneco alegrijagaz... Maria de San Josef, Sevilaco Priorari queseetan jacon Santa Teresa, villancicuac bialdu ez eutsazalaco. *Bada naidot nic,* esaten deutsa, *ceuben artian olgueetia,* ta *alegreetia modu onagaz.* Luurrezco vijotz tristiac, eta illunac ez dauca ain presta era[84] ona, Jaungoicuari lecu zabala, nasaija, ta amodijozcua emoteco. Vijotz arguija, samurra, ta alegueria, pirmia, ta sendua izan ezquero, presta era obacua da milla vidar. Jaungoicua serviduteco. Ez da emen ezer esaten, pecatu eguinac arimara dacarren[85] tris-

*24 or.*

*25 or.*

[79] *Dudaac:* Bikoiztura bokaliko honek (ondorengo *quezcaac, penaac,* eta goragoko *alaac* bezala) askozko mugatzailea adierazten du. Ez askozko ergatiboa, objetibala (hots, konplemendua) baino.

[80] *Icutsi:* Inprenta-hutsa, agian, ez baitu erabiltzen, gehienetan, frikazioarik talde horretan, *eracutsi,* kasuan ez bada. Bainan, dudak ditugu frikazio horren iturriaz faktitiboetan eraku*TSI* baita.

[81] *Ezecusala: Ikusi* aditzaren forma trinkoa indikatiboko lehenaldian. Beste formulak: *dacuts 78, dacuszu* 5.

[82] *Gracijosa:* erromanikoaren genero nabaria-*osa* amaieran, eta, bestalde, -*io* taldea -ijo bihurtuta hiatozko prozedura garbiaz, *opicijo, vijotzian* (gorago), *cilicijo* kasuetan gisa. Hauetan yod (š) erdikontsonantea.

[83] *Vizi:* hemen frikaziorik ez, bainan gehienetan bai *vitzija* formulan.

[84] *Presta era:* atzizkia errotik berezita elemenduak hobeto nabarmentzearren. Berdin *urten eria* 136, *esan eran* 199.

[85] *Dacarren: ekarri* aditzaren formula trinkoa, indikatiboko erlatiboan. Orri beran «ta pecatubac dacarren».

tecia, ta penia gaiti. Ta ain[86] guichi pecatubac, eta pecatuzco gauzaac munduco zoruai emon oideutseen contentuba, edo alegrija gaiti. Pecatu eguinac dacarren penia, Jaungoicua gaiti bada, arimia alegrau, ta poztuten davena, da. Ta pecatubac dacarren poza, ta pusca bateco alegrija, eguijazco tristecia, penia, ta larrija, baino besteric ezda. Pecatarijac aleguere iruri[87] arren, vijotza tristia, ta illuna dauca. Aleguere izatia gauza ona
26 or. da; baina Jaungoicuagan, ta Jaungoicuagaz, ez pecatubagan, ta pecatubagaz.

Alegrija eguijazcua gura davenac, topau biardau, daguan lecuban; Jaungoicuagan, Ceruco ondasunetan, ta virtute santubetan. Beti izangoda eguiija, nos bait modu onian olgueetia, guere naturaleciac escatuten davena dala; ta vijotz triste illuna baino, arguija, ta aleguera berez, Jaungoicua, serviduteco, presta era obacua dala.

---

[86] *Ta ain guichi:* Kopulatibaz hasiriko esaldi aunitz dauka Pr. Bartolome-k. Hitzaurrean horrelako perpausa aunitz eman genuen. Puntuen ebakeran edo erabileran aski bitxia azaltzen zaigu gure autorea. Ikus honetaz *kopulatibaz* hasitako koordinadak.

[87] *Iruri: Iduri* hitzaren disimilapena.

## II. CAPITULUBA

S. I. Jaungoicua opendidu bagaric, celan olgau leitequian olgueetiaren beraren parteti.

S. II. Jaungoicua opendidu bagaric, celan olgau[88] leitequian demporiaren parteti. *27 or.*

### S. I.

**Jaungoicua opendidu[89] bagaric, celan divertidu leitequian olgueetiaren parteti**

Pecatu ezdan moduban, celan olgau leitequian esatera or-

---

[88] *Olgau:* gaztelaniazko *holgar* hitzetik; beste eratorkinak *olgantza* (holgantza), *olgueeta* dira. Kasu honetan ohizko hozkariaren erorketa.

[89] *Opendidu:* gaztelaniar eragina partizipiaoren herskari ozenean. Guretzat bizkaieraren urradura edo erosio fonetiko hau arbuiagarria da. 194 orrian ere *opendidu*.

duco, jaquin biar da: Cristinau bacochac daucan leguez, aparteco echuria, aparteco guenijua, ta aparteco penseeta moduba; alan dauqueela[90] gueijeenac aparteco gogua, bata gauza batian, ta bestia bestian divertiduteco, ta olgueetaco. Batzuc simpleza bategaz olgueetan dira, comedija baten, edo cecenetan
28 or. baisen[91] ondo. Cesar Augusto, Mundu guztiaren Aguintarija umiaquin *donez, ala parezca* olgueetan zan. Vianto, Lidiaco Erreguia, ugarasijuac[92] artuten. Domiciano eulijac ilten. Artagerjes Erreguina, gorubetan. Alan beste ascoc, ezer bere ezdirian gauzac, artuten dituvee diversinoetzat. Onaco aparteco bacocharen[93] gogoco olgueetac gaiti, ezin erreguela seguru bat imini legui. Izan leitequez onac, baita arin onac bere.

Juicijo on baten erreguela pera ecarri leguizan, ta casic gueijenac nai oiditubeen olgueetaac dira: *Jocua, Eitza*[94], *Pasiua, Soinuba, ta dantzia*. Ta eurac examinau biar dira, celan ez dirian charrac.

*Jocua* da olgueeta bat berez, inoc bere condeneetan ezdave-
29 or. na. Guraari[95] laarreguijagaz, ta gogotasun vitzijagaz jocatuben bada, beti izango da paltia[96] Jaungoicuaren veguijetan guichiago, edo gueijago[97]. Bacocha bere laneetan cansauta daguanian, pusca baten jocuan olgueetia, berez pecatu dala, ezdau inoc esaten. Baina bagoz legue batzuc, jocuaren gainian gorde biar dirianac, ona izango bada.

I. Suerteco jocuac eragotzita dagoz legue guztietan, descuido utsecuac dirialaco. 2. Jococo diversisinoia artu biarda, demporia iragoteco, ez ango irabacija gaiti. 3. Jococo ornidute, edo tantu bacochian errial bat baino gueijaco jocatutia,

---

[90] *Alan dauqueela:* menpeko perpausa, modala, nagusia muturrean dualarik («Jaquin biar da... alan dauqueela...»). Perpausa nagusia, batez ere, zerbait sententziala *(ta dinot)* denean muturrean kokatuko du.

[91] *Baisen:* s/z aldaketaz. *Baizen.*

[92] *Ugarasijuac:* Bizkaierazko *rana.* Hitz honen aldagaiak hogeitamar baino gehiago euskaran. Hemengo formula ohizko yod erdikontsonanteaz. Azkueren hiztegian (II, 352) *ugarasio* (N-l-m-mu), *ugaraixo* (B-ub) eta *ugaraio* (B-ber).

[93] *Bacocharen:* TZ frikariaren ohizko bustidura aurretiko diptongoaren (oi) galketaz, *nos, gox* (goiz) kasutan bezala.

[94] *Eitza: ehizea, ihizia.*

[95] *Guraari:* a-ren bikoiztura, agian, erroaren bokalea atzizkiaren haseratik nabarmenagotzeko. *Mogel-ek* (J. Antonio) ere *lotsaaria* (partes pudebundas)-ARI atzizkiaren kasuan.

[96] *Paltia: falta,* ohizko p/f aldaketa arruntaz, eta -aa/-ea/-ia prozedura fonetikoaz. Kasu hauetan, hots, adierazitako bilakaera fonetikoetan ez da ematen azkeneko *-ia*-tik *-ija*-ra (*eguija, luxurija* hitzetako) segidarik. *-ija-ijo* emaitza emateko aurretiko *-i* delakoa berezkoa izan behar du.

[97] *Gueijago:* hemen, noski, -ija prozedura logikoa da, ezen-eta *yod* erdikontsonantea hiatoa (i-aren kasuan) indartzera baidator.

eragotzita dago Espainaco legueetan aberatseentzat, ta guztientzat. Ta erriala[98] bere escuban dala, es guero pagueetacuan. Joco aldi bacochian ogueta amar ducat[99], baino gueijago jocatu ezinleguiz. Alan aguindutendau Carlos III. guere *30 or.* Errege Jaunac, leenagoco guere Erregue Jaun guztien jocuaren contraco leguiac onzat[100] emonaz. Legue oneen contra jocuan irabazten dana, atzera biurtu biarda conciencijan, maisuric jaquituneenac dinuenez Santo Tomassegaz (1). 4. Suerteco jocuaz gainera beste jocu modu asco eragotzita dagoz Sacerdote[101] jaunai, ta Eleisa guizonai (2). 5. Engañuzco jocuac beti dira chaarrac. 6. Eragotzitaco lecuban[102] jocuan eguitia, jocua ona izan arren, ezda ondo. Nai davenac, jocuan eguiteco, echia, edo lecuba gau, ta egun prest euquitia, pecatuzat condeneetan davee Eracuslaac San Carlos Milanguagaz (3), inori *31 or.* pecatu eraguiteco, ocasinoia dalaco.

Esan dirian gauzeetan paltau bagaric, jocuan olgueetia ez da berez gauza chaarra. Erri batzubetan egotendira pelota lecubac, ta bolaalecubac, gentia divertiduteco. Au gauza chaarra ezda[103].

*Eitza, ta arraincatzia* dira[104] olgueeta inocentiac, ta ascotan provechucuac. Echeco cereguineen, edo osasunaren caltian ezbada, libre dan demporan eitzian, ta arrainac artuten olgueetia, ezin inoc[105] condenau legui.

---

[98] *Ta erriala:* hemen ere aurretiko perpausarekin zuen harreman semantikoa (eta sintagmatikoa) puntuaz etena izan da. Horrelako asko obra honen orrietan. Sermoi-hizkera izan daiteke.

[99] *Ducat:* hitza erromanikoa, bainan fonetikoki jatorriz gaskoin-okzitaniarra, T, NT, ST amaierak *(present, galant, polit, aursart)* hizkuntza horretakoak baitira. Ikus: *Luis M. Mujika.* «Euskarara iritsitako hitz erromanikoen bokalismoa», Euskera (1983) -1, 171-219 or.

[100] *Onzat:* Prolatiboa batzutan frikazioaz *(-tzat)*, bestetan ez ordea. Beherago ere «pecatuzat», bainan 61 orrian igarri*tzat*.

[101] *Sacerdote:* berdin 16, eta 168, orrietan. *Abade* hitza ere badarabil, batez ere, *prailea*-ren kontraposizioan.

[102] Lecuban: Ohizko *wau* erdikontsonanteaz. Beherago «edo lecuba gau». Hurrengo orrian, berriz, «egoten dira pelota lecubac».

[103] *Au... ezda:* Sintaxi hau gaztelaniagatik ukitua dagoela dirudi («au ez da gauza chaarra» ordez), baldin-eta, autoreak, apropos, predikatiboaren eginkizuna biziki nabarmenarazi nahi izan ez badu.

[104] *Eitza... dira:* hemen guk aditza perpausaren amaieran kokatuko genuke, hots, *inocentiac* epitetoaren ondoren; bainan sujetua nabarmenarazi nahi bada zilegi da aditza haren hurbilean ipintzea.

[105] *Inoc:* bizkaieran ohizkoa denez, Pr. Bartolome-k aunitzetan *cetan* (zertan), *atan* (hartan), *noc* (nork) formulak. Ikus *noc* 70, *noberari* 12, *atan* 11.

(1) 2. 2. q. 32. a. 7.

(2) Trid. sess. 22. c. I. de reform.

(3) Instrut. S. 31.

Pasiua berez ez ona, ta ez chaarra da[106]. Ascotan izango
32 or. da ona. Buru necatuba arinduteco, edo osasuneraco pasietia gauza ona da, ta ascotan biarrecua. Baina inoc ucatu ezin legui, pasiuaren achaquijagaz[107] gauza chaar asco eguiten diriana. Gurasuac, eta ugazabaac ez davee lò egon biar, seme alavaac, ta otseguiuac[108] pasiora duazanian.

*Soinuba* da beste olgueeta bat berez inocentia. Edoceinec soinuba jolegui, pecatu eguin bagaric. Ainguerubac bere jo eveen Jesus jaijo zanian. Ceruban bere jotendavee. Eleiseetan bere jotenda. Soinuba joteco, erramientac bardinac izan ezarren, soinu guztiac dira bardinac, orain toqueetan danez. Cein organuba, cein[109] biolina, cein guitarria, cein tambolina, cein
33 or. trompia, cein sartain zaar bat, (baseerijetaco viguireetan useetan dan leguez) guztiequin jotenda soinuba. Soinuba bada ona, ta oneracua, joiquijac[110] bere onac dira. Soinuba bada pecaturacua, joiquijac, eta jotia bere pecatuacuac dira orduban. Jobedi bada soinuba, gentia alegueretaco, baina ez pecaturaco.

Soinubari oidarraico[111] dantzia. Soinubagaz, ta dantziagaz eguitenda piestia, sarauba, viguiria...

*Dantziaren* gauza asco escribidu dira. Dantziari bere izate utsian, edo, oinaquin[112] soinubari celan jarraituten jacon bano, beguiratuten ezjacola, mila abonu esan leguiz bere pabore, ezertan paltau bagaric. Ta, jazo oidan, ta jazoten dan moduban, beguiratu ezquero, mila maldecinoe ezarten jacoz errazoiagaz. Eguiija da: Dantza galdubac noc zaintu asco dau-
34 or. queez. Dantza zaliac azala lodija dauquee. Erremientaric zorrotzeenac dira motzac, pecatuzco dantzaac quenduteco. Tiroric zucenenac ez dira itura elduten. Colperic indartsubeenac airian gueratuten dira. Au buruban sartuta euquiarren, Euscal

---

[106] *Ez chaarra da:* sintaxi hau ere arrotza egiten zaigu, hots, erromanizantea. Hobe: «berez ez da ona, ta ez da chaarra».

[107] *Achaguijagaz:* liburu honetako *lichaquio, dericho* kasutan ez bezala, hemengo bustidura, etimologikoa da, hitza gaztelaniako *achaque*-tik datorrelako, ekialdeko *aitzakia* sekundario delarik.

[108] *Otseguiuac:* inprenta hutsa, *otseguinac* behar luke *otsein* hitzaren jatorritik. *Otsein ogi-sein* osagaietatik.

[109] *Cein... cein...:* Perpausa disiuntiboa gaztelaniazko *ya... ya...*-ren parekoa.

[110] *Joiquijac: -ija* erdikontsonanteaz aparte hitz honetan *-ki (oilaki, odolki, tripaki)* objetibalak tresna-esanahia ere hartzen du, hots, *-gailuaren* eremua. *Joiquija,* bada, *jogailua* (intrumento percutiente) izanen litzateke.

[111] *Oidarraico: Ohi* aditza eta *darraico* trinkoa, *jarrai* aditzaren errotik. Bestetan *darraicozan* 56, *darraicona* 105.

[112] *Oinaquin:* Eginkizun honetarako beste askotan (bizkaieraren eremuan) *-GAZ/Z* atzizkia. -KIN, beraz, soziatibo gisa bakarrik erabili behar da. Hemen, noski, hobe besteetako *oinagaz* formula erabiltzea.

errijetan daguan baino, ez jaquite guichiago egon dein pecatuzco dantzeen gainian, ta Cristinaubac vitci[113] ditezan jaquinaren gainera, pensau dot, eguiija batzuc arguitara ateratia[114].

*Ta Dinot:* I. Dantzan eguitia berez ezdala pecatu (1). Berez pecatu balitz, beti izango litzaateque.

II. Persona batec bacarrian, nai guizonezcuac, ta nai ema- *35 or.*
cumiac[115] dantzan eguitia, berez ezdala pecatu. David Erreguiac bere eguin evan Arca Santubaren aurrian (2). III. Guizonezcuac alcarregaz[116], emacume bagaric dantzan eguitia, gauza chaarragoric esan, edo, eguiten ezdaveela, ezdala pecatu. IV. Emacumiac alcarregaz guizonezco bagaric, ta canta, edo soinu indecente bagaric dantzan, edo pandanguan olgueetia, ez dala pecatu (3). Aaronen arreba Mariac bere eguin eban beste emacumeequin, soinuba jota. Faraonen escu gogorretati Isrrael librau zanian. Esan dirian modubetan dantzan eguitia,
ta olgueetia, ezdau juicijozcoc condeneetan. Piloteac bere *36 or.*
eguin euquian, caridadia galdu bagaric; ta cristinau guztiac bere eguin leguijee. Catigu dagozan emacumiai eragozten jacue dantzan bacarric eguitia, seiña galduteco, dauqueen arriscuba gaiti.

Beste guizon, ta emacumeen artian naaste eguiten dirian dantzaac, cer icusi asco dauquee.

Jazo leiteque, nos edo nos, pecatu ez izatia. Baina esan legui alaco dantzaac gaiti, Ene Ama Santa Teresac eun guzurren arteco eguiija giati esaten evana: *ezda erraz,* cinaan, *eun guzurren artian eguiija bat aparteetan.* Bada ezda asco errazago izango, guizon, ta emacumeen naasteco dantzeen artian pecatu bagaco bat aparteetan. Ezin ipini legui ordu bacocheraco, *37 or.*

---

[113] *Vitci:* frikazioaren kasuan tz/tc grafiak darabilzki gure autoreak. ***Bizi*** hitzaren kasuan gehienetan *tz(vitzija 6).* Alternantzia bera ***dantzan*** 79 eta ***dantceen*** 76 kasuan.

[114] *Ateratia:* ateratzea. Beraz, bizkaierak -TEA (nominazatzailea), ekialdeko euskalkiek -TZEA (atera*tzea*) duten bitartean. Emaitza bera -TU/DU partizipioa dutenetan sarri.

[115] *Nai... ta nai:* Disiuntibozko perpausa kopulatiboaz *(ta)* lotua. Euskara batuan «nahiz... nahiz emakumeak dantzan egitea» litzateke.

[116] *Alcarregaz:* elkarrekin. Hemen, noski, soziatiboa (-kin) erabili behar luke, beherago darabilanez, hots, «emacumeequin» (emacumiagaz/emakumiakaz ordez).

(1) S. Thom. 2. 2. q. 168. a. 3. S. Franc. Sal. Intr. á. vid. dev. p. 3. c. 33. Bened. XIV. Instr. 76.

(2) Reg. 2. c. 6.

(3) Colect. 6. precept. art. 5. Sect. 2. Exod. 15.

lecu bacocheraco, lagun bacocharentzat, ta dantza naastau[117] bacocharentzat erreguela bat, nos dan[118] pecatu mortala, nos dan veniala, edo nos ezdan pecatu, esateco. Esanda gueratuten da, celan olgau leitequian, Jaungoicua opendidu bagaric, olgueetiaren beraren parteti.

S. II.

**Jaungoicua[119] opendidu bagaric, celan olgau leitequian, demporiaren parteti**

Ibiltia, edo olgueetia, berez izan ezarren[120] chaarra, edo pecatuzcua, izan leiteque demporiaren parteti. Ta au modu bi- *38 or.* tara, edo dempora gueijegui olgueetan iragoten dalaco; edo eragotzitaco demporaan olgueetan dalaco. Dempora laarreguijan irauten badau olgueetiac, izango da pecatu, edo mortala, edo veniala. Gauza guztiac dauquee eureen demporia, dino Espiritu Santubac. Ta olgueetiac bere euqui biardau bere errazuazco[121] tercijura[122]. Cristinaubeen estadubac, eta condicinoiac ez dira bardinac. Opicijuac, eta cereguinac bere ez. Osasuna, ta guenijua bere ez. Ta orregaiti ezin señalau legui guztientzat erreguela bat, olgueeta laarreguijagaz, nos, eta cetaraguiño pecatu eguiten dan, esateco. Beti izango da eguiija, Jaungoicuac ezgaitubala mundura ecarri, alperrerijan[123], ta olgueetan vizitzia iragoteco; ez bada, bacochac bere estadu-

[117] *Naastau:* nahaspilatu, nahastekatu. Beraz, ohizkoa duenez, hozkariaren erorketa *olgau, asmau, topau, amatau* (gazt. zaharrean *amatar*) hitzetan bezala.

[118] *Nos...*, nos: noiz. *Gox, nas, nasala* kasutan bezala diptongoaren itzalpena eta txistukari aldaketa. Ikus L. *Mitxelena* F.H.V. 106, 192.

[119] *Jaungoicua:* Jaingoikoa. Kasu honetan ez da *wau* erdikontsonanterik (*munduba, santuba, turcuba* kasuetan bezala). Bestalde, *-oa* taldea *-ua*-ra (*gogua* 55, *soluan* 80, *joatecua* 57).

[120] *Izan ezarren:* ezezko perpaus kontzesiboa. Bertan perp. *nagusia* («Ibiltia... izan leiteque...») eta *menpekoa* («berez izan ezarren chaarra...»).

[121] *Errazuazco:* arrazoizkoa. Hemen *errazu,* bainan orri berean beheragoo *errazoe* («beti izango da errazoe...»). Ikusten denez, batasun gutxi atzizki batzuetan.

[122] *Tercijua:* tertzioa. Ohizkoa duenez, -io < -ijo, *yod* erdikontsonanteaz. Beherago (*opicijuan*) berdin, bainan bokale taldearen ixturaz (*-ijua*). Bide berdinetik *concilijua, cilicijua.*

[123] *Alperrerijan:* Alperkeria. Hemen, kurioski, -ERIA atzizkiak ez darama gehienetako -K epentesirik (-KERIA), batez ere, *negatibitatea* adierazteko erabiltzen dena (mozkorkeria, zinkinkeria). Pr. Bartolome-k bestetan *verdeQUEria* 200, *labanQUErijaren* 66. Beraz, jatorriz -ERI eta -KERIA iturri berekoak dira, eta iturri hori, noski, erromanikoa da (porqueERIA, tontERIA). Ikus honetaz: Luis M. Mujika: *Origen y desarrollo de la sufijación euskérica.* Edic. Vascas, 1978, 150-157 or.

ban, ta opicijuan biarra eguiteco, beti izango da eguiija, errazoe zuzeneti aurreraco olgueetia, edo errazoiac, ta estadubac escatuten daven, baino dempora gueijago olgueetan iragotia, pecatu dala, veniala beti, ta ascotan mortala. Beti izango da eguiija, alperrerijac, ta olgueeta utsac dacazala asmo chaarrac, ta burutacinoe gaistuac. Beti izango da eguiija, Caballeruac, aciendia governeetaco, errijai exemplu ona emoteco, ta arimaac santututeco; Señoraac[124], echeco gauzai cobru[125] emoteco, seme alavei, ta otseguinai dotrinia, ta Jaungoicua serviduten eracusteco, ta eureen arimai obeto cuidado eguiteco; Sacerdote Jaunac, liburu onac iracurteco, Jaungoicuaren Verbia eracusteco, Sacramentu Santubac Jesucristoren izenian eguiteco, ta cristinaubeen conciencijetaco[126] duduac erabaguiten, tercijo baten jaquiteco; nequezarijac, opicialiac, Prailiac[127], monjaac... Dinot: eureen estaduco cereguinai cobru emoteco, biar daveen demporia, iragoten badavee oneec guztioc olgueetan, eguingo dabeela pecatu. ¡Oh, ceasco dirian, ta ce guichi compesetan dirian onetarico pecatubac! ¡Oh, ce guichi estimetan dan dempora santuba!

*39 or.*

*40 or.*

Olgueetia berez izan arren ona, izan leiteque chaarra, eragotzitaco demporaan dalaco[128]. Aguirico olgueetac, eta diversinoe publicuac eragotzita dagoz Domeeca, ta jai osuetan, meza nausitaco, sermoetaco[129], visperetaco[130], procesinoeco, ta Altaraco Sacramentuban Jesus aguirijan daguan arteco demporeetan. Olgueetia, edo diversinoia inocentia izan arren,

[124] *Señoraac:* andereak. Pr. Bartolome-k badarabil *andraac* eta *andriaren* ere, bainan *Caballeruac* hitzaren ondoan mailebura jotzen du. Hemen *-aac* bikoizturak pluralezko sujetua adierazten du, hots, *a* organikari itsasten zaion pluraleko marka.

[125] *Cobru:* kobrantza. Beraz, *erru, gastu, pagu* eta antzekoen posberbala. Honetaz ikus gure «Aditzostekoaren (posverbal) eratorriak», in *Latina eta erromanikoaren eragina euskaran*, op.c. 286 or.

[126] *Conciencijetaco:* euskal fonetikara osoro makurtuko gabeko mailegua, ezeneta ez du frikaziorik pairatu sonante txiskuari kasuan, ohizkoa denez. Bainan, bestalde, *-ia*-tik *-ija*-rako prozedura.

[127] *Prailiac:* f/p ezpainkarien trukaketa. Orri honetan bertan aldaketa berdina *compesetan, opicialiac* (oficiales) kasuetan. Pr. Bartolome-ren luman aldaketa hori ia sistematikoa da. Ez ahaz, bestalde, *piel* 152, *pavoreco* 133, *pedia* (fede) 76, *Piloteac* 36.

[128] *Dalaco:* perpausa honetan sintagma nagusia aurretik, kontzesiba, berriz, («berez izan arren ona...») eta kausala isatsean («eragotzitaco demporaan dalaco»).

[129] *Sermoetaco:* esana dugunez, -OE amaiera -OI baino zaharragoa edo arkaikoagoa da, Kapanaga-ren idazkietan ere azaltzen denez. Bestalde, goinafarrerak eta iparreko euskalkietan ere emaitza bera latineko -ONEM atzizki kasuan. *SermONEM* hitzak, noski, -OE dama bokarlearteko sudurkariaren erorketaz.

[130] *Visperetaco:* itxuraz gaztelaniako *visperas*-en eraginaz, bereziki, *z* aurre dortsalaren emaitza *(beZperak)* zaharra galtzen duelarik.

41 or. eragotzitaco demporaan bada[131], malecijaz jaztenda. Erri
guztiaren oneraco Eleisaan cereguin Santubac eguiten dirian
artian[132], ezdau Eleisa Ama Santiac parcatuten aguirico ol-
gueetaric. Dinot: *aguirico olgueetaric*. Ez, ezcutubetacuac,
echezulo, edo tabernetacuac ontzat emoten ditubalaco, ezba-
da, oneec erremedijau ezinda, areec eragozten ditubalaco.
Ezda á[133], olgueetaco demporia; ezbada[134] templu Santuban
Jaungoicua alaveetaco demporia. Ta templura juan ezindanac,
bere echian, edo egon lecuban Jaungoicuari gracijaac emote-
co, ta misericordijac escatuteco demporia. Iracurri bitez Elei-
siaren batzaarretaco erreguelaac. Inocencio XI. garren, Aita
Santu Erromacuaren, ta Cristindadeco Erregue Jaun ascoren
ordenaac, ta guztietan icusicoda, ce gauza chaarra, ta Jangoi-
42 or. cuaren gorrotocua dan, alaco demporaan olgueetia.

Beste ain beste esaten da, nai Eleisiaren Burubac cristinau-
bai, nai Juezac bere aguindupecuai, nai ugazabaac otseguinai,
nai gurasuac umiai eragotzita dauqueen demporaan, olgueetia
gaiti. Bada oneec guztioc dauquee escubidia, bacochac bere le-
cuban, aguinduteco; ta aguinduban dagozanac, obeidu biar
deutsee errazuazco ordeneetan. Ninivetarrac eguin eveen le-
guez. Evangelijo Santubac aguinduten deutscuna, arina, vigu-
na, erraza, ta allegueria da, Jaungoicua ameetan davenaren-
tzat. Gorde bedi legue Santuba, serbidu bedi Jesus, amau bedi
43 or. Jesus, ta gauza guztiac biurtuco dira gueure oneraco, gueure
consueloraco, ta alegrija eguijazcoraco.

[131] *Demporaan:* Inexibo mugatuan; horregatik bikoiztura bokalikoa. Gogoratzekoak dira besteok: *eltzacaac* 200, *damaac* 116, *errespuestaan* 74 or.

[132] *Artian:* aurreko hitzan bezala (hau da, *dirian*/direan) *-ea* taldea *-ia* bilakatu da. Bide berdinetik *coloria* 135, *abadiac* 168, *zarian* 179, *umiac* 205, *ciriala* 153.

[133] *Ezda à:* erakusle honen kasuan, behin baino gehiagotan, azentuaren marka. Jakina denez, hizkuntzalari batzuek *a* mugatuaren (artikuluaren) jatorria *à (hura)* erakusle honetan ezartzen dute. Guri taxuzkoa deritzaigu iritzi hori. Beraz, *gizon á* (aquel hombre) *gizon-a* (el hombre) bilakatu da, agian.

[134] *Ezbada:* adbertsatiboa, joskeraz tindu erromanikoa duelarik, ezen-eta *baino/baizik* gurean, normalean, amaieran baidoa. «Ezbada templu Santuban/Jaungoicua alaveetaco demporia», kutsu endogenoz, hobeto legoke honela: «Templu Santuban Jaungoicua alaveetaco demporia *baizik*».

## III. CAPITULUBA

## AMAIJA

*Placeetan gizon, ta emacume naaste eguiten dirian dantzaac, avemarijetan tambolina*[135] *i silduta, amaituten dirianac. Euscalerrijetan usetan dirian moduban, pecatu mortaleco ocasinoe urrecuac dira.*

S. I. Plazaco piestaraco[136] gentia celan presteetan dan.
S. II. Plazaco piestia celan eguiten dan.
S. III. Escritura Sagradubac, ta Eleisiaren[137] Gurasuac naasteco dantzaa gaiti dinuena.
S. IV. Teologija Sagradubaren Eracuslaac, ta Errazoiac[138] eurac gaiti dinuena. *44 or.*

---

[135] *Tambolina: torre, tamborra* eta besteten bezala ekialdeko *dorre, danbolina*-ren ordezko aldagai gorra. Hitz-haseran errealizazio hori, gehienetan, gaztelaniar fonetikarekiko makurrera gisa interpretatu behar da. Beste makurrera nagusia aditzetako bokalearteko -DU ozena da *(amaDua, serviDutia, pagaDua)*, ekialdeko -TU zaharraren ordez.

[136] *Piestaraco: piestia, piestaan, piestara* formuletan bezala (eta prIEsa kasuan) gaztelaniar urradura fonetikoa, euskal eremuari ez dagokion diptongoa sartuaz. Urradura hau bizkaierak gaztelaniarekin duen mendeetako ukituaren eragin ukaezina da. Joera hau, noski, arbuiatzekoa da.

[137] *Eleisiaren:* EleiZaren. Ohizko eta etengabeko s/z fonemen nahasketa.

[138] *Errazoiac:* bainan 38 eta 78 orrietan -OE amaiera *(errazoe)* arkaikoa. Bide berdinetik *tentacinoe* 55, *erliginoe* 19.

S. I.

## Plaza-piestaraco gentia celan presteetan dan

Ezda asco aobetian esatia: *plazaco naasteco dantzaac avemarijetan gueratuten dirianac, tambolina isilduia*[139]*, useetan dirian moduban, edo eguiten dirian moduban, pecatu mortaleco ocasinoe urrecuac diriala,* errazoiagaz proveetan ezbada. Onetaraco popuerzacua[140] da examinetia: celan useetan dirian, edo eguiten dirian, ta, Espiritu Santubac, Eleisiaren gurasuac,
45 or. Eracuslaac[141], ta errazoiac eurac gaiti cer dinuen; ta despeidaan dantzarijen errazoiac ce entzute mereciduten daveen. Au eguinagaz urtengo dau berecautan leguez goijan iminidan amaijac, edo *conclusnoiac*[142], nire erichijan. Errazoe arguijagua, ta jaquiturija[143] altubagua dauqueenac ezautuco davee, ondo ataria dan, edo ez. Amaijari duda guztia, edo, aituten oiditubeen, achaquijaac quenduteco, esatenda: *Plazaan arguitan tambolinagaz eguiten dirian naasteco dantzaac, Avemarijetan tambolina isilduta, gueratuten dirianac, Vizcaijan, ta Euscal errijetan useetan, ta eguiten dirian moduban, diriala eurenez pecatu mortaleco ocasinoe urrecuac.* Bardin esaten da beste modu baten: *Dantzan eguitia berez pecatu izan ez arren, Euscal errije-*
46 or. *taco piesteetan eguiten dan moduban, pecatu dala.* Nai beste modu baten: *Jazo oidanez, pecatu mortalaren beian*[144] *dauqueela Cristinaubac obligacinoia, esan dirian dantzeetati apartetaco.* Edo beste baten: *aldaijan guztian, esan dan piesta dantzara juateco, vorondate presta, ta gogua ezauberaz daucanac, ta juan ezin dalaco peniagaz gueratuten danac, ocasinoe atan*[145] *sartutia consentiduten davenian, eguiten davela pecatu.* Despeida, edo conclusinoe oneec guztioc batera joten davee, edocei-

---

[139] *Isilduia: isilduta* dela dirudi. Inprenta-hutsa.

[140] *Popuerzacua: derrigorrezkoa.* Gaztelaniako *por fuerza*-tik jatorrizko diptongoaz *(-ue).*

[141] *Eracuslaac:* ohizko apofonia, eta plurale mugatuaren marka bokale bikoizturan. Ikus ere: *eracuslaric* 97, *eracuslaac* 8. *Irakurle* kasuan *iracurla* 89.

[142] *Conclusnoiac: conclusInoiac,* noski. Inprenta-hutsa.

[143] *Jaquiturija:* sabiduria. Bi hizkuntzetan jatorrizko erroak atzizki bat-bera, hots, -TURIA/DURIA. Euskaran atzizki beraz *apainduria.* Atzizki honetaz ikus gure *Origen y desarrollo de la sufijación euskérica,* op.c. 86-90 oi. Atzizkia erromanikoa da, eta bere oinarrian -URA -IA delakoen pilaketa.

[144] *Beian:* pean. Etimologikoki *behean* «pean» baino zaharragoa da, gorketa, seguraski, konposaketaren ondorioz fosilizatu delarik. *Ilunbea* hitzean present dago.

[145] *Atan:* hartan/haretan. Bestetan bezala *(noc, inoc, noberac)* dardarkariaren itzalketa bizkaieraren eremuan. Ikus: *nobera* 11, *ezetara* 174, *atan* 12.

nec dacusen[146] leguez. Gogoratu daigun bada, celan gentia presteetan dan Euscalerrijetan piestaraco, ta guero celan eguiten dirian.

Onetaraco zurtu belaarrijac, arguitu beguijac, ta ezautu ceuben[147] pecaturic gueijenen erne lecuba. Plazaco dantzara 47 or.
duazanac, luxurijaren suba garretan euquiteco gueiric presteenac batuten ditubee eureetara. *Edadia, Edana, Jantzija, Nasaitasuna, ta Estaduba.*

E. *Edadia.* Plazaan tanbolinagaz dantzan eguiten daveenac, bai Guizonac, ta bai emacumiac, amazortzi urteti berrogueta amarrecuac dira. Egon leitequez gaztiaguac, ta zaarraguac bere; baina guichi, Plazaco piestia darabilleenac, dira, esan da edadecuac. Mundu guztiac daqui, edade atan ce cereguin, ta lan andija dan, ixioquija subari urreratu bagaric bere, luxurijaren tentacinoiac goitutia. ¿Ete dira dantzaari oneec Sanson baino senduago? ¿David baino Santubago? Salomon baino jaquitunago? Areec ocasinoe chiquijaguan jausi ci- 48 or.
rian[148].

II. *Edana.* Piestara duazanac, piestia erdiz erdi daneco, trago bat edanda dagoz, bai guizonezcuac, ta bai emacumiac. Ez dinot, ordituta dagozala, ezbada[149] ardaua edaateco[150] eria guztiac, edo gueijeenac euqui daveela. Gueijenac, edo guztiac guichi, edo asco edan daveela. Ta areetati ascoc biar leuqueen baino, gueijago bere bai. Eurac esan oidaveen leguez: *ija pusca bat ardauac alegueretuta.* Mundu guztiac daqui bada; ardao pusca bat edanac, ta endemas cerbait gueijago edanac, errazoia illundu, gogua alegueretu, odola berotu, ta luxurijaren suba viztu eraguiten davena. Ta endamas guichitan edaaten davenari.

II. *Edana.* Piestara, duazanac, piestia erdiz erdi daneco[151], 49 or.

---

[146] *Dacusen: ikusi* aditzaren fomula trinkoa, indikatibozko 3gn. pertsonan. Beste formula bat *dacuszu* 5.

[147] *Ceuben:* zeuen. Orri honetan bertan *wau* erdikontsonantea lau kasutan: *Cristinaubac, moduban, ezauberaz, lecuba.*

[148] *Cirian: cirean* (ziren), *-ea* < *-ia* prozedura fonetikoaz, *dirian, diriala, ciriala* kasutan gisa.

[149] *Ezbada:* sintagma adbertsatiboa markatzen duen partikula berezia, bainan joskera erromaniko batera makurtuta. Hobe horren ordez sintagmaren amaieran *baizik/baino* ezartzea. («Ardaua edaateco eria guztiac, edo gueijeenac euqui daveela»).

[150] *Edaateco* bikoiztura bokalikoa hemen sustantiboan ere present: *edaari,* (agian, atzizkiaren muga markatzeko). Esana dugunez, J. A. *Mogel*-ek ere *lotsaAriak* (partes pudebundas). Ikus honetaz (fonetikaren aldetik): *Josebe Azpillaga,* «Peru Abarka» aztarketa fonolojikoa eta komentaketa labur bat», in *Euskera* (1982) 1, 193-206 or.

[151] *Daneco:* formula honek *«den garaico»* esaldia laburtzen du, barnean, erlatiboa duelarik. II (Edana) zatia erruz errepikatu egiten da originalean; guk errespetatu egin dugu oker hori.

trago bat edanda dagoz, bai guizonezcuac, ta bai emacumiac. Ez dinot, ordituta dagozala; ezbada ardaua edaateco eria guztiac, edo gueijeenac euqui daveela[152]. Gueijeenac, edo guztiac guichi, edo asco edan daveela. Ta areetati[153] ascoc biar leuqueen baino, gueijago bere bai. Eurac esan oidaveen leguez, *ija puscabat ardauac alegueretuta*. Mundu guztiac daqui bada, ardao pusca bat, edanac, ta endamas cerbait gueijago edanac, errazoia illundu, gogua alegueretu, odola berotu, ta luxurijaren suba viztu eraguiten davena. Ta endamas guichitan edaaten davenari.

III. *Jantzija.*[154] Plazaco piestara eruaten dan jantzija, da
*50 or.* ain bat ederreena, ta edertuen iminija. Ainbat onduen buruti, biatzera apainduta, moduztauta, garbituta, orraztuta; aldaquijanac larrosia, cabelinia[155], ispliguba[156], edo beste bedar usain gozoco bat buruban, papartian, edo escuban daveela, juaten dira plaza piestara, bai guizonac, ta bai mutillac, bai andraac, ta bai nescaac.

Dinot, *nescaac*, ezcondubagaco[157] emacumiac gaiti, nescatillaac ez esatiarren. Bada nescatilliaren izenac, guztiac ondo daquijeen leguez, beragaz dauca errespetua, modestija, onestidadia, ta lotsoorra izatia. Ta modu atan piestaric piestara, ta dantzaric dantza guizon escu artian liquinduta, dabilzan emacume ezcondu bagacuac, ez dauqueen legue, ez lotsaric, ez
*51 or.* modestijaric, ez onestidaderic, ezin emon leguijue eguiijazco errazoian *Nescatilliaren* izen ondrauba, ezbada nesquiaren izena. Ez jaco beliari usua esaten, ezbada belia[158].

Dinot bada, piestara duazan guztiac, diriala ainbat onduen

---

[152] *Daveela:* Pr. Bartolome-k aditz-amaiera aunitzeetan bikoiztura *(davee, leuguee, balebee)* 9. Hemen, ordea, bikoiztura delakoa *-ela* atzizkiaren pilaketa-islada ere da.

[153] *Ta areetati:* hemen ere, kurioski, puntuak eten egiten du sintagma nagusiaren segida «Guztiac guichi edan daveela *ta aretati* (eta hartatik)...». Pr. Bartolome-k kopulatiboari horrelako eginkizun etentzaile asko ematen dio.

[154] *Jantzija: -ia < -ija* prozedura hiatoduna indartzeko, *conciencija, luxurija, malecija, eguiija* hitzetan gisa. *-Ija* horren errealizazio fonetika š batena da Markinako subeuskalkian.

[155] *Cabelinia:* Krabelina.

[156] *Ispliguba:* espliego. Hitz honek ere gaztelaniaren eragina, batez, ere, herskari ozenaren presentziagatik. Izan ere, euskarazko formula zaharrak *izpiku* eta *izpiliku* dira. Latinez *spi(cu)lum* eta aragoieraz *espico*. Gure formula zaharrek (eta hemengoak ere) *s* urkariaren aurretiko protetika. Ikus hitz honetaz gure *Latina eta erromanikoaren eragina euskaran*, op.c. 159, 182, 188 or.

[157] *Ezcondubagaco:* soltero. Hitz honetan bagA konposagaia, ohizko apofoniaz azken bokalean. Fenomeno bera *lotsabagaco/lotsabako* hitzean.

[158] *Ezbada belia:* adbertsatibo honek kutsu erromanikoa joskeran, partikula *(sino, a no ser que)* muturrean ezarriz. Hobe honela: «Ez jaco beliari usua esaten, belia baizic/ baino».

apaindubac; guztiac bacochari, ta bacochac guztiai ondo beguiratu daguijuen, erechi daquijuen, ta amau daguijezan. Au autor ezdaven dantzaariric ezdago piestaan, eguija esan gura davenian. ¿Ta ezda gauza jaquina, plazaco apaindurijac, ta gorputza ondo prestaubac luxurijari sarri dei eguiten deutsana, ta su gueijago emoten deutsana?

Ezda orain ezer esaten araco, edo bularrac berarijaz jasota, edo armatuta, edo paparra aguirijan, edo besuac bilosic[159], edo[160] bilosic, baino ezasco obeto, daroiezan[161] nesca, edo andraac gaiti. Dirianac diriala, coru loijagocuac dira oneec. *52 or.*

IV. *Nasai-tasuna*[162]. Dantziari, ta piestiari jarraituten deutseenac, beste mandamentubac bere ardura guichigaz austen ditubeenac. Conciencija nasaicuac. Beguiratu errazoe onetan. Orraco plazaco piestetara utseguiten ezdaveenac, dinot, diriala pecatubaren bildur guichi dauqueenac. Bidao bat, edo juramentu bat alperric eguitia; meza bat ondo entzuten ez jaquitia; erdi entzunian, edo ondo entzun bagaric gueratutia; Jaijegun Santubetan jocuan, tavernaan, dantzan, edo errietaan[163] egunic gueijena, ta gau zati bat iragotia; umiai aziera galduba emotia; gurasuac gaiti gura daveena umiac eguitia; justicijari, ta Cura[164] jaunai lotsaric ez artutia; inori ezer ezparcatutia; *53 or.* edocein gaiti deungaro esatia; urtian bien, edo birritan, ta orduban celan bait, baño ez compeseetia; sarrijago compeseetan[165] dirianai, Eleisaco cer eguin Santubetara juaten dirianai, barre, ta burla eguitia; Jaungoicuaren verbia, edo sermoeetan esaten dana, chanzatzat, ta barregueitzat[166] artutia; verbeetan, ta eguitadeetan, elduten dirian lecu guztian, verdetasuna;

---

[159] *Bilosic:* bilutsik, ekialdeko *u* bokalea *o* bilakatu da, agian, bokalismo erromanikoaren eragitez. Hitz honen jatorrian (eta lehen partean) *bilo* (velo) erromanikoa, seguraski.

[160] *Edo... edo... edo...:* disiunzio gisa ipinitako sustantiboak. Azkeneko «edo bilosic» horretan *izen* bat falta dela dirudi, ez baita esanahi taxuzkorik ematen.

[161] *Daroiezan:* eramaten dituan, *eroan* aditzetik. Aditz trinko hau oraindik aski bizi azaltzen da gure idazkiaren orrietan.

[162] *Nasai-tasuna:* beste kasuetan bezala (*ibili-eran* 191) atzizkia errotik nabarmenarazteko marra; bestetan, *urten eria* (salida) hitzean gisa, marra kentzera joko du.

[163] *Errietaan:* inexiboan bokalearen bikoizturak isladatzen duenez; jatorriz gaztelaniazko *reyerta*-tik.

[164] *Cura:* baita *abade* eta *sacerdote* hitzak ikusirik dugunez. *Cura jaunai* pluralean dago, singularrerako *-ari* baitarabil, gehienetan, eta pluralerako *-ai* (*-ei* formula urri batzuk kenduta). Orri honetan bertan «compesetan *dirianai*».

[165] *Compenseetan:* bizkaierak, ohizkoa duenez, ekialde eta erdialdeko -TZEN/TEN formula -ETAN gerundiboaz ordezkatzen du *(pentseetan, olgueetan, proveetan)*. Berez, gerundibo hori -ETA inexiboa baino ez da.

[166] *Barregeitzat: barregarritzat* adierazi nahi du, bainan -garri atzizkia ordez *-gai* (*-gei*) paratzizkia erabiliz.

ta indecencija eracustia... Naisaitasun au guztiau, dinot, edo, obeto esateco, pecatutequi au guztiau ez escrupulutzat, ez compesaquizuntzat[167] bere artuten ez ditubeenac, dira, plazaan piestia eguiten daveenac.

V. *Estaduba*. Juaten dirianetati, gueijeenac dira libriac.
54 or. Ezin ucatu legui, arriscu gueijago dauqueena edade ataco persona libriac, bai guizonezcuac, ta bai emacumiac, arimaco, ta gorputzaco onestidadia galduteco. Eguija da, guizon ezcondu batzuc bere bagoz, zaartuta, buruba urdinduta euqui arren, gaztiac baisen berdiac. Areec bere inundi albadaguijee, piestaan izango dira. Ta parian iragoten dan nesca bati, gueijago ezin badavee, maquiliaren puntiagaz bada bere, zabalduco deutsee luxurijaren atsa, sarritan icusten dan leguez. Emacume ezcondubac bere bagoz, inoren upaco ardaua edaaten daveenac, ascoren carinuari vijotzian lecu emoten deutseenac, ta zaartzan, besteric ezinda, ezcontza guintziari emoten deutsee-
55 or. nac. Areec bere, oina jaso albadaguijee, an izango dira piestaan vegui zolijaquin[168]. Verbeeta onetan ecer gueituta ezdaguana, piesta zale guztiac daquijee. Ta eguija esateco lecuban, au, ta gueijago eurac autor davee.

Emeti ateraten da contuba, ume condo[169] batzuc apartau ezquero, beste plazara piestia eguitera batuten dan gentia, dala, luxurijazco gauza loijai[170] inos gogua illundu ezdeutseenac. Castidadia galduteco tentacinoe bat Jaungoicua gaiti bacarric goitutia, cerdan, ondo ezdaquijeenac. Desonestidadeco escolaan atzijac, ta ibilijac; edo ataraco presteetan dirianac, bai ezcondubac, ta bai alargunac, bai mutillac, ta bai nescaac, ta bai beste estaducoric badago bere.

Eguijazco examina onetati ezautuntenda arguiro: Piestara duazanac, diriala, luxrijaren suric[171] gueijeen dauqueenac
56 or. edadiaren parteti. Luxurijazco gauceetara gogoa gueijeen con-

---

[167] *Compesaquizuntzat: -kizun* atzizkiak hemen berezkoa duen erabilpen semantikoa *eginbeharraren* geroztiko funtzioa adieraziz. Hegoaldean formula honek, agian, iparraldean baino usadio urriagoa du. Ala ere, hemen, Pr. Bartolome-ek ez digu gorde, *sisnisTUquizun, icasIquizun, penaUquizun* kasuetan bezala, arbuiatzekoa den *partizipioa*.

[168] *Zolijaquin:* atento, perspicaz. Ikus Dicc. II, 458. «Peru Abarka»-n ere: «Ta begi zoliak dituanentzat ez ta orren gauza gatxa» (49-4).

[169] *Ume condo:* jovenzuelo. Hitz hau noski *exozentrikoa* da, literalki «cabo de niño» edo «resto de niño» antzeko zerbait esan nahi duelarik. Normalean, bi elemenduak lotuta idazten dira. Ikus: *Luis M. Mujika* «Exozentrikoen eragina euskal lexikoan», in *Hitz konposatu eta eratorrien morfo-fonetika* liburuan, 219-245 or.

[170] *Loijai: -ija* hiatozko prozeduraz. Ikus ere: *ibilijac* 55, *luxurija* 67, *arpeguijequin* 67.

[171] *Suric:* hemen ez ohizko *wau* erdikontsonanterik; horren arrazoina *-ua* talderik ez dagoela, bestela suBarik bailitzateke. Beraz, *suba* 47.

videetan daveenac apaindurijaren parteti: Castidadia galdubac penaric guichien emoten deutseenac, conciencija nasaijaren parteti: Ta condecinoa verdecuac estadubaren parteti.

Begoz bada orain puscabaten plazaan tambolinagaz, esandan moduco eun, berreun, leudeun[172], edo gueijago guizon, ta emacume, sartueraan trago bat artuten, edo alcarri carinozco ezauberia[173] emoten beste plazaco dantziari, ta piestiari bere leguez, darraicozan gauza batzuc gogoratuten ditugun artian.

Piesta zaleentzat ezdago piesta eguna[174], baino priesacuagoric. Orduban dira, goix[175] parteti eche viarrac gaztiac eguitia. Egun ataco[176], ta ascotan vijamoneco[177] ganadu jaatecua *57 or.* echera batutia. Painueluac javoneetia, almidootutia; oineraco, ta gorputceraco jantijari puntubac artutia, caeleetia[178]... Guztia da priesia piesta eguna, arrasteguijan piestara juatia gaiti. Ta gueijenian (ta endamas baseerijetan) aguinduten deutsee gurasuac, eta ugazabac gaztiai piestara, jai osua izan arren, onaco, ta alaco cer eguinac eguinda, andi aurrera, gura badavee. Piesta zaliac egun atan, mezatan Eleisaan egon arren, mezaric entzun ezdaveela, sinistu guinai[179], juzgu gaistoric[180] eguin bagaric, gogua beste ardureetan euqui daveelaco. Itandu bequijue ondo, ta eurac esango davee.

Asco juaten dira piestara, gurasuac nai ez daveela. Beste asco, Aita, edo Ama eurai bidaoca dagozala. Beste asco, eche- *58 or.* cuac (endamas[181] Aitac) ezdaquijeela, ixilic eguindaco jantija-

---

[172] *Laudeun:* laureun. R/L -ren disimilazioa aski arrunta eta ohizkoa da gurean, amorio/*amoDIo*, aire/*aiDe* kasutan bezala.

[173] *Ezauberia:* conocimiento. Kurioski, kasu honetan -ERIA formula mugatua, honek, gainera, *wau* erdikontsonantea *-aue* taldean (ezauera).

[174] *Eguna, baino:* ez dauka zentzurik koma horren etendurak toki horretan. Honela behar luke: «Ez dago piesta eguna baino priesacuagoric».

[175] *Goix:* goiz. Hemen bustidura, bainan diptongoa erori gabe, *nos, nas, nasalaco* kasutan bezala.

[176] *Ataco:* haretako. Erakusleetan ematen den dardarkariaren ohizko erorketa; berdin *cetan* 134, *ataco* 154, *noc* 65, *atan* 12, *cegaiti* 106 kasutan.

[177] *Vijamoneco:* bihamoneko. Hemen *-ia*< *-ija* prozedura fonetikoa *yod* erdikontsonanteaz.

[178] *Caeleetia:* dagoen bezala ez dauka zentzu egokirik; inprenta-hutsa dirudi; seguruenik, *celeetia* soila da, hots, *zelatzea* (*zelatan* egotea).

[179] *Sinistu guinai:* taxuzko morfologian *sinisleei* izan behar luke, ezen-eta deribazioan *partizipioa* (-tu) itzali egin behar baita; beraz, *maitakizun*, ez maitaTuquizun, *ikaskizun*, ez icasIquizun Pr. Bartolome-k erabiltzen duenez. Gainera, -GIN/KIN atzizkia erroan sustantibo diren kasuetan erabili behar da, eta ez *aditz* direnetan. Morfologikoki «sinistu guinai» hitzean bi huts daude, bat, -Tu partizipioa deribazioan eustea, eta bestea -GIN atzizkia aditz batez erabiltzea. Bestalde, atzizkia errotik bakanduta. Atzizki bera kasuotan: *legueguinac* 152, *gaisquinac* 199.

[180] *Gaistoric:* gaiZtorik ohizko s/z aldaketaz.

[181] *Endamas:* beste kasu batzutan *endemas;* gaztelania zaharreko malebu nabaria (endemas), gaur, *además* bilakatu dena.

gaz[182]. Nundi, eta celan oidirian piestaraco jantzijac, eta galaac emacume ascoren soinian, sobre[183] daqui mundubac. Bada gauza jaquina da, guraso, ta ume ascoren arteco baque chaarrac, asarriac, bidauac, ta, eurac esan oidaveen legueez, impernucuen vitzitzia echian diriala piesta madaricatubac gaiti. Gurasuac umiai naidaveen[184] piesteetan, ta naidaveen lagunaquin, gau, ta egun ibilten isteen ezdeutseelaco. Ta gura leuqueen soina, eguiten ezdeutseelaco. Ezdira gauza onec aaztubiar, piestaco dantceen gainian verbe eguiteco.

59 or. Beste asco juatendira gurasuen vorondatiagaz, ta echian eguindaco jantzijagaz. Baina alaco gurasuac, eurac bere piestaric piestara ibili zirianac, edo oraindino dabiltzanac. Desonestidadeco escolaan atzijac, ondo eldu bagacuac, zaartuta bere berdiac. Ta gurasuac celacuac, umiac alacuac. Aita verdiaren semia verdia. Ama loijaren alavia loija. Alaco guraso galdubac, aguineetati ura darjola, itanduco deutsa arratsian alaviari ¿ya dantzara ceinec eruan daven? Loba barriric echera ezbadacarree, beste desonestidade guztia umiac erabili arren adisquide chaarrequin, ez jaco alaco gurasuari coloreric mudauco. Umiac pecatu mortalian egon arren, ez deutsee ardura, plaziagazcua, ta mundubagazcua eguin ezquero. Dinodan
60 or. guztia, eguiija dana, ezaututeco, inoc dudaric badauca, contu imini begui, ta icusico dau: Seme alabai, ta oseguinai[185] piestetara, ta naasteco dantzeetara juateco libertadia ardura bagaric emoten deutseen gurasuac, ta ugazabaac, edocein lagun artetan esatenditubeela verba desonestubac, ta lotsarizco[186] errazoiac; ta eguiten ditubeela, arei darraicuezan azalquerija verdiac. Ezda beste testigantzaric[187] biar, areec cer izan dirian, ezaututeco.

---

[182] *Jantijagaz:* gentearekin. Kasu honetan lehen silaban bokale aldaketa (*jantia*/jentia ordez).

[183] *Sobre:* sobera. Gaztelaniako mailebu ezaguna, ohizko bokalerik (sobEra)gabe.

[184] *Naidaveen:* nahi duten. *Nai, ez, oi* eta beste kasu aunitzetan aditz laguntzaileari lotuta: *ezdau* 22, *ezinbeguiz* 30, *oidaveen* 58, *esandan* 56. Aditzak aldaketarik izan ez badu, hots, atzizki berezirik hartu ez badu, errazago joko du laguntzailearekin lotzera. Kasu baterako *esandau*, baino *esaten dau* bakanduta.

[185] *Oseguinai:* otseinei.

[186] *Lotsarizco:* lotsagarrizco. Hitz honetan komentaturiko -ARI atzizki objetibalaren presentzia. Beraz, *LotsaARI* (J.A. Mogel) < *lotsarizco*.

[187] *Testigantzaric:* testigutzarik. Mailebu erromanikoa aintzinako testigANZA-tik. Beraz, -ANZA/ANTZA atzizkia oso bizirik erromantzeetan latineko -ENTIA-tik, asibilapen prozeduraz. Ikus atzizki honetaz gure *Latina eta erromanikoaren eragina euskaran* p.c. 291-292 or. Bai gaztelanian eta bai gaskoineran joera handia atzizki honetara *(mudanza, tardanza, largance, probance)*. Gurean, bide berdinetik, *ustANZA, bakANTZA, amistANZA, olgANTZA*.

Aparteco arduria euqui dot beti, piesta, ta dantza zaliai dotrinia itanduteco. Ta ez davee sinistuco, provau ez daveenac, ce palta andija dauqueen. Ezdaquijee gueijeenac, salvetaco biar daveena. (Dei eguiten jaco emen Cura Jauneen, ta Conpesore Jaunen Zelo Santubari). Au gati bigarren, irugarren, lau- *61 or.*
garren, bostgarren, seigarren, ta zotzigarren Jaungoicuaren Aguindubetan pecatu mortaltzat, edo illgarritzat Eleisaco jaquitunac eracusten ditubeen, ta eurai jagocuezan gauza asco, chochaquerijac, ta simplezaac[188] diriala, uste davee piesta zale ascoc. Ezdauqueez compesaquizuntzat[189] bere. ¡Oh, ez jaquinaren sail madaricatubac! Plazaco piestiari Erri-oneetan berez leguez darraicozan[190] gauza oneen ondoric, icusi daigun, celan eguiten dan plazaan piestia.

S. II.

## Plazaco piestia celan eguiten dan

Avemarijeetan tambilina ixilduta, gueratuteco piestia da, eman examineetan dana. ¡Oh! Au piesta santuba da: esango *62 or.*
davee dantza zalliac. Ta pensau legui cerbait, gueijago ez daquijanac[191]. Baina Vizcaico, ta Provinciaco[192] piesteetan aut, ta utsa bat dira. Bideetaco echiac, celaijac, ta sasi onduac ateraten davee placiaren paltia. Ta nesca baten trompiac, edo soinubac tambolinarena. Ezpabere, esan daguijeela: ¿Tambolina avemarijeetan isildu arren, ceinbat juaten dirian echera, gavac demporaac emon bagaric? Gueijeenaz bere, inoc casuric eguin ez deutsan nesca epel bat, edo mutil macal bat. Beste guichi: ¿Ta nos palta dira piesta egunian plazaan, gavac ordubac emonda bere, gizonac, eta emacumiac? ¿Nun dauqueez echiac,

---

[188] *Simplezaac:* ohizko bikoiztura bokalikoa *mugatzailea* nabarmenarazteco; baieta MP taldea. Bide berdinetik *deMPora* 48, *ceiMBat* 146, *coMPesetaco* 124 or.

[189] *Compesaquizuntzat:* guretzat oso interesgarria -KIZUN atzizkiak hemen duen semantika berezia, hots, *gerokoaren* edo futuroaren nabardura. Gaur balio semantiko hau hegoaldean aski ahuldua azaltzen da.

[190] *Tambilina:* inprenta-hutsa, noski; autoreak 208 orrian *huts* gisa dakar. *Tambolina* behar luke, haserako ozendurarik gabe.

[191] *Daquijanac: dakianak*, singularrezko erlatiboaz. Fonetikoki Markinako subeuskalkiaren prozedura hiatizantea. Bide berdinetik, etengabeki, *daguijeela* 62, *bequijue* 57, *ezbajuaco* 11.

[192] *Provinciaco:* Provincia hitzak *-provincianoac* gisa-Gipuzkoa esan nahi du, hainbat autoreen idatzietan nabaria denez. Nafarroan, Sakana-ko euskaldunentzat ere, *Provinciano* hitzak *gipuzkoarra* adierazten du.

*63 or.* ta noraguino juan biar davee, avemarijetan tambolina ixildu arren? ¡Ah! Au edoceinec daqui. Estalgui chaarra da, piestia ontzat emoteco, avemarijeetan tambolina ixilduten dala, esatia, Vizcaijan, ta Provincian. Justicijac bere[193] au erremedijau ezin legui. Echeetan bai asarre andijac, ta pecatu mortalera elduten dirian ocasinoiac, ta escandalubac, ascotan, auzuac igarten deutseen tercijuan, gurasuen, ta umeen artian, piestati berandu echera juan dirialaco.

Gomuta onegaz guazan plazaco piestiari beguiratutera. Ez gente pilluari mordo baten. Ezbada[194] gauza oneraco, edo chaarreraco jazoten dan moduban. Teologija Sagradubac guizonaren vorondatezco eguitade[195] bacochari beguiratuten deutsan moduban. Beguiratu daijegun bacochari banaan, edo
*64 or.* binaan, edo irunaan, dagozan moduban, ta daviltzan moduban. ¿Ya cer eguiten daveen? ¿ya cer esaten daveen? ¿ta cer icutsico[196] dogu plazaco gente pilluaren artian? Dinot arima arimati; lotsa nasala[197] escribiduten. Baina aguirico pecatubac dira, ta esan biar dira. An icusten da, edade arriscucuac, ardauac, apaindurijac[198], conciencija nasijac, ta oitura desonestubac daucan luxurija osua. Icusten da: dantzia ez davilen demporaan, nesca bat, bi, edo iru mutil bategaz, bigaz, edo irugaz alcarri escubac solbardaan, edo... iminita, verbeetan, ta maitequerijeetan dagozala. ¿Baina cer verba? Arimiari ondo gura deutsanac, alboti bere entzun biar ezditubanac, ¿Ta ce
*65 or.* maitequerija? Escubaquin, veguijaquin[199], ta arpeguico geriagaz guztia luxurijaren suba darijona. Icusten an: dantzia asi dedinian, nescaac armatuta dagozala, avijan goseric daguan chorija amaren janarijaren zain leguez, nos noc dantzara eruango ete dituban, goguan dauqueen leunquerija, ondo eracusten daveela. Erri batzubetan nescaac asten davee, ta cumpliduten davee mutilez, edo guizonez dantzia. Itchusijago, ta

---

[193] *Justicijacbere:* lotura hau ez da ohizkoa, eta o itxuraz, ez da inprenta-hutsa baino.

[194] *Ezbada:* bestetan ere perpausa adbertsatibo honek keru erromanikoa du joskeran, eta hobe «Gauza oneraco, edo chaarreraco jazoten dan moduban *baino*» esatea.

[195] *Eguitade:* hitz hau tradizioz poslarramendiarra, eta verDAD, realIDAD hitzen atzizkia *(-dad, -(T)ade)* isladatzen du.

[196] *Icutsico:* beste batean ere frikazio bera. Izan ere, -RA faktitiboaz -TS ematen du *ikusi* aditzak, alegia, *eRAkuTSi;* berdin *ikasi iRAkaTSi* kasuan. Baliteke, bada, kasu hauetan primitiboa *ikuTSI/ikaTSI* izatea, gutienez, euskararen area batzutan.

[197] *Nasala: naizala,* ohizko prozedura monoptongatzailez.

[198] *Apaindurijac:* hemen ere, *jaquindurija* kasuan bezala, -TURIA/DURIA atzizki erromanikoa.

[199] *Veguijaquin:* -KIN soziatiboa esanahi intrumentalez erabiltzeak, nolabait, gipuzkeraren eragina isladatzen du, bereziki, Bizkaiko ekialdean.

lotsa galducuago baino ezda. Icusten da: dantzaraco esque juacozan andriari, edo nesquiari, eguiten deutsazala milla acinoe, ta menio indecente, daroianac, bai escuti oratuten deutsanian, ta bai dantzarijari entregueetan deutsanian, nesquiaren, edo andriaren aurrian saltoca, chico ezi bagaco, edo baso asto batzuc dirurijeela. Ta ceimbat indedencija gueijago eguiten *66 or.* deutseen, ain bat dago nesquia[200] pozagoric labanquerijaren, ta liquinquerijaren[201] vitsa darijola.

Modu onetan plazaan dantzia cumplidutenda. Dantzia cnmplduta[202] laster, tambolinac esatendau: *Nai davenac nai davena eguin daguijala,* naastia, arin aringuia[203], arrebatua, ta pandangua joten ditubanian. Ya dagoz dantza atan guizonezcoric, edo emacume, edo mutilic, edo nesca. Guztiac, esan dan leguez, onestidadia galduteco ondo prestauta, escuz escu alcarri oratuta[204], naaste mutil biren erdijan nesca bat dala, noren seme, edo alaba dirian, asco gomuta ezdaveela.

Tambolinac dino: gura davenac, gura davena eguiteco, orduba dala. Ta egiija esateco, eguzquijari beguira bertan pecatu *67 or.* eguingo ezbadavee, beste desonestidade guztia lotsa bagaric airian darabilee dantza atan. Naaste atan entzuten dan, ta icusten dan guztia, da luxurijaren suba, ta queia[205]. Batian dantza lucian arin aringa[206] gorputzaquin alcar joten. Bestian pandanguan nos arpeguijaquin, nos besuaquin, nos sabeleequin, nos albuaquin alcar ez joco, bai joco nesca, ta mutil, menio desonestubac, ta lotsarizcuac gueratu bagaric eguiten deutseezala alcarri. Ta bestian cazubelaan, erlia leguez, mordo

---

[200] *Nesquia:* hitz honen prozedura bokalikoa: *nesca nescaa NESQUEA NESQUIA* (-a<aa<ea<ia). Bainan sekulan ez kasu hauetan *-ija,* terminoan berezko *-i* -rik ez baldin badago. Prozedura hori, noski, mugatzaileari zor zaio.

[201] *Liquinquerijaren:* obscenidad. Erroan *likin/likitsa.*

[202] *Cnmplduta;* cumpliduta.

[203] *Aringuia: arin* errotik gaurko *arin-arina* adierazten da, lexemari -KI atzizki objetibala itsasten zaiolarik. Kurioski, hemen -KI delako ozenduta (-GUI) aurretiko sonanteagatik. Berdin gertatu da hurbilago zaigun oNGI kasuan (onKI ordez). Alabainan, gehienetan gorra eusten da, finKI, galanKI, zuzenKI eratorrietan bezala.

[204] *Oratuta:* honen esanahi zehatza garbi *Azkue*-ren hiztegian: *agarrar* B.G. *J.A. Mogel*-ek berak «oratu eguidazu neri beste esku orregaz» (Peru Abarka, 118-23 edizio zaharrean). Baita *oratute* (tocamiento) Bizkaian. Ikus Dicc. II, 122 or.

[205] *Queia:* kea. Hemen *-i* -aren agerpena bikoiztura bokalikoaren emaitza da, *-ea<ia* prozeduraz, bainan ez *queja,* berba honetan *i* bokalea sekundarioa delako fonologikoki.

[206] *Arin aringa:* hemen ere, aurreko arinGUIA hitzean bezala, herskariaren ozendura ezohizkoa -KA atzizkiaren kasuan. Bestetan, ordea, *-ka* da normalena: *ixilKA, muzinKA.*

baten guizon, ta andra naaste. Ni esaten azartuten ez[207] nasan ezaintasunac, alcarri eguiten deutseezala. Nescaac eurac bere, alacuac izan arren, ascotan coloriac gorrituta urteten daveela,
68 or. andiscotiac dirialaco mordo ataco pecatubac gente arteraco. Dantza atan esaten dirian, ta entzuten dirian verba banacaac desonestubac[208]. Beguiracuniac, eta alcarren geraac desonestubac. Mosu eguiteco, ta oratuteco meniuac, ta oratutiac desonestubac. Gorputzaquin alcar jotiac desonestubac. Oinaquin magal jotiac desonestubac. Escu estututiac desonestubac... Ta au guztiau dantza bacochian gueratu bagaric nescaac mutilai, ta mutilac nescai.

Ceimbat[209] gavaren urrago, aimbat ezainago, nasaijago, ta zatarrago dantza bacocha. Dantzati urteten davee sarritan nescaac, eureen iruneco zapijac ascatuta, ta burucuac oquertuta, icusi bagaric sinistu ezin leguijan monduban. Ascotan dan-
69 or. tza arinian, oin bijac laban eguinda, plaziaren erdijan jausita, gueratuten dira andrazcuac, inoc beguiratu biar ezdeutseen moduban, escuti dautsanac, colpez jaso artian; ta gente guztia arixe beguira chaloca. Dantzaan sartuten ezdirianac, edo dira, lutubac dauqueezanac; ta areec bere gogoz an dagoz. Edo dira, zaar ibilli ezin dirianac. Oneen condecinoia esanda gueratuda. Aguraac[210] badira, ordituta asco. Atsuac badira, ta endamas seme alabaac an dauqueezanac, azerija ollua jaaten baino, pozagoric dagoz plaza baztar bateti, edo bentana zulo bateti dantziari beguira arrastegui[211] guztian cansau bagaric. Edo dira, seina eguiteco andi dagozanac. Oneec bere voronda-

[207] *Azartuten:* ausartzen. Jatorrizko *-au* diptongoa monoptongatu egin da kasu honetan. Latineko *ausus*-etik erromantzera *ausar, ausart* emaitza, batez ere, okzitaniearen eremuan. Gaztelanian, ordea, monoptongapena: *osar*. Gurean, berriz, jatorrizko diptongoaren lehen bokalea (aldaketarik gabe) eutsi da; *a(u)zartu*, beraz, eta ez *osartu*.

[208] *Banacaac desonestubac:* Orri honetan, elemenduen pluraletasuna adierazteko, ohizkoa ez den pluraleen errepikatzea sustantiboaren amaieran (pluralearen marka *izen/izenlagun* edo *adjetiboetan*, noski, azkenekoak bakarrik eraman behar duenean). Hemengo emaitzok bitxiegiak (eta arbuiagarriak) gertatzen dira gure izen-sintagmen morfologian: «Verba *banacaac* desonesubac», «alcarren gerraac desonestubac», «ta oratutiac desonestubac». Hauetan sustantiboen *-ac* pluraleak sobran daude; onartezinak dira egoera normal batean. Dena dela, sermoi-hizkeran, ausaz, zilegiak.

[209] *Ceimbat... aimbat:* konparatibo garbiak.

[210] *Aguraac: agure* hitza apofoniaz, eta pluralearen marka garbia *-ac* horretan.

[211] *Arrastegui:* kurioski -TEGI atzizki tokizkoak denborazko nabardura. Gure ustez, kasu honetan lerradura analogiakoa eman da semantikaren eremuan «tokitik» aldira. 57 orrian ere «arrasteguijan piestara juatia gaiti». J.A. *Mogel-ek* ere badakar («Euki eragingo, deutsut arrastegui edo eguarte ez txarragoa») (Peru Abarka, 137-7, edizio zaharrean). Gure iritzian, hemen *-iri* atzizkiaren (arrastIRI = atardecer) eragin fonetikoa dago, bestalde, Azkue-k ere (Dicc. I, 75) azaltzen duenez. Beraz, *-iri -eri* -ra igaro zitekeen, azkenean *-tegui* analogiaz emanez.

tez dantzaan dagoz. Baita bazuc gorputzez bere ocotzeraguinoco[212] sabelagaz Justicijaren lotsa arin onian, ta naturaleciaren desondraan. Edo dira, dantzara inoc eruan ezditubanac. Oneec embidijaz, ta zeloz murmuretan, ta ernegueetan dagoz, inoc aintzat artu ezditubalaco. Ezdavee bein bacarric topau nescaac dirubagaz, dantzara noc eruan. Edo dira, adisquide maite bategaz bacarrian astirochubago egon gura daveenac, bestiac dantzan daviltzan artian. Oneec bere ija ezautubac dira, cer dirian. Beste guztiac dantzan daviltz. *70 or.*

Dantziaren despeidaan, edo amaijan ascotan, edo gueijeenian, mutila dua, dantzan erabili daven nesquiagaz, ta dagoz alcarregaz beste dantzara artian, endamas bere devocinoecua bada, prutia, edo erroscaac artuta. Areec dantzan berotuta, carinua alcarri eracutsita, dantzara eruan daveelaco, nesquiac mutilari esquer ona carinoz emonda, bacarrian cer esango daveen, ta cer iragoco daveen, pensau begui, alaco ordubeen barri obeto daquijanac. Avemarijeetan gueratu dedilla[213] tambolina. Ez, gueratu oidalaco piesta egunic erdijeetan, ta guichijagotan bere. Baina izan dedilla alan. Bada despeidaco gentiaren urteneria da guztien aazcarrija. Guztiac dacuseela, ta dantzubeela, eguiten dira urtenera[214] ziquin atan nesqueen, ta mutileen artian, noc nori asco ez daquijala naastian, tocamentu loijac, oratute loijac, mosuca loijac, escuca loijac, pecaturaco convit[215] erabaguijac, ta beste luxurijaren asmuac topau dituban, ta esan leguizan verdequerija altubac, clarubac, ta zatarraz. Nesca batac egiten dau garraasi bat. Bestiac silijo[216] bat. Bestia asarratuta, asten da lotsagalduco diadarca. Bestiac bardin eguiten deutsa bidao bat, oratu deutsan mutilari, edo guizonari, orducua ija guztizcuz dalaco. Alan duaz plazati echeruz[217] aldi baten naastian, ta morduan ajuica, diadar- *71 or.* *72 or.*

---

[212] *Ocotzeraguinoco:* Bizkaierak ohizko duen *-INO* eta *-KO* deklinatiboen pilaketa.

[213] *Gueratu dedilla:* gipuzkerak bezala, bizkaierak galdua du, nolabait, hasera bateko aginkera eta subjuntiboerako kasutan partizipioa itzaltzeko joera jatorra. Hemen *gueraTU guera* soilaren ordez. Bide berdinetik *iracurri bediz* 76, *galDU ez zaguizan* 77.

[214] *Urtenera:* irteera. Gipuzkoako kasuan ez bezela, sudurkaria tinko, eta, bestalde, kasu honetan -ERA formula, bi lerro gorago -ERIA (urtenERI) erabili duen bitartean.

[215] *Convit:* gonbidaketa, gomitatzea. NV taldea ez da anulatzen ohizkoa denez (coNVento *komentu,* coNVidar *gomitatu,* coNVersacion *goMestazio,* coNVenir *koMeni);* eta, bestetik, iparreko itxura duen -T amaiera *(conviT).*

[216] *Silijo:* oihu-mota bat. *Azkue-k* (Dicc. II, 321) AN, B, G euskalkietako hitza gisa dakar. «Peru Abarka»-n present *txilioka* («Asiko da agiraka, txilioka», 60-22 or. edizio zaharrean). Gure ustez hitz honetan elemendu adierazleaz aparte gaztelaniaco *chillido* hitzak badu zerikusia.

[217] *Echeruz:* noranzko alatiboa sudurkariaren erorketaz, *echeruNtz* ordez.

ca, barreca, ta oratuca, luxurijaren pestia, ta atsa darijuela, bacocha bere laguna gana, ta bidera batu artian. Echia urrinago dauqueenac, urteten davee, oidanez, leenago plazati. Urraago[218] dauqueenac, berandubago. Baina gavac ordubac emonda bere, ez dira palta, ez plazaan, ta ez bideetan nescaac, eta mutilac. Piestati echeruz nequez dua inor bacarric, ordirenbat ezbada.
73 or. Gueijenian nesca bat, ta mutil bat alcarri escuti, edo samati oratuta. Edo nescabat[219] mutil biren erdijan; edo mutil bat nesca biren erdijan, alcarri dautseela, esandan moduban. Ta gueijeenac, aurrecuac ondorenguai, ta ondoric duazanac, aurrerago duazanai, burla desonestubac alcarri eguiten. Nesca bat, mutil bat albuan ezdavela, piestati echera nequez. Areec bidian illunian (bada[220] avemarijeetan tambolina ixildun zanian, plazati urten eveen leenenaz) edo legua bat bidian, edo legua erdijan, edo gueijaguan echeetara artian cer eguin aldaguijeen, amar urteco umiac bere baquijee.

Cale barruco dantzarijac ez dira segurubago gueratuten eureen tambolin egunetan, bestiac baino. Ta onen errazoia
74 or. emongo da zortzigarren errespuestaan[221], emen esaten danaz gainera, itsuba, ta gorra ez daguanac, aituteco[222], ta ezauteco tercijuan.

Ara emen, celan eguiten dirian placeetaco piestaac. Ecer bere ezdot esan, gueituta. Bai asco guichituta, zatarquerija desonestu guztiac paperian ez imintiarren. Gueure errijeetaco piesta bat, edo bi asi, ta amaitu contuz icusi ditubanac, ta euscal errijeetaco gentiaren, ta echeen barri daquijanac, ez deuts ucatuco, esan dodan verba bat. Piestetan sarri gogoz ibili dana, bada, esango dau: dauqueen baino, echura obia emon deutseedala. Ta ez dira emen contuban sartuten, dantzia emon jacuelaco, edo emon ez jacuelaco, Copradijeetaco, ta albo-erri-

---

[218] *Urraago:* bikoiztura bokalikoak adierazten du, alde batetik, hitzaren apofonia (urrE/*urrA*), eta, bestetik, konparatiboaren muga zertua *(-ago)*.

[219] *Nescabat:* hemen zenbakia itsasita, eta hurrengo lerroan, berriz, bakanduta («edo mutil bat nesca biren erdian»).

[220] *Bada*... perpausa hau «umiac bere baquijee» nagusiaren explikatiboa baino ez da.

[221] *Errespuestaan:* inexiboan *-ea* bikoizturak isladatzen duenez, eta, bestalde, gaztelaniako *-ue* diptongoa, bizkaierak bokalismoan, batzutan, jasan duen erdal urraduraren adierazgarri gisa. Hitz honetan emaitza jatorra gurean *arrApostu* S. iparrekoa da, diptongapen makurrik gabe.

[222] *Aituteco:* konprenitzeko. Bizkaierak *aditu* hitzari jatorrizko esanahi latinoari semantika berria erasten dio; gipuzkeraz, ordea, *aitu/aditu* hitzak *entzun* ere adierazten du, iturritik hurbilago, hots, latineko *auditus* (oído)-etik hurreago.

jeetaco[223] gentiac atera oidituban ocasinoia, gorrotuac, vengantzaac, burrucac, maquilacaac[224], ta guizon illtiac bere bai, izan arren casic piesta guztietan guichiago, edo gueijago. Ichi daguijeegun bada tertcijo onetan Plazaco Dantzai. Ta icusi daigun, Espiritu Santubac, ta Eleisiaren Gurasuac cer dinuen naasteco dantzaac gaiti[225]. *75 or.*

S. III.

## Escritura Sagradubac, eta Eleisiaren Gurasuac naasteco dantzaac gaiti dinuena

Lecu ascotan esaten deuscu Escritura Sagradubac, ce condicinoetacuac dirian naasteco dantzaac. Ez da nire gogua, guztiac ez, ece guichiago bere emen imintia. Testamentu zaarreco, *76 or.* ta barrico liburu guztietan dagoz sentencija, edo esan era batzuc, pedia daucan cristinaubari, icara eraguin leguijueenac. Iracurri bediz Job, Isaias, Daniel, Salomon, Evangelijua, ta San Paulo, ta eurac quenduco deutsee, salvau gura davenari, ocasinoe galdu areetan ta arei darraicuezan pecatu impameetan sartuteco gogua. Esan bat, edo bi gogoratuco ditut, gueure placeetaco dantceen sarija ondo autor daveenac. Dino Espiritu Santubac lecu baten (1): *Ganadu aldriac leguez, urteten davee pecatarijeen umiac soinubagaz; dantzan, ta saltoca daviltz soinubaren otsian; eureen egunac iragoten ditubee aleguere, ta* *77 or.* *pozic, ta istante baten jausten dira impernura. Et in puncto ad inferna descendunt.* Beste lecu baten dino (2): *Emacume dantzaarijaganic apartau zaite, bere artiagaz, ta encantubagaz galdu ez zaguizan. Ne forte pereas in efficacia illius.* Beste batzuc

---

[223] *Albo-errijeetaco: albo* hitzak hemen aurretik ezarrita paratzizki baten eginkizuna du. *Albo* hitza, beraz, elemendu egokia deritzaigu *ad* (adlátere) aurrizkiaren ordaintzat gurean proposatzeko *adjunto*-aren semantikaz. Euskaraz konposagai beraz: *albadar* B, *albagela* (aposento contiguo, a izquierda y derecha), *albakalde* B-1, *albate* B-m-ts (puerta secundaria).

[224] *Maquilacaac:* hemen -KA atzizkiari eginkizun sustantibala ematen zaio, nahizeta atzizkia, propioki, adberbioak sortzeko erabili. Atzizkiak *-ac* mugatu plurala itsasita dauka.

[225] *Dantzaac gaiti:* erdialdeko euskalkietan pluralearen marka deklinatiboak bakarrik darama *(gatik/katik)* gehienetan, eta ez aurretiko izenak, kasu honetan bezala, hots, *dantzaAC gaiti.* Joera hau bizkaieraren berezitasunetakoa da, nagusiki.

(1) Job. 21.

(2) Escl. 9.

iracurten davee: *Cantaarijaganic*. San Ciprianoren erichijan bijac, emacume dantzarija, ta cantaarija bardinac dira, guizonac galduteco. Beste lecubaten dino Espiritu Santubac (1): *Siongo alabao*[226] *ibili ziriala, eureen burubac jasota, samaac*[227] *armatuta, apainduta veguiracune*[228] *maiteetan escubaquin chaloca,*
78 or. *ta oinaquin dantzan. Alan ibili dirialaco, Jaungoicuac quenduco deutseezala siongo*[229] *alabai eureen apaindurijaac, mutilduco deutseezala eureen burubac; ta emongo deutseela buruco apaindurijaren lecuban calva gorrija, loreen lecuban calva gorrija, loreen lecuban atsa, ta cinteen lecuban cordelac, ta cilicijua*. Escritura Sagraduco lecu oneetan (beste jazo, ta esan ascori ichita) gueure piesteetaco dantza madaricatubac Jaungoicuaren gorrotua, ta zamaija eureen gainian dauqueena, edoceinec dacuts[230].

Naasteco dantza impameen gainian Eleisiaren Gurasuac, ta Santubac dacarreezan errazoe asarriac, esatez amaitu ezin le-
79 or. guiz. San Juan Crisostomoc esaten dau (2): *Dantza nasaija daguan lecuban, dago diabruba*[239]. *Ez eutscuzan*[240] *Jaungoicuac oinac emon, dantzan eguiteco; ezbada modestijaz*[241] *pausu eguiteco: Piesta orreetan diabrubac dantzan eguiten dau; ta demoninuen aguacillac engaineetan ditubee guizonac... Oraingo dantzeetan ezjaco samia ebaten*[242] *San Juan Boutistari; baina illten dira cristinaubeen arimac*. San Efrenec dino (3): *Ez dedilla inor engainau. Inoc bere ezin servidu leguizala ugazaba bi. Inoc bere ezin leguijala, Jaungoicua serbidu, ta diabrubagaz dantzaan*

---

226 *Alabao:* textuan aski ilun dago *alabao* ala *alabac* ipintzen duen; dudarik gabe, *alabac* —pluralean— behar du.

227 *Samaac: aac* bikoiztura pluralearen marka da, hitzak *a* itsasia duelako.

228 *Veguiracune:* hemen -UNE atzizkia *k* epentesiaz. 68 orian, berriz, b grafemaz, *beguiracuniac*. 161 orrian berriro *v (veguiracune)*.

229 *Siongo:* handiz behar luke, aurreko orrian gisa («Siongo alabac (alabao?) ibili zirala...»).

230 *Dacuts: Ikusi* aditzaren formula trinkoa, indikatibozko 3gn. pertsonan.

239 *Dago diabruba:* joskeraren aldetik hemen aditza subjetuaren aurrean ipintzeak aditzaren funtzioa nabarmenarazi nahi duela bide du, aditzaren toki egokia hor, normalki, perpausaren azkena bailitzateke.

240 *Eutscuzan:* Etimologismo fonetiko garbia frikazio horren kasuan; seguraski etimologismo hori, beste askotan bezala, ez da grafikoa baino. Berdin *jaditsteco* aditzean, 135 orrian.

241 *Ezbada modestijaz:* joskeraz, perpausa erromanikoen kutsuzkoa, hots, muturreko *sino, más bien* (ezbada) juntagailuen ordaina. Gure joskeraz honela ezar daiteke: «Modestijaz pausu eguiteco baino».

242 *Ebaten:* ebagiten/ebakitzen. Partizipioa -GI/KI duten aditzetan ez da erortzen normalki elemendu hori (hots, atxiki/*atxikitzen*, eskegi/*eskegitzen*). Kasu hau, ordea, batez ere bizkaieraren eremuko salbuespen bat da.

(1) Isaias. 3. (2) Hom. 49. in 14. Math. (3) De Ludis fugiend.

*eguin... Dantzia daguan lecuban, dagozala oquerrerija guztiac. An daguala emacume galdu lecuba, Aingueruben tristecia, ta diabrubeen poza, ta piestia. Goxian*[243] *Eleisan, ta arrats aldian dantzan diardubana*[244], *goxian Jaungoicuagaz, ta arrats aldian diabrubagaz*[245] *daguala.* San Ambrosioc, San Ciprianoc, ta Tertulianoc gueijago escribidu eveen piesta galdubeen, ta naasteco dantceen contra. Gueure, errijetaco piesteetan, ta dantzeetan icusten da, areec condeneetan ditubeen pecatubac, ta oquerrerijac. San Ambrosioc dino (1): *juicijua, ta modestija daucanac, ezdavela dantzan eguiten... Adulterijuaren alabia dala, dantzan eguiten davena*[246]... San Ciprianoc dino (2): *¿Ce zoraquerijac artu ete ditu cristinaubac... demoninuac asmaucato dantza loijac, onac diriala esateco?* Santo Tomasec dino San Agustinegaz (3): *Domequeetan, ta jai egunetan dantzan eguitia, pecatu andijagua dala, soluan nabasen, edo echian gorubetan*[247] *eguitia baino.* Obeto gordeco eveela, (edo pecatu guichiagogaz) Judegubac[248] zapatuba nabasen, edo gorubetan eguinagaz, dantzan eguinagaz baino. *80 or.* *81 or.*

San Basilioc dino (4) naasteco dantceetan daviltzan emacumiac gaiti:[249] *¿Ceintzuc gaiti negar eguingo ete dot? ¿Ala ezcondu bagacuac gaiti, ala ezcondubac gaiti? Ezcondu bagacuac virginidadia galduta, viurtuten dira echeetara. Ta ezcondubac ezdeutsee castidadia gordeetan Senarrai. Bada dantzan daviltzan emacumeetari, banacaren batzuc gueratuten*[250] *badira gor-* *82 or.*

---

243 *Goxian:* kasu honetan garbiro txistukariaren bustidura, aurretiko diptongoaren izkutapenaz.

244 *Diardubana: jardun* aditzaren formula trinkoa, indikatiboko 3-gn. pertsonan. Erlatibo mugatua erantsita aditzari.

245 *Diabrubagaz:* wau erdikontsonanteaz aparte (ua < uBa) -GAZ atzizkia singularrean soziatibozko funtzioan, bizkaierazko alde nagusi batean ohizkoa denez. Ala ere, -KIN deklinatiboa ere aski erabilia da gure autorearengatik, eta ia beti pluraleekin.

246 *Dala.. davena:* lehenengo kasuan -LA konpletiba, eta bigarrengoan -NA erlatiboaren marka.

247 *Gorubetan:* etimologiaz lat. *colum*-etik, *-ue* taldeak hiatozko prozedura hartzen duelarik *wau* erdikontsonanteaz *(ue < uBe).* Bide berdinetik *batzubetan* 14, *santubeen* 5.

248 *Judegubac:* hitz zahar honetan lat. -ICUM-etik datorren -EGU atzizkia, gaztelaniazko -IEGO-ren eraginaz. Beraz, galaICUM < *gallEGO,* judaICUM < *judiEGO* (euskaraz, judEGU, *wau* erdikontsonanteaz *ua < uBa: judegubac*).

249 *Emacumiac gaiti:* deklinatibo honen kasuan bizkaierak pluraleko marka (-ac) ez du galtzen erroaren kasuan; gipuzkeraz eta beste hizkera batzutan bai ordea; alegia, *emakumengatik* eta ez *emakumeak gaitik,* nahiz-eta pluraleak hor *-en* marka eduki, bainan ez *-ak* mugatuarena.

250 *Gueratuten: geratzen,* beraz, bizkaierazko ohizko partizipioaren euspenaz. Bide berdinetik *jarraitutia* (jarraitzea) 84, *galdutera* (galtzera) 82, *ucatutia* (ukatzea) 85.

(1) Lib. 3. de Virg. (2) Lib. de Spectac. (3) 2.2. q. 122. a. 4. (4) Orat. 8. de temperant. et. lib. de Elia, et Jejun. c. 18.

*putz osuagaz:* (pornicau bagaric) *areec bere arimaco castidadia galduta, loituten dira.* Santu onen erichijan; ¿nos contauco ete cituban Eleisa Ama Santiac[251], edo nos iminico etelituque virgineen artian, Erri oneetaco piesteetan, ta naasteco danceetan ibili dirian emacume libriac[252], guero santa andi eguingo balira bere? Bada, dinuanez, inoc ezautu ezin leguizan banacaac, baino ez da gueratuten gorputz osuagaz. Ta areec bere arima-
83 or. co castidadia galduten davee dantceetan. San Antoninoc dino (1): Dantzarijac diabrubari bidia presteetan deutseela, diabrubagaz impernuban[253] aguertuco diriala... Soloco coco[254] saltocarijac[255] laboria galduten daven leguez, emacume dantzarijac arimaac galduten ditubeela... Dantziac impernuco pozuti urten davela...[256] Impernuco labati quee atsitubac urteten daven leguez, naasteco dantzeetati luxurijaren subac urteten davela... Guizon, ta emacumeen naasteco dantzia demoninuac darabilela, arimac, galduteco... San Carlos Millango Obispo andijac, ta guiza aldi[257] oneetaco Eleisiaren Arguijac liburu
84 or. oso bat escribidu evan dantza naastecuen contra emeretci capitulugaz, ta amairu *conclusinoe,* edo amaigaz. An eracusten dau Santubac Eleisaco Gurasuen, jaquituneen, ta errazoiaren goitute osuagaz, esan dirian naasteco dantzai jarraitutia pecatu mortala dana. Ta dino (2): *Naasteco dantzaan oidan nasaitasunari, ta ocasinoiari veguiratu ezquero, ez dauca, inoc cetan pensau, estubac gariala, naasteco dantziari jarraitutia pecatu mortala dala, eracusten dogunian.*

---

251 *Santiac:* hitz honek bi berezitasun, bat *a < aa < ea < ia* prozedura, eta bestea femeninoaren marka *(santA/SantEA).* Beraz, hor Eliza Ama SantAZ (eta ez santUAZ) mintzatzen ari zaigu Pr. Bartolome, generoaren inferentzia edo zeregitekoa tartekatuz.

252 *Libriac: ea < ia.* Ikus ere: *libriac* 54, *emotia* 52, *urdiac* 61.

253 *Impernuban:* MP taldea hemen eta besteetan («Ta istante baten jausten dira impernura», 77), («Impernuco pozuba, Babilonijaco labia», 86).

254 *Coco:* Azkue-k «insecto, en general» gisa itzultzen du (Dicc. I, 495). Hitza jatorriz expresiboa dela dirudi, bainan gaztelaniaren bidez gurera sartua, ezen-eta gaztelaniazko semantika ere gurean «máscara, disfrazado» (B.) present baitago (*koko jantzi* B-m). Ala ere, intsektuaren esanahiaz, agian, *gorgojo* adieraz dezake. Ikus: J. *Corominas.* Breve diccionario etimólogico de la lengua castellana. Ed. Gredos 1976, 156 or. Bestalde, *koko* mozorroaren (disfrazado) norabidean doan exozentrikoa ere da euskaraz.

255 *Saltocarijac:* saltariak. Hemen -ARI atzizkia -Ka-ri erantsi zaiola dirudi, bestela, *saltARIac* hutsa izanen litzateke.

256 *Urten davela :* aditz iragankorrez, bizkaieran usadioa den bezala; beste gehienetan, ordea, iragaingaitza (intrantsitiboa) erabiltzen da kasu horretan, hots, irten *direla.*

257 *Giza aldi: urten era, urten eria, uts uniac* kasutan bezala paratzizkia errotik bakanduta.

(1) P. 2. tit. 6. c. 6.

(2) De Choreis. c. 16.

Au da Eleisiaren Gurasuen verbetia naasteco dantza gal-
dubeen contra. Ez cirian Guraso santu, ta Ceruco dotriniaren
Eracusla Jaquitun areec, gueroco Escolau batzuc leguez, dan- *85 or.*
tzaac *per se, ta per accidens, secundum se,* ta *per abusum, in ge-
nere suo, ta per malitiam* erabaguiten ibili. Ezbada[258] beguira-
tu eutseen guizon, ta emacumeen arteco naasteco dantziari,
guiza aldi guztietan jazo dan moduban, jazoten dan moduban,
ta jazoco dan moduban[259] (eguiten bada) Adanen seme ala-
baac vitzi dirian artian. Au ondo ezaututa, ondo sinistuta,
Jaungoicuaren Mandatari areec eureen liburubeetan esanda
ichi eveen cristinau guztienzat naasteco dantzaac gaiti, ordi-
querija, gorrotua, murmuracinoia, sobervija, Batio[260], ucatu-
tia, sacrilegijua, luxurija, pornicacinoia, ta beste pecatu
ezainac gaiti esan eveen baixen[261] deungaro. Guizon, ta ema-
cumen naasteco dantziari esaten deutseen Eleisaco Santubac *86 or.*
verbaan verbaan: Impernuco pozuba, Babilonijaco labia, Erri-
jetaco pestia, pecatu guztien erne lecuba, luxurijaren escolia,
castidadiaren galdugarrija[262], diabrubaren chirrintolia, sata-
nasaren saria, demoninuen jocua, piestia, sortia, Jesucristoren
desondragarrija, cristinaubeen lotsagarrija, Bautizmoco pro-
meseen ucagarrija, Ainguerubeen tristecia, Virgineen onda-
mendija, adulterijoguina, lapurguina, gorrotoguina, zelogui-
na[263]...

Au esaten davee Santubac naasteco dantzaac gaiti. ¿Cer
esango eveen, gueure placeetaco dantza desondraubac asi, ta
amaitu, echian urteten daneti, ta sartu artian, icusi balitubee? *87 or.*
¿Nos absolviduco eveen guraso bat, edo ume bat, berarijaz ol-

---

[258] *Ezbada beguiratu:* puntuak hemen adbertsatiboa aurreko perpausatik bakandu du («Erabaguiten ibili..., ezbada beguiratu...»). Bestalde, adbertsatiboak sintaxi erromaniko baten eredu garbia. Beherago, ordea, adbertsatiboa bukaeran kokatuta («...esan even baixen deungaro»); azken kokapen hau ez da ohizkoa gure autorearengan.

[259] Hemen, kurioski, hiru aspektu pilatzen ditu autoreak aditz bat beraren kasuan: hau da, *jazo dan..., jazoten dan..., jazoco dan.*

[260] *Batio:* etimologiaz gaztelania zaharreko *bateo/bateyar* hitzaren mailebu hurbila. Ikus: *Garcia Diego* Dicc. 918 or. Iparraldeko euskalkientzat gaskoinerako *bateià* da iturri. Cfr. *Luis M. Mujika.* Latina eta erromanikoaren eragina euskaran, op.c. 163 or.

[261] *Baixen: baizen* bustiduraz.

[262] *Galdugarrija:* hemen -GARRI atzizkiak semantika *objetibala* dauka *euskarria, lokarria* hitzek bezala. Semantika beraz *ucagarria* 86 orrian. Ikus gure *Origen y desarrollo de la sufijación euskérica,* op.c. 127-128 or. Jakina denez, hegoaldean, batzutan, -GARRI atzizkiak iparraldeko -GAILU delakoa ordezka dezake (*euskarri,* adibidez, *euskailu* ordez).

[263] *Zeloguina:* Pr. Bartolome-k joera handia atzizki honetarako. Erroan aditza direnekin erabiltzea, alabainan, gaizki dago. Kasu honetan ondo.

guetia gaiti dantza madaricatu orreetan davilena, ta ibilteco ustia daucana? Eurai itandu. Eleisa Ama Santiaren Batzaarretaco neurgarrijac, ta Cristandadeco Aguintatari Jaunen ordenaac bere bardin condeneetan ditubee naasteco dantzaac. Baina. ¿Ce Cristandadeco? Erromaco gentileenac iracurten dira dantza galdubeen contra, Errijeetaco, ta pamelijetaco baquia, ta matrimoniuac galduten ditubeelaco. Esandanagaz aaztu bagaric, icusi daigun, teologija Sagradubaren Eracuslaac, ta errazoiac eurac gaiti dinuana.

## S. IV.

*88 or.* **Theologubac[264], ta Errazoiac naasteco dantzaac gaiti dinuana**

Ezda nire gogua, sail au luzatutia. Ezbada aimbat laburren, ta arguiruen imintia. Liburu andijac escribidu leguiz, asco cansau bagaric, leenagoco guiza aldeijetacuac esandaveena, batuten asi ezquero. Eleisiaren Gurasuac gorrotoz beguiratu badeutsee naasteco dantzai, areen ondorengo Teologu, edo *Moralistaric* juicijozcuenac ez deutsee obeto beguiratuten. Dinot: *Juicijozcuenac*[265]. Bada beste gauzaric escribidu daveenac,
*89 or.* inoc[266] iracurten ez ditu, eureen inocencijari, ta penseeta modubari barreeguiteco baino. Bat, edo biren esanac nic iminico ditut, ta beste batzuc icentau.

Leleengo lecuba errazoiagaz euqui biardau[267] Benedicto XIV ez estutzat, ez nasaizat iracurla[268] batec bere ezdaucanac. Onec dino, beste Santu, ta Eracusla asco icentauta (1): *Guizon, ta emacumeen arteco dantza naastaubac, eurenez pecatu izan ez arren, eguiten dirian moduban, pecatu diriala. Cura Jaunari, ta compesore jaunai jagocuela, guizon, ta emacume guztiai ondo*

---

[264] *Theologubac:* kasu honetan *koma* delakoak ez dauka inolako zentzurik, ezeneta sujetua aditzetik etentzen du. Baliteke inprenta-hutsa izatea. Sujetua textuan expreski azaltzen den beste zerbait balitza ere komak ez du zentzurik, kopulatiboak lotzen dituen bi sustantibo bakantzen baiditu.

[265] *Juicijozcuenac:* joera hiatizantea *io* < *ijo* eginaz.

[266] *Inoc:* inork. Berdin *nobera, atan, cetan, ataco.*

[267] *Biardau:* behar du. Gehienetan *b* grafemaz, bainan *v* ere bai noizbehinka (*viarrac* 56). Bestalde, aditzari lotuta. 192 orrian, ordea, *biardavee.*

[268] *Iracurla:* amaierazko apofonia *labA, bagA, eracuslA* kasutan bezala.

(1) Instruct 76.

*aituten emotia: Ce ocasinoe*[269] *andija, ta peligruba daguan naasteco dantceetan: ta, pecatu eguiteco peligru andira, duazala* 90 or.
*ara duazanac*[270]. *Belarmino* Cardenal[271], Jesuita Veneragarrijac[272] dino (1): *Adulterijua, ta pornicacinoia pecatu badira, ezdaquijala berac, guizon, ta emacume naaste dantzan ibiltia, celan pecatu izango ezdan; dantziac atara convideetan davela ta... Zuc*, dino Cardenal Jaunac, *gaztetasunaren subari ezarten deutsazu ardauaren suba, juan, ta etorri, egon, ta ibili, ta cantau eguiten dozu nescaaquin: ¿ta ez dot nic zu gaiti gauza chaarric pensauco?*

Aita Paulo Seineri, Italijaco Misinoe jaquitunac, ta Zelotsubac, leenagoco Eracusleen esan era guztiac bardinduta, ta alcartuta, eracusten dau (2): *Dantzia berez pecatu izan ezarren,* 91 or.
*eguitendan moduban, naasteco dantzia luxurijaren viztugarrija, ta berogarrija dala; ta chito*[273] *errazto*[274] *iragoten dala pecatu izatera. Casuistaac*[275] *bere ez daveela au ucatu. Ez bada, naas-*

---

[269] *Ocasinoe:* hitz honen amaieran -ONE/INO/NOIA errealizazioak, gutxienez. («Edo pecatuco ocasino urrecua dala», 10, «Dantzia pecatu eguiteco ocasinoia bada», 158 or.) Amaiera horietan zaharrena edo arkaikoena, bizkaieraren eremuan ere, -OE da, lat. -ONEM delakoaren ondorio zuzena —bokalearteko sudurkariaren erorpenaz— delako. -ITIONEM *(tentationem) delakoak, berriz, -INOIA eta -INOE ematen ditu gure autorearengan, eta -SIONEM (conclusionem) atzizkiak, berriz, -SINOIA delakoa, gehienetan. Erdialdeko -OI (sermoi, arrazoi, limoi), noski, -OE baino berantagoa da (Nafarroan eta bizkaiera arkaikoan sermOE, arazOE azaltzen da).*

[270] *-LA... -NA:* bi amaiera hauek fenomeno desberdinak adierazten dizkigute: lehenengoa konpletiboa da, eta bigarrena erlatiboaren marka pluralean.

[271] *Belarmino Cardenal:* aposizioan, inolako juntagailurik ala beste elemendurik gabe. Pentsaeraren mailan hemen kontsideratzekoa da Belarmino-ren iritzi errigorista moralean, ezen-eta dantzak adulterioarekin parekatzen baiditu («Adulterijua, ta pornicacinoia pecatu badira..., dantzan ibiltia, celan pecatu izango ezanda»).

[272] *Veneragarrijac:* venerable, -GARRi atzizkia lehenengotakoa duen usadio semantikoaz. EusKARRI eta loKARRI hitzetan, berriz, -GARRI-k ez du hemengo eremu semantiko bera.

[273] *Chito: txit, oso.* Baita besta hau: «Au gaiti esaten dira chito gauza asco...», 169 or.

[274] *Errazto:* -TO atzizki modala ohizkoa Bizkaian, ekialderago -KI-z alternatzen duena (*txarto*/txarKI, *ederTO/ederKI). -ZTO, -ZKO-ren disimilazioa da, gaiZTO, pekaiZTO kasutan bezala. Gaizto gaiZKO*-tik dator. Ikus: *L. Mitxelena.* FHV, 258 or. Hemen, ala ere, -TO modala eta -ZTO ez dira nahastekoak, eta oraingo kasuan modala dagoela present bide du. Cfr. *Latina eta erromanikoaren eragina euskaran,* op.c. 313 or.

[275] *Casuistac:* moralaren barruan ematen zen korronte baten jarraitzaileak. Bestalde, Pr. Bartolome-k *probabilistac* ere aipatuko dizkigu. *Probabilismoa* moralean *tutiorismoaren* aurkakoa zen, eta joera horren arabera moralean *probabilitatea* ematen denean (guztizko segurtasunik gabe ere) jardun daiteke etikoki. Belarmino, gehienetan, korronte honen aurkakoa da.

(1) Ibid. (2) Ibid.

*teco dantzaan pecatu eguiteco daguan ocasinoia gaiti, guztiac eracutsi daveela Eleisaco Santubaquin, dantzaac pecatu mortalecuac diriala*[276]. Aita Baltasar francolinoc[277] dino (1): *Eguzquijaren urten erati*[278] *sartu eraraguinoco jaquitun guztiac condeneetan ditubeela naasteco dantzaac Jaungoicuaren contraco pecatu anditzat.* Dotrina au berau eracusten davee, bacochac
92 or. bere lecuban, ta bere sailari jagocan moduban: Natal Alexandro (2), Juan Pontas (3), Lamet (4), Gerson (5), Salviano (6), Juan Nider (7), Colet (8), Reiffest: (9), Ferraris (10), Geneto
93 or. (11), Marchant (12), Comp. Salm. (13), El R. P. Fr. Diego de Cadiz[279] (14), Mansi (15) Pouget, (16), R. P. Fr. Francisco Antonio de Palacios (17), D. Juan Antonio de Moguel[280] (18)... Empin[281] esan daigun erabatera San Carlos Milango Obispo Jaunagaz (19); *neque vero hodie quisquam est paulo prudentior, qui choaeas non detestetur.* Edo, esan daigun Bendicto
94 or. XIV (20): Eleisaco erregueleen, Santubeen, ta Eracusleen dotriniari ichita, libertadia, ta nasaitasuna gura daveenac, verba eguiten daveela naasteco dantzeen pavore. *Infelices Abogados del libertinage* esaten deutsee alacuai Benedicto XIV. Ezdago,

[276] *Diriana:* hemen konpletiba -ANA amaieraz, beste zonaldeetan -ELA gisa ematen dena. Goiko *daveela*-rekin harremanetan; -ELA-k galdegaiari zuzenkiago erantzuten dio.

[277] *Francolinoc:* deitura delarik, handiz behar du, hots, *Fracolinoc.*

[278] *Urten erati:* irteeratik.

[279] Kontutan izatekoa da autore honen obra Donostian argitaratu zela 1803-an, Pr. Bartolome-k berak aitortzen digunez.

[280] Interesgarria J.A. Moguel-en zita hau. Itxuraz, behean aipaturiko *Iracaste* delakoa gipuzkeraz idatzi zuen «Confesio ta Comunioco Sacramentuen gañean Eracasteac» izenburuaren laburdura baino ez delarik. Liburu hori Iruñean 1800 urtean argitaratu zen. Bainan, A. Villasante-k aitortzen digu badela eskuizkribuz Bizkaiko Diputazioan *Erakasteac* delakoarekin zerikusia duen beste corpus nagusiago baten obra. Eskuizkribu horren izena «Cristau Eracasle Euscalduna» litzateke. Gure ustez ala ere, Pr. Bartolome goian aipaturiko liburu argitaratuaz mintzo da. Ikus: *L. Villasante.* Historia de la Literatura Vasca. Ed. Sendo, 1961, 205 or.

[281] *Empin: en fin.*

(1) Ibid. (2) Theol. Dom. Moral, t. 2. l. 4. de Decalog. c. 8. a. 2. Reg. 8. (3) Dicc. casu, t. 3. v. Saltat. casu 2. (4) Dicc. cas. t. i. v. Choreae. cas. unico. (5) P. 4. Dom. 3. adv. (6) Ap. D. Carol. de choreis. (7) In instrut. 76. Bened. XIV. (8) Moral. trat. 6. prae-cept. c. 6. Sect. 2. conclus. 3. (9) Theol. Moral. trat. 9. dist. 4. q. 7. n. 84. adic. 4. et 5. (10) Bibliot. v. Choreae. (11) Tom. 3. de santific. fest. c. 3. q. 4. (12) Hort. past. lib. 3. trat. 3. l. 10. (13) Ton.. I. trat. 9. c. 6. punto. 2. (14) Cart. Consult. N. impr. en San Sebastian año 1.803. (15) Bibliot. Pred. t. I. trat. 9. disc. 5. (16) Inst. Chat. t. 4. Part. 2 Sect. I, c. 2. S. 3. et lit. F. impr. Lovan. año 1774. (17) Contra bailes. c. 3. (18) Iracaste. 10. (19) De choreis, c. 17. (20) Instrut. 76.

Jaungoicuaren leguia eracusteco, uste onagaz plumia[282] escu-
ban artu davenic, ez *casuistaric, ez Provabilistaric*[283], celan
eguiten dirian entzun ezquero, gueure placeetaco dantza naas-
taubac, pecatu mortalaren beeco ocasinoetzat emoten ezditu-
banic. ¿Baina cer eguingo davee guichiago, dotrina daquijee-
nac, ta juicijua dauqueenac, berarijaz gentia engaineetara
ezbaduaz, pecatu eraguiteco? ¿Ezdau Evangelijoco eracutsija-
ren errazoe aguirijac au esaten? Icusi daigun. Errazoe[284] au 95 or.
ezaututeco, ez daiguzan contuban sartu, gueure placeetaco
dantzaac diriala medijo zucen, errijeetan, Copradijeetan, ta
pamelijetan jagui oidirian ocasinoiac[285], burrucac ta lutzaro-
co gorrotuac; vengueetaco atajadiaren zain urrengo piesta
egunera, edo erromedija egunera artian egotiac; gurasuen, ta
umee arteco bidauac, baque chaarra, ta gaineco eguneetan al-
carri verbaric eguin gura eza... Ezdaigun contuban sartu, pies-
ta eguna, jaijeguna[286] bada, egun guztia diabruba, munduba,
ta araguija serbiduten iragotia; Jaungoicuagaz bere ez acor-
deetia; ta, verbeeta onian, mezaric bere ez entzutia. Ezdaigun 96 or.
contuban sartu, piestia, ta dantzia dala medijo baseerri echee-
tan eguiten dirian castu alperricacuac, vanidadezcuac, ta neu-
rri bagacuac. Baquidaz Vizcaijan, eurac zinuenez, piesta egun
bacocheco castuba eun ducategaz[287] eguiten ezdabeen basee-
rri echiac. Ta urte ascotan alan. Ezdaiguzan contuban sartu,
plazaraco, ta piestaraco eguiten dirian lapurretac, ta andi ate-
raten dirian ordiquerijac, joco charrac, ta beste maldadiac. Al-

---

[282] *Plumia:* kultismoa ez bada, gaztelaniaren urradura fonetikoa, ohizko PL < l eskema (pluma < *luma,* planctum < *lantu*) kontutan hartzen ez duena. Mailebu zaharretan talde kontsonantiko horrek soilketa suposatzen du, jakina denez. Kasu batzutan etimologia bat-beretik bi errealizazio eman daitezke, hots, bat soildura kontsonatikozkoa (formula zaharrenean), eta bestea konposagai kontsonantiko guztiak errespetatzen dituena. Honela latineko seCTam hitzetik: *seKTa/setatsuak,* doCTorem-etik *doktore/dotoreak.*

[283] *Provabilistaric:* hemen *kasuistak* eta *probabilistak* bi korronte desberdinetako jarraitzaile gisa dakartza. Gorago esana dugunez, probabilismoari —moralaren eremuan— *tutiorismoa* kontraezartzen zitzaion zuzenki. *Tutioristak* (lat. tutior) errigoristagoak, hertsiagoak ziren jokabide etikotan.

[284] *Errazoe:* arrazoia. Ikus ere «beguiratu errazoe onetan», 56 or., «errazoe zuzeneti aurreraco olgueetia», 38 or.

[285] *Ocasionoiac:* hitz honek, gutienez, -NOIA 158, -OE 194 eta -INO (ocasino) 10 atzizki-emaitzak. Adibidez, 158 orri bat-beran bi errealizazio: «alaco ocasinoera juatia pecatu dala... pecatu eguiteco ocasinoia bada». *Okasino,* seguraski, inprenta-hutsa.

[286] *Jaijeguna:* jaieguna. Hemen, kurioski, hitz-konposaketa ez da oztopo izan -ie taldea (konposagaien loturakoa) *-ije* bilakatzeko.

[287] *Ducategaz:* -GAZ atzizkiaren aurretiko *e* hori loturakoa da, hitza bera *ducat* delako, okzitaniar (gaskoin) kutsu ukaezinaz.

deratu daiguzan oneec guztioc buruti simplezatzat, ta chocha-
querijatzat, errijetaco dantza egun guztietan, bat ichi bagaric,
jazo arren.

Ta esan daigun: Castidadiaren contra diriala[288] pecatu
mortaleco ocasinoe urrecuac. Ezgaitezan aaztu[289], Erri onee-
97 or. taco placeetaco dantzaac celan eguiten dirian. Gogoratu dai-
gun, Escritura Sagradubac, Eleisaco Santubac, ta Jaquitunac
eurac gaiti dinuena. Iracurri daiguzan, Eleisiac condenauta
daucazan, luxurijari su emoten deutseen, ta aren ocasinoiac
parcatuten ditubeen esanera galdubac, *Proposicinoe* conde-
naubac. Alexandro VII. 40, ta 41. Inozencio XI. 1, 51, 57, 58,
60, 62 ta 63. Alexandro VIII. 2.... Nasaitu daigun dotrina au,
aldaigun guztia, dantza zaliai gusto emoteco. Ta, Eracuslaric
oneenac, ta gueijeenac esan arren, vorondatez, ta ezauberaz
izan ezquero, ezdaguala seigarren aguindu Santubaren contra,
98 or. beste aguindu ascotan leguez, gauza guichiric, edo pecatu ve-
nialic. Imini daigun dudaan gauza au. Ta esan daigun: Cas-
tidadiaren contra pensamentu, verba, gurari, edo eguitade loi
bati pusca baten vijotzian ezauberaz[290], ta naiz lecu emon
deutsanac, guichiia, ta ecer eza dala, berac uste izan arren, ez-
davela jaquingo erijotzaco ordu artian, ala pecatu mortala, ala
veniala eguin daven. Evangelijoco eracutsiti asco urten baga-
ric, Eracuslaric gueijeenac esango deutseela[291]: *Pecatu morta-
la dala, alan castidadiaren contraco gauza loijari ezauberaz vijo-
tzian lecu emotia.* Baina onei guztioi erabatera ichita, guazan
gueure sailaren itura zucen zucen, ta esan daigun.

Cristinaubeen dotrinaan castidadiaren contraco pecatu
mortala da, premina[292] bagaric verba desonestubac esatia,
99 or. gustoz barre eguinda entzutia oratute, edo tocamentu desones-
tubac eguitia, inoc eguin daguijozan istia, escuca[293] loijac
eguitia, ta noberari eguiten bestiai istia; endamas guizonez-

---

[288] *Diriala:* -ALA amaiera adierazpenezko (explicativo) konpletiboaren ezaugarria.

[289] *Aaztu:* hemen *luur, laar* kasuetan ez bezala, bikoiztura etimologiko batez aurkitzen gara, hau da, jatorrizko aspiratuaren galketak sorturiko bikoizturaz *(ahaztu, ahantzi)*.

[290] *Ezauberaz:* ezagueraz. Besteetan bezala, hemen belarearen erorpena (ezagutu < *ezautu*) eta *ue* < *uBe wau* prozeduraz.

[291] *Dutseela:* Pr. Bartolome-k ongi markatzen ditu bikoizturen bitartez aditz-amaierak eta konpletiben atzizkiak, sinkopazio bokalikoak baztertuz.

[292] *Premina:* apremio. Hitza jatorriz erromanikoa (gazt. *apremio/apremiar*), sudurkariaren luzapen fonetikoz hornitua. Ikus: *L. Mitxelena*, FHV, 305 or.

[293] *Escuca:* manoseo. Nahiz-eta -KA atzizkiak erazko adberbioak sortu, hemen hitzak kera sustantibala duela adierazten du; horregatik *escuca horren* ondoren *loijac* epitetoa.

cuac emacumiai, ta emacumiac guizonezcuai. Baita pecatu mortala da, alaco gauza loijac esateco, eguiteco, entzuteco, icusteco, erasoteco, ta eraguiteco ocasinoera, ta peligrura bere guraz[294] vorondatez, ta ezauberaz premina bagaric juatia, ta alaco lecuban egotia bere.

Baita da eguiija, plazaco piestara, ta dantzara duazanac, (guztiz itsubac, eta gorrac, edo umiac ezbadira) ondo daquijeela bigarren juate aldico: juaten dirian guztian, edo piestaruz[295], edo piestaan, edo piestia amaituta, edo obeto esateco, leleengoti azquenera luxurija guztiaren testigu izatera duazana. Ondo daquijeela: Castidadiaren contraco pecatu mortalac, verba loijac, eta zatarrac; escuca ezainac, eta desonestubac; gorputzaquin alcar jote lotsarizcuac; chancheetan[296] venetan pecatu eguiteco convit clarubac[297]; mosuca ziquinac, ta errazoe indecentiac, ta itchusijac; ondo daquijeela, dinot, bai guizonac, ta bai andraac, bai mutilac, ta bai nescaac, duazan guztian, luxurijaren sutegui, ta ats ziquin au guztiau[298], ta gueijago icusico daveena, entzungo daveena, ta sentiduco daveena. Ondo daquijeela (beticua dalaco) eurai bere sarritan, edo gueijeenian, edo beti esan deutseezana, ta eguin deutseezana pecatu zatar, loi areec guztiac. Baina: ez guichitan, ezbada gueijeenian, ta gueijeenac beti, eurac bere esan ditubeela, ta eguin ditubeela loiquerija[299] areec[300]; ta besteen esanagaz, ta eguinagaz barre eguinda alegrau diriala. Ezin inoc ucatu legui, dantza zaliac au ondo daquijeena.

100 or.

101 or.

Baita eguija da, guizonac, eta emacumiac, mutilac, ta nescaac eceren bere premina bagaric, ez cleituban, ez aciendaan, ez osasunian oneraric, edo provechuric ez dauqueela, eureen guraz, ta naiz, veguijai, belaarrijai[301], ta gorputzari gusto

---

[294] *Guraz vorondatez:* logikoki, hemen koma bat falta da («guraz, vorondatez...») -z deklinatiboak adierazten duenez, konposaketarik ez dagoelako.

[295] *Piestaruz: festaruntz.* Sudurkariaren ohizko erorketa, *echeruz* kasuan bezala.

[296] *Chancheetan:* chanzas. *Chanceetan venetan* aposizioan ezarrita bi jokabideen ezmezea adierazteko.

[297] *Clarubac: pluma/luma* kasuan bezala, gure autorea hitza kultismo bidez hartzera mugatzen da, bizkaieran, bestalde, CL taldean ematen den soilketa albora utziz, alegia, *laru* aldagaia.

[298] *Au guztiau:* bortiztasuna sortzeko *au* erakuslearen errepika. Bestalde, orri honetan Pr. Bartolome-k, paradogikoki, hainbat erasotzen duen sentsualismoa erdi-isladatuta, bere mintzoak darion errealismoagatik: «...Convit clarubac; mosuca ziquinac, ta errazoe indecentiac...», eta gorago «gorputzaquin elcar jote lotsarizcuaz».

[299] *Loiquerija:* loikeria. -KERI/KERIA atzizkia, ia beti, *a* itsasiaz, bestela, «loiqueri areec» esanen zuen. Bide berdinetik *zatarquerija* 74, *azalquerija* 60 kasuak.

[300] *Areec:* haiek. Hirugarren pertsonako erakuslea bokale bikoizturaz, *oneec* kasuan bezala.

[301] *Belaarrijai:* belarriei. Bikoiztura bokalikoa ez da etimologikoa.

emotia gaiti, eureen-burubac eracustia gaiti, ta esandan, saltsa ziquin pecatuzcuan ibiltia gaiti, duazala dantzara. Duazala, luxurijazco pecatu mortalac esaten dirian, entzuten dirian,
*102 or.* penseetan dirian, icusten dirian, eguiten dirian, ta eraguiten dirian ocasinoe jaquinera. Ta, esanac, eguinac, ta eraguina ontzat omoten ditubeen lecura, edo bidera.

¿Ta au onan izan ezquero, esango dau, Evangelijua[302] sinuistuten[303] davenec, edo Eleisa Ama Santiaren semec, alaco dantza galdubeetara bere guraz juatia, ezdala pecatu? ¿Iracurri dau inoc cristandadeco liburutan, alaco ocasinoe jaquinera premina bagaric bere naiz juatia, ezdala pecatu mortala? Esandaigun bada: Euscal errijetan, esandan moduban, ta jazoten dan moduban, plazaan tambolinagaz eguiten dirian naasteco dantzaac, avemarijeetan tambolina ixildu arren, pecatu mortaleco ocasinoe urrecuac diriala. Necesidade, ta premina bagaric, ondo daquijeela, juaten dirialaco, castidadiaren contraco
*103 or.* pecatu mortalac aguirijan beti eguiten dirian olgueetara, ta dantzara.

Esandaigun gueijago: Ez daucala compesorec[304] Eleisaco dotriniaren erreguela, edo neurgarriric,[305] ez Eracusleen esanic, alaco dantceetara duazanac, leen juana garbatu, ta ostera ez juateco asmua artu artian, pecatubeetati ascatu, edo absolvidu leguizala, esaten deutsanic. Ezdago onaco eracutsiric Eleisa Ama Santaan. Ezin compesorec pecatubeetari librau legui, alan pecatu dan ocasinoe jaquinera, bere guraz doiana, ocasinoiari isteco verbia emon artian.

Ara emen cerbait arguituta, asieraan[306] imini neban amaija, edo *Conclusinoia*[307]. Plazaco dantzaac celan eguiten dirian
*104 or.* esanagaz: Espiritu Santubari, ta Eleisiaren Gurasuai entzunagaz: Ta gueure sinistuquizunen[308] Eracuslac[309], ta Errazoiac

---

[302] *Evangelijua: ioa < ijoa < ijua* ohizko prozeduraz. Ikus *compesanarijuan* 136, *estudijuac* 15.

[303] *Sinuistuten:* inprenta-hutsa dirudi, *sinistuten* izan behar duelarik.

[304] *Compesorec:* MP taldeaz eta ohizko f/p aldaketaz. Berdin *compesetan* 39, *compesonarijuan* 136, *compesore* 89.

[305] *Neurgarriric: erregela,* autore berak azaltzen digunez honen ordain ezartzean («Dotriniaren erreguela edo neurgarriric»).

[306] *Asieraan:* inexiboan mugatuaren markaz, *patricaraan, piestaan* hitzetan bezala.

[307] *Conclusinoia. Plazaco:* beste askotan bezala, hemen puntuak logikoa ez den segida bat eten egiten du; *plazaco* hitzak hasten duen perpausa goikoaren adierazpenekoa da.

[308] *Sinistuquizunen:* siniskizunen. *PensaUquizun, ikaslkizun* kasuetan bezala, partizipioaren euspen desitxurazkoa. Fenomeno hau Pr. Bartolome-ren joera berezienetakoa da, eta ez, gehienbat behintzat, bizkaiera, orokorrarena, aditzetan ezik (alegia, *galdutia, sevidutia* kasuetan *ezik*).

[309] *Eracuslac:* apofonia, *iracurla* kasuan bezala.

eurac gaiti dinuenagaz. Bitati bat. Edo provau, dantza plazaco orreec, esandan moduban, eguiten ezdiriala: ta, Escritura Sagradubaren, Eleisaco Gurasuen, ta Eracusleen liburubetati ateradirian esanac, guzurrac diriala: ta; imin[310] dan Errazoiac bere zatijeetan uts uniac daucazala, ta ondo amaituten ezdavela. Edo autortu, ta compesau: esandirian dantzaac, pecatu mortaleco ocasinoe urrecuac diriala; ta oni darraicona[311].

---

[310] *Ta; imin dan: ta imini da*n behar luke, puntuazioak toki horretan zentzurik ez duelako.

[311] *Darraicona:* jarrai aditzaren forma trinkoa, indikatibozko 3gn. pertsonan eta erlatiboan. Bestalde, goiko disiuntiboaren barnean (edo provau..., edo autortu...) hiru konpletiba daudelakoz lehenengo perpausak beraldiko luzadura jasotzen du («... guzurrac diriala..., uts uniac daucazala..., amaituten ez daveela»).

# IV. CAPITULUBA

## Erromedijen[312], Biguiren[313], ta Saraubeen gainian *105 or.*

S. I. ¿Cer dirian Erromedijac?
S. II. ¿Cer dirian Biguiraac?
S. III. ¿Cer dirian Saraubac?

### S. I.

### ¿Cer dirian Erromedijac?

Dantza zaleen urten erai[314], edo argumentubai erantzutera orduco, pensau dot, erabagui biar ditudala, cer dirian Erromedijac, Biguiraac, ta Saraubac. Oneen ondoric eranzungo jacue *106 or.* erabatera guztien erraparubai[315].

Erromedija gaiti ezda emen beste gauzaric aituten; ezbada

---

[312] *Erromedijen:* erromerietan. Fonetikoki: a) *e* protetika, b) r/d disimilapena (amorio/*amodio*, usario/*usadio* gisakoa), c) *ie* < ije prozedura.

[313] *Biguiren:* Vigilia. Latinetik zuzenki, ohizko l/r aldaketaz (*milum* < miru, *caelum* < zeru tipologiazkoa). *Begiratu* hitza (*vigilar, cuidar* semantikaz) erro berdinetik. Beheko *biguiraac* kasuan, bikoiztura *a* itsasiari erantsitako plurale mugatuaren marka.

[314] *Urten erai:* irteerei, hau da, pluraleko datiboa, eta-ERA errotik bakanduta.

[315] *Erraparubai: erra-* delakoa apofonia ez bada, inprenta-hutsa da, ezen-eta protesi bokalikoa, normalean, dardarkari atzekoaren gisakoa izan ohi da, hots, a-a, e-e , *arratoi, arrasto, erretore, errezo,* goranzko asimilapen bokalikoaz.

promesaren, Santubaren, edo Santiaren achequijagaz ervestera juanda, errico, ta ervesteco[316], guizon, emacume naaste vidian, ta erromedijaco[317] lecuban eguiten daveen piestia, ta dantzia. Erricuentzaco da piesta eguna, ta ervestecuentzaco Erromedija eguna. Erromedija batzuc eguiten dira Errijetaco Eleiseetara[318]. Baina gueijeenac basoco, edo mendiren bateco Ermitara. Nic incentau bagaric, daqui gentiac ondo, onetarico Ermita asco dagozana Vizcaijan, ta Provincijan. Ta urrin Errijetati legua ascuan gentia juan oidana erromedijara piesta egunian. Ermiteetaco Erromedijac nos asi zirian, cegaiti[319], asi zi-
107 or. rian, ta dagozan tercijora celan etorri dirian, esatia, sail luciagua da, ta orain paltaric eguiten ezdavena.

Esaten da bada: Tambolinagaz piestia, ta naasteco dantzia eguitendan erromedijara, dantzan naaste eguitera, olgueetara, ta ibiltera juatia, inocenteen bat ezbada, pecatu mortala dala besteentzat. I. Plazaco dantceen contra esan dirian errazoiac gaiti. II. Erromedijeetaco piestaac vide luciagocuac dirialaco. Juan, edo etorri, ta ascotan juan, ta etorri gavaz eguiten dirialaco. III. Alaco erromedijeetaco dantzeetara, ta piestara genteric nasaijeena, ta galdubeena juan oidalaco. IV Guizonezcuac, ta emacumiac naaste lotsa bagaric, escandaluba emoten da-
108 or. veela, videetan bere irago oidirialaco. Au gaiti, plazaco dantza naastauba ocasinoe urrecua bada, esan dan leguez, erromedijeetacua deungaagua[320] da. Inoc eguingo baleu[321] promesa ez jaquinian, erromedija egunian santuba, edo santia visiteeco, uste dot, egun atan, esan dan moduco piesta, ta dantza nasaija an eguitia, asco dala, promesa beste egun bateraco isteeco, ocasinoera ez juatia gaiti. Erromedijara juanda, an ibilteco achequijatzat, eguin badau promesa, gazte ascoc, gurasuac engaineetaco, eguin oiditubeen leguez, uste dot, ezdala promes

---

[316] *Ervesteco:* hemen v grafemaz eta orri bertan b grafemaz beste perpausa batean («Ez da emen beste gauzarik aituten»).

[317] Erromedijaco: *ia*<*ija* errealizazioak adierazten du hitz honen amaierakoa «itsasia» dela. Bestalde r/d disimilapen ohizkoa aire/*aide,* usario/*usadio* gisakoa.

[318] *Eleiseetara:* hemen *z* ordezko *s* grafemak errealizazio bustia duela dirudi, hots, gaurko *x* (xamur, elexa) delakoarena.

[319] *Cegaiti:* dardarkariaren galketa, *inoc* 108, *cetan* 134, *ataco* 154 kasuetan bezala.

[320] *Deungaagua:* bokale bikoiztura hemen hitzaren amaierako *a* apofonikoa (deunge/*deungA*), konparatiboaren hasera markatzeko *(-agoa/agua).*

[321] *Eguingo baleu:* perpausa baldintzazkoa, perpausa nagusia (gure joskera endogenoan normala denez) bigarren postuan doalarik («uste dot, egun atan...»). Hitzaurrean esana dugunez, Pr. Bartolome-k, lexiko zabarrean ez-bezala, arreta berezia ipintzen du sintaxi-bideetan euskal joskera jator baten ildotan ibiltzeko. Joera horretatik «ezbada» delakoaz osaturiko perpausa adbertsatiboak salbuespen erromanizanteak.

valijocua, ta ezdaguala cobru emonquizunic[322]. Ezda Santuba, edo Santia ondreetan alaco piesta, ta dantzeetan, ezbada diabruba (1). Ezda emen ecer esaten, erromedija eguna domeequia[323], edo jaiosua[324] bada, egun à videetan, ta vertan guizon, ta emacume naaste dantzan chilibituen[325], pandereten, trompeen, edo nesqueen soinubagaz iragotia gaiti. Bada au, irugarren Aguindubarren contra berez pecatu mortala dana[326], edoceinec daqui, edo jaquin biar dau (2). *109 or.*

S. II.

## ¿Cer dirian Biguiraac?

Biguiraac dira beste olgueeta batzuc baseerri echeetan mutilac, eta nescaac gavaz eguiten ditubeenac. Olgueeta oneec guztiz dira ezainac, ta galdubac. Eguija da, ija[327] eeche[328] guichitan eguiten dira. Ta auzuac ondo derichuela[329], baten bere ez. Onetarico Biguiraac izaten dira Baseerrijeetan, edo ezpatetiaren, edo gorubetiaren, artozuritutiaren, edo gazteen aparimerijenda batan ondoric. Auzo eraco[330], ta urrinagoco nescaac, eta mutilac batuten dira Biguiria eguiten dan echera gavaz, ta naaste eguiten davee lotsa bagaric, naidaveen guztia. Ez oida ezcaratceo suba baino beste arguiric, ta bera bere ez beti ixiota. Gente guztia dago, edo davil nastian. Batian cam- *110 or.*

---

[322] *Emonquizunac:* -KIZUN atzizki bera *sinistuquizun* 104, *eguinkizunari* 20 kasuetan.

[323] *Domequia: domeca/demequea/domequia* kasu mugatuan. Etimologikoki, jakina denez, lat. domi(ni)cam-etik atzetonikaren erorketaz eta -i tonikaren irekieraz. Ikus gure *Latina eta erromanikoaren eragina euskaran,* op.c. 38-52-96 or.

[324] *Jaiosua:* sustantiboa eta epitetoa lotuta. Lotura hau ez da huan ohizkoa Pr. Bartolome-ren obra honetan.

[325] *Chilibituen:* silbo. Hitzaren etimologian, elemendu expresiboaz edo adierazleaz aparte, kontutan hartzekoa de lat. sibilare/*sibilatum* delakoa.

[326] *Dana:* konpletiboa -NA atzizkiaz *tesi* gisa (eta ez *hipotesi* gisa -(E)LA kasu gehienetan bezala).

[327] *Ija:* ya. Hitza hiru eratara ematen zaigu: *iija, ya* (1957) eta *ija* gisa.

[328] *Eeche:* inprenta-hutsa, ezen-eta bi lerro gorago *«echeetan»* agertzen zaigu.

[329] *Derichuela: eritzi* aditzaren forma trinkoa edo sintetikoa TZ taldearen bustiduraz, *lichaquio, dericho* kasutan bezala.

[330] *Auzo eraco:* lotuta behar luke, hots, *auzoeraco* gisa. -ERACO hori ez da -ERA deklinatiboa, atzizki abstraktua baino. Ikus, Azkue-rengan (Dicc.I,113). J.A.Mogelengan present dago hitz hau («Emendik ainbeste mesede auzoera guztiarentzat»). *Baserritar nequezaleentzaco escolia...* Vitoria 1845, 139-19.

(1) Illm. Valero Cart. Past. inot. II. n. 105... (2) S. Anton. P. 4. Q. II. a. 2. S. Carlos Borrom, de Choreis c. II. 12.

pora urten, bestian barrura sartu. Bestian ezcaratz baztar ba-
111 or. ten illunian; bestian dantzan, edo pandanguan, edo beste asmo chaarragoren bat eguiten. Biguireetan eguiten dira gauza batzuc ain loijac, eta desonestubac, eze[331], turcubac eurac bere lotsatuco litzatequez, icusico balitubee.

Umia nintzanian, Biguira baten edo bitan neuc icusi, ta entzun nituban ziquinquerijaac ez ezcaratz, baztar baten, edo apartian isilic, ezbada[332] oguetaz[333] lagun asco nesca, ta mutil egozan ezcaratz betian claru guztien aurrian, ezin esan legui, ce ezainac cirian. Ume condua nintzan, baina ondo daucat goguan, noc cer esan evan, ta cer eguin evan, ta celan guztiac olgueetan cirian. Ezdira bada predicadoreen pulpitoco esanagaz
112 or. inocenteen vegijac[334] arguituten; ezbada ceubeen echeetaco verba, ta eguiten deungueequin. Biguiriaren demporia da gava. Gavaz juan, gavaz ibili, ta gavaz etorri. Emacume ezconduric inos bere ez, edo chito nequez. Guizon ezconduric bere ez, berdescaren[335] batzuc ezbada. Mutilac, eta nescaac dira, illuna baino beste testiguric ezdauqueela, cein, baino, cein[336] nasaijago, to[337] lotsa galducuago, Biguiria eguiten daveenac. Biguiraan eguiten dira olgueeta modu asco dantziaz, ta pandanguaz ostian. Oneen icenac ondo daquijeez baseerritarrac, nic esan bagaric bere. Baina guztiac dira desonestubac, ta chito ezainac.

Biguiria gaiti esaten da bada: I. Bere echian Biguiria eguiten inori isteen deutsanac, eguiten davela pecatu mortala,
113 or. echian lecu emon deutseelaco. II. Besteen pecatubac bere echeco Burubaren conciencijara duazala. III. Biguiraan alan dantzan, pandanguan, ta asmo loijeetan dabiltzanac, eguiten daveela pecatu mortala. Ataraco gauzaac entzuteco, icusteco, eguiteco... ocasinoe aguirian, ta jaquinian eureen guraz sartu-

---

[331] *Eze:* adierazpenezko (explicativo) perpausa ala kausala irekitzen duen partikula erromanizantea. Hemen *erromanizantea* joskerari eta tankerari deitzen diogu (*eze* hori *es que, pues que* delakoen ordaina baita perpausaren muturrean), eta ez etimologiari.

[332] *Ezbada:* perpausa adbertsatiboa hasten duen ohizko partikula erromanizantea, joskerari dagokionez.

[333] *Oguetaz:* ol*guetaz* izan behar du.

[334] *Vegijac:* hemen *-gi* taldeari *-gui*-ren balioa ematen zaio; nolatan gehienetan *beguiac/veguijac* idazten duen, hemengo kasuak oharkabeki emandako grafia dirudi.

[335] *Berdescaren: verduzco,* bainan hemen *obsceno*-ren esanguraz. Ohar zaitez bai euskal formulan eta bai gaztelaniakoan, -SCA/XKA atzizki bat-bera present dagoela. Ikus gure *Origen y desarrollo de la sufijación euskérica,* op.c. 355 or.

[336] *Cein, baino cein...-ago:* konparatiboak, parekaketaren muturretan *mutilac eta nescaac* daudelarik.

[337] *To:* inprenta-hutsa, *ta* kopulatiboa izan behar duelarik.

ten dirialaco. Ta ezda asco esatia: guedil[338] nenguan lecuti artuta, dantzara biguiraan eruan nindubeen, emacume ascoc esan oidaveen leguez, eureen burubac garbituteco. Lotsa guichico mutil, edo guizon batec atera legui, colpez artuta, dantzara, edo pandangora biguiraan, bere lecuban gueldi daguan emacumia, edo nescatillia[339]. Baina, gura badau, laster librauco da naaste atati. Bada derrigorrian, ta berac nai ezdavela, ez dantzan, ta ez pandanguan eguingo dau inoc agaz[340]. Ona- *114 or.*
co achaquijaac ezdeutsaz inos sinistuten emacumiari, juicijua[341] daucanac. Eurac naidaveelaco, dira eureen dantzaac, ta pecatubac. ¿Ce guichi eguindo leuqueen alaco nescaac dantzan... Morrosco bategaz? ¿Cegaiti? Morroscuagaz olgau gura ezdaveelaco. Nai ezbalebee, bestec bere eraguingo ez leusquijue. IV. Alan Biguiraco olgueeta desonestuban daviltzanac, inoc absolvidu ezin leguiz, eguinac garbatu, ta ez eguiteco asmua, edo propposituba artu artian. Ta ain guichi, bere echian biguiria eguiten davena.

Ezpatetara, gorubetara, edo beste gau biar batera juatia, ta an, esandan moduban, biguiraan ibiltia, gauza bi dira. Bata emacume, ta nescatilla ondrau ascoc eguiten davee, bestia eguin bagaric. Ascoc auzo eraco artu emonai cobru emoten *115 or.*
deutsee, biguiraco naaste loiric eureen echeetan eguiten ichi bagaric; ta inoren echera duazanian eguin bagaric. Bestiac bere eguin leguijee, nai izan ezquero.

## S. III.

### ¿Saraubac cer dirian?

Sarauba, esatenda emen, dala, andi eche baten guizon, eta emacume naaste gavaz eguiten daveen dantzia, ta olgueetia, echeco, ta campoco, eureetarico edocein barruban sartuten diriala. Onetarico saraubac, eta Biguiraac alcarren lagunac dira.

---

338 *Guedil:* inprenta-okerra *gueldi* ezarri behar duelarik. Beherago «bero lecuban gueldi daguan emacumia» diotsa.

339 *Nescatillia:* -i bokalearen ondorengo bustidura gorde egiten da; bainan beste askotan (grafikoki, behintzat) ez, *-zalliac -zailiac* gisa emanez.

340 *Inoc agaz:* izenordeak ohizko dardarkariaren erorketa (inoRc), eta deklinatiboaren bakanketa. -AGAZ deklinatiboa (-GAITI ez bezala) gehienetan erroari lotuta (a*lcarreg*az 35, *ustiagaz* 5) joan ohi dela.

341 *Juicijua:* ioa < *iua* < *ijua ebanjelijua* 102, *concilijuac 175* bezala.

116 or. Biguirara auzo eracuac duazan leguez; saraura bere auzo eracuac duaz. Biguiria gavaz eguiten dan leguez, sarauba bere bai. Biguirara gaztiac duazan leguez gueijeenian; Saraura bere bai. Nequezarijeen sarauba da Biguiria. Ta andiquijeen Biguiria da Sarauba[342]. Icenac mudeetan dira. Olgueetia ta desonestidadia bijeetan davil airian. Ezdago Jaungoicuaren aurrian Donic, ez Doinaric[343], ezbada eguite onac, edo chaarrac. Baseerrico mutilac, eta nescaac eche baten sartuta, gavaz olgueeta loijeetan ibiltia pecatu bada; andi echeetaco Jaunac, eta Seinorac, Zaldunac, eta Damaac gavian alcarregana batuta, dantza, ta olgueeta nasaijeetan naaste ibiltia bere, pecatu
117 or. da. Itanduco baleustee: ¿Cein dirian chaarrago, Biguiria, ala Sarauba? Esango neuque: Biguiria zatarrago, ta itchusijago[344]; Baina sarauba chaarrago, ta gachtsubago[345], edo malecijotsubago. Biguiraan colpe baten emoten jacue veguijai, ta belaarrijai castidadiaren contraco lotsaari andijagua: Baina sarauban emoten jacue araguijari, ta luxurijari su gorijagua. Bijeetan: bai biguiraan, ta bai sarauban dauca luxurijac mai presta janari ugarijagaz. Baina sarauban obeto guisauba, ta gozuagua. Ta au errazoe asco gaiti.

I. Sarauco gentiaren jantzi armatuba gaiti. Bada gente apainduba, ta ondo baino obeto apainduba juatenda andiquijeen Biguirara. Ezdinot ecer, araco bularrac, idunac[346], ta besuac aguirijan, edo guztiz aguirijan baino, araguijaren sugarri-
118 or. jago, Andiquijeen Biguirara daruezan andra, edo nesca loijac gaiti. Ezbada dinot, Caballero, edo Zaldun, Señora, edo Dama, dana dala, juaten dala, ondo apainduta Biguirara. II. Andiquijeen aziera biguna, ta leuna gaiti. III. Eureen malecija aurreratuba, ta gacheraco jaquiturija goixtarra gaiti. IV. Eureen gorputz atseenac, ta guichi domaubac gaiti. V. Eureen

---

342 *Sarauba:* beraz, a*oa* < *aua* < *auBa* prozedura hiatoduna *wau* erdikontsonanteaz. Gaztelaniako *sarao*-tik sartua.

343 D*oinaric: doña*. Pr. Bartolome-k ez du gordetzen bustidura grafikorik, behintzat sudurkariaren kasuan (*seinoraac, seinalea, soinuba)*, bainan bai l-aren kasuan (-*zalliac, seinalleetan, illtzia)*.

344 I*tchusijago:* Pr. Bartolome-k hitz honetan (eta besteran baten kasuan) ezik ez darabil iparrekoan TCH talde grafematikoa txitxeakaria adierazteko. Inprenta-okerra izan daiteke.

345 *Gachtsubago:* lau kontsonanteen topaketa grafikoa. Kasu hau *gaiztsuago* idatziko genuke.

346 I*dunac:* cuello. Ikus Azkue (Dicc. I,392). J.A. Mogel-en obran ere azaltzen da hitz hau. I*duneko* collar bizkaieran. Añibarro-rengan i*dun-azur* nuca.

Ez dago esan beharrik, Pr. Bartolome-ren mintzoa, kasu hauetan, aski errealista gertatzen dela (*gordin*a ere esanen genuke, nolabait) batez ere garaiko giroa ikusirik. Gure autoreak, noski, ez darabil mintzo hori nagikeria sentsuala sortzeko, erasotzeko baino.

Biguireetaco musica, ta canta indecente, ta odolberozailiac gaiti, ceintzuc dirian luxurijaren azoguia, ta araguijaren sugarria. Saraubari darraicozan condecinoe oneec, airian darabilee olgueeta galdu areetan luxurijaren suba, ta desonestidadia. Ta oraindino gueijago, Tertulianoc dinuan leguez (1), eureen Sa- *119 or.*
raubetaco luxurija inos[347] oztu ezdaquijuen, neguban bere jantzita euquiten ditubee Andiquijac eureen Biguira, edo Saraulecubac. Bada, baseerrijeetaco Biguiraac badira pecatu moralecuac, esandirian errazoiac gaiti. Andiecheetaco[348] Saraubac malecija gueijago, luxurija sutsubago, ta pecatu gueijago dauqueenac, dira. Alan: pecatu mortala da, esandan leguez, Sarauba eguiteco, salia, edo echia gentiari emotia. Pecatu mortaleraco vidia inori emoten jacolaco. Pecatu mortaleco ocasinoe urrecua da alaco sarauco dantza nastia, ta olgueeta indecentia. Baita, bere naiz alaco dantza naastau loijan ibiltia bere. Ta, eguina garbatuta, ostera ez eguiteco, asmua artu artian, ez Caballeruac, ez Seinoraac, ez Zaldunac, ez Damaac ez- *120 or.*
dagoz prest compeseetaco; ezin inoc absolvidu leguiz. Iracurri bedi[349], erraza da ta, leen izentau dan Aita Cadizen carta juicijozcua. Noverac[350] obeto ezbadaqui, an icusico dau: cer dirian Saraubac, ta Saraudunac.

Emeti[351] ateraten dan contuba, da plazaco naasteco, Erromedijetaco, Biguireetaco, ta saraubeetaco, esan dirian, dantzai jarraitutia, pecatu mortala, edo illgarrija dala. Onen errazoia da, esan dirian olgueetaac, pecatu mortaleco ocasino urrecuac izatia. Plazaco, erromedijaco, biguiraco, ta sarauco dantzaan, guizon, ta emacume naaste eguiten danian, beti dagoz verba loijac, escuca desonestubac, eguitade torpiac, menio lotsarizuac, ta luxurijaren azalqueria zainac. Onaco Eleisa Ama San- *121 or.*
tiac pecatu mortalzat[352] eracusita daucazan gauza desonestubac, edo castidadiaren contracuac, esan, entzun, icusi, ta, edo noberari, edo albocuari, naidavela, edo nai ezdavela, eguiten sentidu bagaric, ez da olgueeta impernuco areetati echian

---

[347] *Andiecheetaco*: hemen *andi* (konposakeraren lehen partean dagoelarik) eginkizun sustantibalez dago, eta semantikaz goiko «andiquijac» izenarekin harremanetan.

[348] *Inos:* ikus *nosic* 129, *inos* 153.

[349] *Irakurri bedii:* bestetan bezala aditzak ez du galtzen partizipioa, nahiz-eta aginkeran egon.

[350] *Noverac:* beste gehienetan b grafemaz. Hurrengo orrian (121) *noberari.*

[351] *Emeti:* bizkaiera nagusian bezala, sudurkariaren itzalketa eta -TIK deklinatiboaren azken kontsonantearen erorketa.

[352] Mortaltzat: -TZAT prolatiboa frikazioz. Ez beti, ordea, *onzat* 8, *conciencijaac* 181-82, *eranzungo* 105 kasutan bezala.

(1) Apolog. c. 16.

sartuten inor amarreti irutan: Begaz[353] Plazaco, erromedijaco, biguiraco, ta Sarauco dantza naastaubac, castidadiaren contraco pecatu mortala dirian gauza desonestubac, esateco, entzuteco, ta sentiduteco ocasinoe urrecuac dira. Pecatu mortalaren beian[354] eragotzita dagozan castidadiaren contraco gauzaac, esateco, edo eguiteco, edo entzuteco, edo eraguiteco ocasinoe urrecora bere guraz juatia, olgueetia gaiti, ta gorpu-
*122 or.* tzari gusto emotia gaiti beste premina[355], edo necesidade[356] andiren bat bagaric; beti da pecatu mortala. Begaz esandan dantza loi, ta naastaubetara, premina andi bat bagaric eureen gustoz olgueetia gaiti duazanac, eguiten davee pecatu mortala. Bitati bat. Edo esan: noberaren naizco, ta vorondatezco escuca, mosuca, oratute, ta verba desonestubac mutil, ta nesca, zaar, ta gazteen artian eguitia, edo eguiten istia, ezdala pecatu mortala. Edo autortu; icentau dirian olgueeta desonestubeetara bere guraz premina bagaric juatia, pecatu mortala dala. Leleengua esaten ezda cristinauric azartuten. Bada sinistu bigarrena. Ta euqui plazaco, Erromedijaco, Biguiraco, ta Sarauco
*123 or.* dantza desonestu orreec pecatu mortaltzat, edo pecatu mortaleco ocasinoe urrecotzat.

Esandan ibilteetara, olgueetia gaiti, gorputzari gusto emotia gaiti, duazanac, nai davee pecatuco ocasinoe urrecua: Pecatuco ocasinoe urrecua nai davenac, nai dau pecatu peligruba: Pecatu peligruba nai davenac, nai dau pecatuba: Pecatuba nai davenac, ez dauca pecatubaren gorrotoric, ez damuric: Pecatubaren gorrotoric, ez damuric: Pecatubaren gorrotoric, eta damuric ezdaucana, inoc pecatuti absolvidu, edo librau ezin legui. Begaz esandan plazaco, erromedijaco, biguiraco, ta sarauco dantzeetara, ta olgueeta loijeetara eureen gustoz, ibiltia gaiti, olgueetia gaiti, ta gorputzari gusto emotia gaiti, jaquinaz duazanac, leen juana garbatu, ta ostera ez juateco verbia emon
*124 or.* artian, inoc pecatuti ascatu, edo absolvidu ezin leguiz.

Zurtu compesore jaunac, ta contu, ceubeen[357] arimac, ta dantzarijeenac impernura eruan ezdaguizuzan. Errazoe onec, ustedot, ezdauca uts uneric Evangelijo Santuco eracutsijan.

---

[353] *Begaz*: *beraz, r/g disimilapenaz.*

[354] *Beian*: formula hau etimologikoa da, noski, *behe* hitzetik datorrelako. Formula gortua (*pean*), seguraski, frikari ondorengo errealizazio fonetikoetatik dator, fosilizazio bidez.

[355] *Premina:* adierazitako sudurkariaren luzapen ez-etimologikoa, *ximino, mamiña, lamiña* kasutan bezala.

[356] *Edo... edo..: disiuntiboak («Edo eguiteco, edo entzuteco, edo eraguiteco..., edo necesidade andiren bat bagaric»), perpausa nagusia* «beti da pecatu mortala» delarik.

[357] *Ceubeen:zeuen*, ohizko *wau* erdikontsonanteaz

Esan dot[358] leen: *amarreti iru bidar* ezdiriala echian sartuten, pecatu mortala dan gauza ezainen bat irago bagaric, ene errazoia proveetaco, asco dalaco. Baina oidanez, ta izan leitequianez, (itsubac, ta gorrac ezbadira) juaten dirian bacochian, ez bein, ta birritan, ezbada zortzi, edo amar bidar bere jazoten jacuez, esan dirian desonestidadiac, ta pecatubac. Ta au eurac autor davee, juicijo onera elduten dirianian, edo Jaungoicuac vijotzian icututen deutseenian, ondo compeseetaco[359]. Erra- *125 or.*
zoe onen errespuestaric ezin topau izan dot nic, neure conciencijaren deijac ixilduteco, sarri gura izan arren. Icusidot, eldunasan Euscal errijeetan, ta ez guchitan, gogo bat, nasaitasun bat, ta ezdaquit celaco empeinu[360] bat, esan dirian olgueeta lotsarizcuetan, ta pecatuzcuetan, cristinaubac piesta eguneetan, ta gauric gueijeenian ibilteco, ta daviltzala chito ezain. Neure estadubaren cer eguin nausi-bategaz aaztu bagaric, ezin apartau izan nas[361], compesinoe asco entzuteti. Emen zan nire lana, ta conciencija isildu ezina. Nai neuquian[362], ta ascotan, (ta dinot[363] cerubaren aurrian) dantza-zaliac absolvidutia, ostera ez eguiteco verbia escatu, edo emon eraguin bagaric. Asi nintzan, dantza zaliac esamineetan, baita Eleisiaren Eracus- *126 or.*
laac, dantceen gainian cer dinuen iracurten bere. Ta ceinbat gueijago iracurrijago, ta ceinbat gueijago esaminaubago condecinoe, ta edade guztietaco persona dantzazaliac; aimbat[364] topau dot ezainago, itchusijago, ta desonestubago dala, liburubac esaten daveena baino, naasteco dantzetan eguiten dana.

---

[358] Es*an dot:* perpausa nagusiak kera sententziala duenean, oso maiz, lehen postua darama menpeko perpausa ondoren datorrelarik, adibidez, kasu honetan bezela; zergatikoa edo kausala «ene arrazoia proveetaco, asco dalaco» da.

[359] C*ompeseetaco:* bizkaieraren joera nagusiaz -ETACO deklinatiboa -T(Z)EKO-aren ordez, kon*fesATZEN* delakoari c*ompeseETAN* dagokion bezala.

[360] *Empeinu:* Pr. Bartolome-k sudurkari bustia (ñ) desegiten du *-in* soluzioa emanaz (berdin s*einoraac,* s*einalleeta*n, etab.) Bustidurak, nonbait, arruntetzat dauzka.

[361] *Nas:* bide berdinetik, aurre diptongoaren ezkutapenaz, n*osbait* 16, n*os edo nos* 36, *inos* 129, n*asalaco* 177, n*asaneco* 163 kasuetan.

[362] N*ai neuquian:* aditz honek, zeharka, Pr. Bartolome-k bide t*utiorist*a (eta ez probabilista eta zabalagoa) hartzen duela adierazten du, jardunbide gisa, dantzaren arloan. Beraz, aitorketak edo konfesioak entzutekoan autoreak esaten digu absoluzioa eman nahi izan duela kasu batzutan, bainan kontzientziak ez diola utzi hori egiten, baldintza guztiak (vi*a tutio*r, beraz) horretarako ematen etzirelako.

[363] T*a dinot:* perpausa tartekatu hau, noski, koordinazioan dago bere tokian emango den perpausa bereziarekin.

[364] C*einbat... aimbat:* Konparatiboen muturrak: («Ta ceinbat gueijago..., ta edade guztietaco...; aimbat topatu dot ezainago»). Lehenengo kasuan, grafiaren aldetik, NB, bigarrenean, berriz, MB. Gehienetan MB dator, hainbestetan ikusi dugunez.

Sinistuten dot, olgueeta madaricatu orreequin daucala[365] satanasac itsututa Euscalerrijetaco genteric gueijeena. Sinistuten dot, Erri oneetan condeneetan dirianeetati, gueijeenac condeneetan diriala, olgueeta pecatuzco orrec diriala medijo.

Cerbait gaiti eracutsi eveen Alexandro Alex, jaquitun andi-
127 or. jac, ta Guilermo Rodonacuac, (ta decarreez San Carlos Milan-
guac (1), Lametec (2), ta beste ascoc) batac emacumia, ta bes-
tiac guizonezcua exemplutzat artuta, dotrina bat, dantza zale
gustiac goguan euqui daiqueena, eureen arimai ondo gura ba-
deutsee. Itandu jacuen jaquitun andi arei: ¿ia emacume bat,
edo guizonezco bat goguaz contrara, juan baino, ez juan naija-
go leuquiala, gurasuac, edo errespetozco personaren batec
erregututen deutsalaco, nos, edo noscoren baten, banacaren
baten naasteco dantzara juaten danac, ta dantzaan aimbat
128 or. onestidaderic oneenagaz davilenac, eguiten daven pecatu mor-
tala, ala veniala? Au itandu jacuen jaquitun Andi arei[366]. Ta
erantzun eveen: Ez ziriala[367] eurac azartuten erabaguiten, ez
pecatu mortala eguiten eveela; ta ezda eguiten ez eveela bere.
Descuidoco baten baino ezdalaco, dantziari gorroto deutsala,
ta goguaz contrara dalaco, ta aimbat moduric oneenagaz ibili
dalaco, esan legui, dinuee, ezdavela pecatu mortalic eguin alan
naasteco dantzara juan dan guizonac, edo emacumiac. Baina
*besteequin naasteco dantzaan sartu dalaco, ocasinoian*[368] *bere
buruba*[369] *imini davelaco, besteen dantzia bera sartubagaz on-
tzat emondavelaco, ta bera dala medijo, bestiac pecatu eguin
euqueelaco, ez dot pecatu mortaleti libreetan alaco emacumia,*
129 or. dino Alexandro Alexec. *Ta ezda guizona bere,* dino Guillermo
Rodonacuac.

Nequezco baten, edo nosic beinaco descuidoren baten *(raro)* goguaz contrara edocein naasteco[370] dantzatan sartuta, aimbat moduric oneenagaz ibilidan guizona, nai emacumia, libreetan ezbadavee pecatu mortaleti, Icentau dirian Eracusla pamaubac[371], ta beste ascoc: ¿Celan librauco ditubee,

---

[365] *Daucala:* -LA konpletiba h*ipotesi* gisa emana. Perpausa nagusia: «Sinistuten dot...»

[366] *Arei:* haiei, 3gn. pertsonako erakuslea datiboan.

[367] *Ez ziriala... ez:* e*zezkoaz* hasiriko perpausa konpletiboak -LA atzizkiaz) («Ez ziriala eurac..., ez pecatu mortala..., ta ezda eguiten»).

[368] *Ocasinoian:* ikus ere o*casinoe* 43, 45 eta 89 orrietan.

[369] *Buruba:* baita m*unduba* 142, ar*gumentubac* 132, ca*pituluba* 165.

[370] *Naasteco:* kasu honetan *a* bikoitza etimologikoa da, aspaldiko aspiratua erorita dagoelarik, alegia, n*ahasteko*.

[371] *Pamaubac:* f/p aldaketa ezpainkarian, eta, bestalde, wau erdikontsonantea. Ikus: im*pamen* 78, *impametaraco* 201, i*mpame* 154, i*mpamiare*n 146.

(1) Opusc. de Choreis c. 16. (2) Dicc. u. Chor. cas. unico.

plazaco, erromedijaco, biguiraco, ta sarauco dantza desonestura eureen guraz, poz arren armatuta, aguineetati ura darijuela, duazan guizonac, eta emacumiac? ¿Mutilac, eta Nescaac? Ecelan[372] bere ez. Inundi bere ez. Inoc bere ez. Dantza areec, ta olgueeta areec cer dirian daquijanec, inos bere ez.

Ezda naasteco dantza areetan pecatu bat bacarric eguiten. Ezbada[373] asco escandaluco malecijagaz. Erijotzaco ordu ar- *130 or.*
tian ezdozu jaquingo, zu ibili zarian dantza, ta piesta oreetan, zu zariala medijo, bestiac ceimbat pecatu mortal eguin dituben, zuc igarri ez arren, ta aintzat euqui ez arren. ¿Cer desiau dozu ceuc? ¿Cer pensau dozu? ¿Cer amau[374] dozu? ¿Cergaz vijotza poztuta, barre eguinda, gozatu dozu? ¿Cer consentidu dozu, ta eguindozu sarritan dantza, ta olgueeta galdu orreetan[375], bestiai entzunda, ta icusita? ¿Esan deutsezu bestiai, ceimbat pensamentu, gurari, ta desio pecatuzcori lecu emon deutsazun vijotzian, inoren eguinac icusita, ta esanac entzunda? ¿Conteetan deutsazuz inori, dantza orreetan, biguira orreetan, Sarau orreetan... eraguin deutsubeezan pecatubac? *131 or.*
Bada zu zariala medijo, bestiac eguin ditubeenac bere, zuc ezdituzu jaquingo erijotzaco[376] ordu artian. Orduban bai. Orduban jaquingo dozu, ciembat[377] pecatu, ta ceintzuc eguin citubeen piesta, erromedija, biguira, ta sarau orreetan[378], zuri icusita, zuri entzunda, zuc ataraco vidia, ta escandaluba emonda. Orduban, erijotza erremedijo bagacuan jaquingo dozu, ceimbat arima diabrubaren sareperatu[379] dituzun ceure dantza loijeetaco ibiltiagaz. Auda, zuc dantzara juanda, emondozun escandaluba. Onan galdu dituzu laguneen arimac. Au daquizula juan zara. Premina bagaric juan zara Olgueetia gaiti, ta ceure gorputzari gusto emotia gaiti, juan zara. Bada besteen pecatubetan bere parte zara. Au gaiti beste bagaric, dino San *132 or.*

---

[372] E*celan: inolan, cer* izenordetik abiatuta.

[373] E*zbada asco:* ohizkoa duenez, joskera arromanikoaz hasiriko perpausa adbertsatiboa, hau da, *goitik beherako* sintaxia duen adbertsatiboa.

[374] *Amau:* maitatu.

[375] Or*reetan:* 2-gn. pertsonako erakuslea inexiboan. Beherago: «Dantza orretan, biguira orreetan, Sarau orreetan».

[376] E*rijotzaco: io*<ijo luxurijotsu, 193 c*oncilijua* 175, e*guijozu* 5.

[377] *Ciemba*t: metatesi bokaliko hau ez da inprenta-hutsa baino.

[378] *Orreetan:* argitaratutako edizioan lerro-amaieran banaketa *or-rreetan* gisa. Honelako etenketa desegoki aunitz liburuaren zehar d*antz-za* 127, o*r-reec* 126, *deut-s*ee 115, *ur-recua*c 102, *er-rijetan* 102, *deut-seezan*a 100, l*ot-sarizcuaz* 100, *vijot-zian* 98 kasuetan.

[379] S*areperat*u: saretan nahastu, -*pe* eta -r*atu* atzizkiez.

Carlos, Milango[380] Obispo Juanac[381] (1) Santo Tomas, ta beste Eracuslaquin, pecatu mortala eguiten daveela, alaco dantceetara duazanac. Esan daigun bada ostera bere Santu Andijagaz beragaz: *Ezgaizala inoc euqui estutzat, olgueeta madaricatu orreec pecatu mortalecotzat condeneetan ditugunian,* edo Benedicto XIV: *Pecatuba, libertadia, ta nasaitasuna nai daveen desdichaubac verba eguiten daveela, naasteco dantceen pavore*[382]. Ta icuci daigun, ce indar dauqueen dantza zaleen urteneraac[383], edo argumentubac.

---

[380] *Milango Obispo:* Euskaraz jatorragoa *determinatu determinatzaile* eskema. Beste askotan, ordea, erromantzeetako *determinatzaile determinatu* eskema darabil. Adibidez: «Ta *ezda guizona bere:* dino Guillermo Rodonacuac» 129, «Ta Guillermo Rodonacuac, (Ta dacarreez San Carlos Milanguac» 126-27).

[381] *Juanac: jaunak.* Metatesi hori, seguraski, ez da inprenta-hutsa baino.

[382] *Pavore: fabore,* ezpainkarien aldaketa ohizkoaz.

[383] *Urteneraac:* bokale bikoiztura, sujetu ergatiboaren markaz. Hitz honen atzizkia batzutan bakanduta doa (*urten* erac 91), bainan baita lotuta (*urteeria* 185, *urteneria* 71).

(1) Ubi supra c. 7.

## V. CAPITULUBA

### **Dantceen pavoreco errazoiac, ta erantzunac** *133 or.*

S. I. Dantzaac ain deungaac balira, quendu eguingo litzaatequez.

S. II. Santo Tomasec dino: Dantzan eguitia ezdala pecatu.

S. III. San Prancisco Salesec Philoteari ez eutsan guztiz eragotzi dantzan eguitia.

S. IV. Abadiac, ta Praiñac bere juaten dira piesteetara, ta Saraubetan dantzan bere eguiten davee butzuc. Ain chaarrac balira, ez leuquee eguingo.

S. V. Piestatara, ta dantceetara juan arren, ez dot nic pecaturic eguiten.

S. VI. Dantceetan ez, ece Eleisaan[384] bere pecatu eguin legui, nai davenac. Ara bere ez juan. *134 or.*

S. VII. Gaztiac cetan, edo atan[385] olgau biar[386] davee.

S. VIII. Obada alcarregaz plazaan, edo biguiraan, edo Sarauban olgueetia, ezcutubeetan gauza chaarraguac eguitia baino.

---

[384] E*ce Eleisaan:* perpausa adbertsatiboa aurretiko ezezkoarekin harremanetan («Dantceetan ez...»). E*leisaan* hitzean bikoiztura bokalikoa inexibo mugatuaren markaz.

[385] *etan... atan*: perpausa disiuntibaren elemendu banatzailea, fonetikoki dardarkaria erori zaioalarik.

[386] *Biar: behar, ea* < *ia prozedura bokalikoaz libertadi*a 132, *senidiac* 144, *ciriala* 153 kasuak bezala.

## S. I.

### Dantzaac ain deungaac[387] balira, quendu eguingo litzatequez

Ezda heregeric aguertu mundura, eguijaren coloriagaz bere
guzurrac jantzita, inocente ez jaquin asco engaineetaco, asmua
135 or. artu ez davenic. Beste aimbeste jazoten da cristinaubeen[388] ar-
teco ecandu pecatuzco, ta oitura galdu ascogaz. Ta au berau,
orain aita dogun sailaren gainian. Asco dagoz munduban,
dantceetaco nasaitasuna, libertadia, ta luxurija zaintu, ta jaso
gura daveenac, diabrubeen irabatzija[389] guichitu ez dedin. Au
jadijsteco[390], guzurrai emoten deutsee eguiijaren coloria. Bur-
la eguiten deutsee pulpitoco Evengelijoco esanai. Trateetan di-
tubee simpletzat Compesoreric eldubeenac. Conteetan ditubee
chochaquerijazat pecatu mortal aguirijac. Pinteetan ditubee
milla guzur, ta ipoin[391] naastaugaz, Santubac, ta Santaac
icentauta, castidadia aaztu eraguiten daveen, ta pecatuz josita
dagotzan,
136 or. olgueeta zorigaistocuac, biarrecuac, inocentiac, ta onac balita
leguez. Ta engaineetan davee, oneraco baino, gacheraco pres-
taago daguan, gente guichi jaquin guztia condeneetaco bidera.
Onec badira Peluca dunac, edo Coroe dunac[392]. ¡Oh! Ce pre-
dicadoriac diabrubarentzat. Ezdira eureen sermoiac irabatzi
guichigaz gueratuco. Ara emen aitatuta, ecandu, ta oitura gal-
du asco beti oinian euquiteco sustraija. *Qui habet aures audien-*

---

[387] D*eungaac:* mugatu pluralaaren marka, bokale bikoiztura.

[388] C*ristinaubeen:* bokale bikoizturak genitibo pluralearen marka adierazteko.

[389] *Irabatzija:* v*itzija*-ren kasuan bezala, frikazio bitxia.

[390] J*aditsteco:* etimologismo fonetikoa, ja*disteco* behar luke.

[391] *Ipoin:* ipuin *ui* diptongapenaren irekieraz.

[392] C*oroe dunac: coroe* hitzak -OE atzizki arkaikoa e*rrazoe, doe* gisakoa. Ala ere, hitz honetan formula jatorrizkoa -a da (koroa), lat. *coronam*. Bestalde, d*unac* (aditz erlatiboduna) hemen ez dago f*edeedunac,* e*uskaldunac, jakitunak atzizkiaren erara erabilita. -DUN atzizkiak, bada, erlatiboaren marka (-N) itsasita dauka. Pr. Bartolome-k jaquitunen* 138 or.

*di, audiat.* Emen imini ditudan, ta esaminau[393] gura ditudan dantza zaleen argumentubac, neuri ascotan, ta chito sarritan guizonac, eta emacumiac, zaarrac, eta gaztiac, ta arretati asco, salbeetaco duina[394] dotrina ezdaquijenac, compesonarijuan iminijac dira. Oneetati leleengo argumentuba, edo urten eria
da[395], esatia: Dantzaac ain deungaac balira, quendu eguingo *137 or.*
lituqueez guztiz: Ezdira guztiz quenduten: Begaz ezdira deungaac, edo pecatuzcuac.

Esandan baisen pecatuzcuac izan arren, ez dira quenduten. Ta echuria daucanez, guztiz quenduco bere ezdira.

Au obeto aituteco, gogoratu biardogu naasteco dantceen asi eria, ta celan cristinau errijeetara etorri zirian. San Ciprianoc (1), ta San Isidoroc (2) esaten davee: Guizonac, eta emacumiac engaineetaco, bere sarian sartuteco, ta impernura eruate-
co, demoniuac asmau citubala dantzaac. San Ambrosioc dino *138 or.*
(I): Munduco jaquitunen erichijan[396] ordiquerijac, ta zoraquerijac ecarri ditubala dantzaac. Beste batzuc (3) seinalleetan deutsee dantzai erne lecuba. Ta esaten davee: Danen tribu, edo Castati datozala dantzaac. Oneec dinue: Danen castucuac[397] ziriala, araco, urragorrizco[398] idiscua emacumeen cirzilubaquin eguinda, Isrraeltarrai[399] mendijan Jaungoictzat[400] adorau eraguin eutseenac; ta Jaungoico eguijazcua ucatuta, dantzan eraguin eutseenac. Dan gaiti Espiritu Santubac esanda,
dauca: Suguia leguez, edo sierpia[401] leguez izango dala bere *139 or.*
castia. *Fiat Dan, sicut coluber in via, et sicut cerastes in semita.* Danen casta galdubari ezarri eutsan Jaungoicuac maldecinoia[402]: Suguiac leguez, edo sierpiac leguez, pausu eguiteco, ta ibilteco. Bada munduban bada guiza castaric, suguia leguez

---

[393] *Esaminau:* beste batzutan *x* grafemaz (examinetia, 44).

[394] *Duina:* dina. Gipuzkoan, batzutan, *-un* amaiera diptongatu ohi da, bigun/b*i*-*gUIN*, ordun/*ordUIN* kasuetan bezala.

[395] *Urten eria:* u*rteneria* -ERIA (-EREA) amaieraz. Beste batzutan -ERA darabil.

[396] E*richija*n: *eritzian*, ohizko bustiduraz *tz* taldean/(li*chaquio, dericho* gisakoetan bezala).

[397] Ca*stucuac:* c*astacuak*. Gorago, beraz, «edo Castati datozala».

[398] *Urragorrizco:* apofonia konposatuaren lehen osagaian, urre/*urrA (gorrizco)*

[399] *Isrraeltarrai:* Is*raelDarrei.*

[400] J*aungoictza*t: inprenta-hutsa (J*aungoicotzat)*

[401] S*ierpia:* *ie* diptongoaz p*rIEsa*, p*IEstia* hitzetan bezala. Alde honetatik bizkaieraren urradura fonetikoa (gaztelaniaren eraginagatik) hegoaldeko beste euskalkiena baino larriagoa da.

[402] M*aldecinoia:* -DE atzizkia, ordea, 35 orrian: «Mila maldecinoe ezarten jacoz errazoiagaz».

(1) In Epist. ad Donat. (2) Origin. 1. 18. cap. 50 (3) Lib. 3. de Virg. (4) Marchant. Ort. Past. 1. 3. Trat. 3. Lect. 10.

davilenic, dantzaarijac dira. Dantzaarijac davilz, suguia leguez, edo sierpia leguez, giraca, ta oquerca, buru zitala (Aurescuduna)[403] an sartu, ta emen atera, batian ezcutau, ta bestian aguertu, ain laster onduban, cein guerrijan daravilela. Dantziaren giraac bere guztiac dira ezquerreracuac, ceindan, pausu eguiteco, ta ibilteco, alde madaricatuba Escritura Saraduban. Danen casta gaistoti[404] datorrelaco, emoten jaco dantziari oneetaco verbeeta ascotan bere erico icena. Bada[405] Eusqueeraz, Erdeeraz, Prances, Italiano, Teutonico, ta beste
*140 or.* ascotan, dinueenez, *dantzia, dantza, danse, danser*... esaten jaco olgueeta indecente ari. Nai dala Danen casta galduta, nai dala demoninua, nai dala ordiquerija, nai dala zoraquerija, dantzaac asmau ditubana, Guraso ondraubac dagqueez dantzarijac.

¿Baina celan etorri dira cristinau errijeetara dantza madaricatu orreec?[406] ¿Celan? Etorri cirian bada Gentileetati cristinaubeetara. Ta guero gurasutati umeetara. Gauza jaquina da, gentilac edocein izate artuten eveena Jaungoicotzat. Ta emoten eutseezan Jaungoico paltsuai eureen icenac. Jaungoico paltso areec ondreetaco, eguiten zitubeen eureen egunetan piestaac, dantzaac, ta beste olgueeta itchusi lotsarizcuac, Jaun-
*141 or.* goicuaren Ciudadeco Liburuban San Agustinec dinuan leguez. Oneec dira, araco ardaozco[407]; odolezco, ta luxurija utsezco gentilen olgueeta loijac, ta guizatasunaren desondragarrijac, zeintzubetan guizonac, piestia eguiteco, pelietan cirian Artzaquin, Otsoaquin, ta Tigreequin, alcar ill artian.

Apostolu Santubac Evangelijua prediqueetara[408] zabaldu cirianian, Israaelgo, ta Judeaco Erreinu chiqui bijac ichita, beste mundu guztia zan gentileena. Olgueeta odoltsubaquin, luxurijotsubaquin, ta ardaotsubaquin[409] Jaungoico paltso

---

[403] *Aurescuduna:* au*rrescuduna* behar luke.

[404] *Gaistoti: gaiztoti.* Nahiz-eta, gehienetan, Pr. Bartolome-k z/s fonemak ongi samar bereizi, *gaitz* errotik datozenak *s* fonemaz (*gaistocuac*).

[405] *Bada... :* perpausa *adierazpenekoa* (explicativa), perpausa nagusia hondarrean duelarik («Esaten jaco olgueeta...»)

[406] *Orreec:* 2-gn. pertsonako erakuslea (h*oie*k)

[407] *Ardaozco:* bizkaierazko forma ohizkoa, eta *ardo* baino zaharragoa a*rdano*-aren sudurkariaren erorketaz. Horregatik konposakeran N-ren berragerpena *ardaNbera, ardaNdegi* kasuetan.

[408] *Prediqueetara: predikatzera,* bizkaierazko gerundiboa inesiboan doalarik.

[409] *Ardaotsubaquin:* -TSU atzizkia s*utsubeenian* 181, *asmotsubac* 198, o*doltsubaquin* 141 kasuetan bezala.

asco, Marte, Jupiter, Baco, Venus, ta beste milla gauza loi Jaungoicotzat adoreetan citubeenena. Marte guerraguina[410] ondreetaco: guizonac pelietan cirian alcar ill[411] artian ezpata- *142 or.* ca alcarregaz; edo otsuaquin, ta artzaquin, batzubac ill artian. Baco ardao guina[412] ondreetaco: guizonac, eta emacumiac maats mordotz, ta pampanuz jantzita, ordituta ibilten cirian dantzan naaste plazaric plaza, caleric cale. Venus loija ondreetaco. Guizon, ta emacume ordituta, biloxic[413] ibilten cirian naaste, guztien aguirijan dantzan, ta edocein gauza loi eguiten. Ta onan[414] beste Jaungoico paltso eguneetan. Au zan gentileen sinistutia, ta erliginoia. Onan topau eveen Apostolu Santubac munduba.

Apostulubac, gentil asco viurtu, edo écarri arren Evangelijoco sinistute, ta legue garbira, ta zucenera, gueratuten cirian cristinau barrijac getileen artian. Esateco moduban: Erri baten *143 or.* beegozan berreun, edo irureun cristsnau barri; beste bost eun, edo seireun gentilac cirian. Evangelijo Santura viurtu ez cirianac. Ereen Jaungoico paltso eguneetan, leenago leguez, olgueeta ardaotsubac, loijac, ta odoltsubac euqueezanac. Au eracusten deuscubee mundu guztico jazuac. Ta au berau iracurten dogu gueure Españacuetan. Evangelijo Santubac, ta Eleisa Ama Santiaren Ordenaac eragozten eutseen cristinau barrijai, gentileen diversinoetara juatia. Ta aguindu eutseen devocinoe Santu bategaz, ta espiritu egijazcuagaz ondrau eguijeezala Jesucristo, gueure Jaunaren, Apostolu Santubeen, ta Martirijeen egunac, Cerubari gracijac emonagaz, ta caridadez- *144 or.* co, ta onestidadezco alegrija santa bategaz, gentileen itsutasuneetati, ta pecatubeetati Jesucristoc librau zitubaco[415]. Au onan Eleisiac aguinduta, egon arren; Cristinau barri guztiac ez cirian Santubac. Gusteetan jacuezan sabelaren, ta araguijaren eraco olgueetac. Ta icusteen citubeen leguez Cristinaubarrijac, eureen senidiac, auzuac, ta erritar gentilac Jaungoico paltso

---

410 *Guerraguina:* *-GIN atzizkia legueguinac* 151, *guerrateguina* 86, *gaisquinac* 199 gisa.

411 *Ill:* bokalearen ondorengo bustidura. Sudurkariaren kasuan, ordea, ez da gertatzen, normalki, horrelakorik (*baino, baina, seinoraac,* etab.).

412 A*rdao guina:* atzizki bakandua, e*san era* 90, *guerra guinac* 145, *urten eri*a 136 kasuetan bezala.

413 *Biloxic:* bi*lutsik*, bokalismo beranta edo irekia, agian, erromanikoko *velO* hitzaren eragina dagoelako.

414 *Onan:* «era honetara» (de esta forma), *alan* «era hartara».

415 *Zitaubaco:* inprenta-hutsa, -l*aco* kausala bere osotasunean falta zaiolarik (*zitubalaco* behar luke, beraz). Esan beharrik ez dago inprenta-okerrak originalean askoz gehiago direla. Guk bere hartan utzi ditugu aldaketarik gabe, aproposki. Bakar batzuk soilik aditzera eraman ditugu, nabari direnak ukitu gabe utziz.

eguneetan olgueetan nasai, eurac bere asi cirian, euren santu eguneetan Eleissan Santubac ondrauta, Eleisacua eguinda guero, plazaan gentileen olgueetac eguiten. Onaco gueure santu egunetaco olgueetac, gurasuetati umeetara, guiza alderic guiza aldira[416] eldu dira gueure demporaraguino[417]. Ara
145 or. emen gueure errijeetaco zeceneen[418], ezpata dantzeen, desapijozco burruqueen, maquilaqueen[419], ezpataqueen, comedijeen dantzeen, ta convidau teguijeen[420] sartu eria, edo etorri eria[421] cristandadera.

Au gati esaten deutsee Eleisiaren Gurasuac verbaoro gueure Errijeetaco Cecenai, dantzai, ta comedijai: Gentilidadiaren zatijac, reliquijac, edo ondoquinac, *Idolatrijac,* Jaungoicoucazalliac. Guerra guinac bere gueitu ditubee Comēdijan, dantzaac[422], ta olgueeta pecatuzcuac. Soldau aldraac sartuten cirian ezpata odoltsubaquin errijeetan, ta cirian leguez, gueijeenac gente guztiz nasaija, eureen gusto guztiac escatuten citubeen gau, ta egun. Areetati naijeen eveena zan Comedija, Sarauba, naasteco dantzia, ceindan luxurijaren Ama. Onan
146 or. etorri da, ta zabaldu da cristinau errijeetan, diabrubac gentileen artian erein evan azi impamiaren prutu madaricatuba dantza desonestu orreetan.

Icusi ezquero, ce asi era ondrauba dauqueen naasteco dantzaac, ta celan zabaldu dirian cristandadian, esan biar da: ¿Cegaiti quenduten ezdirian? Esaten da bada: I. Eleisiaren batzarrac, Eracusla Santubac, ta Cristandadeco Erregue Jaun ascoren (baita Gentileenac bere batzuc) ordenaac, eguin daveela aleguina, errijeetati dantza galdubac quenduteco. Iracurri bediz San Carlos, Milango Obispo Jauna, Francisco Geneto, Obispo Jauna, ta beste, casic edocein penseeta oneco Eracusla, ta eurac esango davee: ceimbat aleguin eguindan guiza aldi
147 or. guztietan, dantza naastaubac condeneetaco. II. Ez obispoc, ez Curac, ez Erreguec, ez Juecec ez deutsa inori aguinduten, ez

---

[416] *Guiza aldira*: hitza, normalki, konposatu gisa eman ohi da, hots, *gizaldi* gisa, bainan beste bi kasutan ere bakanduta gure autoreak. Aurretiko *guiza alderic,* agian, *guiza aldirik* da hurrengoarekin aposizioan. Horrela zentzu hobea dauka.

[417] *Demporaraguino:* hemen bi deklinatibo pilatuta, alegia, -RA eta -GUINO.

[418] *Zeceneen:* hemen z/c grafemak, bainan 145 orrian c/c (*cecenai*) logikoa.

[419] *Maquilaqueen*: -KA atzizki sustantibala genitiboan. Bide berdinetik *mosuca, escuca.*

[420] *Teguijeen:* atzizki bakandua *tokia* adierazteco. Lehen ikusia dugu *abade teguija* 169. Jatorriz atzizki hau, agian, *tech* zeltatik etorri da. Paratzizki gisa (*-aldi, -alde, -buru, -min*) hemen hitz bakana kontsidera daiteke.

[421] *Etorri eria: etorrera.* Eta lehentxeago *sartu eria* (*sarrera* ordez), partizipioaren erorketarik gabe aditzerroaren ondoren.

[422] *Dantzaac: a*-ren bikoiztura pluralea markatzeko soilik.

piestara Juateco[423], ez naasteco dantzaan sartuteco. Ez da inor carcelara eruaten, ez multeetan dantzan eguin ezdavelaco. Eleisiaren Burubac, ta Erregue Jaunac asco estimauco leuquee, cristinaubac Jaungoicuaren vildur santuba gaiti, ta egun aretaco castu alperricacuac gaiti, dantza orreetati, ta arimac galduteco piesta orreetati alde eguitia. III. Erregue Jaunac, ta Legueguinac ichi leguijue[424] (2) errijetaco gentiari, piestaac, ta dantzaac eguiten, pecatu diriana, eurac jaquin arren, eurac pecaturic eguin bagaric, dino[425] Santo Tomasec. (1). Gauza bat da, pecatu eguiteco aguindutia[426]; ta beste bat da, guztia erremedijan, ezin danian, pecatu eguiten istia. Pecatu eguiteco aguindutia, guztientzat, ta beti da pecatu. Pecatu eguiten istia, gueijago ezin danian, ezda pecatu. Munducuac ezin erremedijau leguijeez[427] pecatu guztiac. Orregaiti Erregue Jaunac, ta Legueguinac, daquijeela, pecatu ascori jazoten isteen deutsee (2). *148 or.*

Moisec emon eutseen libertadia Judegubai, leleengo emaztiari ichita, beste bategaz ezconduteco (3). Baita campotarrai logrerijan[428] aurraz cerbait presteetaco bere (4). Legueguinac parcatu leguijee, emacume galdubac eureen tratu chaarrian vitzi izateco eche jaquina, ta aguirija (5). Baita comedijac eguiteco licencia emon bere, opicijo impamia[429], ta pecatuzcua izan arren[430] (6). Alaco gauzaac pecatu diriana jaquin arren, jazoten isteen deutsee. Legueguinac, eurac pecatu eguin bagaric. *149 or.*

---

[423] *Juateco:* hizki txikiz behar luke, handiz idazteko arrazoinik ez dagoelako.

[424] *Leguijue:* esan beharrik ez dago *oa<ua<uba, iu<iie/ijue* prozedura hiatizanteak, izen arruntei ez-ezik, aditzei ere badagokiela. Ikus l*eguijee* 12, l*eusquijue* 114, *beguijue* 57 d*irurijeela* 65, d*aquijezan* 51, d*arijola* 66.

[425] *Dino Santo Tomasec:* beste askotan sententzia bat adierazi behar duenean aditza perspausa osoaren muturrean doa, *orain* honetan ez bezala; izan ere, perpausa s*ententzialeta*n euskarak ez du oztoporik perpausa nagusia menpekoaren a*urreti*k ezartzeko hegoaldeko autoreetan ere.

[426] *Agindutia:* ohizkoa duenez, partizipioa eusten du *agintzea* ordez, ja*rraitutia* 84, s*inistuten* 101, a*ituten* 106 hitzetan gisa.

[427] *Leguijeez*: *ie* taldearen hiatizapena *ije* bilakatuz. *Ie* goranzko diptongoa da.

[428] L*ogrerijan:* mailebu erromaniko beranta, hitz zaharra l*ukurreria* delarik lat. l*ucrum* -etik, u anaptiptikoaz eta herskari gorraren euspenaz.

[429] *Impamia:* MP taldea i*mpernu*, *compesore*, *impamia*c, *campotarrai* hitzetan bezala. Bestalde, ezpainkari leherkaria ohizkoa den gisa.

[430] *Izan arren:* perpausa kontzesiboa, perpausa nagusiak aditz-laguntzailea eliditua duelarik (alegia, emon l*eguijee)*

(1) De Regim. Princip. l. 4. c. 12. K2 (2) D. Tom. 22. Q. 78. A. I. (3) Deutor. 24. (4) Ibid. 23. (5) D. Tom. 22. q. 10. a. 11. (6) Decr. Phil. V. Arbiol. Estragos de la lujuria.

Baquijee cristandadeco Aguintari Jaunac, lecuban lecuban dagozana nasaijac, Jaungoicuaren bildur bagacuac, Ceruba gal-
*150 or.* dubac, edo irabatzijac penaric emoten ez deutseenac, odolaren, ta arguijaren artian loituta vitzi gura daveenac; ta asco izan arren ceruraco deitubac, guichiizango diriala ceruracuac.

Au berau jazoten da bada gueure errijeetaco piesta, ta dantza naastaubaquin. Ezdira quenduten: ta ezdira obaago, quenduten ezdirialaco. Ezpabere, esan eguidazu: ¿Noc guztiz quendu leguiz, edo quenduco ditu gueure placeetaco dantza lotsagarrijac? ¿Edo noc dauca obligacinoia quenduteco, ain chaarrac izan arren? Obispo Jaunac, Cura Jaunac, Predicadoriac, ta Compesoriac, ascoc aleguina eguindavee, ta eguiten davee quenduteco, baina ezin quendu ditubee. Erregue Jau-
*151 or.* nac, ta Legueguinac eracutsi davee eureen vorondatia (1), ta gueijago cereguin ezdauquee, Santo Tomasegaz esan dirian errazoiac gaiti. Urijeetaco Alcate Jaunac, ta Errijetaco Piel[431] Jaunac nai balebee bere, quendu ezin leguijeez, Urijac, edo errijac nai ezdavela, sarritan icusidogun leguez. ¿Noc ditu bada guztiz quendutecuac? ¿Nai dozu[432], Jaungoicua etorri daquizun dantza zale bacochari esatera: *dantza orreec pecatuzcuac diriala, ta ez juateco?* ¿Edo naidozu, Cerubac gorroto deutseen seinale batzuc emon daguizuzan? Iracurri eguizuz bada Benedicto XIV. Marcancio, Seineri, Looner, Valero, ta
*152 or.* beste edocein Eracusla, dantceen gainian pusca bat sustraiz verba eguiten daveenac. Areetan icusico dozu, ceimbat castigu icaragarri eguin dituban Cerubac guiza aldi ascotan, ta casic Erreinu guztietan, pecatuzco dantza, ta olgueeta madaricatu orretati cristinaubac aparteetaco. ¿Ta quendu ditu guztiz? Ez por cierto. Castigubaren trumoe aldija irago dedinian, nasaijac, ta desonestubac leengo pecatubeetara.

¿Noc ditu bada guztiz quendutecuac? Ciudadiac, Urijac, eta Errijac quendu leguijez eureen luurrecuac, gura balebee. Ezdau cristandadeco Legueguinec ez Uriric, ez Ciudaderic, ez Erriric castigueetan, bere luurreco dantza nastecuac quendu
*153 or.* ditubalaco. Erege batec, edo ateista batec castigau legui, Prancesac eguin daveen leguez. Baina ez parte oneco Aguintaric.

[431] *Piel:* Bizkaiko erakundetako pertsonaia berezia; gaztelaniaz *Fiel* deitzen zen.

[432] *Nai dozu:* kontakizunetan euskal joskerak, aunitzetan, perpausa nagusia (sententzialetan gisa) menpekoaren aurretik kokatzera joko du. Hurrengo perpausan ere nagusia aurretik («Edo naidozu...») eta menpekoa atzetik («Seinale batzuc emon daguizuzan»).

(1) Pontas. V. Saltatio.

Alan[433], errico gentiac gura balebee, quendu leguijeez guztiz eureen erricuac, eta luur barrucuac. Quendu biar ditubeen, edo, ez, eurac jaquingo davee. ¿Baina nos gura izandavee Uri bateco, edo Erri bateco auzo, edo vecino[434] guztiac, eureen errico dantza naastaubac, eta pecatuzcuac guztiz quendutia? Auzo batzuc beti. Beste batzuc inos[435] bere ez. Batzuc esaten badabee: ezdala eguin biar pecatuzco dantza, edo piesta nasairic; beste batzuc dinue: leen bere eguiten ciriala, ta orain bere eguin biar diriala. Jaguiten da auzi bat erricuen eureen artian. Juanen dira Juez nausijagua gana, ta esaten dau ac[436] errico baquia gaiti: Useetan dana, eguin dedilla. Ara emen, dantza *154 or.*
zaleen gau, ta egun piesta galduco, edo dantza nasaijeetaco, eurac esan oidaveen, libertadia, edo licencija. Sarritan au jazo da gueure errijeetan. Ta gueratu dira dantza desonestubac leengo tercijuan, Aguintarijac erruric ezdauqueela.

Emeti ezaututen da, cegaiti quenduten ezdirian naasteco dantzaac, pecatuzcuac izan arren. Deungaac dira, ta quenduten ezdira. Ta quendu ez arren, ezda pecatu chiquijagua, daquijala, dantza areetara juatia. Quendu ezac ezditu guichituten, ez chiquituten naaste impame ataco pecatubac.

Alperric ba bada esatia: *¿cetaco dantzaac guztiz quenduten ezdira, ain deungaac badira?* Ez dira quenduten, ta echuria *155 or.*
daucanez, quenduco bere ez dira guztiz. Ta orregaiti bapere obaac[437] ezdira. Beste, modu baten quendu leguiz guztiz. Ta chito errazto[438]. ¿Celan? *Juan ezagaz,* Inor juaten ezbada, quenduta dagoz. Ascorentzat quenduta dagoz. Bestiac bere juan ezagaz quendu leguijez. Ta au esaten jacue cristinaubai, eguin biar daveela, pecatu mortalaren beian[439].

---

433 *Alan:* h*arrela* (de aquella manera); *onan* h*onela*.

434 V*ecino:* baina ezaguna du Pr. Bartolome-k *auzo*, a*uzocua* hitza. Beherago «Auzo batzuc beti».

435 *Inos:* n*osbait* 16, *nos* 11 eta 67, *nos edo nos* 36.

436 *Ac: hark*, dardarkariaren erorketaz, *atan*. 12, *cegati* 106, n*oc* 65 kasutan bezala.

437 *Obaac*: apofonia hitzaren amaieran (hobE), bokale bikoizturak pluralea markatzen duelarik.

438 E*rrazto:* aurreko hitzean bezala, -TO atzizki modala. Ikus ere 155 eta 178 orriak.

439 B*eian: pean*. Berdin 46 eta 174 orrietan.

## S. II.

### Santo Tomasec dino: Dantzan eguitia berez ez dala pecatu

Bigarren lecuban Santo Tomas, Eleisiaren Eracusla Andia
dacarree[440] testigutzat dantzarijac, eureen olgueeta nasaijac
oinian euquiteco. Santu Gloriosua aotan artuta, coipaatu[441],
*156 or.* ta leundu gura lituquee dantza desonestubac, leen dirian baino
gueijago. Santo Tomasec, ta beste juicijua dauqueen guztiac,
esaten davee, dantzan eguitia berez pecatu ezdana. ¿Ta cer
daucagu onegaz? ¿Placeetaco, erromedijeetaco, biguireetaco,
ta Saraubeetaco dantza, leen icentaubac pecatu ezdiriala? Au
ez. Errezago da, Ceruba luurragaz batuten, oneec bijot bat
eguiten baino. Santo Tomasec dino: (1) canta onestubagaz,
soinu onestubagaz, ta eguitade indecente bagaric, ta beste
onestidadia ezaindu leguijan gauza bagaric; persona eldubac,
*157 or.* ta modestijazcuac aparteco motivo andi bategaz, dantzan
eguitia, ezdala pecatu. Baina sartuten bada, edo naasteetan
bada indecencijazco gauzaric danzaan, gauza jaquina dala, pe-
catu dana. Au, ta gueijago escatuten dau Santubac, dantzia
pecatu ez izateco, *et si quae hujus modi* esanagaz. Beguiratu be-
quijo[442] bada verbeeta oni, ta orraco placeetaco, erromedijee-
taco, biguireetaco, ta saraubeetaco dantza ederroi bere bai le-
leengoti azquenera. Ta betor nai davena; ya[443] alcarregaz bat
eguin aldaguizan, icusten[444]. Bat eguin albadiz Cristo, ta dia-
bruba, gracija, ta pecatuba, gava, ta eguna, onestidadia, ta de-
sonestidadia, castidadia, ta luxurija: Santo Tomasen esana
*158 or.* bere bat eguingo dau, esan dirian dantceequin[445]. Dantzan

---

[440] *Dacarree:* *ekarri*-ren formula trinkoa, indikatiboko 3gn. pertsonan.

[441] *Coipaatu:* partizipio aurretiko apofonia *coipE* hitzak. Apofonia hori, ordea, ohizko partizipio aurretiko aldaketaz aparte, hitzaren amaiera absolutuan ere ematen da bizkaieraz, *obA*, *labA*, *bagoA*, *andrA* kasuetan bezala.

[442] *Beguiratu beguijo:* aginkeran aditz-partizipioa galtzen ez duelarik. Bastalde, *io* < *ijo* prozedura te*rtcijo*, o*picijo* hitzetan bezala.

[443] *Ya:* 49 orrian *ija* gisa («I*ja puscabat ardauac alegueratuta*»)

[444] I*custen: betor* aditzak helburuzko-ERA eskatzen du hobeto (T*a betor... icustera*). Ala ere, gerundio hori ez dago gaizki kokatuta zentzu faktiko baten esanahia adierazteko.

[445] D*antceequin:* ortografiaren aldetik beste gehienetan *tz* hemengo *tc*-ren ordez. («Daquijala, dantza areetara juatia», «Ta saraubeetaco dantza ederroi bere bai leleengoti azquenera»).

(1) In Isai. c. 3.

eguitia berez pecatu ezda; baina eguiten dan, ta useetandan moduban eguitia, pecatu mortaleco ocasinoe[446] urrecua da. Orregaiti Santo Tomasec esatendau ainbeste lecutan, ta beti: alaco ocasinoera juatia pecatu dala[447] (2). Dantzia pecatu eguiteco ocasinoia bada, dantzara juatia pecatu dala... Domeecan dantzan eguitia, soluan[448] nabasen eguitia baino, pecatu andijagua dala...

Eguin bedi bada dantzan, eguin biar bada. Loitu bediz gorputzac, ta condenau bitez arimac, dantzaarijac[449] alan gura badavee. Baina ez bedi secula aotan artu Santo Tomas, Escoleetaco Aingueruba, ta virginidadiaren mirarizco Ispilluba, gueure Errijeetaco dantza nasaijac, ta desonestubac ontzat emoteco. *159 or.*

S. III

## III. San Prancisco Salesec Philoteari ez eutsan guztiz eragotzi dantzan eguitia

Irugarren lecuban dinue dantza zaliac: San Prancisco Salesec ez eutsala Philoteari guztiz eragotzi dantzan eguitia. Ezin esan guinai, Santubac emongo eutsala libertadia, pecatu eguiteco. Begaz ezda pecatu, dantzan eguitia San Prancisco Salesen erichijan. Auda, Santu andi à ganic[450] dantzaarijac ateraten daveen contuba. Ta onan javonau gura lituquee dantza impamiac, Santubac eracutsijac, ta ontzat emonac balira leguez. Onei esaten jacue: itsututa ezbadagoz, iracurri daguijeela Santuba bera. Berac dino: «Dantzan eguitia berez pecatu ez- *160 or.*

---

[446] *Ocasinoe:* hemen-OE formula arkaikoa, bainan lerro urri batzuk beherago ocasinOIA («Pecatu eguiteco ocasinoia bada»).

[447] *Pecatu dala:* -LA atzizkiak hemen hipotesia adierazten du, alegia, galdegai bati erantzuna. Ikus 10 eta 109 orriak.

[448] *Soluan:* bizkaierazko forma lat. *solum*-etik, ekialderagoko *soro*-ren aldagai beranta delarik bokalismo erromanikoaz. Ikus gure *Latina eta erromanikoaren eragina euskaran,* op.c. 85 oB 9, 148. Baita *Luis Mitxelena,* FHV, 312.

[449] *Dantzaarijac:* hemen bikoiztura bokalikoaz, bainan 160 orrian gabe («Dantzarijac albocuari belaarrijan esaten deutsazan...»)

[450] *à ganic:* harengandik. Elatiboan, errotik berezita, *gaiti* kasuan bezala.

(2) 22. q. 43. a. I. ad 4. a. 7. q. 122. a. 4. ad 3...

dala... Dantzaric oneenac bere utsa «balijo daveela... Eguiten dirian moduban, gauza chaarren, ta pecatubaren entero[451] urrecuac diriala; ta orregaiti arriscu, ta peligru andicuac diriala... Dantzara duazanac alcarren propijan vanidadez duazala. Vanidade atati urteten daveela maitequerija charrac, ta peligruzco carinuac. Basoco suga[452], ta pristija[453] venenotsubac oinduari verenua[454] ezarten deutseen leguez; dantzarijac albo
*161 or.* cuari belaarrijan esaten deutsazan verba desonestubac, veguiracune maitiac, ta escucaloijac, sartuten deutseela vijotzian pecatubaren verenua. ¿Noc ezdaqui, orduban vijotza prestauta daguana, pecatuban jausteco, pecatubari obeiduteco, ta verenuagaz ilteco?».

«Dantzan eguizu bada guichi, ta guichitan, Philotea[455]... ta orduban ondo prestauta. ¿Baina celan prestauta? Modestijaz, juicijoz[456], ta intencinoe[457] onagaz (1)».

Au guztiau da San Prancisco Salesena.

*162 or.* Ta oraindino gueijago Santu andijac, ta garbijac dantziac gach eguin ezdagijon. ¿Baina cer gueijago? Pensau gauza batzuc. ¿Baina cer pensau? Ara beraren verbaac: Pensau eguizu leleengo: Zu dantzan cenbizan artian, ceimbat arima impernuban erreetan egongo cirian, dantzan, ta dantzia zala medijo eguin zituben pecatubac gaiti. Pensau eguizu bigarrenian: Ceimbat Praile, ta cristinau on egozan orduban Jaungoicua alaveetan. ¡Oh, ce obeto eguin daveen areec, zuc baino! Pensau eguizu irugarrenian: Zuc dantzan eguin dozun artian, ceimbat illda beste mundura juan dirian. Ceimbat ospitaleetan padeciduten egon dirian... ¡Ah, tristiac! ¿Ez zara erruquituten aree-
*163 or.* quin? ¿Derichazu, ezdozula negar eguingo, areec leguez, egunen baten beste batzuc dantzan daviltzanian? Pensau eguizu

---

[451] *Entero:* gaztelaniar mailebu garbia, erabilpen superlatiboz, *oso/osoro* gisa.

[452] *Suga:* *bagA, labA* bezala amaierazko apofoniaz.

[453] *Pristija:* piztia, lat. bestiam/*bistiam*-etik, gurean dardarkaria tartekatzen delarik.

[454] *Verenua:* erabilpen desberdinak liburuaren zehar (*bereno/venenotsubac*) («Dantzeen bereno madadicatuba azaldeetara», 10 or.).

[455] *Philotea:* hemen kera kultistaz, bainan 36 orrian ezpainkari leherkariaz («Piloteac bere eguin euquian, caridadia galdu bagaric»).

[456] *Juicijoz:* *luxurijotsu* 193, *estudijuac* 15, *concilijua* kasutan bezala *io/iu*< *ijo/iju* aldaketa.

[457] *Intencinoe:* -OE atzizki zaharra *errazoe* 78, *tentacinoe* 55, *ocasinoe* 47 hitzetan gisa.

(3) Introd. á la vid dev. p. 3. o. 32.

laugarrenian: Jesusec, Ama virginiac[458], Ainguerubac, ta Santubac icusi zaitubeela, dantzan. Duda bagaric lastima izan deutsubee, icusita zure vijotza ain gogoz, ta zur alaco zoraquerijan, ta tontaquerijan. Pensau eguizu bostgarrenian: ¡Ai nire tristia! Dantzan ibili nasaneco[459] demporia juanjat[460], Erijotzia leen baino urrago daucat... Bere dantzara dei egiten deust onec. Orduco soinuba izango da nire zuzpiruba[461]. Ta orduco dantziaren azqueneco giria vitzitzati eternidadera. Oneec imini deutsudaz, pensau daizuzan. Baina, (Jaungoicuaren vildurric badago zugan) berac ecarrico deutsuz beste pensauquizun[462] batzuc ataraco (1).» Ara emen San Prancisco Salesec Philotea- *164 or.*
ri emon eutsan, dantzan eguiteco, licencija. Zoraquerijac, tontaquerijac, necedadiac, arriscu andicuac, peligru andicuac, beti gauza chaarreracuac, vanidadezcuac, vijotzaren verenozco illgarrijac, ta oneenac bere, bapere valijo ez daveenac, diriala dantzaac, dino Santubac. Modestijaz, errespetoz, juicijotz[463], intencinoe onagaz, ta moribuagaz guichitan, ta guichi dantzan eguiteco, esaten deutsa San Prancisco Salesec Philoteari. Ta eguiten daven banacaan, esan dirian bost gauzaac, ta gueijago penseetaco, dantzeetaco verenuac ill ezdaguijan[464]. Au dino *165 or.*
Santu Andijac, icentau dan capituluban, ta aren urreenguan. Ta oraindino puscabat estuchubago[465] laugarren parteco seigarren capituluban, nun condeneetan[466] dituban Santubac pecatuzat, emen esan dirian baino echura arinagoco, ta chiquijagoco paltaac bere. Eguin bequijo bada ondria Eleisiaren

---

[458] V*irginiac:* nahiz o grafema ibili, itxuraz, *j*-ren balioa dauka, grafema, hori ohitura kultistaz darabilelako v*irginidadia* 82 kasuan bezala.

[459] N*asaneco: naizeneko*, txistukariaren aurretiko diptongoa itzaliaz.

[460] Juanjata: j*oan zait*. *Jat* horren balio fonetikoa Markinako subeuskalkian [xat] da.

[461] *Zuzpiruba:* hemen asimilapen kontsonantikoa bi *z*-tak erakartzen elkar direlarik. Amaieran ohizko *wau* erdikontsonantea.

[462] *Pensauquizun:* pentsakizun. Hitz honetan -TU partizipioa (-U-ra sinkopatuta) present eratorpenezko lege ohizkoen aurka; antzeko kasuak s*inisTUquizun*, i*casIquizun* hitzetan. («Ta gueure sinistuquizunen Eracuslac, ta Errazoiac eurac gaiti», 104 or.)

[463] J*uicijotz:* amaiera hau frikazioz ez da ohizkoa gure autorearengan, *z* intrumentala izan behar duelarik. Beraz, inprenta-hutsa da.

[464] E*zdaguijan:* izenean bezala, ia<ija prozedura fonetikoa aditzetan ere, behin eta berriz (v*itzija* 16, *aguirija* 51, *garbija* 4, *vijamoneco* 57)

[465] E*stuchubago: estutxoago*, *wau* erdikontsonanteaz *oa* taldean.

[466] N*un condeneetan:* joskeraz tankera erromanikoa duen perpausa zirkunstantziala, n*un* (donde) juntagailuaz. Joskera endogeno jatorrago batean, besterik gabe, -AN deklinatiboaz utzi behar litzateke dena («Seigarren capitulubAN condeenetan dituban Santubac pecatuzat»).

(1) Ut supr.

Santu, ta Obispo Andijari. Ta ez bedi aotan artu, dantza pecatuzcuac ontzat emoteco.

## S. IV

### IV. Abadiac, eta Prailiac bere juaten dira piestara... Chaarrac balira ez litzaatequez juango

*166 or.* Laugarren lecuban dinue dantzaarijac: Abadiac, eta Prailiac bere juaten diriala dantcetara; Saraubetan dantzan bere eguiten daveela batzuc; chaarrac balira, Sacerdote Jaunac ez leuqueela eguingo...

Erantzuten jacue: Abade bat, nai Praile bat juan leitequiala (edo juan biar davela) piesta egunian, piesta eguiten dan lecura, edo sermoia eguitera, edo mecia esatera, edo meciari lagundutera, edo beste jagocan, biar bat eguitera. Ta, baita egun atan gueratu bere estadubari jagocan echian, ta lagunaquin. Abade batec, edo Praile batec piesta egunian au eguiten davelaco, inor escandalizetan bada; Parisijuen escandaluba da. Ta ezdau mereciduten casuric eguitia.

*167 or.* Ezdogu ori gaiti esaten, dinue dantzarijac. Ezbada, Abadiac, eta Prailiac[467] piestara juan da, gente artian sartuta, gueu leguez olgueetan bertan, ta arutz, ta onutz[468] icusten ditugulaco. Oni erantzuten jaco: Ezdiriala guztiac izango. Ezda guichiago, ta guichiago bere. Batzuc eguiten daveena, ez dala guztiac gaiti esan biar. Judasec Jesus saldu evalaco, ezda es ten[469] Apostolubac saldu eveela; ezbada Apostolu batec saldu evala; edo Judasec saldu evala. Bigarrenian erantzuten jacue: Abadiac, eta Prailiac bere pecatu eguin leguijeela. Abadentzat, ta Prailentzat bere baguala impernuba, guisqui[470] eguiten badabee, ta escandaluba emoten badabee, beste edocein pecatarirentzat emoten badabee, beste edocein pecatarirentzat leguez. Abitubac soinian jancijac, ta sotania iminita, coroia

---

[467] *Prailiac:* ezpainkari leherkaria *parisijuen* (farisauen) 166, *prutu* 146, *impame* 154, *pedia* (fedea) 76 hitzetan bezala.

[468] *Arutz, ta onutz:* -RUNTZ alatibo norabidezkoa, bizkaieran ematen den sudurkariaren erorketaz.

[469] *Es ten: esaten* behar luke, noski.

[470] *Guisqui: gaisqui* (gaizki); izen hau beti s grafemaz idazten du, z ordez. («Ta aguirico oquerrijaguinac, ta gaisquinac», 199).

edeguijac salvauco baguiduz, ondo guengoquez[471] Prailioc, eta Abadioc. Baina ez. Gueure estadu santuco, ta altuco cer eguinac gordiac salvau biarco gaitu ceruco gracijagaz. *168 or.*

Irugarrenian erantzuten jacue: Esandirian dantzaac, ta piestac, bestenzat[472] libre balira bere, Abadentzat, ta Prailentzat pecatu diriala. Ezda errez sinistuten[473], Sacerdote Jaunac, ta religiosuac, eureen estadu santubagaz aaztuta (gentiac esaten daven leguez, ta sarritan arpeguijan ezarten deutscun leguez) saraubeetan dantzan eguiten daveela. Ta ezda, orraco, esandirian, piestetara, ta erromedijeetara juanda, guizon, ta emacumen artian, nesca, ta mutilen artian naastian sartuta, olgueetan ibilten diriana bere. Emen egon leiteque engainu andija. Eleiza guizonen cleitu onaren caltian. Dantza zaliac lagunac gura ditubee. Ta ceimbat estadu altubagocuac, aimbat naijago, eureen dantza loijac noc jaso euquiteco. Au gaiti esatendira chito guaza asco sacerdote Jaunac, ta religiosuac gaiti. *Auguin*[474] *davena... onan ibili dana... an iza eizana*[475]... Onaco guzurrac laster sinistuten dira Eleisa guizonen contra. Ta lasterrago zabalduten dira. Norbait inos icusi badavee, gauza guichi baten descuideetan, aoric aora gueitubaz zabalduten da bertati. Ezda bada sinistuten, Abade teguija[476], ta Praile teguija[477] juaten diriala piestetara, edo eguiten daveela dantzan, *169 or.*

---

[471] *Guengoquez:* «geundeke», *egon* aditzaren errotik.

[472] *Bestenzat:* frikaziorik gabe (-TZAT, alegia), bainan hurrengo lerroan frikazioaz *abadentzat* eta *prailentzat* hitzak. Pr. Bartolome-ren liburuan, bada, ilogikoa den alternantzia aunitz batasun-ezagatik.

[473] *Sinistuten:* sinisten. Jokabide bera *sinisTUquizun* hitzean («Ta gueure sinistuquizunen Eracuslac, ta Errazoiac eurac gaiti dinuenagaz», 104 or.). Esan beharrik ez dago joera hauek marginalak direla (euskararen eremuan) deribazioaren lege orokorretan. Ikus honetaz gure *Hitz konposatu eta eratorrien morfo-fonetika* liburua, 135-136 or. Gure konposaketa eta eratorpenezko fonetika jatorrak partizipioa kentzea eskatzen du loturetan, eta horretan bizkaieraren jarrera marginaltzat hartu behar da.

[474] *Auguin:* inprenta -hutsa, *au eguin* behar du, Pr. Bartolome-k berak 208 orrian azaltzen digunez.

[475] *Dana... eizana:* -NA konpletiba tesizko esanahiaz (*lo que, el hecho de que* gisa ulertuta). Honetaz ikus besteen artean: *Jose Antonio Mujika*, «-(E)LA eta beste konpletibatzaileak», in Euskera (1982-1), 295-327 or. *Patxi Altuna*, «Fray Bartolomez puntu batzuk», in Euskera (1981), 367-377 or.

[476] *Abade teguija:* beraz, abadetegia (apeztegia), atzizkia errotik bakanduta. Kontutan izan Pr. Bartolome-k *teguija* bakarrik ere erabibili duela.

[477] *Praile teguija:* goran egindako ohar bera. Atzizkien eremuan, noski, atzizki propioak eta paratzizkiek ongi berezi behar dira; beraz, paratzizkiak lexematik kanpo ere bizibide askea dute (*-buru, -alde, -aldi, -arte* gisakoek bezala). Besteak (*-kizun, -tasun, -eria* antzekoak) ez daitezke, normalki, errotik desitsasi kasu berezietan ezik, alegia, (Mendiburu-rengan bezala) *tasun* kualitatea adierazteko ala *keria* negatibitatea nabarmenarazteko. *Tegi* atzizkiaz horrelako zerbait gertatzen da, eta agian, zeltikoan *tech* delakoak *etxea* edo *tokia* bakanki adierazten duelako.

gentiac esan gura leusquegun moduban. Ezda guichiago bere
170 or. Euscal errijetan, ez Espaina guztian.

¿Bada, sinistuco dau inoc, Sacerdote bat, (ta oraindino ezainago Religioso bat) bere estadu altubaren, Santubaren, ta garbijaren lotsarijan, ta ordiaco Sacramentubaren desondraan ibilico dala piestetan, ta dantzeetan? ¿Ez eguitia, eze icustia bere Eleisiac eurai pena andijaquin eragotzita daucan olgueeta impameetan? ¿Jaungoicuac bere echia zaintuteco esleidu dituban guizonac? ¿Pecatarijagaz Jaungoicuaren arteco Baqueguinac? ¿Jesus gueure Salvadore maitia, ta garbija Ceruti eratsita, egunian egunian escubetan daravileenac? Altara gainian guztioen osasuna gaiti, Aita Beticuari Bildots Garbija esquintzen
171 or. deutseenac? ¿Sacerdote Jaunac? ¿Oneec ibilico diriala, piesteetan, erromedijeetan, ta saraubeetan nesca artian, ta mutil artian erdi-comico eguinda olgueetan? Ezda errez sinistuten.

Baina badago Abaderic, edo Praileric, ain diabrubac itsuturic, edo ez jaquinic, esaten jaco: trago mingocha arimiari[478] emoten deutsala, doian bacochian. Eracuslen esanian, pecatu mortala eguiten davela, doian bachian[479], juatia bera gaiti, ta alaco piesta desonestuba berarijaz[480] icustia gaiti. Naasteco dantzaac berarijaz icustia, ta arei beguira egotia bere, eragotzita dago aparteco leguiagaz, Eleisa-guizonai[481], pecatu mortalaren beian, dinue Eracuslac. ¿Sinistuco ete dau au alaco Elei-
172 or. sa-guizonac, descuiduan inor bada, onan dana? Jazo leiteque, guztiz itsututa egotia, edo chito guichi jaquina izatia.

Bada Eleisaco Concilijo, ta Eracusla guztien dotrinia da. Elesiaren bostgarren guizaalditi asita, andi Trentoco Concilijora guino asco icenteetan ditu Benedicto XIV (1). Eleisa-guizonai naasteco dantceetara juatia, ta icustia bere, pena andijeen beian eragozten deutseenac. Eleisiaren neurgarri, edo Canon, ta Congregacinoe sagraducuaren ordena asco bere icenteetan ditu Aita Santubac berac (2); ceintzubetan eragoz-

---

[478] *Arimiari:* animari, lat. *animam*-etik, bainan disimilapenaz bigarren silaban.

[479] *Bachian:* inprenta-hutsa *bacochian* esan behar duelarik.

[480] *Berarijaz:* especialmente. Ikus *Azkue*, Dicc. I, 151 or.

[481] *Eleisa-guizonai: elizgizonei.* Konposakeran lehen konposagaia bi silabatik gorakoa denean komeni da loturan bokalea itzaltzea. Honetan ere aburu garbirik ez Pr. Bartolome-ren idazkian, aunitzetan. Konposakerako bokale-topaketa fonetikoaz (toponimian eta tradizioan) ikus gure *Hitz konposatu eta eratorrien morfo-fonetika* liburua 126-150 orrietan.

(1) Sinod. Dioces. lib. 15. c. 10. (2) Instrut. 37. et 76. (3) Teolg. Dom. et Mor. 1. 2. Sacram. Ord. c. 5. Reg. 5. (4) Tom. 4. trat: de oblig. C. 1. et tom. 5. de poenit. c. 3. a. 3. (5) In sai.

ten jacuen Eleisa-guizonai, ez bacarric alaco lecubetan dan-
tzan eguitia, ez bada baita besteen naasteco dantzia berarijaz 173 or.
icustia bere, pecatu mortalaren beeco aguindutzat. Natal Ale-
xandroc dino: pecatu mortala eguiten daveela Eleisa-guizo-
nac[482], alaco olgueeta naastauti[483] aparteetan ezdirianian (3).
Bederatzi Concilijoren esanac imiten ditu Eracusliac[484] berac,
nun aguiridan[485] Eleisiaren Aguinduba arguiro. San Antoni-
noc pecatu mortalaren beian eragozten deutseez Eleisa guizo-
nai alaco dantzaac, dino Benedicto XIV. Baita San Carlos Mi-
lango Obispo Jaunac bere. San Prancisco Salesec eragotzi
eutsezan: Eleisaco opicijuac ez eguitiaren beian. Antoinec bes- 174 or.
te aimbeste dino (4) San Buenabenturagaz. Santo Tomasec
beste aimbeste dino (5). ¿Baina cetaraco da cansetia? Eguija
topau gura davenac, iracurri beguiz Benedicto XIV. Sinodo
Diocesana, ta Instrucinoiac, erdera, ta latin guztien escubetan
davizanac. An topauco da, ezetara bere ezdala libreetan peca-
tu mortaleti, berarijaz pistetara, ta dantcetara olgueetan doian
Abadia, ez Prailia.

Ta esaten badau inoc, leen ez arren, orain usetan dala. Ta
ezdala pecatu Abadiac, eta Prailiac alan ibiltia. Trentoco Con- 175 or.
cilijuan[486] declarauta, ta aguinduta dauca (1): Abadiac, eta
Prailiac piestetara, ta dantcetara ez juateco; leenago Eli-
siac[487], ta Concilijuac aguindu dituben ordenac gordetaco; ta,
usadijuaren, edo oituriaren achaquijac[488] ezdaguijeela balijo
legue onen contra... Ta Obispo Jaunai aguinduten deutsee
Concilijuac pecatu mortalaren beian, dino Benedicto XIV,
castigau daguijezala, leguiac aguinduten daven moduban,
piesta, edo dantzetara juaten dirian Eleisa guizonac (2). Ezda- 176 or.

---

[482] *Eleisa-guizonac:* elizgizonak. Kontutan eduki gorago esanak hitz-konposakeran ematen diren bokale erorketaz.

[483] *Naastauti: nahastatutik* (nahasitik), ohizko partizipioaren hozkaria galduaz.

[484] *Eracusliac:* singularreko ergatiboak, seguraski, *ac/aac/eac/iac* prozedura bokalikoa eman duelarik. Ikus *eracuslaac* 44; hitz honek, normalean, azken apofonia.

[485] *Nun aguiridan: nun* juntagailu hori gaztelaniazko *en donde* delakoaren itzulpen erromanizantea baino ez da. Perpausa honen erdal joskera ukaezina da. Ala ere, hitzaurrean esana dugunez, *adbertsatiboen* kasuan ezik, Pr. Bartolomeren perpausa sintaxian aski endogenoa da beste autore askorekin parekatuta.

[486] *Concilijuan: io < ijo < iju* konposagai bokalikoa 173 orrian, ala ere, *concilijoren*, ixturarik gabe.

[487] *Elisiac;* elizak (eleiziak/*eleiseac*). Ikus 173, 173, 176 orriak.

[488] *Achaquijac;* aitzakiak. Etimologiari begiratuta (gaztelaniazko *achaque*-tik). Bizkaiko formula gipuzkerazkoa baino zintzoagoa delarik.

(1) Sess. 22. de Refsrm. c. 1. (2) Instrut. 37.

go usadijoric, ezdago, achaquijaric, ezdago urteeraric Eleisa guizonac berarijaz dantza, ta piestetara juateco. Atiac guztiac ichita dagoz. Ezdago Sinodalic, Eleisa guizonai alaco escandaluba parcatuten deutseenic. Alan icusten dogu, gorde bere eguiten diriala legue Santu oneec Eleisa guizonen exemplu[489] andijagaz. Descuiduan ezjaquin tristeenbat nos bait descuidau bada. Orduban dantzazaliac santipicau[490] gura lituquee eureen nasaitasunac, *Abadiac, ta Prailiac bere eguiten daveela,* esanda.

¿Ta izangoda au achequija ona dantzarijentzat, eurac juateco, ta ibilteco, oidaviltzan moduban? Ez. Alperric esango davee. Ezdeutsee balijo. Ez ditubee edertuco, ta guichituco au esanagaz eureen dantcetaco[491] pecatu loijac. Baina gusto
*177 or.* emon daijeegun onei. Ta esandaigun, gura badabee: Abaderic, ta Praileric gueijeenac juaten gariala piesteetara, erromedijeetara, saraubeetara, ta naasteco dantceetara. ¿Cer daucagu onegaz? Nic lapurretan eguiten dodalaco; bidauac[492], ta maldecinoiac ezarten ditudalaco; logreruba[493] nasalaco, edo pecatuban comulgueetan nasalaco: ¿Esango cenduque: gauza oneec eguitia ezdala pecatu? ¿Esango cenduque: Abadiac, eta Prailiac bere eguiten ditubeela, ta ceuc bere eguin zinaizala? Bada beste aimbeste. Abadiac, ta Prailiac piestetara, ta dantceetara juango balira bere; zubec eguitia, esandan moduban, pecatu da. Abadeena, ta Praileena andijagua (juaten badira); baita zubeena bere condeneetaco duina. Jazo leiteque, alaco
*178 or.* Praileric, edo Abaderic bada, zeubeen dantceetaco, ta piesteetaco pecatubeetati zubei absolvidutzatco bat, edo ascatutzaco bat compesinoian errezto eguitia: ta, pecatuco ocasinoe jaquin orretan zubei ibilten istia. Baita jazo leiteque, (ta erremedijo bagaric jazoco da, penitencia, eguijazcua eguiten ezbada), areec, eta zubec, compesore, ta penitente guztioc alcarregaz impernuco dantzara juatia bere. Au da, alaco guztiai Espiritu Santubac esaten deutseena: *Ducunt in bonis dies suos, et in puncto ad inferna descendunt.* Esandaneti aituco dozu: ez deutsula balijo, Abadiac eta Prailiac bere juaten diriala esanac, ceubec dantza naastaubeetan ibilteco.

---

489 *Exemplu: x* grafemaz, baita ere *examinetia* 44, *luxurijotsu* 193 kasuetan.

490 *Santipicau:* santifikatu ohizko f/p aldaketaz.

491 *Dantcetaco: tc,* grafema honen ordain *tz* orri honetan bertan gorago («Ta izangoda au achequija ona dantzarijentzat»).

492 *Bidauac:* biraoak, disimilapenaz.

493 *Logreruba: logrerua* edo *lukurraria,* latineko *lucrum*-etik, bainan hitz honetan erromantzeko *logro/logrero*-en zehar herskariaren ozendura eta bokalearen irekiera beranta.

## S. V.

### V. Piesteetara, ta dantceetara juan arren, ezdot nic pecaturic eguiten 179 or.

Bostgarren lecuban piesta zaliac, edo dantzaarijac aguertuten dira beste urtenera bategaz, ta esaten davee: ***Piesteetara, ta dantzeetara juan arren, ezdaveela pecaturic eguiten.*** ¡Ai au gauza ederra da! ¡Dichosuac, eta zorijonecuac alaco semiac eta alabaac! ¡Oh, dantzaric dantza, piestaric piesta, erromedijaric erromedija, biguiraric biguira, ta sarauric sarau nesca, ta mutil, andra, ta guizon naaste gau, ta egun, oizabiltzan moduban, ibilita, pecaturic eguiten ez dozun, bedeincatuboc! ¡Lastimia, 180 or.
nortzuc zarian ez jaquitia! Duda bagaric Eleisiac Altareetan iminico lituque, ango leengo Santubai alde eraguinda, balequi nortzuc dirian alaco gorputzezco Ainguerubac, sutan sartuta erreetan ezdirianac; batsatzan[494] ibilita, loituten ezdirianac; piquiagaz[495] lò eguinda, garbi jaguiten dirianac. ¡Lastimia! Orraco dantzari Santu orreec, Piestazale bedeincatu orreec, ocasinoeric sutsubeenetan eureen gustoz ibilita, pecaturic eguiten ezdaveen orreec, gure ao lotsa galducuetati aimbeste picaerdija[496] entzun biarra. ¡Oh, ce guichi jaquinac cirian San Anton bat, San Geronimo[497] bat, San Agustin bat, Arsenio bat, Paulo bat, Benito bat, Madalena bat, Pelagia bat, Tais 181 or.
bat, ta beste milla onaco! Ez jaquinac, dinot, dantzarijen burlaz. Bada areec, ocasinoeti igues eguinda, gorputzac ondo, ta sarri zurrauta, lua, ta jana laburtuta, veguijac, ta sentidubac contu andi bategaz erabilita bere, nequez goitu zitubeen araguijaren tentacinoiac. Ta dantzarijac, ocasinoeric vitzijenian, ta sutsubeenian eureen guraz aimbat onduen apainduta, janda, edanda, gau, ta egun naaste ibilita, ezdavee pecaturic eguiten.

---

[494] *Batsatzan:* lokaztegia.

[495] *Piquiagaz:* bikeaz. Lat. *picem*-etik gure hitzak aspaldiko ĭ laburra gordetzen duelarik. Ikus *L. Mitxelena*, FHV, 59, 229, 225 or.

[496] *Picaerdija:* picardía, bokale eraskinaz aparte, ohizko *ia* < *ija* prozedura fonetikoa.

[497] *Geronimo: Jerónimo, Virginidadea* kasuan bezala *g* fonemari *j*-ren balioa ematen zaio ahozkatzean. Gaurko *liturgia, geologia* kasuetan ere jokabide kultista bera, baldin-eta, grekoan gisa, *liturguia, gueologuia* bezala ebakitzen ezbada (hobestekoa litzatekenez).

¿Cetaraguino[498] diabrubac itsutu ete legui cristinauba? Esaten jacue bada onei: Itsututa vitzi diriala. Gorputza, ta odola euquitia asco dala. Adanen semia, edo alabia izatia asco dala: alaco ocasinòian[499] bere guraz sartuta, pecatu eguin bagaric ez irauteco. Ta, bere naiz, premina bagaric ocasinoe jaquinera juatia bera, dala pecatu. Baina piesta zaleen con- *182 or.* ciencijaac oitura chaarren tintiagaz zetacatuta dagozan leguez, Sacrilegijo[500] bat, adulterijo bat, edo Aitagarri, ta Amagarri bat osotu artian, beste castidadiaren contraco desonestidade nasaija ezdauquee pecatutzat. Ta lotsarizco zatarquerija guztia eguin, ta eraguina, guero, esaten davee: ezdaveela, dantceetan pecaturic eguiten. Onei jazoten jacue, guela[501] estu baten lutzaro oian daguan gaisuarena. Guela guztia atsituta dago. Campoti sartuten dirianac, ezin egon dira atsa arren. Ta oian daguanac, esaten dau: ez davela atsic sentiduten. Piesta zalen arimac milla pecatu mortal entzun, esan, icusi, pensau, naitu[502], eguin, ta eraguin ditubee dantza, ta piesta orreetan *183 or.* eureen guraz. Beste guztiac urrineti[503] bere sentiduten davee eureen pecatubeen atsta[504]. Ta eurac uste davee, Ainguerubac baixen garbi dagozala. Ez daveela pecaturic eguiten.

Onei esaten jacue ostera bere; ezdaquijeela dotrinaric. Ezdauqueezala, pecatu mortalac pecatu mortaltzat. Ezda ascoc, venialtzat bere. Ezin alan esaminaric leguijeela. Aituten ezditubeen, ta aintzat ezdauqueezan pecatubeen damuric artu ezin leguijeela. Sarri compesau[505] arren, beinbere ondo compesetan ezdiriala. Ta ondo compesau bere ezin leitequezala, arian da, dotrinia icasi, pecatu mortalac ainzat artu, areequin garbatu, ta pecatuco ocasinoe urrecuai isteeco asmo sendua artu artian. Compesau beguijee[506] oneec guztioc, bai zaarrac, bai

---

[498] *Cetaraguino:* zertaraino. Beraz, ohizko dardarkariaren erorketa *(cetan, atan, noc);* baita -GUINO atzizkia *ocotzeraguinoco* 69, *eraraguinoco* 91 kasuetan bezala.

[499] *Ocasinoian:* -OI atzizkia, bainan horri honetan bertan bi kasutan -OE («Ocasinoeric vitzijenian»), eta «premina bagaric ocasinoe jaquinera juatia»).

[500] *Sacrilegijo: io < ijo.* Antzeko prozedurak 193, 175, 15, 18, 5, 98 orrietan.

[501] *Guela:* latineko *cellam*-etik. Hitz honetaz ikus *Luis Mitxelena, FHV 239, 320* eta gure *Latina eta erromanikoaren eragina euskaran,* op.c. 17, 64, 67 or.

[502] *Naitu:* -TU atzizki latinoa, arbuiagarria den prozedura analogikoaz; *nahi* aditzaz *izan (nahi izan)* erabili behar da.

[503] *Urrineti:* bizkaierazko *urrin* hitza, *urrun* ordez.

[504] *Atsta: atsa,* inprenta-hutsa.

[505] *Compesau:* f/p aldaketa *compesorec* 103, *compesore* 89, *compesinoari* 203, *compeseetan* 183 kasuetan bezala.

[506] *Beguijee: ie < ije,* eta aditzetan hainbeste aldiz ematen den amaierako bikoiztura bokalikoa. Ikus *balebee* 151, *dacarree* 151, *leuquee* 192.

gaztiac, bai guizonac, ta bai emacumiac orraco piesteetaco, erromedijeetaco, biguireetaco, ta saraubeetaco dantceetan, ta ibilteetan, cer entzun daveen, cer icusi daveen, cer esan daveen, cer desiau daveen, cer eguin daveen, bestiai cer eraguin deutseen, cer eratso deutseen, ce gogogaz, ce vorondategaz, ce carinogaz, ce arpegui eragaz; ta ceimbat bidar eguin, ta eraguin, esan, ta eratso, entzun, ta icusi, pensau, ta desiau, lecu emon, ta nai izan daveen eureen vijotzian. Ta aguertuco da eureen conciencija. ¿Baina celacua? ¡Ah! Eurac bere lotsatuten ditubana. Orraitino naico davee dantza zaliac, ta piestarijac, presco prescoric, ta merque merque sinistu daijegun, orraco piestetan, erromedijeetan, biguireetan, ta saraubeetan, daviltzan moduban, ibili arren, ezdaveela pecaturic eguiten. ¡Eh! Zeubeen lagunai ori burloori Gueijago ez esatiarren.

*184 or.*

*185 or.*

## S. VI.

### VI. Dantceetan ez eze Eleisan bere pecatu eguin legui, naidavenac. Ara bere ez juan

Piesta zaleen seigarren argumentuba, edo urteeria da: Eleisaan bere naidavenac, pecatu eguin leguijala. Bada naasteco dantzara juan biar ezbada, pecatuco ocasinoia dalaco. Eleisia bere pecatu eguiteco ocasinoia izan leiteque. Ta ara bere ez da juan biarco. Edo piesteetara bere bai, pecatuco ocasinoia izan arren. Dantzaraco libertadia gura leuquee, Eleisaan bere pecatu eguin leguijala, esanagaz.

*186 or.*

Onei erantzuten jacue bapere pena bagaric: Eleisaan bere pecatu eguin leguijala. Baijetz. Luciperrec ceruban bere eguin evala pecatu. Ta guizonac, nai emacumiac Eleisaan bere eguin leguijala, echian bere bai, soluan bere bai, altaraan bere bai, edo cein lecutan vitzi dan artian. Baita illten daguanian bere gura badau, eguingo dau pecatu. ¿Ta cer daucagu onegaz? ¿Au eguiija izan arren, lecu guztiac dira bardinac, pecatu eguiteco? Nun nai gaixotu leitequee. ¿Baina, sequera dunagaz lò[507]

[507] *Lò*: monosilabiko hau betiro azentuaz markatzen du Pr. Bartolome-k, *à* (hura) eracuslearen kasuan bezala. Gure ustez, azentua ipiniz hitz horietan laburdurak suposa dezakeen bortiztasun fonikoa adierazi nahi du autoreak, nolabait. Beste azentu kasu batzuk: *eureén* 7, *escatutén* 189, *à videetan* 109, *ezda á* 41.

eguiten davena, ala campo eche osasuntsu baten vitzi dana, leenago, ta sarrijago? Nun nai ill leiteque. ¿Baina, gaixo deun-
*187 or.* ga bat sartu dan errijan, ala osasun onecuan dago, illteco peligru[508] gueijago? Nun nai guizona galdu leiteque. Baina, lapurrez beteta daguan portuti doianac, ala bere eche onian daguanac, dauca galduteco arriscu gueijago? Nun nai jausi leiteque. Baina, calzada lauban[509], ala aldapa labanian, lasterrago? Oneen erespuestia[510] ceubec[511] daquizu.

Beste aimbeste, ta milla bidar gueijago dira bada Eleisia, ta naasteco dantcia, edo piestia, pecatu eguiteco. Eleisia, Jaungoicua ezaututeco, alabeetaco, ta ameetaco, lecuba da. Naasteco dantzia, diabruba, munduba, ta araguija serbiduteco, lecuba, ta opicijua da. Eleisia, pecaturic eguin bagaric vitzi iza-
*188 or.* teco; descuiduan eguiten bada, erremedijeetaco; arimac onduteco, ta cerura eruateco, lecuba da. Piestia, ta dantzia, pecatubac gueituteco, arimac condeneetaco, ta impernuba beteteco, lecuba da. Eleisia Jaungoicuaren, Ainguerubeen, ta Santubeen lecu estimauba, ta santuba da. Naasteco dantzia diabrubac, ta pecatarijac olgueetaco, Jaungoicua ucatuteco, santubac desondreetaco, ta Ceruba tristetuteco, toqui apartecua, ta billatuba da. Eleisia arimac Cerura igoteco esquelaria da. Dantzia, arimac impernura jasteco, vidia da. Eleisaan bere pecatu eguin legui. Bai. Baina, Eleisaan euneti bic pecatu eguiten badabee; dantzati, ta piestati euneti iru echera juaten ez dira, pecatu eguin edo eraguin bagaric. Ezda bada, cetan[512] esan: *Eleisaan bere pecatu eguin legui, dantza loijeetera juateco.*

---

508 *Peligru:* beherago, ordea, *arriscu* («Dauca galduteco arriscu gueijago»).

509 *Lauban: lau* lat. *planum*-etik, haserako PL talde kontsonantikoa soilduz eta sudurkaria itzaliz, *wau* eman delarik.

510 *Erespuestia:* inprenta-hutsa *errespuestia* izan behar dularik. Hemen ere, *priesa, piestia* delakoetan bezala, gaztelaniazko diptongapen arrotza. Hitz hori iparraldean diptongorik gabe *arrapostu* da (biarnoeraz *arripousta*, Lespy I, 54). Ikus gure «Euskarara iritsitako hitz erromanikoen bokalismoa» artikulua, in Euskera (1983-1), 171-219 or.

511 *Ceubek:* zuek, *wau* erdikontsonanteaz.

512 *Cetan: atan* (189 eta 192) erakuslean bezala, dardarkariaren erorketa, eta, bestalde, *c* grafema, *z* ordez. Bainan baita *ezetara* 174.

S. VII.

### VII. Gaztiac, cetan, edo atan olgau biar davee 189 or.

Zazpigarren lecuban dinue dantzaarijac: *Gaztiac cetan, edo atan olgau biar daveela.* Verbeeta onec utseguite bi daucaz. Bata da: Gaztiac cetan, edo atan olgau biar daveena. Ezda au eguiija. Eguiija da, nos bait olgueetia naturaleciac escatuten davena. Baita, cetan, edo atan olgau leitequiana bere, bai zaarrac, ta bai gaztiac, bai Prailiac, ta Monjaac bere. Au esanda gueratu da leen. Baina olgau biar dana; edo, gaztiac, olgau 190 or. biar daveena, ez deuscu inoc eracusten. Ezdogu iracurten Jesucristo olgau zanic. Ez da Ama Virginia olgau zanic bere. Ezda San Juan Bautista olgau zanic bere. Santubac ez cirian, dantzariac uste daveen moduban olgau. Ta inos olgau batzirian alan, ez Santu zirianian. Contuban jausi zirianeti aurrera, negar mingoch asco eguin eveen, alan olgau cirialaco. Madalena bat, Maria egiciaca bat, San Agustin bat, San Andres Corsino bat, San Abertano bat, ta beste asco dira onen testigubac. Bautismo Santubac ez guenduban aguindu olgueetia. Ezbada, mundubaren, araguijaren ta diabrubaren contra beti pelietia. Ezdeuscu Evangelijuac aguinduten, olgueetaco. Ezbada, gau, ta egun contuban egoteco, arerijuac artu ez gaizan. Gueratu bagaric, oracinoia eguiteco, tentacinoian[513] jausi ez gaitezan. 191 or. Pecatuco ocasinoeti, ta peligruti igues eguiteco, bertan galdu ez gaitezan. Gorputzari gurarijac ucatuteco... Penitencija eguiteco... Curutziari[514] jarraituteco... Au da aguinduba. Au da, biar dana. Ez olgueetia. Gentiac cetan, edo atan olgau biardau; edo, gentia cetan, edo atan olgau bagaric egongo ezda, penseetia, Erregue, Aguintari, edo Legueguin[515] batetzat ondo da. Cristinau bacocharentzat, ta arimia salveetaco, ez olgueetia, ta penitencija eguitia oba da[516].

Bigarren uts eguitia da: Gaztiac cetan, edo atan olgau biar daveela, ta, piestaac, erromedijac, biguiraac, ta saraubac on-

---

[513] *Tentacinoian:* baina -OE ere bai *(tentacinoe)* 56 orrian.

[514] *Curutziari:* haserako gorraz, bizkaieran ezaguna den bezala. Toponimian *Kurutziaga, Krutzemendi.*

[515] *Leguegin:* -GIN atzizkia, *baqueginac* 152, *eraguinguinac* 206 kasuetan bezala. Morfologiaren aldetik *legueguin* ongi dago (atzizki hau erro sustantibalei itsasi behar zaielako), bainan *eraguinguinac* ez, lexema hitz honetan aditza delarik.

[516] *Oba:* bestetan bezala, azken bokalean apofonia.

tzat, emotia. Oneen contuban: Gaztiac cetan, edo atan olgau *192 or.* biar davee; ta, olgau biar daveen ezquero, olgau leitequeez pecatu eguiten. Olgau biardaveen ezquero, ezda pecatu izango, nescaac, ta mutilac gau, ta egun naaste dantzan, nai daveen moduban ibiltia. Olgau biar daveen ezquero, ezda pecatu izango, leen esan dan desonestidade guztia, esatia, eguitia, entzutia, icustia, goguan erabiltia, ta nai izatia. Gaztiac olgau biar davee; ta, olgau biar daveen ezquero, ezda pecatu izango, pecatu eguiten olgueetia. Guc au esatia, nai-leuquee Dantzazaliac. Nai leuquee, gaztiac cetan, edo atan olgau biar daveela, ta, licencija emon daquijuen, piestaric piesta, erromedijaric erromedija, biguiraric biguira, sarauric sarau, ta dantzaric dantza nesca, ta mutil, guizon, ta andra naaste alemanijeen *193 or.* guisaan luxurijotsu ibilteco. Edo, verba baten esateco, nai leuquee, licencija emon daquijuen, Jaungoicuaren legue santuba austeco. Edo, esan daquijen: Pecatu eguitia ezdala pecatu. ¡Oh, madaricatubac, dino Spiritu[517] Santubac, gauza onari chaarra, ta chaarrari ona esaten deutseenac.

Entzun dot, ta ez bein bacarric, (menturaz guzurra) Compesore batzuc emoten deutseela licencija gentiari, icentau dirian olgueetara juateco, *ondo ibili zaite esanda.*Au eguiija bada. Ezin[518] aitu dot nic, celan dan *ondo ibilte au.* Bada, ondo ibiltia bada mundubaren, ta araguijaren erara; eurac eguiten davee, compesorec aguindu bagaric, chito ondo, ta aimbat onduen. Ta ez dauca inoc cetan buruba cansau, Dan- *194 or.* tza zaliai[519] piestaan... ondo ibilteco esaten. Ondo ibiltia bada, Jaungoicua opendidu[520] bagaric, esan dirian dantceetan, ta piesteetan. Oraindino guichiago aituten dot. Dinot bene benetan: Ezdodala aituten, celan dan ondo ibilte au. Leenago esango neuque: ondo ibilteco esanda, alaco ocasinoe desonestura juateco, licencija cristinaubai emoten deutsanac: edo, ezdaquijala, cer dirian olgueeta areec; edo, ezdaquijala

---

[517] *Spiritu:* inprenta-hutsa ez bada, *s* likida hori, agian, kultismo gisa utzi da.

[518] *Bada. Ezin:* bien tarteko puntu hori aski bitxia gertatzen da (nahiz horrelakoak arrotzak ez izan gure autorearengan); puntuak perpausen etendura suposatzen du erritmoaren aldetik.

[519] *Dantza zaliai:* beste batzutan, berriz, atzizkia itsasita *(dantzazailiac, ucazalliac).*

[520] *Opendidu:* f/p aldaketa ezpainkarietan eta -TU partizipioaren ozendura beranta edo erromanikoa —gaztelaniazko -DO-aren eraginaz—. Esan beharrik ez dago, bizkaieraren ozendura hauek arbuiatzekoak direla -TU orokorraren (eta zaharragoaren) alboan.

*Morala* derichon[521] dotriniaren asieraric: edo, (guichien sinistu biardana), dala, lagun dantzarijai pecatu eguitia, pecatu ezdala, esaten deutseena. Ezda bada, cetan esan: gaztiac cetan, edo atan olgau biar daveela, olgueeta pecatuzcuac oinian euquiteco.

## S. VIII.

### VIII. Oba da alcarregaz Plazaan, edo Sarauban, edo Biguiraan olgueetia, ezcutubeeran gauza chaarraguac eguitia baino *195 or.*

Azquenian dinue dantza zaliac: Oba dala, piestara plazara, edo Biguirara, edo saraura juanda, an guztien artian olgueetia, ezcutubeetan gauza chaarraguac eguitia baino. Oneec autor davee, piestaac, eta erromedijac, eta biguiraac, eta saraubac chaarrac diriana. Ezaututen davee, olgueeta areetan arimac osasun onic ez dauqueena. Baina bildur dira, pecatuzco olgueeta arei ichita, arimac gaixotubago eguin ez ditezan. Orre- *196 or.* gaiti dinue, oba dala, ara juanda, an ibiltia. Onei erantzuten jacue. I. Bata bere ez diriala onac. Bijac diriala chaarrac. Bata bere ez diriala eguin biar. Pecatu mortal andijaguari ichita, mortal chiquijagua eguin davelaco, ezda, inor salvauco. Zaldi bat oostutia, baino guizon bat illtia, pecatu andijagua da. ¿Ta oostu legui zaldija, pecatu chiquijagua dalaco? Basuan oostutia, baino Eleisaan oostutia, pecatu andijagua da. ¿Ta basuan lapurretan eguitia, ezda pecatu? Libriagaz pecatu eguitia, baino ezcondubagaz eguitia, chaarrago da. ¿Ta libriagaz eguitia, ondo da? ¿Guizonic ill ezarren, zaldija oostu davena; Eleisan ez arren, lapurretan eguin davena; ezcondubai baquian ichi arren, libriagaz pecatu eguin davena, erremedijeetan ezba- *197 or.* da, nora juango da? Beste aimbeste esaten da bada olgueeta galdu orreec gaiti, ta ezcutubeetaco gauza chaarraguac gaiti. (Badago eurac baino chaarragoric). Bitzubac[522] dira chaarrac. Ta bata bere eguin biar ez dira. II. Esaten jacue: engainauta dagozala. Ezdira ezcutubeetaco gauza chaarraguac erremedijeetan, plazaco dantza naastaura juanagaz, ez biguiria

521 *Derichon: eritzi* aditzaren formula trinkoa bustiduraz, *lichaquio, bacocha* gisa.

522 *Bitzubac:* -TZU oparotasunezko atzizkia *batzu* hitzean bezala, mugatu pluralaz.

eguinagaz, ez saraubagaz. Dantzara jaunac dacarz gueijeenian ezcutubeetaco, ta aguirico gauza chaar, ta chaarrago guztiac. Naasteco dantzia da pecatu guztien erne lecuba, ta toquija. An
*198 or.* icasten dira oquerrerija[523] guztiac. An batuten dira adisquide chaarrac. An iraastenda luxurijaren gaixua. An ezaututen dira vijotzeco carinuac, ta maitequerijaac. An eguiten dira isil mandatubac, ta batutenda araguijaren gosia. An icasten dira, inor engaineetaco arte asmotsubac. An topeetan dira guztiraco lagun jaquitunac. Ta, an eguin ezindana, eguiten da guero ezcutubeetan.

Au ezaututeco, ez da jaquiturija andiric biar. Errijeetaco gentiari pusca bat veguiratutia, da asco. Piestaco, ta naasteco dantzati alde eguiten daveen cristinaubac. Bai. Ocasinoe areetan sartu ez oidirianac, cer esan guichi emoten davee errijan. Sentimentu guichi gurasuai. Ta cer eguin guichi Justicijari. Beguiratu bequijue, orraco plazaco dantceetan, biguireetan, ta
*199 or.* saraubeetan oinic iminten ezdaveen cristinanbai bai zaarrai, ta bai gaztiai, bai guizonezcuai, ta bai emacumiai. Ta icusico da, edocein lagun artetan eracusten daveela eureen egoneriagaz, ibiliteriagaz[524], verbeetiagaz, ta geriagaz eldutasuna, atsetasuna[525], juicijua, lotsa ona, ta cristinau usaina. Ez zaarrac bacarric au, ezbada baita mutil gaztiac, ta nescatilla gaztiac, edadiaren loracuac, ta munduraco ezer galduta, ez dauqueenac bere. Edoceinec Errijeetan erraparau daiquien, eguiija da au.

Baita eguiija da, dantza naastauti urteten daveela edo dantza zaliac diriala gueijenian ezcutubeetaco, ta aguirico oquerrijaguinac, ta gaisquinac. Ezpabere, betoz guztioc esaminara.
*200 or.* Esan beit. ¿Nortzuc dira, eureen ibili-eraan[526], ta egon-eran jaguitasuna[527], arrotasuna, buruerichija, dotorerija[528], ta besteen desprecijua eracusten daueenac? Piesta zaliac. ¿Nortzuc dira, eureen verbeeta, ta meniuetan azalquerija, verdequerija, errazoe eltzacaac[529], ez icen desonestubac, ta lotsarizco maite-

---

[523] *Oquerrerija:* -ERIA atzizkia, ohizko k epentesirik gabe; gehienetan, negatibitatea adieraziz, epentesia darabil (*berdeQUErija* 200, *azalQUErija* 200).

[524] *Ibiliteriagaz:* konposakerazko arauen aurka, hemen ere, *i* partizipioa erori gabe.

[525] *Atsetasuna: ats* lexemari erantsita -TASUN atzizkia.

[526] *Ibili-eraan:* hemen ere gorago esana, alegia, *i* primitiboa kendu behar litzatekeela, eta atzizkia lexemari zuzenki itsasi.

[527] *Jaguitasuna: jagi* aditzetik *jactancia* (elevación) adierazteko. Azkue-k ez du jaso hitz hau bere hiztegian.

[528] *Dotorerija:* dotorezia, ohizko *ia* < *ija* prozeduraz.

[529] *Eltzacaac:* hitz honek apofonia azken bokalean; bikoiztura bokalikoa pluralearen marka.

querijaac edonun esan, ta eguiten ditubeenac? Dantza zaliac. ¿Nortzuc dira, eureen jantzijan vanidadia, modia, indecencija, ta luxurijaren convitgarrija daravileenac; ta auzuai, cer esan, ta cer pensau, emoten deutseenac? Piestaric piesta, ta sarauric sarau daviltzanac. ¿Nortzuc dira, eureen lagun arteco tratu, ta artu emon popuertzacuetan[530] guzurra, embusterija, esquer chaarra, deungaro esatia, inoren vitzitzaac jaquitia, areec conteetia, sospecha, ta juzcu gaistuac zabaldutia, ta gente guztia aotan erabiltia, jaijotzaco ecandutzat, ta cereguintzat artuta, 201 or. dauqueenac? Biguiraric biguira, erromedijaric erromedija, ta dantzaric dantza ibili dirianac, ta davilzanac. ¿Nortzuc dira, eureen echeetan dotrinaric ezdaquijeenac; senar emazteen artian baque chaarra, alcar jotiac, alcarreganic aparteetiac, celuac, alcar icusi ezinac, ta escandaluba zabalduten daveenac? ¿Nortzuc dira, gaisqui azitaco umiac, lotsa galducuac; gurasuai carinoric ez deutseenac; deungaro erantzuten deutseenac; nai daveenian, baino obeiduten ezdeutseenac; beti jantzi barrijaren esque dagozanac; dendaraco, ta beste tratu chaarretaraco, ta impameetaraco, patricaraan[531], edo muxilleetan[532] laboria[533], edo aldaguijeena echeti oostuta[534], alcaboetiai[535] 202 or. emoten deutseenac; echeraco, ta gurasuentzaco gozo gaistua dauqueenac, ta plazeetara, ta campora aguertuteco uzija ixiua dauqueenac? Piesteetan erromedijeetan, saraubeetan, ta biguireetan ezcontzaac asi zitubeen gurasuac, ta umiac. ¿Nortzuc dira, Errijetan cer esana, ta cer eguina emoten daveenac? ¿Adisquide galdubac dauqueezanac? ¿Sospechaco echeetan sartu urtena dauqueenac? Murmurau eraguiten daveen lagunaquin, ezcutubeetan, sasi arteetan, edo solo baztarreetan daviltzanac? ¿Justicia aurrera, ta Cura Jauneen aurrera alcar eruaten daviltzanac? Nortzuc dira, seinaren Aitaric topau ezinda daviltzanac? ¿Esan beeban ezbeeban, edo emon beeban ezbeebango ezcontzaco verba bat gaiti auzitan daviltzanac? ¿Justicia aurreti derrigorrian leguez, ezconduten dirianac? 203 or. ¿Nortzuc dira, jocalarijac, eche galtzailiac, castalarijac, desapi-

---

530 *Popuertzacuetan:* derriorrezkoetan, gaztelaniako *por fuerza*-tik.

531 *Patricaraan:* poltsikoan, gaztelaniako *faltriquera*-tik.

532 *Muxileetan:* mochila. Hitz honek ere poltsiko berezia adierazten zuen, alegia, *patrika* (faltriquera) bera. Ikus *Azkue* Dicc. II, 54 or.

533 *Laboria:* cereal.

534 *Oostuta:* hemen bokale bikoiztura etimologikoa da, ezen-eta iparraldeko *ohoin* (lapur) hitzaren errokoa baita.

535 *Alcaboetiai: alcahuete* hitzaren egokiera fonetikoa diptongoa *b* batez hautsiz eta hiatoa sortuz.

joguinac[536], lapurrac, ta euren echeen, ta Errijeen pestiac? Piestara, biguirara, erromedijara, saraura, ta tambolin dantzara, al izan ezquero, inos paltau ezdaveenac.

¿Nortzuc dira eureen conciencija nacaicuac?[537] ¿Juangoicuagaz guichien gomutatuten[538] dirianac? ¿Sacramentu santubac errecibidutera nequezeen elduten dirianac? ¿Jaungoicuaren verbia guichien entzuten daveenac? ¿Compesinoiari, Sermoiari, Eleisa Santubaren oitura onai, eureen gustoco ezdirian Cura Jaunai, Sacerdotiai, ta justicijari burlaric gueijeen
204 or. eguiten deutseenac? ¿Nortzuc dira, gueure cristandadeco gauza, ta eguiija Santubac barre eguiteco, ta eraguiteco, baino aotan artuten ezditubeenac? ¿Eurac leguez, piestaric piesta, ta dantzaric dantza ezdavilen guztiari, beti guerria armauta dauqueenac? ¿Nai Sacerdotia dala, nai Caballerua dala, nai Compesoria dala, nai ezconduba dala, nai libria dala, eureen olgueeta nasaijeen, ta pecatuzcuen contra ezer esan, edo eracusten davenari, aldaguijuezan guzur, ta embusterija mingarrijac pena bagaric ezarten deutseezanac? ¿Nortzuc dira, Eleisaan nequezeen sartu, ta andi lasterreen urteten daveenac? ¿Auzo bategaz, edo bestegaz egarrija, gorrotua, embidija, ta icusi ezina, edo asarria nequez paltau oijacuenac? ¿Nortzuc
205 or. dira, an beecuen icen madaricatuba sarrijeen auan darabileenac? ¿Nortzuc dira... ¿Baina nortzuc izango dira oneec guztioc? Orraco piesta artian, sarau artian, biguira artian, erromedija artian, ta dantza artian sortu, azi, ta vitzi dirian gurasuac, ta umiac. Orreec dira gueijeenoc mundu guztiaren vistaan[539]. Orreec dira Errijeetaco pestiac. Orreec dira, Jangoicuaren legueric gueijeena osticopian daravileenac. Orreec dira, pecatu eguitia, pecatutzat ezdauqueenac. Orrec dira, nos pacatu[540] eguiten daveen, ta nos ezdaveen, ezdaquijeenac. Orrec dira, Cristinaubeen sinistutia, ta Gentileen eguitadiac dauqueezanac. Orreec dira, umetati echeco, ta auzoco sarau, ta biguireetan icusi, ta icasi zitubeen piquerdija, ta oquerrerija desonestubac;
206 or. pusca bat azichubago eguinda, plazaco, ta erromedijaco piesteetan barriro, entzun, ta esan, ta icusi ditubeenac, guero ezcu-

[536] *Desapijoguinac:* (desafiantes) *io* < *-ijo* prozedura fonetikoa *vijotzian, jaijotzaco, bequijo* hitzetan gisa.

[537] *Nacaicuac:* inprenta-hutsa, autoreak berak 208 orrian adierazten duenez. *Nasaicuac* behar du.

[538] *Gomutatuten:* oroitzen, agian, lat. *computare*-tik. Ikus *Luis Mitxelena*, «El elemento latino-románico en la lengua vasca», FLV 6, 208 ond.

[539] *Vistaan:* singularreko inexibo mugatuan.

[540] *Pacatu:* inprenta-hutsa, *pecatu* behar duelarik.

tubeetan eguiten ditubeenac. Orreec dira, gurasuen exemplu chaarrac malecija, ta piestaraco gurarija emon eutseenac. Piestaraco gurarijac lapurretaac, maina gaistuac, alcaboeterijaac, ta carino loijac, vijotzian imini eutseezanac. Piestaan, ta dantzan naaste ibilijac. Jaungoicua aaztueraguin eutseenac, ta diabrubaren crijadu, ta crijada eguin zitubanac. Orreec dira, Piestazaliac dira aguirico, ta ezcutuco pecatu guinac, ta pecatu eraguinguinac. Cerbait gaiti, gentilac eurac bere, Catonec, ta beste ascoc quendu gura izan zitubeen Erromati naasteco dantzaac. Errijeetan, ta Echeetan gorde zedin naturaleciaren modu, ta guiza usain pusca bat.

Engainatuta vitzi dira bada; edo engainau eguin gura gaitubee, icentau dirian olgueeta nasaijaquin, ezcutubeetaco gauza chaarrac erremedijeetan diriala, esaten deutscubeenian. Ezdira erremedijeetan. Dantziaren, ta piestiaren umiac dira ezcutubeetaco pecatubac. Baina guichituten balira bere, pecatu da, alaco dantceetan ibiltia, leen esandan leguez. Ta ara emen zortzigarren urteeriaren errespuestia. *207 or.*

AMAIJA

## UTS - EGUITEEN EZAUBERIA *208 or.*

Fol. 12 lin. 17. condenan. *léase condenau*. Fol. 20. lin. 1. traco. *léase: izaco*. Fol. 36. lin. 15. cinaan. *léase: cinuan*. Fol. 61. lin. 16. Tambilina. *léase: Tambolina*. Fol. 140. lin. 10 dagqueez. *léase: dauqueez*. Fol. 169. lin. 9. Auguin. *léase: Au eguin*. Fol. 203. lin. 10 nacaicuac. *léase:* nasaicuac.

**LIBURU** HAU 1986.eko ABENDUAREN 7an BURUTURIK, DURANGOKO XXI. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKAN AURKEZTU DA.

## EUSKARAREN LEKUKOAK BILDUMAN ARGITARATURIKO ZERRENDA

## LISTA DE LIBROS PUBLICADOS EN LA SECCION «EUSKARAREN LEKUKOAK»

1. *Doctrina Christioarén Cathechima,* Joakin Lizarraga, Elkanokoa.
2. *Linguae vasconum primitiae,* Bernard Etxepare.
3. *Manual devotionezcoa,* Joannes Etxeberri, Ziburukoa.
4. *Mendibururen idazlan argitaragabeak* (bi liburu), Sebastián Mendiburu.
5. *Kredo edo sinhesten dut esplikatua,* Etienne Lapeyre.
6. *Lehen liburia edo filosofo huskaldunaren ekheia (1785),* Jusef Egiategi.
7. *Catechima laburra eta Jesus-Christ goure ginco jaunaren eçagutcia, salbatu içateco,* Athanase Belapeyre.
8. *Eguia catolicac salvamendu eternalaren eguiteco necesario direnac,* Bernard Gasteluçar.
9. *Koplak,* Joakin Lizarraga, Elkanokoa.
10. *Ongui iltzen laguntzecó itzgaiac,* Joakin Lizarraga, Elkanokoa.
11. *Bayonaco diocesaco bi-garren catichima,* Lavieuxville-Harosteguy



LUIS MARIA MUJIKA URDANGARIN

Lizartza-n (Gipuzkoa) 1939 urtean jaio zen. Eliz-ikasketak egin ondoren, filosofia eta filologiazko ikasketak burutu zituen 1982 urtean euskal filologian doktoradutza lortzen zuelarik bere *Latina eta erromanikoren eragina euskaran* tesia-rekin. Liburua Ed. Sendoa-n 1982 urtean argitaratu zuen. Mujika-ren lana bi ildotara joan da, bat sorkuntza literario edo poetikora, eta bestea hizkuntz-azterketara. Poetikaren ildoan zortzi libururen egilea, nabarmenenak *Bide-giroak* (Ed. Sendo, 1963), *Hitzak ebakitzean* (Espainia-ko kritika-saria, Edit. Haranburu), *Zortziko hautsiak* (Ed. Vascas, 1976) eta *Aire neurtuak* (Eusko Jaurlaritza-ren *Lizardi* saria, Edit. Haranburu, 1984) direlarik. Azterketa linguistikoan Mujikak parte hartu du *Fontes Linguae Vasconum, RIEV, Anuario Seminario J. Urquijo, Euskera, Hizkuntza eta Literatura* aldizkarietan, bereziki. Bestalde, bai hizkuntzalaritzan, bai literatur kritikagintzan obra hauek ditu argitatatuak: *Diccionario General y Técnico* (2 ale) Ed. Vascas, 1976, *Origen y desarrollo de la sufijación euskérika,* Ed. Vascas, 1978, *La prefijación, clave del euskara técnico y urbano,* Ed. Vascas, 1979, *Hitz konposatu eta eratorrien morfo-fonetika,* Ed. Vascas, 1980, *Historia de la literatura euskérica,* Edit. Haranburu, 1979, *Lizardi-ren lirika-bideak,* Edit. Haranburu, 1983 (2 ale), *Mirande-ren poesigintza,* Edit Haranburu, 1984 (2 ale), eta *Euskal lirika tradizionala,* Edit. Haranburu, 1985 (4 ale).